

Université Bordeaux Montaigne  
UFR Langues et civilisations

MEMOIRE DE MASTER ETUDES BASQUES :  
DOUBLE DIPLÔME

# **NOKAREN HIGATZEA ORTZAIZEN**

L'érosion de l'allocutif féminin "noka"  
à Ossès

Présenté et soutenu publiquement le 18 juin 2024 par

Ana JAUNARENA

Sous la codirection de

Irantzu EPELDE et Beñat MUGURUZA

Membres du jury

Argia OLÇOMENDY, Enseignant-chercheur, Université Bordeaux Montaigne

Elixabete PEREZ GAZTELU, Professeure, Université de Deusto

Beñat MUGURUZA, Enseignant-chercheur, Université du Pays Basque UPV/EHU

Irantzu EPELDE, Ingénieure Recherche, CNRS-IKER UMR 5478

*Amatxiri,*

*Ene haur maitea, eztinat faltatu nahi hiri ene berrijak markatu gabe, zenak erraten baitun eztonala aspaldijon gure berririk izatu ; hanbat gastoago guretzat. Nik egin dauzkinat beti untzi guzietan letrak, eta hik ez izatu. Eztun, beraz, ene faltarik. Egorri dinat bat Lantzekaneturekin, bertzea hire kusina defuntubarekin, zenak etorri baitzen Miselekin Baionarat, gasoa, eta egorri naunan harekin berainkin mantalina Angeletakoa ungi fina, bere erribana eta zirikubarekin, zenak hire matantak Xurunekoak kutxan sartu omen baitzuben ; eta bertze bi letra Patineneko Ziburuko premubarekin, zenak egun Angeletarran baita, gasoa. Ene haur maitea, badin hil hunen hogoi eta seiean etxetit partitu hintzela egundano hirur urte. Egundano eztinat izatu oren laurden baten errepausurik. Bazakinat guzijak ene faltat direla, zenak ene bekatubak handijak baitire, banan esparantza dinat Jenkoak miserikordia izanen dubela nitaz, zergatit ene uste guzijan ungi hartzen tinat, eta aditzen tugunaren arabera eztela posible salbatzea hemen, non eztugun bekatuba purgatzan. Beraz, esparantzan nijagon Jenkoak eztauzkidala bi pena emanen [...]*

—Mari Darburu, 1757/03/13 (*Le Dauphin* itsasontziko 12. gutuna).

## **Eskerrak**

Lan honen egitea ezinezkoa izanen zen hainbat pertsonaren parte hartze eta laguntzarik gabe. Badut dudarik gabe nor esker.

Lehenik eta behin, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet ene zuzendari Irantzu eta Beñati, hastetik buru ukan dudan durduza oro argitu baitute, beti laguntzeko prest. Zuen begirada xorrotx eta jakintsuari esker, anitz ikasi dut.

Nola ez, mila esker negu huntan aste guziz atea ideki deztaten ortzaiztar guzier. Bixkotx, dute, tisana edota garagarnoen inguruan eskaini deztazuen memento goxo eta baliosak lan huntan islatzeaz gain, bihotzean atxikiko ditut beti. Esker bereziak, alde batetik, zuri, Amatxi, Gaztenaneko gerizapean hutsik gabeko goxotasuna eta laguntza eskainirik; eta bestetik, zuri, Maddi, zure betiko kartsutasunarekin Ortzaizeko zoko guziak inarrosirik, ene laguntzeko. Jakin ezazu, irakurle, lan hori ez nezakeela egin Iroineko ahizpak gabe.

Azkenik, milesker etxeko eta lagunei: milesker bereziki Lucari, eguneroko sustenguagatik, Ekhirri eta Thomasi forma lanetan lagundurik, eta oroz gain, milesker zueri Aita eta Ama, ttipitik hunat, ikasketa ibilbide osoan izan zizten baldintzarik gabeko sustenguagatik.

# LABURPENA

Ortzaizeko nokaren erabilera eta zehazkiago haren higitzea aztertzea du xede nagusi Master Amaierako Lan honek, alor-lanean oinarriturik. Hain xuxen, 18 lekuko ortzaiztarrek osatu lagin bat abiapuntu, bi ikuspegitarik hurbiltzen zaio nokaren erabilerari. Alde batetik, morfologiaren ikuspegitik, bi adin tartetako hamar lekukoren nokako adizki alokutiboak bildu, eta aldakortasuna ardatz, higitzearen aztarnak liratekeen aldaerak aztergai dira. Bestetik, soziolinguistikaren ikuspegitik, informatzaile-sorta osoaren nokarekiko praktika eta ideologiaren lekukotasunen bilketa da helburu, halaber, horien adinaren araberrako aldakortasuna deskribatuz.

GAKO-HITZAK: noka; hizkuntza-aldakortasuna; hizkuntza-tratamendua; aditzaren morfologia; hizkuntza-transmisioa; hitanoa; generoa.

## RÉSUMÉ

Fondé sur une enquête de terrain, ce mémoire de recherche a pour objectif principal d'analyser l'usage et plus précisément l'érosion du tutoiement allocutif féminin *noka* à Ossès, en Basse Navarre. À partir d'une base de données constituée auprès de 18 ortzaiztar<sup>1</sup>, l'analyse de l'usage du *noka* s'articule autour de deux axes d'étude. D'une part, d'un point de vue morphologique, ce travail de recherche a pour objectif de collecter parmi dix locuteurs les formes verbales du *noka*, et d'en analyser la variation, et spécifiquement les variantes qui témoigneraient de son érosion. D'autre part, d'un point de vue sociolinguistique, afin de compléter l'étude, il s'agit de rendre compte des témoignages de tout le groupe d'informateurs concernant leurs pratiques et idéologies liées au *noka*; aussi, d'en analyser la variation en fonction de l'âge.

MOTS-CLÉS: variation linguistique ; système d'adresse ; morphologie verbale ; transmission de la langue ; genre.

---

<sup>1</sup> Habitant d'Ossès.

## ABSTRACT

This fieldwork-based study seeks to analyse the use and more specially the decline of the female allocutive form of address called *noka* in Ortzaize, in Lower Navarre. Based on a corpus made up of interviews with 18 “ortzaiztar”<sup>2</sup>, the analysis of the use of *noka* hinges on two lines of research. On the one hand, from a morphological perspective, this work aims to collect from ten speakers the verbal allocutive forms of *noka* and to analyse their variation, and specially the variants that would reflect its erosion. On the other hand, from a sociolinguistical point of view, in order to complete the study, the investigation plans on describing the accounts of practices and ideologies in relation to *noka* of the whole group of participants, and analysing their variation according to age.

KEY-WORDS : linguistic variation; system of address; verb morphology; language transmission; gender.

---

<sup>2</sup> Inhabitants of Ortzaize

# AURKIBIDEA

1. ATARIKOA .....	9
2. HURBILPEN TEORIKOA .....	13
2.1. Hitanoa soziolinguistikatik: zer, non, noiz, norekin? .....	13
2.1.1. Tratamendu informaletik markaturat .....	13
2.1.2. Aldagai soziolinguistikoak .....	15
2.1.3. Hitanoaren gainbehera.....	17
2.2. Hitanoa hizkuntzalaritzatik: nolakoa?.....	19
2.2.1. Alokutibotasuna .....	20
2.2.2. Hitanoa morfologiatik .....	24
2.2.3. Hitanoaren morfologiaren aldakortasun dialektala .....	26
2.2. Nokaren hingatzea .....	27
2.3.1. Hitanoa eta generoa: berdintasuna urrun (hingatzea erabileran).....	27
2.3.2. Hingatzea formetan .....	30
2.3.3. Noka balio sozioafektiboen menpe .....	32
3. PROTOKOLO METODOLOGIKOA ETA ESPERIMENTALA.....	39
3.1. HELBURUAK.....	39
3.2. METODOLOGIA.....	40
3.2.1. Berriemaileak .....	40
3.2.2. Datu-bilketa.....	46
4. DATUEN ANALISIA.....	54
4.1. DATU LINGUISTIKOAK.....	54
4.1.1. Corpusa: aurkezpena eta deskribapena .....	54
4.1.2. Nokaren hingatzea formetan .....	81
4.2. DATU SOZIOLINGUISTIKOAK .....	94
4.2.1. Emaitzak.....	94
4.2.2. Eztabaida .....	115
5. ONDORIOAK.....	121
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	126
7. ERANSKINAK.....	133
7.1. Adizki-paradigmak .....	133
7.2. Morfologiari dagokion galdetegia .....	144

7.3.	Galdetegi glotobiografikoak .....	159
7.4.	Elkarrizketa glotobiografiko baten transkribapen bat .....	165



# 1. ATARIKOA


Ez dateke gutarik nehor euskara — hizkuntza oro bezala— aldatzen dela ez dakienik. Aldaera linguistikoak jin, joan... olde historiko eta soziokulturalen arabera etengabeko mugimenduan da hizkuntza, eta are gehiago, naski, egoera diglosikoan. Master Amaierako Lan honetan, higitzen ari den ezaugarri hau dugu jomugan: *noka*. *Hi* izenordaina eta generoaren arabera bereizketa oinarri dituen *hika* tratamendu informalaren parte da; emazteei *noka* ari zaie, gizonei, aldiz, *toka*. Izan ere, ezagun da azken hamarkada hauetan *hika* edo hitanoaren erabilera tipituz doala, zukaren alde. Gainera, hitanoan berean gehien bizirauten duena *toka* da; hau da, hitanotik gelditzen den gutia gizonei zuzendu eleetaraz zokoratzen ari da. Lan honek, beraz, euskarazko tratamenduen uniformizazioaren ondorioak gehien pairatzen dituen eta galzorian den *nokari* arreta eman nahi dio.

Hain xuxen, lagin bat abiapuntu, MAL honekin “*nokaren higitzea*” bi ikuspegitarik lantzea dugu xede, adina ardatz, hala hizkuntzaren barnetik nola kanpotik; zehazkiago, ikuspegi morfologikotik, hau da, bi adin tartetako lekukoen *nokako* adizkien aldakortasuna neurtuz, eta ikuspegi soziolinguistikotik, hots, lekukoek *nokari* buruz dituzten praktikak eta diskurtsoak aztertuz. Alor-lanean oinarriturik, Ortzaize herriko *noka* dugu fokuan.

## **Ortzaize ikerketaren kokagune**

Ortzaize, antzina *Urzaiz*, Baxenabarreko atariko herria da, Baigura eta Larla mendien hegalean artean babestua eta Errobi ibaiak eta Laka errekek zeharkatua. Ortzaizeko ibar eponimoan kokatua da, hori gainerat Arroza eta Bidarra herriez osaturik. Lapurdiko hiriburua 41 km-tan du, Baxenabarrekoa, aldiz, 14 km-tan.

Ikus bedi mapan haren kokapena:



2020an, 837 biztanle zituen Orzaizek, hots, herri aski ttipia dugu. Bestalde, herriko ingurumena baserritarra da. Hala ere, historikoki herri laboraria izanik ere, gaur egun laborantza herriko aktibitate ekonomiko guttiengoa izatera heldu da. Konparazione, 1954an, ortzaiztarren %80 laboraria zen; 1988an, aldiz, %27 (2002 : 303). Gaur egun, behiala herriko aktibitate ekonomiko nagusi zen laborantza aktibitatearen guttiengoa izatera heldu da<sup>3</sup>, handituz doazen influentzia urbano eta turistikoak tarteko. Hala ere, erran daiteke, adinetakoen belaunaldia, batez ere, oraino laborantza mundukoa dela nagusiki.

### **Ortzaizeko mintzoaren sailkapen dialektologikoaz bi hitz**

Zuzenki ala zeharka egin aitzineko ikerketa deskriptiboei esker, zenbait ezagutza ditugu Ortzaizeko mintzoaz. Argi denez, Bonaparte izan zen eskualde horretako euskara aipatu zuen lehen ikerlea, XIX. mendean, hari zor diogun euskalkien lehen sailkapenean, hain xuxen. “Mendebaldeko behe-nafarra” eta “ekialdeko behe-nafarra” bereizi zituen, eta interesatzen zaigun eskualdeko hizkera lehen euskalkian kokatu, eta “Baigorriko azpieuskalkia”-n izendatu

---

<sup>3</sup> <https://Orzaize.eus/demografia/>

zuen. Aise berantago, Bonaparteren sailkapen berari jarraiki, 70. hamarkadan euskalki guzietako aditz laguntzailearen morfologia aztertzen ibiliz, mendebaldeko behe-nafarrerako Baigorriko azpieuskalkiko indikatiboko flexioak biltzeko enkargatu zuen Irizarrek Artola (1999). Bidarraiko, Arrosako, Baigorriko, Bankako, Urepeleko eta Aldudeko adizkiekin batean, Ortzaiakoak ere baditugu, beraz, eskura. Bestalde, Zuazo Euskal Herriko hainbat xokotan tokiko mintzoei buruz monografiak egiten ibilirik, Ortzaiako eta Baigorriko ibarretako euskarari buruzkoa eskaini digu duela guti (2021); lan gehiengoa lexikoari dedikatu zuen, gramatikaren azterketa sendo bat baztertu gabe. Haatik, Bonapartek hiru euskalki bereizten zituen lekuan,– lapurtera, mendebaldeko behe nafarrera eta ekialdekoa– Zuazok (1998) bakarra, nafar-lapurtera izendatzen du, eta Ortzaiako mintzoa mendebaldeko azpieuskalkiko Baigorriko azpimultzoan sailkatzen. Caminok, bere aldetik, Euskal Herriko ekialdeko ezaugarritzat hartu ohi diren berezitasun ugari Baxenabarren gaindi ere aski hedaturik direla frogatu nahi izan zuen. Lapurdiko mintzotik bereizten den “behe nafarrera” aipatu zuen, agerraraziz baxenabartarren mintzoa “zakarragoa” dela, “idorragoa, lasterra, laburduretako joera duela, idazkeratik urruntzen” dela (2004 : 447).

Herriko euskararen erabilerari datzikola, Irizarren arabera (1999 : 133), 1970ean, 835 euskal hiztun zituen Ortzaiak, hau da, haren datuen arabera, biztanleria osoak euskaraz bazekien. Alabaina, argi eta garbi da geroztik euskarak gainbehera drastiko bat bizi duela herrian nahiz Iparraldean. Gaur egun, Ortzaiaren zehazki zenbat jende euskaraz ari den ezin erran, ez baita errolda soziolinguistiko berezirik eginik. Baina eremu handiagoa aztertu duen azken Inkesta Soziolinguistikoak (2023) gutienez ideia bat eman liezaguke: Baxenabarreko eta Xiberoko %47,5ak baizik ez du hizkuntza gaitasuna euskaraz.

## **Genesisia**

Ikergaian murgildu aitzin, bi solas eman ditzagun MAL honen gaiaren hautaketa pertsonalari buruz. Izan ere, hizkuntzalaritzako ikasle gisa hitanoarendako dudak interes linguistikoaz gain, nokarekiko eta Ortzaiako mintzoarekiko dudak atxikimendu emozionala ere izan da iturburu. Alde batetik, ttipitik kuriositatea eta halako liluramendu bat piztu izan didate Amate eta bere ahizparen arteko solasek. Mintzatua ez zitzaidan eta nihaurk baliatzen ez nekien hizkera berezi eta aberats horrek jakin-mina pizten zidan. Bi ahizpen arteko harreman hurbil eta bereziaren zigilu neukan mintzo hori. Funtsean, miresmen horri naski dolu

sentimendu bat ere nahasten zitzaion, erabilpen zirkulu hetsi hartarik kanpo bainintzen eta haren galeraz halabeharrez jakinean, ahalgabe. Gainera, begi bistan nuen tokaren biziraupenaren eta nokaren higatzearen arteko kontraste hori; orduan, fenomeno hori ulertzeko gutizia banuen, hala akademikoa nola pertsonala.

Bestetik, ikerketa Ortzaize herrian kokatzea arras naturala izan da, nokarekin nuen esperientzia hangoa bainuen. Orduan, praktikotasunak motibaturik, hango hiztunekin aritzea hautu berezkoa izan da. Halaber, euskal ikasketetan zehar egin beharreko lan zenbait naturalki Ortzaizeko hizkera aztertzeari eman izan nituen aitzin ere; gogoan dut batez ere lizentziako bigarren urtean Dialektologia ikasgaiari lauhileko hondarrean egin behar genuen hizkera baten deskribapena, zeinetan betiko atxikimenduarekin Amatxi grabatu bainuen haren mintzoaren aztertzeke, edota fonetika/fonologia ikasgaiko lan bat, Ortzaizeko bi hiztunen hasperenaren ahoskatzearen aldakortasuna aztertu behar izan baitut. Hots, Ortzaizeko mintzoa lurralde ezaguna eta atsegina nuen. Hala nola beraz, arrangura pertsonal eta akademikoek motibaturik, Ortzaizeko noka aztertzea erabaki nuen.

Horiek hola, ondoko orrialdeetan, lehenik gaiari hurbilpen teoriko bat plazaratuko dugu hikari eta zehazkiago nokari buruz aitzin egin diren ikerketen berri emateko, hautatu dugun ikuspegi bikoitzari leial, erran nahi baita, bai ikuspegi linguistiko hertsitik, bai soziolinguistikotik. Ondotik, ikerketa honen helburuak xeheago azalduko ditugu eta segitu protokolo metodologikoa aurkeztuko dugu, hala nola; berriemaileen hautaketa, horien aurkezpena, datu-bilketaren metodologia, alor-lanaren prozesua, baita bidean topatu zailtasunak ere. Horretarik landa, bi partetan agertuko da datuen analisisa; alde batetik, morfologiari eskaini atal batean, desagertu aitzin bildu nokako formak presentatu eta horien baitako higatzea aztertuko dugu, aldakortasuna ardatz, eta bestetik, atal soziolinguistikoan, azterketa kualitatiboko emaitzak aurkeztu eta hurbilpen teorikoarekin ze lotura ukan lezaketen eztabaidatuko dugu. Azkenik, landu guzia laburbildu eta horretarik atera litezkeen zenbait ondorio plazaratzen ahaleginduko gara.

## 2. HURBILPEN TEORIKOA

Onil gisa antolaturik, atal teorikoa hiru zatitan izanen da banatua. Nokaz ezin baitaiteke mintza parte den hitanoaz aritu gabe, lehen bi azpiatalak hitanoaren aurkezpenari eskainiko dizkiogu orain arte eginiko lanen argitan: lehena ikuspegi soziolinguistikotik, eta bigarrena hizkuntzalaritzaren ikuspegitik. Azkenik, begirada zorrotzu eta nokaren higatzean emanen dugu fokua, aitzin aipatu bi ikuspegietariko ekarpenak hizpide.

### 2.1. Hitanoa soziolinguistikatik: zer, non, noiz, norekin?

Lehenik eta behin, koadro teorikoari soziolinguistikatik lotzeko, hitanoa inguruko hizkuntzetako tratamendu sistema bitarrekin parekatuko dugu formaltasunaren ardatzean zein kokapen duen ulertzeko; ondotik, haren erabilera baldintzatzen duten aldagai soziolinguistikoak ukanen ditugu aipagai, azkenik, pairatzen duen gainbeherari arreta ezartzeko.

#### 2.1.1. *Tratamendu informaletik markaturat*

Beste hizkuntza anitzek bezala, euskarak solaskideari zuzentzeko molde bat baino gehiago ditu. Anitz hizkuntzak formaltasun maila askotarikoak dituzte hizketa-lagunari zuzentzeko pertsona-izenordain ezberdinen erabilpenaren bidez adieraziak. Orduan, tratamendu mota ezberdinez ari gara. Alberdiren arabera (2018 : 318), tratamendu moten kontzeptua portaera sozialari eta kortesia linguistikoari lotua da, aditz eta izenordain formen konbinaketa linguistiko jakin baten bidez hizketa-lagunarekiko nola edo halako distantzia soziala edo elkartasun pertsonala adierazten duena. Hain xuxen, hizkuntza-tratamenduen erabilera harreman interpersonalen eta ondoko makroaldagaien araberakoa da: *boterea* eta *elkartasuna* (Brown & Gilman, 1960). Izan ere, hizkuntzalari amerikar hauen arabera, bi pertsonen artean botere asimétriko bat baldin bada harremanean, hauek *boterearen semantika* erabiliko dute mintzatzerakoan. Printzipio hori ez-elkarrekikoa da, hau da, beherean dena gainekoari kortesiazko edo begirunezko V formaz mintzatuko zaio eta gainekoa azpikoari “lagunarteko” T-z. Harreman simétrikoak dituzten pertsonen kasuan, *elkartasunaren semantika* genuke, non harremanen simetria tratamendu arauak ere segitzen duten. Hor, T liteke hizketa moldea. Horrekin bat egiten dute inguruan ditugun hizkuntza erromantzeetan, *tutoiement* eta

*vouvoiement* oposizioan osaturiko *tu* eta *vous* (frantsesa), *tú* eta *usted* (gaztelera), *tu* eta *voi* (italiera), (Alberdi, 1996 : 26), *tu* eta *vostè/vós* (katalana) eta *tu* eta *vos* (okzitaniera) bikoteek.

Euskararen kasurat jinez, zehatz dezagun euskarak historikoki lau tratamendu mota ukan dituela (Alberdi 2018): hitanoa (euskararen eremu osoan), zuka/xuka alokutiboa (ekialdeko parte batean), zuka ez-alokutiboa eta berorika (Hegoaldean). Bizkitartean, azken aldian, tratamendu sistemak sinplifikatzeko joera bat gertatu dateke, non hala Iparraldeko nola Hegoaldeko mintzairek gehienez bi edo hiru mailatako sistemak baitituzte. Bada, berorika Hegoaldean adin handikoez baizik ez dute baliatzen<sup>4</sup> eta ekialdeko nafar-lapurteran zu ez-alokutiboak zu alokutiboa ordezkatu du. Sinplifikaziorako joera hori hainbatekoa da non gaur egun euskaraz bi makro-sistema baitira, euskalki gehienetan baliatuak: lehena, hedatuena<sup>5</sup>, bi mailarekin (*hi<zu*) eta bigarrena sistema nafar-lapurtarrarena, 2. pertsona izenordaina hiru moldetan kontrastatzen duena (*hi<xu<zu*) (Alberdi 2018 : 327). Beti ere, *zu/hi* bikotea da hedatuena – eta interesatzen zaiguna– eta hein batean, bat egiten du Brown & Gilmanen (1960) T/V banaketarekin. Izan ere, hitanoa bi harreman motatan erabili izan da: goitik beherakoetan eta berdinen artekoetan. Lehen zentzuko harremanetan autoritatea eta botere-desoreka adierazi ohi izan ditu. Beraz, familiar eta lan-munduan, konparazione, ohikoa da tratamenduen erabilera asimetrikoa: burasoak hika ariko dira seme-alabei baina seme-alabek zuka itzuliko dute (Alberdi 1993; de Rijk 1991). Antzekoa gerta liteke lanean nagusiaren eta langilearen artean (Alberdi 1993). Alabaina, informaltasunetik formaltasunerako ardatzean euskarazko T/V oposaketak bere paradigma propioa du; adibidez, *zu/hi* eta *tú/usted* bikoteak ez dira arras baliokideak, *zu* eta *usted* pertsona izenordainak ez baitira baliokide (Basterretxea 2021). De Rijk-i kontatu izan zion istorio honek ederki ilustratzen du parekotasun eza:

When they are talking to me, my French cronies all say *tu*; my Spanish buddies say *tu*; so why can't my Basque friends, whom I have known for so long, finally make up their minds to do likewise and call me *hi*? What is the matter with them? Are they afraid of me? Don't they like me enough, or what? (De Rijk 1991 : 376).

---

<sup>4</sup> Artikulua 2018koa izanik ere, Alberdik 90eko hamarkada hastapenean jaso datuak dira horiek. Suposa daiteke geroztik berorikaren praktika are gehiago ttipitu dela eta azken hatsak botatzen ari dela.

<sup>5</sup> Alberdiren 90eko hamarkadako ikerketaren arabera. Azpiko ataletan ikusiko dugu gaur egun hedatuena *zu* soilaren makro-sistema dela leku eta euskalki gehienetan.

Portaera interperpersonalak gobernatzen dituzten jarrera kulturalak ez dira berdinak. Pertsona izenordain horien erabilpena etengabeko eboluzioan da, eta beren erranahia ez da formal/informal ardatzerat mugatzen (Bereziartua eta Muguruza 2024 : 28). Funtsean, De Rijk-ek ebazten du auzia: haren iduriko, *zu* forma adeitsu eta *hi* forma familiar gisa kontsideratzeko kontzepzio tradizionala tronpakorra da, ikuspegi hori erromantzeetarik heldu baita, eta euskaraz ez baita hala. Horren orde, proposatzen du *zu* tratamendu “normal”, pragmatikoki ez-markatu gisa kontsideratzea, eta *hi* ordain markatu gisa, elkartasuna kodetzen duena (1991 : 378). Ondorioz, aise uler daiteke euskarazko tratamendu “informalak” edo pragmatikoki markatuak, hau da, hitanoak, ez diela inguruko hizkuntzetako arau sozial berei obeditzen, hizkuntza guzietako T edo V guziak ez baitira pragmatikoki eta sozialki arras baliokideak. Izan ere, berari dagozkion aldagai soziolinguistikoen arabera da hitanoaren erabilera.

### **2.1.2. Aldagai soziolinguistikoak**

Hain xuxen ere, ez da arau soziopragmatiko argitaraturik hitanoaren erabilerarendako; aldakorra izanki, neke da irizpide zehatzen definitzea, baina joera nagusiak agertzen dira (Muguruza & Bereziartua 2020). Alberdik (1993 : 434) proposatu zuen hitanoaren erabilera duten aldagai soziolinguistikoen zerrenda bat. Horien berri emanen dugu zenbait ohar eta aipuz hornituz. Alberdiren arabera, ondoko aldagai soziolinguistiko hauek dira erabilera baldintzatzen dutenak:

- Gaia (hizketa-gaia). Alberdiren arabera, ez dateke eragile garrantzitsuenetakoa, baina zenbaitendako irizpide izan daiteke hikatik zugarat pasatzeko. Konparazione, arrailerian aritzeko toka eta noka ari daiteke eta gai serio eta pisuendako zugarat.
- Testuingurua. Lekuak ere badu eragin zerbait; besta giroa testuinguru aproposena dateke. Adibidez, Alberdik azaltzen du ez dela berdin ezezagun batekin karrikan edo mendian (edo ostatuan) gurutzatzea; mendian (eta ostatuan) agian beste inon baino aiseago lerratuko litzateke hiztuna hika egiterat.
- Adina. Alberdik oroitarazten du “adiskide” hitzaren etimologia: \*adinez-kide<sup>6</sup>. Gisa horretan, pentsa liteke euskaldunarendako “adin-kidetasuna” aski dela adiskidetasuna sortzeko. Hortaz, adinak eragin harreman asimetrikoei dagokienez,

---

<sup>6</sup> Mitxelenak (Michelena 1976 : 122) onartu omen zuen Lafonen azalpenari jarraiki. (Alberdi 1993 : 435)

familian, ontsalaz ez zaio sortzetik mintzo hika haurrari. Adin zehatzik ez da horretarako, baina ontsalaz, 6-10 urteren inguruan izan liteke<sup>7</sup> (Alberdi 1993). Muguruza eta Bereziartuak (2020) mudantza hori berresten dute haur ttipiei defektuz zuka egiteko tradizioa lekukotuz.

- Belaunaldia. Arau garbi eta egonkorrik ez da, batzuk lau zapabost urteren gorabeheran hika ari dira; beste batzuk, aldiz, ez, belaunaldia hartzen baitute irizpidetzat. Alberdiren arabera, “10-15 urteren aldea izan liteke batez besteko esparrua elkarrekiko hitano simetrikoa gauzatu ahal izateko.” (1993 : 436).
- Sexua<sup>8</sup>. Sexu berekoen arteko elkarriketak hika izatea ohikoa da, baina oro har, beste sexuko norbaitekin mintzatzea hika egiteko oztopo ohargarrietako bat da. Gainera, jeneralean, sexu berekoak izanik ere, gehiago egiten da hika gizonen artean, emazteen artean baino. Eta asimetria gertatzekotan, aiseago gertatzen da emazteen aldean, hau da, emazteak toka gizonari eta horiek zuka itzuli emazteari.
- Senidetasun-maila. Zenbat eta harreman hurbilagoa, orduan eta aukera gehiago bada hika mintzatzeko.
- Dialektoa. Dialektoa, euskalkia, azpieuskalkia eta hizkera ere izan daitezke inportanteak. Nahiz hitanoarekin ez den hain garbi, xukaren kasua adierazgarria da: “Arberoako edo Garaziko euskaldunek joera garbia dute xukarik ez duten euskaldunekin, haiek bezala mintzatzeko” (Alberdi 1993 : 436).
- Talde-kidetasuna. Honi loturik, De Rijk-ek ere azaltzen du antzeko bizi-baldintzetan bizi direnek errazkiago joko dutela hika mintzatzera, izanik familia edo auzo berean hazi haurrak, baserri edo lantoki bereko langileak, eta abar. Ildo beretik, Urlak (1995), euskal irrati libreak ikertu ondoan ondorioztatu zuen erraileek, gizonen batez ere, usu hika baliatzen zutela espazio horretan entzuleekin zerbait gisako “burkidetasun horizontal” (*horizontal comradeship*<sup>9</sup>) bat sortzeko.

---

<sup>7</sup> De Rijk-ek antzeko adin tartea (pixka bat luzeagoa) aipatu zuen: 6-15 urte artean hasten zaiokeela hika mintzatzeko haurrari. (De Rijk 1991 : 377).

<sup>8</sup> Garaian Alberdik (1993) baliatu jatorrizko “sexu” hitza honat ekarri dugu. Beste gisan, gaurkoagoa eta egokiagoa iruditzen zaigun “genero” terminoa enplegatuko dugu lan honetan.

<sup>9</sup> Gizonak batzen dituen elkartasunezko komunitate imaginario bat litzateke.



- Aginpidea (legezko edo politikoa). Harreman hierarkikoek erabilera asimetrikoa eragiten dute. Adibidez, seme-alabak sekula ez dira ariko hika burasoei, eta langilea ere nekez nagusiari.
- Elkartasun psikologikoa. Solaskidea estimatzen delarik edo sinpatia sortzen duelarik, xantza gehiago bada hari hika mintzatzeko. Ideia honi kontrajartzen da beraz De Rijk-ena, haren iduriko adiskidetasuna ez baita ezinbesteko baldintza toka eta noka mintzatzeko.

Zerrendaturiko aldagai soziolinguistikoei bat gehi liezaieke agian: solaskidearen izaera. Izan ere, Lafittek (1977) deskribatu zuen Heletako familia batean, ez zitzaizela haur guzietan berdintzat hartzen; bi semeri toka, neska bati noka, eta beste haurrei zuka. Hau da, ez da adina bereizgo horren aldagai, baizik eta haurra “koska” ala “entterka” izatea, erran nahi baita, barnerakoia ala kanporakoia edo irekia izatea. Funtsean, Lafitten lekukotasunaren arabera, izaeraren arabera ere litzateke tratamendua.

Hara, beraz, hitanoaren erabilera bultzatzen duen aldagai soziolinguistikoa. Gaur egun eragin gehien dutenak adina eta generoa dirateke, ohiturarenarekin batean: “harremana nola hasi, hala segi” (Alberdi 1993 : 437). Nolanahi ere, Alberdi-Zumetak (2019 : 132) ohartarazten duen gisan, “batzuk edo guztiak elkarteak ez du nahitaz hitanozko harremana bermatzen; eta alderantziz, ustez ezinbestekoak diren baldintzak ageri ez diren kasuetan gerta liteke hitanoz mintzatzea”.

### ***2.1.3. Hitanoaren gainbehera***

Historikoki Euskal Herri osoan mintzatu izan da toka eta noka, eta garai guzietan (Oyharçabal 1993, Rebuschi 1981). Bizkitartean, erabilera beheiti joan da historiaren gustuz, zaluago edo emekiago euskalkiaren arabera. Brown & Gilmanek (1960) mendebaldeko hizkuntzetan boteretik elkartasuneranzko joera bat gertatzen dela defendatzen dute, baina Alberdik (2018) argitan ezartzen du euskarak ez duela bat egiten haien hipotesiarekin. Geroz eta hedatuagoa den “ideologia berdinzale eta demokratiko” batean oinarriturik, mendebaldeko hizkuntzek T-T aukeraren orokortze baten alde egiten dute; horren erakusgarri da konparazio gaztelarazko *tuteo*-aren orokortze progresiboa (frantsesekoa ere, neurri ttipiangoan izanik ere). Bizkitartean, erdaretan agertu elkarrekiko T-ren orokortze joerarik ez da gertatzen euskararen,

baizik eta alderantzizkoa: V orokortzen da. Beste hitzetan, bakuntze horrek hitanoaren galerari erreferentzia egiten dio. Ondorioz, “a minority feature within a minority language”, hizkuntza gutitu baten baitako ezaugarri edo aldaera gutitua dugu (Bereziartua & Muguruza 2024 : 28).

Argi denez, hitanoaren ttipitzea esplika lezakeen arrazoi bakar eta unibertsalik ez da. Haatik, haren giblean hainbat faktore gurutzatzen direla erakutsi dute egileek. Lehenik eta behin, tratamendu horren osagarria hizkuntzarenaren araberakoa da, hau da, bistakoa da euskararen egoera kezkarriak ez duela laguntzen bere barne-aldakortasun osoaren mantentzea bermatzen. “Oro har—salbuespenak salbuespen—, zenbat eta euskarak biziago eta bakartuago iraun herri batean, hitanoak ere hainbat eta probabilitate handiagoa izango du delako herrian bizirik eta osasuntsu irauteko” (Alberdi 1993 : 432). Hitanoari dagokion morfologia oparoa ikasteko nekezia ere oztopo da, ondoko azpiatalean (ik. [2.2.1](#)) landuko dugun alokutibotasunak zailtasunak ekar baititzake, batez ere beren euskalkiaren edo areago hizkuntzaren parte ez denendako (Alberdi 2018 : 327). Halaber, irakaskuntzak (eskolak, ikastolak, euskaltegiak, lizeoak, unibertsitateak) oro har ez du lagundu, hitanoaren biziberritzea baino lehenetasun handiagoko zereginak baitira naski (Alberdi 1993, Coyos 2006). Hitanoaren informaltasuna oztopo da zabalkunderako ere, erregistro jasoak landu izan baitira gehienbat euskal literaturan. Hedabideek ere zabalkundea ez dute sustatu, diskurtsoa erregistro neutro batuan eraiki behar dutela jakinik, eta gehienetan publiko zabalari, hots, ez usu solaskide bakarrari (Alberdi 1993). Bestalde, bistakoa da hitanoa hobeki mantentzen dela landa-eremuetan eremu urbanoetan baino: “rural”/“urban” dikotomiak eta biztanle mugimenduak ere beraz esplika dezakete hitanoaren galera (Alberdi 2018). Baina pisu gehien ukan dukeen faktorea hitanoak duen ospe txarra da. Izan ere, hainbat konnotazio txar esleitzen zaizkio inkontzienteki: baserritarren hizkera, mintzaira zakar, gordin eta gogorra izatea. Hainbat ikerketak erakutsi dute hitanoaren ospe txarraren eragina hitanoaren transmisioaren etenean (Echeverria 2003, Beitia 2017, Legorburu 2018, Elustondo & Epelde 2023, eta abar). Alabaina, fama txar hori ez da betidanikoa; Alberdik (1993) ohartarazten duen gisan, Etxeparek, Leizarragak, Etxeberri Ziburukoak eta beste hainbatek ez baitzuten batere arazorik hitanoaren erabiltzeko. Azken mendean edo mendeetan bildu ditu beraz hikak bere desagerpena sustatzen duten konnotazio txarrak.

## 2.2. Hitanoa hizkuntzalaritzatik: nolakoa?

Hitanoaren nondik norakoa azalduz, ikus dezagun orain ikuspegi linguistikotik zein ezaugarri dituen eta batez ere nola erabiltzen den.

Gorago aipatu bezala, hizkuntza erromaniko eta germaniko gehienek bi aldaera dituzte edo ukan dituzte singularreko bigarren pertsonarendako. Europako mendebaldean bikoiztasun horren sorrera eta garapena latineko *tu* eta *vos* formetarik heldu da: italieraz *tu* eta *voi* bilakatu ziren; frantsesez *tu* eta *vous*; gazteleraz *tú* eta *vos* (berantago *usted*). Germanikoen aldetik, alemanez bereizketa *du* eta *ihr* izan zen eta geroago *du* eta *shie*, eta ingelesez hastapenean *thou* eta *ye* oposaketa zen, ondotik azken horren ordez *you* nagusitzeko (Alberdi 1986 : 26). Pare orotan, izenordain bietako bata jatorriz singularra da; bestea, aldiz, pluraleko bigarren pertsonatik eratorria. Denboraren goustuz, azken honek maila jaso bat bereganatu zuen. Euskarazko *hi/zu* bikotera jinez, Alberdik (1986) azaltzen du euskarak inguruko beste hainbat hizkuntzaren<sup>10</sup> antzeko garapena izan duela eta gaur egungo *zu* izenordain adeitsua jatorriz plurala zatekeela. Hau da, lehenik *hi* eta *zu* banaketa osagarrian ziren, gero *zu* izenordaina begirunea nahiz pluraltasuna baliatzen zen, eta azkenik, *zu*-ren singularitzea jin zatekeen errespetuzko erranahiaz solaskide bakarrari zuzentzeko eta anbiguotasunaren saihesteko. *Zu*-ren aldaketa semantikoak (pl. → sg. errespetuzkoa) sortu hutsunea betetzeko, bigarren pertsona plural berria sortu zen (*zuek*) (Aritzimuño 2013). Horrela, *hi* izenordaina, lagunarteko testuinguru informaletara mugatu zen.

Hain xuxen ere, Coyosek azpimarratzen du euskararen ezaugarri bat dela garrantzi handia ematea hiztun/solaskide arteko harreman dialogikoari:

La langue basque accorde une grande importance à la relation dialogique locuteur/interlocuteur : diversité des monèmes spécifiques (pronoms personnels, intensifs, de majesté, indices verbaux de personne, de familiarité masculine et féminine, de politesse, monème de défini de pluriel proche), formes allocutives, formes implicatives, etc (Coyos 2006 : 95).

Zehazkiago, Alberdik erakusten du euskal aditz sistemak hizkuntzaren berezitasuna gordetzen duela. Hauek dira haren ustez euskararen aditz sistemaren ezaugarri aipagarriak (2018 : 313):

---

<sup>10</sup> Gure egoera diglosikoan, naski batez ere frantsesa eta gazteleraren eraginez.

- a) Alokutibotasuna;
- b) Bigarren pertsona familiarraren (*hi*) genero bereizketa;
- c) Tratamendu moduen morfologizazioa tipologikoki interesgarria.

Hain xuxen, hitanoaren eraketari dagozkion ezaugarriak izanki, beha ditzagun hurbilagotik.

### 2.2.1. Alokutibotasuna

Lehenik eta behin, Alberdik zehaztu bezala euskararen berezitasun bat izateaz gain, hitanoaren funtsezko ezaugarria da alokutibotasuna. Solaskideari *hi* erran nahi bazaio, forma alokutibo egokiak baliatu behar dira. Hala definitzen du alokutiboa Euskaltzaindiak EGLU II gramatikan:

NORK, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, ager daiteke aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago. Pertsona marka hau ez dagokio perpauseko ezein sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik. (Euskaltzaindia 1997: 387)

Ikus bedi nokako adibide hau argigarri gisa:

(1) a. *Ekhi jin da Jenofaren xerka.*

b. *Ekhi jin dun Jenofaren xerka.*

Bi perpausek NOR saileko komunztadura dute, eduki semantiko bera dute, baina Azkuek esplika lezakeen gisan (2000 : 14), bigarrenak –forma alokutibodunak– Ekhi jin dela erraiteaz gain, hiztunak solaskidea ere gogoan duela adierazten du. Hau da: *jin dun + hirekin ari naun*. Funtsean, alokutibotasuna da solaskidea perpauseko argumentu izan gabe ere haren txertatzea aditz laguntzailean. Euskara berezi egiten duen ezaugarri aipagarria da:

La plus grande originalité des formes d’adresse en basque réside, comme nous l’avons vu, dans la possibilité d’une incorporation de la marque de l’allocutaire au sein d’un auxiliaire dans lequel il ne joue aucun rôle argumental. (Bottineau & Roulland 2007 : 7)

Hitanoa euskararen eremu historiko osoa estaltzen duen tratamendu alokutibo bakarra baldin bada ere, bada besterik. Izan ere, alde batetik, ekialdean gorago aipatu zuketa alokutiboa dugu, gaur egun Xiberoan baizik adi ez daitekeena, eta gainera arauzkoa. Bestetik, lapurtar/nafartar *xu* forma alokutiboa ere ezagun da, kortesiazko izenordainaren palatalizazioa (*zu>xu*) beste kontsonante txistukarien palatalizazio adierazkorrarekin bat egiten duen bilakabide fonologikoa dena (Mitzelena

2011[1961]). Azken honetan berezitasuna da bilakabide fonologiko hori gramatikalizatu dela tratamendu sistema beregain gisa aditz-sistema osora hedatu denetik, *xu* marka pronominala agertzen baita bai adizki alokutiboetan, bai hartzailea argumentu den adizkietan (Alberdi 2018 : 312).

Nolanahi ere, alokutibotasunerat itzuliz, erran dezagun printzipioz fenomeno gramatikal hutsa dela, nahiz eta kortesia linguistikoari lotua izan den ere zenbait euskalkitan, erronkarian adibidez, [+/- alokutibo] oposaketa soziopragmatikoa izan baita zuketan (Alberdi 2018 : 319). Gisa berean, Rebuschik (1984) zuketa [+ alokutiboa] eta zuketa [-alokutiboa] ezberdintzen ditu, lehena bigarrena baino adeitsuago eta bigarrena lehena baino hotzagotzat edo “distantzagotzat” joz, halako hierarkia proposatuz: *hi* < *zu* (+ alokutibo) < *zu* (-alokutibo). Lafonen iduriko ere solaskidearen sexuaz gain hizlariak harekiko duen jarrera familiarra adierazten du marka alokutiboak (1999 [1947] : 267). Bizkitartean, Alberdik dio bereizketa soziopragmatiko hori ez dela gehiago indarrean, gaur egun alokutibotasuna ez dela gehiago baliagarri tratamendu moten ezberdintzeko (2018 : 320). Horrek bat egiten du Oyharçabalek (1993) proposatu zuen funtsezko bereizketarekin: fenomeno gramatikala den alokutibotasuna eta tratamendua bereizi behar direla. Xibereraz, konparazione, mendebaldeko dialektoetan ez bezala, non alokutiboa erregistro informal edo familiarretan baizik ez den baliatzen, alokutiboa hala erregistro formaletan nola informaletan enplegatzen da.

Ildo beretik, Bottineau eta Roullandek (2007) erakusten dute konfigurazio morfosintaktiko arras bereziak diren *tutoiement* eta *allocutivité* berezkatzen direla *deuxième personne complémentaire* eta *deuxième personne supplémentaire* bereizketaren bidez. Bigarren pertsonak perpausean rol argumentala duen kasuan (*deuxième personne complémentaire*), izan absolutibo, datibo edo ergatibo, *tutoiement* edo tratamendu informalarri dagokio. Haatik, bigarren pertsona aditz laguntzailean jadanik presente diren aktanteei gehitzen zaiena delarik (*deuxième personne supplémentaire*), alokutibotasunari dagokio.

Bestalde, Rebuschik (1981) azpimarratzen du nahastekaturiko fenomenoak diren forma alokutiboen eta forma inplikatibo edo biltzaileen bereizteko beharra, azken horiek ez baitaitezke ager predikatu dinamikoetan, eta mendeko perpausetan ba berriz. Adibide hau baliatzen du:

(2) *Hago hi! Fite ukan duk depexa, Jarret gaizoa zeruan sartua dugula.* (1981 : 316).

Forma biltzaileen bidez “predikatu estatikoa” eta “hizketa-inguruko aktanteak” elementuen arteko erlazioa adieraziko litzateke, hau da, hizketa-laguna biltzen da, baina erakarpen hori predikatu estatikora mugatua da, alokutiboa ez bezala. Forma horiek hurbiltzen ditu hizkuntza erromantzeetako ‘datibo etikoari’: *Je te la lui ai mangée, sa tarte* bezalako erran-moldeei, konparazione. Bide batez, fenomeno bereziak dira baina diakroniara joz, Alberdiren hipotesiaren arabera (1986), oraingo aditz-joko alokutiboaren sustraian forma biltzaileak lirateke.

Alokutiboa zer den eta zer ez den argiturik, beha dezagun orain nola funtzionatzen duen. Izan ere, alokutibotasuna irizpidetzat hartuz, hiru adizki mota bereiz daitezke (Lafon 1959, Oyharçabal 1993, Alberdi 1996):

- i) Alokutiboak, 2.p. alokutiboaren indizea dutenak (*nauk/-n, duk/-n...*)
- ii) Eztabadakoak edo neutroak, 2.p.ko indizerik ez dutenak (*naiz, da...*)
- iii) Bigarren pertsona argumentalaren indizea dutenak (*haiz, zarete...*)

Hondar iii) kasuan hartzaileak egiazko argumentua ukanki, forma horiek ez dute parte hartzen +alokutibo/-alokutibo oposaketan. Haatik, oinarrizko aditz-forma neutroak ezinbestean ordezkatzeko dituzte doazkien forma alokutiboak. Izan ere, “when allocutivity is available, it is obligatory” (Oyharçabal 1993 : 13). Oyharçabalen adibidea berriz hartuz, halakorik ezin daiteke onets: *\*bahenki, banenkike*. Alokutiboaren agerpena ezinbestekoa da hiztunak mintzakideari toka edo noka zuzentzea erabaki badu. *Hi* izenordaina erabili bada, ondotik datozen adizki guzietan alokutiboan agertu beharko dute, gisa horretan: *bahenki, banenkiken/k*.

Bizkitartean, arau hori ez da absolutua, alokutiboa zenbait muga sintaktiko zehatzen menpe baita (Oyharçabal 1993; Rebuschi 1984). Izan ere, sekulan ez da aukerazkoa; derrigorrezkoa da, ala debekatua da. (Lafon 1999 [1959] : 393). Ikerlan honetan morfologia dugunez ardatz, ez gara gehiegi luzatuko, baina on da halere murriztapen nagusiaren berri laburzki eman dezagun. Hain xuxen, Alberdik (1996 : 294) “sintaxizko urrezko arau” deitzen duen muga sintaktikoa du aditz alokutiboak: menpekoak ez diren adierazpen-perpausetan soilik erabiltzen da literatura-tradizio landuan. Erran nahi baita, alokutiboaren agerpena perpaus nagusietan

bakarrik burutu izan dela erakusten dute XX mendera arteko testu guzietan. Halaxe gertatzen da oro har hizkuntza mintzatuan, nahiz eta salbuespenak izan. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera (Aurrekoetxea 1994 : 996), galderazko perpausetan alokutiboak sartzeko joera bada euskalki gehienetan, “eguzki aldekoetan” salbu (behe-nafarreran eta zubereran), hau da, aztergai dugun mintzairan. Gaineratekoan, salbuespenak salbuespen, debekua errespetatzen da. Zehazkiago, literatura idatzian oinarrituriko lege honen arabera, agramatikalak dira alokutiboak duten menpeko (1a), galde (1b), aginte (1c) eta harridura (1d) perpausak:

- (3) a. *\*Ez dakinat zer gertatu dunan* (Oyharçabal 1993 : 21)
- b. *\*Lan egin dina hire lagunak?* (Oyharçabal 1993 : 21)
- c. *\*Begon*
- d. *\*Zein handia dunan!*

Debeku horren zergatia ulertzeko, irakur bedi Bottineau eta Roullanden azalpena:

Le marquage morphologique allocutif témoigne de la relation énonciative R liant directement le locuteur à l’allocutaire par la prédication. Une marque de subordination suspend la valeur directement assertive du verbe, bloquant la marque allocutive comme témoin direct de l’assertion. Pour la même raison, la forme allocutive est incompatible avec l’interrogation, faute de prise en charge assertive par le locuteur et pour cause de délégation à l’allocutaire : \\*Egia al duk ? « Est-ce vrai ? » (Bottineau & Roulland 2007 : 8)

Izan ere, indize alokutiboak solaskidearekin harreman enuntziatibo zuzena markatzen du; orduan, pragmatikoki bateraezina da menpeko perpausekin, horiek preseski izaeraz aditzaren balio “asertiboa” geldiarazten baitute. Dena den, nahiz mendebaldeko belaunaldi gazteetan arau hori urratzeko geroz eta joera handiagoa baden (Alberdi 1996; Azkue 2000; Etxabe & Garmendia 2003; Elustondo 2021, eta abar.), ekialdean, gure eremu dialektalean, indarrean da oraino.

Kontuan har bitez beraz Oyharçabalek (1993) alokutiboaz oroitarazi erabilpen-ezaugarri horiek: aldi eta aspektu guztiak bateragarriak dira alokutiboarekin, agintera salbu (aipatu muga sintaktikoagatik); flexio hala analitiko nola sintetikoak badituzte forma alokutiboak; *ba-*aurrizki asertiboa bateragarria da forma alokutiboekin, *ba-* supositiboa, berriz ez (muga sintaktikoari jarraiki hau ere). Adibidez (1993 : 101):

#### (4) *Banenki banikek*

Alegia, lehen adizkiko aurrizkia supositiboa izanki, alokutiborik ez da sartzen; bigarrenekoan, aldiz, bai, asertiboa baita.

### 2.2.2. *Hitanoa morfologiatik*

Alokutiboaren inguruan zenbait argipen emanik, hurbil gaitezen orain ardatz dugun morfologiaren ikuspegitik hitanorat bereziki. Preseski, Alberdik azaltzen du toka eta nokak dakarten tratamendu moduen morfologizazioa tipologikoki interesgarria dela, pentsarazten baitu Ekialdeko hizkuntza batzuei (japones, korear,) non hizkera-mailak hartzailearen arabekoak baitira (2018 : 313). Komeni litzateke bide batez zehaztea “toka” eta “noka” izendapenak *to* eta *no* partikula bokatioetarik heldu direla. Izan ere, euskarak femeninoa eta maskulinoa erregulariki bereizi izan ditu dei egiteko balio duten partikula horiekin. Gizona edo mutikoa deitzeko, eta goi-nafarreraz, behe-nafarreraz, lapurteraz, xibereraz eta erronkarieraz etxeko animalia arrak (zakur, gatu, idi, marro, eta abar), *to* baliatzen da. Emazte edo neska, edota ere behe-nafarreraz, lapurteraz, xibereraz eta erronkarieraz, animalia beren emea deitzeko, *no* erabiltzen da (Lafon 1999 [1947] : 264). Literaturan ere sexu ezberdintasuna sinbolizatu izan dute *to* eta *no* partikulek, Axularren erranaldi honetan, konparazione: *amorantea zen nabusi: no zen tho: emaztea gizon: olloa ollar* (Lafon 1999 [1947]).

Hortaz, hitanoan, hartzailearen generoaren arabeko marka alokutiboak forma ezberdina du adizkian duen posizioaren arabera. Orokorrean, hitz barnean toka *-a-* eta noka *-na-* morfemak dira, eta hitz bukaeran *-k* eta *-n*. Izan ere, 2. pertsonaren izaera argumentalak baldintzatzen ditu dagokion morfemaren forma eta posizioa.

Beha Lizardik eta Munduatek<sup>11</sup> (2013 : 3) proposaturikoan oinarritu eskema laburbildua:

---

<sup>11</sup> Egileen jatorrizko taulak marka alokutibo guziak kontuan hartzen ditu, hots, hitanoaz gain zuka eta xuka alokutiboak ere bai. Gure gaia hitanoa izanki, dagozkion morfemak baizik ez ditugu honat ekarri.



<b>Pertsona</b>	<b>Hitz hastapena</b>	<b>Hitz barna</b>	<b>Hitz bukaera</b>
absolutiboa	<i>h-</i>	-	-
ergatiboa	<i>h-</i>	<i>-a-, -na-</i>	<i>-k, -n</i>
datiboa	-	<i>-a-, -na-</i>	<i>-k, -n</i>
alokutiboa	-	<i>-a-, -na-</i>	<i>-k, -n</i>

Iturria: Lizardi & Munduate (2013 : 3)

2. pertsona hori singularra da, singularrean agertzen den hartzaile bereizketa neutralizatzen baita pluralean, zeinetan forma bakarra den, *zuek*. Beste hitzetan, euskal alokutiboa beti singularra da, hau da, ez da alokutiborik pluraleko 2. pertsonarekin.

Forma alokutiboak beren kide neutroaren gainean eraikiak dira, neutroei morfema alokutiboak erantsiz eta zenbait aldaketa eginez sortu baitira. Aldaketa horiek egiterakoan, morfema alokutiboaren kokapena kontuan hartzekoa da. Horri buruz, Oyharçabalek (1994 : 977) azaltzen du “tradizio finkatuenean indize alokutiboa datiboaren eskuinean” dela: adibidez, *zaiok*, *zaiguk*. Zehazkiago, Lizardik eta Munduatek (2013) ondoko inflexioko elementen hurrenkera hau ekartzen dute:

Absolutiboa-Erroa-Datiboa-Alokutiboa-Ergatiboa.

Alabaina, *-(te)ke-* morfema modala eta *-te* pluralgilea alokutiboaren inguruan ibiltzen direnez, ondoko hurrenkera eskema zehatzago hau proposatzen dute:

Abs/Erg-*it*-Erroa-Aurre-dat-Dat-*e-ke-te*-Alo-Erg-Denb.

Bestalde, alokutiboak aditz-inflexioan eska dezakeen beste aldaketa bat *erro aldaketa* da (Coyos 2006; Lizardi & Munduate 2013; Oyharçabal 1994; Rebuschi 1981). Izan ere, zerbait nahasgarri gertatzen da inflexioa *izan* delarik. Kasu horretan, *izan*-en partez, *\*edun* erabiltzen da forma alokutiboetan, hau da, aditz laguntzaile intrantsitibo eta ez-akusatiboetan. Ikus bedi ondoko Rebuschiren (1981 : 312) adibidearen bidez ergatiboko pertsona-marka eta indize alokutiboaren arteko sinkretismo handia:

(5) *Etxe ederra duk.*

Bi interpretazio dira posible:

a. *Etxe ederra duzu*

b. *Etxe ederra da.*

Lehen interpretazioan, ergatiboaren marka dugu; bigarrenean, berriz, marka alokutiboa. Izan ere, “IZAN aditzarekin erro aldaketa euskalki guzietan gertatzen da, orainaldiko eta iraganaldiko KE gabeko formetan. Are gehiago, erroz aldatuz NOR-NORK saileko adizkerak baliatzen dira orduan euskalki guzietan. Zubereraz, baxenabarreraz, goi nafarreraz, bizkaieraz, lapurteraz edo gipuzkeraz, denetan DA →DUK bilakatzen da, eta NINTZEN→ NINDUAN” (Oyharçabal 1994 : 973).

### **2.2.3. Hitanoaren morfologiaren aldakortasun dialektala**

Euskal aditz sistemak duen aldakortasun dialektal handia hitanoko adizkien egitura morfologikorat ere heltzen da. 1994an Euskaltzaindiak hitanoko aditz-paradigma estandarra finkatu zuen haren sustatzeko eta haren galeraren geldiarazteko helburuarekin. Alberdiren arabera (2018), proposamen hori emankorra izan zen batez ere diskurtso jasoan, hau da, literaturan edo telebistan, baina eragin murrizta ukan zuen erabilpen kolokial espontaneoan. Dena den, 1994an Oyharçabalek idatzi “Hikako adizkeren paradigmen aurkepena” lanean, forma estandarren finkatzerakoan kontuan harturiko aldakortasun dialektalaren aurkezpenak balio digu. Gisa berean, urte bereko Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera “Hitanoa ahozko hizkuntzan” emaitzen aurkezpena ere iturri emankorra da aldakortasun dialektalaren ezagutzeko (Aurrekoetxea 1994 : 998-999). Nahiz ez ditugun hemen aldaera guziak zerrendatuko, herri berezi bateko hizkera aztergai ukanki, komeni da horietarik zenbaiten berri eman dezagun.

Izan ere, EHHaren arabera, bi eremu geolinguistiko agertzen dira orainaldiko adizkietan: *d-* aurrizkia baliatzen da maparen ezker eta eskuinean, hots, bizkaiera eta ekialdeko mintzairek *yagok*, *diagok*, *yakik*, *diakik* eta gisa hartako formak erabiltzen dituzte. Erdigunean, aldiz, gipuzkera, goi-nafarrera (Baztan salbu) eta Lapurdiko mintzaira gehienek *z-* aurrizkia dute: *zegok*, *zekik*, *zotorrek*, *zioat*, *zioagu*, etab. (Aurrekoetxea 1994 : 998). Lafonek ere bere garaian Lapurdin 3.p.ri dagokion *d-* aurrizkiaren *z-* ordaina lekukotu zuen (Lafon 1999 [1959] : 393).

Z- aurizkidun aditz trinkoei dagokienez, orainaldian, *-a/-e-* bikoteak bereizten ditu eremuak (*zagok/zegok*); lehena Iparraldeko eta bigarrena erdialdekotzat kontsideratzen dira (Aurrekoetxea 1994 : 998). Halaber, trinkoetan erro eta hitanoaren markaren arteko loturazko hizkian aldakortasuna bada: mendebaldean (bizkaieraren eremuan) loturazko hizkirik gabe jokutzen da (*yabik/ñe*, *jabik/n*; *yatok/na*), erdialdean (gipuzkera eta mendebaldeko goi-nafarreran) *-e-* hizkia baliatzen da (*zatorrek/datorrek*, *zebilek/dabilek*, *zekarrek/dakarrek*), eta azkenik, ekialdean (Iparraldeko mintzairak eta Nafarroako ekialdeko mintzairetan) *-a-* da baliatua (*zabilak*, *dailak*, *zaukak*, *diakarrak*, *zailaian*, *zakoian*...) (Aurrekoetxea 1994 : 999).

NOR-NORK sailean, bizkaieran *-z-* (*yosak*, *yoasen*) eta gipuzkerako erdigunean *-zki-* *-dun* forma zenbait ere baldin badira (*dizkik*, *zizkian*), *-it-* pluralgilea da zabalduena: Iparraldean, bizkaiera ekialdean, gipuzkera hego-mendebaldean eta goi-nafarreran baliatzen da, hain xuxen (Aurrekoetxea 1994 : 998).

Bizkitartean, morfologikoki aldakortasun dialektala izanik ere, erabileran ezaugarri batean elkartzen dira euskalki guztiak: hitanoa tratamendu ahulena dela guzietan. Iparraldean, batez ere Baxenabarren, hitanoa ahuldu dateke euskararen gutxitzeaz gain beste aukeren indarrarengatik (*xu*, *zu*). (Alberdi 2018 : 315).

## 2.2. Nokaren higitzea

Orain arte hitanoaren nondik norakoaz solas egin dugu, eta azalpen horiek ezinbestean garamatzate aztergai dugun nokari bereziki zentratzerat; hain zuzen, nokaren higitzearen gaia garatuko dugu datozen orrialde hauetan.

### 2.3.1. Hitanoa eta generoa: berdintasuna urrun (higitzea erabileran)

[2.1.3. azpiatalean](#) adierazi bezala, hitanoaren presentzia ttipituz doa, zukaren alde. Hain xuxen, forma femeninoa (noka) da galtzaile handiena, tokak baino gainbehera are zorrotzagoa bizi baitu azken hamarkadetan, eta desagertzekotan litzatekeela uste dute zenbait ikerlek (Alberdi 1993; Echeverria 2003). Alberdiren arabera (1994 : 984), nokak erdialdeko euskalkietan –batez ere gipuzkeran eta doi bat gutiago goi-nafarreran—iraun du hobekien; gainerako euskalkietan biziki nabarmena da atzerakada. Hala ere, Lekarozek (2020) Nafarroa iparraldeko anitz herritako datu berriak eskaintzean, hitanoaren erabateko beherakadaren berri

ematen digu; izan ere, datuen arabera, kasurik hoberenean, adin bateko gizonak bakarrik mintzatua da gaur egun. Gainera, fenomeno hori ez da atzo goizekoa, 80ko hamarkadan jadanik Rebuschik (1981 : 308) tratamenduen genero mailako asimetria lekukotu baitzuen. Izan ere, generoa egiazko alde bat sortzen duen faktore konstantea da, hitanoaren bultzatzaile edo oztopatzaile nagusi (Bereziartua & Muguruza 2021, 2024; Echeverria 2003; Legorburu 2018; Muguruza, Bereziartua & Etxeberria 2020; Muguruza & Bereziartua 2020). Genero ezberdintasunei so egin dieten azterketa kuantitatibo guzietan ondorioztatu dute hika mintzo direnak eskuarki gizonei zuzentzen diren gizonak direla, eta alde hori handitu baizik ez dela egin azken hamarkadetan (Azkue 2000; Aztiker 2021; Bereziartua & Muguruza 2021). 90eko hamarkadan jadanik, Alberdiren tesiko inkesten emaitza kuantitatiboek, 51 herritako 210 lekuko kontuan hartzen baitituzte, familiaren barneko desoreka hori argitan ematen zuten, erabilera-zirkulu hau hitanoaren esparru naturala izanik ere (1994 : 983); konparazione, hiketaren maiztasuna semearen harremanean onenean %70ekoa zen; alabaren kasuan, aldiz, %30. Areago, nahiz haurrideen artean gerta litekeen elkarrekiko hitanoa beste inon baino gehiago, hor ere, bistakoa da toka eta noka tratamenduen erabilera desberdina: “toketak, guztiz orokorra ez bada ere (kasurik onenean, anaien artean %90,3koa) bizitza zabala eta osasun ona dituen bitartean, noketak, askozaz ere bizitza makalago eta murriztagoa du (kasurik onenean, ahizpen artean, %49,4koa)” (Alberdi 1994 : 984).

Euskalkika behatuz, Alberdiren arabera (1996 : 367), toka eta nokaren arteko desoreka edo beherakada muturretako euskalkietan ageri da beste nehon baino garbiago, hau da, bizkaieran, mendebaldeko zein ekialdeko behe-nafarreretan eta zubereran:

Sartaldeko bizkaierazko hiztunen artean toketatik noketara erdira (%43,5etik %22ra) jaisten da hikako portzentaia familian eta sortaldeko hiztunen artean oraindik beherakada larriagoak gertatzen dira sexuaren arabera: MBNz %60,4tik %21era; EBNz %71tik %27,4ra eta zubererazko hiztunen artean %89,1etik %22,3ra.

Ekialdeko behe-nafarreran, nokak, xukarik ez den lekuan irauten du hobekien (Amikuzeko eskualdean) eta xukaren “oldar kementsua” jasan behar duen eremuan (Garaziko eskualdean) gaizkien. Hain xuxen ere, noka eta xukak aspaldidanik duten elkarrekiko lehiak eragina badu nokaren galeran, familiaz kanpoko harremanetan, batez ere, xukak haren funtzioa betetzen

baitu<sup>12</sup>. Mendebaldeko behe-nafarreran, hots, ikergai dugun mintzoan, Alberdik ez du atzeman nokak “normaltasun” osoz korritzen duen herririk<sup>13</sup>. Izan ere, hauxe dio: “mendebaldeko behe-nafarreran noketak batez ere familia barruan eta familiarik kanpo emakumeen artean soilik irauten du bizirik; hortaz, gizonak ez dira aritzen noka emakume adiskideekin, ezta adiskide minak izanda ere” (1996 : 366). Funtsean, denetarik gipuzkerazko hiztunak dira hikako bi tratamenduak, toka eta noka “normaltasunez” edo generoaren arabera murrizketarik gabe erabiltzen dituzten bakarrak.

Alta, Gipuzkoako datu berriagoetara joz, fite da ikusia han ere bien arteko arroila sakondu dela azken urteetan. Muguruza eta Bereziartuaren (2020) inkestan, adibidez, hitanoa oraindik indarrean den Azpeitia herriko hiru belaunaldi ardatz, alde handiak dira generoaren arabera transmisioan. Berek bildu datu kuantitatibo hauek horren erakusgarri dira: emazte parte-hartzaileen kasuan hika ari zaizkien amak %21,7 dira; gizonen kasuan, hika ari zaizkien aitak %38,4 dira, hau da, kasik bikoitza. Parte-hartzaileen gurasoen ikuspuntutik behaturik, aitek semeei gehiago egiten diete hika alabei baino (semeei %38,4k eta alabei %18,4k); amek berdintsu egiten diete hika batzuei eta besteei (semeei %22,4k eta alabei %18,4k). Parte-hartzaileen ikuspuntutik, bai emazteek bai gizonen semeei gehiago egiten diete hika alabei baino, eta haur horien ikuspuntutik ere, bai alaben bai semeen kasuan aitek gehiago egiten diete hika amek baino. Era berean, Elustondo eta Epelde ohartu dira lekukoak gizon gehiagori ari direla hika emazteei baino, nahiz eta Adunako lekuko baten hitzetan ez den “asunto personala”. Eta Asteasuko informatzaile gazte baten arabera, mutikoei hika erraitea “oso-oso normala” da, hau da, neskei egitea baino gehiago (2023 : 40). Heldu baita, hitanoaren erabileraren maskulinizazio bat gertatzen ari da, bai igorletzan, bai hartzailetzan. Ildo beretik, Echeverriak (2003) Hego Euskal Herriko ikastetxeetako testuliburuak zundatzean ikusi zuen horietan hitanoa pertsonaia maskulino arteko komunikaziorat mugatua zela. Areago, publiko zabal bati zuzentzeko tokako formak erabiltzen ziren egoerak ere igarri zituen; hartarik ondorioztatu zuen tokako formak tratamendu sistema lehenetsi eta genero mailan neutralak bilakatzen ari direla: “male hika forms are becoming the default, gender-neutral form of address” (2003 : 400).

---

<sup>12</sup> “ZU izenordaina oroz gain egoera eta testuinguru formaletan erabiltzen da, HI batez ere gizonen arteko harremanetarako gordetzen da eta XU gainontzeko testuinguruetarako (emakumeen artean, gizon eta emakumeen artean eta inoiz gizonen artean ere bai)” (Alberdi 1996 : 343-344).

<sup>13</sup> Kontuan har bedi hiru herritan baizik ez zela ibili, hala nola, Baigorri, Hazparren eta Uztaritzen.

Maskulinizazioa hainbatekoa da non Bereziartua eta Muguruzak iradokitzen baitute hitanoa “generolekto” (*genderlect*<sup>14</sup>) bilakabide prozesu batean izan litekeen (2024 : 32).

### **2.3.2. Higatzea formetan**

Halaber, ikerlariak erabileraz gain nokaren higatzea adizkietan berean ere islatzen dela erakutsi dute. Konparazione, azken aldian higatzearen adierazle datekeen fenomeno berezi bat hedatzen ari da: emazteei toka mintzatzea. Azkuek (2000) Zumaiako gazteen artean ikusi zuen ez zela joera ezohikoa, eta hauxe aipatu zuen Urolarako:

Mutilek neskei gutxi egiten diete hika, eta zenbait kasutan tokako formak erabiliz (azpeitiarrek fama handia dute horretan). Hau da, toketa neutroa balitz bezala erabiltzen da, guztientzako balioko balu bezala: hori gertatzen omen da, esate baterako, bilera batzuetan neska-mutilak egon eta pertsona batzuk denentzat hitz egiten hasten direnean. Larriagoa da, hala ere, neskari zuzenean tokako formekin hitz egitea, eta zenbait gazteren artean antzeman dugu joera hori. (Azkue 2000 : 28)

Halako egoerari ohartu dira ere Ozaita (2014) Tolosan eta Alberdi-Zumeta (2019) Azpeitian. Beitiak ere (2017) Eskoriatzako gazteek neskei toka aise egin lezaketela ikusi du. Fenomeno hori ez duke zapalkuntza xede batek sortzen, baizik eta ezjakintasunak. Nokak duen presentzia ttipiagatik gazte batzuek forma femeninoak badirenik ez dakite ere; beste zenbait aldiz, toka baizik ez dakitelakoan hika aritzeko nahiarekin, halabeharrez, dakitenarekin zuzentzen zaizkie. Denik ere, hizkuntza mailako nokaren higatzearen zantzu dira. Ber gisan, Echeverriak (2003) aztertu testuliburuetakoa pertsonaiak toka ari ziren, hartzaileak gizon ala emazte izan. Barquínek (2008) “euskararen erabilera ez-sexista”rako gida bat publikatu du, zeinetan hitanoaren erabilpen “desegoki” batez ohartarazten duen: entzuleria misto bati zuzentzerakoan tokako formak baliatzea, heldu baita, fenomeno horren gertaeraz kontziente izanik. Elustondo eta Epeldek (2023 : 242) diote ezagutu izan dituztela neskei toka egiten dieten neskak ere, baina beren lekukoak ez direla profil horretakoak; hain zuzen, “belarriko mina” aipatu diete horretaz galdetzean. Alta, nokako formak biltzerakoan, elizitazio denboran, nokako formen ordeztokakoak erabili dituzte haien lekuko anitzek. NOR-NORK sailean, batez ere,

---

<sup>14</sup> *Genderlect* : Lakoffek (1975) sortu terminoa da; genero jakin baten bereizgarri izateko joera duen mintzamoldea izendatzen du.

nokaren higatzea erakusten duten lekukotasun kasik guziak toka eginik bildu dituzte (2023 : 189). Ikus bedi konparazione gertaera horren adibide adierazgarri hau:

Kasu batean lehenengo *baunan* ‘bahuen’ noka egin badu ere, horren atzetik toka atera zaio bi aldiz. Honela erabili ditu tokako formak : “*ik etxeko lanak ittia bazkaken, ik lengo astian etxeko lanak ittia bazkaken, baño ez ittunan in*” ‘hik etxeko lanak egitea baheuzkan (toka nokaren ordezt), hik lehenengo astean etxeko lanak egitea baheuzkan (toka nokaren ordezt), baina ez hituen egin’. Ikus daiteke bi aldiz toka egin eta gero, nokako *-na-* morfema duen ittunan ‘hituen’ atera zaiola. (Elustondo & Epelde 2023 : 189)

Bestalde, egile berek nokaren degradazio prozesua garbiki islatzen duen beste lekukotasun baten berri ematen dute beren lanean. Izan ere, Aiztondon eta Zaldibian *to/no* forma hibrido andana bat jaso dute, erran nahi baita, “lekukoari nokako forma eskatu, eta tokako formen gainean morfema femeninoak ezarrita dituzten adizkiak bildu” dituzte (2023 : 180). Etsenplutako, halako formak jaso dituzte, bai aditz analitikoetan bai sintetikoetan:

- *Aztu in xitxaiakenan* ‘ahaztu egin zitzaidanan (tokaren gainean noka)’ (2023 : 181)
- *Ondo zaindu indukenan* ‘ondo zaindu hinduen (tokaren gainean noka)’ (2023 : 183)
- *Ik nei kartera lapurtu iakenan* ‘hik niri kartera lapurtu hidan (tokaren gainean noka)’ (2023 : 184)
- *Ik erderaz akikenan* ‘Hik erdaraz hekien (tokaren gainean noka)’ (2023 : 186)

Heldu baita, marka femeninoez gain, *-k-* edo *-a-* morfema maskulinoak dituzten nokako aditzak eman izan zaizkie, eta beste kasu zenbaitetan, baita *-k-* edo *-a-*rik gabeko tokako formen gainean morfema femeninoak ezarriak ere: *aik iri parre itte ziyenan* ‘haiek hiri barre egiten zinatzen (tokaren gainean noka)’. Egileek erakusten dute aspaldiko fenomeno delako, Artolak (Irizar 1991) 1984an jadanik *zitzaizkiotekenen* ‘zitzaizkienan (tokaren gainean noka)’ forma bildu baitzuen 60 urteko andoaindar batengandik, hau da, nokaren higatzea orduan jadanik ez zen bilakabide berria herri hartan.

Horiez gain, belaunaldi gazteen mintzoetan [2.2.1. azpiatalean](#) aipatu alokutiboaren murriztapen sintaktikoen urraketa lekukotu da lan zenbaitetan, eta hori ere nokaren higatzearen seinale litzateke. Konparazione, Etxabe eta Garmendiak (2003) ikusi zuten Zaldibian 50 urtetik goitikoak zirela murriztapen horiek gehien errespetatzen zituztenak, 50 urtetik petiko gehienek menpeko perpausetan alokutiboak baliatzen zituztela, eta galdera perpausetan forma alokutiboak baliatzea ere arras hedatua zela. Elustondok ere bere Master Amaierako Lanean (2021 : 111) erakutsi du Zaldibiako 15 eta 17 urteko gazteek oro har murriztapen sintaktikoak ez dituztela errespetatzen. Ikus bedi konparazione jaso duen ateraldi adierazgarri hau:

(6) *Bazekiñat zertaz ai neoken ‘bazekinat zertaz ari \*nauken’* (Elustondo 2021 : 113).

Ikusten den gisan, lekukoak menpeko perpausan alokutiboa sartu du, nahiz eta ez lukeen beharko. Gainera, higatzea bikoitza da ohartzen bagara menpeko adizki hori toka errana dela, nagusikoa noka izanik ere; hots, ulertzerat uzten du arau sintaktikoa urratzeaz gain neska bati toka ere mintzo zaiola. Nokan arau sintaktiko urratze zenbait lekukotu dituzte ere Elustondo eta Epeldek (2023), hala nola, protasian behar gabe alokutiboa sartzeko joerak. Beha adibidez honi:

(7) *Bat etortze balin baian, zuka, o ikuste balimañat ya, pixkat zean, beakin eramateko moukua ala, ika pasatze naun ‘bat etortzen baldin bazaidan, zuka, edo ikusten baldin badinat ja, pixkat zeran, berarekin eramateko modua dela, hikara pasatzen naun’* (Elustondo & Epelde 2023 : 41-42).

### **2.3.3. Noka balio sozioafektiboen menpe**

Horiek hola, aise eta natural da gure buruari zergatik noka bereziki higatu edo higatzen den galdetzea; gutiago, berriz, arrapostu baten ematea. Hitano orokorrarendako aipatu bezala (ik. [2.1.3](#)), ez dateke dena azaltzea bere gain har lezakeen erantzun bakarrik. Haatik, hainbat egileren ikerketen emaitzek pistak eskaintzen dituzte. Zenbaiten berri emanen dugu beraz segidan.

Izan ere, Muguruza eta Bereziartuaren arabera, sakoneko arazo estruktural baten emaitza da oro har nokaren higatze berezia, hau da, sexismoarena: “Gure jendarteko egiturazko sexismoa da gako nagusia, hortik eratortzen diren hainbat faktorek pisu handia baitute hizkuntzen erabileran” (2020 : 117). Zehazkiago, sistema horretarik hitanoari esleitu balio



sozioafektiboek ez dute nokaren suspertzea aparantziarik ere zerbitzitzen. Etsenplutako, Echeverriak (2016) hitanoaren eta generoaren arteko auzia ardatz, Jean Duvoisin idazle lapurtarrak XIX. mendean itzuli biblia xeheki aztertu eta ondorioztatu zuen itzultzaileak noka erabiltzeko hautua egiten zuelarik, oro har, hartzaile bizigabeari konnotazio negatiboak esleitzeko baliatzen zuela.

Preseski, egile berak hitanoa eta maskulinitatearen artean lotura badela defendatzen du: “there is an iconic relationship between *hi* and masculinity” (2003 : 405). Hika formaren erabilera mutikoen arteko solidaritatearen marka litzateke haren arabera (2001 : 357). Hain xuxen, hitanoak erranahi sozial jakin batzuk “*indexa*” litzake (espontaneotasuna, zintzotasuna, naturaltasuna, sumina, dibertimendua, baserritartasuna), zeinak horiek beren aldi maskulinitatea *indexa* bailezakete (2004 : 404). Bada, hitanoak erranahi ezberdinak ditu gizonak ala emazteak erabili. Gizonen ahoan elkartasuna, anaitasuna edota konfiantza isla lezake; emazteenean, aldiz, zarpailtasuna edo errespetu eza. Horrenbestez, jendartean hitanoari eratzikitzen diren balio horiek hobeki joanki dirateke maskulinitatearekin (Legorburu 2018). Gainera, Legorbururen azterketa kualitatiboko gazteek hitanoa euskal “pedigri” edo benetakotasun adierazle dute, hots, euskaldunen iruditeria kolektiboan, “euskaldun peto”arekin lotuko litzateke hitanoa, eta euskaldun petoa, preseski, gizonarekin (Echeverria 2001). Halaber, Elustondo eta Epelderen (2023 : 53) ikerketako Zaldibiako lekuko zenbaitek, etsenplutako, adierazi dute hika “ez [dela] oso femeninoa”; goxotasunari kontrajartzen denez, zakarragotzat jo izanki, “goxoa ezpada, ezta emakumeena, gizona zkona da”.

Hortaz, balio sozioafektibo horiek nokaren transmisio ezean duten indarra ulertzen laguntzen du *hizkuntza-sozializazioaren* kontzeptuak. Hain zuzen, aditzerat ematen du kode linguistikoarekin batera hiztunek kode horien inguruko arau sozialak, ohiturak, usteak eta balioak ere jasotzen dituztela hizkuntza-praktiketan (Kasares 2012). Ideia hori transmisioaren definizio tradizional eta zurrunik haratago doa, eta funtsezkoa da hitanoaren bizi-egoeraren ulertzeko (Bereziartua & Muguruza 2020). Heldu baita, hizkuntza bat, edo gure kasuan, tratamendu bat ikasterakoan, haurrak, arau linguistikoez gain, horri buruzko balio eta pertzepzioak hautematen eta barneratzen ditu.

Bestalde, emazteek eta gizonek sozializazio eremu ezberdinak izateak baduke nokaren higatzearekin zer ikus (Legorburu 2018). Izan ere, erran daiteke emazteek sozializazio esparru

gutiago ukan dituztela, eta zituztenak mundu pribatu edo kukutuagokoak direla. Gizonen sozializazio eremuak, aldiz, gehiago izateaz gain, publikoak dira, kanpoan, karrikan egiten baitira. Gisa horretan, nokaren galeraren sentsazioa areagotzen du haren presentzia publiko ezak, zirkulu pribatuetan, etxeko giroetan mantendu baita.


Ondorioz, nokak tokak duen abantaila eskas du: transmisio horizontala. Izan ere, lehen aitzinatu bezala (Kasares 2012), transmisioak ez du bortxaz bertikala izatearen beharrik, hots, norabide bakarrekoa, aita-ametarik haurrenganakoa. Molde horizontalean ere, hau da, berdinen artean ere gertatzen da transmisioa. Hortaz, eskolan irakasten ez denez, transmisio informalak du hitanoaren iraunaraztearen ardura. Alabaina, etxean transmisio-eten argia ikusirik, noka kondenatua litzateke. Tokak, aldiz, xantza gehiago luke, transmisio horizontalaren probetxu baitu, batez ere karrikan edo lanean, nokak ez bezala. Hain xuxen ere, azken aldiko ikerketek lekukotu dute hainbat herritan gaztaroaren gustuz mutikoak beren artean toka mintzatzen hasten direla, etxean jasorik ere kanpoan elkarren artean ikasiz, erran nahi baita, transmisio horizontalaren bidez (Alberdi-Zumeta 2019; Beitia 2017; Legorburu 2018; Ozaita 2014). Aldaketa hori Pujolar hizkuntzalari kalatanak (2010) garatu *muda* linguistikoen kontzeptuari lotua da: haurtzarotik gaztarorako jauzian gertatzen diren hizkuntza-praktika aldaketak izendatzen ditu<sup>15</sup>. Hori hizkuntza-sozializazioari ere lotua da, haurtzarora mugatzen ez den prozesu jarraitua baita; heldua izanik ere jendeak estatus edo jarduera berrietan sozializatzen segi dezake (Ochs & Schiefflin 1992). Legorburuk (2018 : 128) aztertuen arabera, zukatik tokarako hizkuntza mudantza horrek egiazko hizkuntza-ideologia bat kukutzen du. Gizonen artean prestigioa duen tratamendua hitanoa izanki, azken hau gizontasunerako eta heldutasunerako “ataria” litzateke. Ondorioz, egilearen arabera, nokak ez dituzke tokak bezainbat gizonak laguntzen beren identitate maskulinoaren garatzen, orduan gizonak noka ez ikasi eta erabiltzearen zergatietako bat identitatea apailatzeari lotua litzateke. Dena den, berdinen arteko transmisio horizontal orokortu hori mutilen artean baizik ez da gertatzen<sup>16</sup>. Laburbilduz, nokaren galera transmisio informalarik lotua litzateke, eta tokaren biziraupena, aldiz, transmisio horizontalari (Legorburu 2018 : 123).

---

<sup>15</sup> Hala ere, baliteke gaur egun helduaroko aldaketen izendatzeko ere baliatzea.

<sup>16</sup> Bistan dena, hain segur noka ikasten eta berenganatzen duten neskak ere badira, baina mudantza kontziente batetik eginiko jestua da, talde efektu inkontziente batek eragin gabe. Zentzu honetan dugu beraz adierazten mutikoen arerat mugatzen dela transmisio horizontal hori.

Alberdi-Zumetak (2019 : 148) egin eskemak molde argian irudikatzen du “tokaren indartzearen eta nokaren galeraren gurpil zoroa”:



Iturria: Alberdi-Zumeta (2019 : 148)


Are gehiago, euskaraz kanpoko nazioarteko ikerketak nokaren kasurat ekartzea emankorra eta adierazkorra izan daitekeela erakutsi dute azken ikerketek (Bereziartua & Muguruza 2021, 2024; Legorburu 2018; Muguruza & Bereziartua 2020; Muguruza, Bereziartua & Etxeberria 2020). Izan ere, soziolinguistikan, aldaera linguistiko baten galera aztertzeo haren prestigioa kontuan hartu ohi da. Hizkuntza-komunitate batek hizkuntza, dialekto edo hizkuntza aldaera bati eraxkitzen dizkion balio sozial eta estimu maila da hizkuntza prestigioa. Argi da hizkuntza bateko ezaugarri baten prestigioak eragina duela erabileran. Hortaz, emazteek prestigioa duten aldaeren alde egiten dutela defendatu dute aditu anitzek. Bere garaian, Trudgillek (1972) Norwichen (Ingalaterra) egin alor-lan batetik ondorioztatu zuen emazteek gizonek baino maiztasun handiagoarekin erabiltzen zituztela prestigioa zuten forma linguistiko estandarrek. Halaber, Gal-ek (1979) Austrian eta MacDonald-ek (1989) Britainian ikusi zuten emazteek gizonek baino errazkiago baztertzen zituztela baserritarren hizkuntza edo fama txarreko mintzaira, eta usu jotzen zutela estatus goragoko hizkuntzarat, hots, hirigunearekin gehiago lotzen zenerat. Ochs (1992) joera antzekoari ohartu zen ingeles britainiar eta amerikarrean, zeinetan emazteek prestigio handiagoko aldaera fonologikoak gehiagotan erabiltzen baitzituzten klase sozial eta etnia bereko gizonekin konparatuz. Gisa berean, Romainek berresten du emazteek gizonek baino forma estandar gehiago erabiltzeko joera dutela, klasea edo adina bezalako aldagai sozialak kontuan hartu gabe ere, eta zehazten

du testuinguru elebidunetan gertatzeko aukera are gehiago badela: “There is evidence from studies of language shift in bilingual communities for women being in the vanguard of change to a more prestigious language” (2008 : 103). Gertaera honi bi faktore azaltzaile ikusten zizkion Trudgillek (1972 : 182-3): i) jendartean emazteen posizio soziala gizonenari azpikoa bide dela jakinik, emazteei beharrezkoago zaie beren estatus soziala segurtatzea eta linguistikoki edo zerbait gisaz seinalatzea, eta ii) gizonak kontsideratuak dira egiten dutenaren arabera, baina hori emazteendako posible ez denez, ordez, kontsideratuak izan behar dute itxuraren arabera; hau da, beren ekintzendako baloratuak ez direno, beste gisako estatus seinaleak, diskurtsoa barne, garrantzitsuago dira.

Beste hitzetan, emazteek mintzaira prestigioduna balia lezakete beste arloetan ukatzen zaien estatusa erdiesteko manera gisa. Romainen irakurketa ildo beretik doa: “although the marketplace establishes the value of men in economic terms, the only kind of capital a woman can accumulate is symbolic” (2008 : 104). Preseski, *Hizkuntza eta Generoa*-ren ikerketa-alorra ireki zuen Lakoff hizkuntzalari amerikarrak (2004 [1975]) defendatzen du estandarraren erabilpena emazteen esparru publikoko botere ezaren beste isla bat dela. Orduan, hor litzateke gakoa: aldaera prestigiodunen aldeko jarreraren aldagaia, generoa baino, boterea litzateke. Hain xuxen ere, “emazteen hizkera” bat badela aldarrikatzen du (*woman’s language*); izan ere, “botere ezaren hizkera” (*language of powerlessness*). Haren arabera, emazteek diskriminazio linguistikoa bi maneratan bizitzen dute (beti inkontzientea izanik): hizkuntza mintzatzeko irakatsia zaien maneran, eta hizkuntzak oro har tratatzen dituen maneran (2004 [1975] : 39). Ingeles hizkuntza du aztergai horren hitzun eta erakasle baita, baina beste hainbat hizkuntzarendako balio duela dio. “Emazteen hizkera” ingelesaren gramatikaren maila guzietan agertzen zaio; gizonen diskurtsotik emazteenera ezberdintasunak altxatzen ditu item lexikoen hautu eta maiztasunean, arau sintaktiko batzuk burutzen diren egoeretan, intonazioan edota beste patroi suprasegmentaletan. Hortaz, generoaren araberrako ezberdintasun linguistiko horiek ezberdintasun sozialtzat dauzka: “language discrepancy makes manifest social inequality” (2004 [1975] : 108).

Paraleloki, Woolard-ek (2005) ekarpen interesgarria egin zuen hizkuntzen eta hizkuntza-aldaeren legitimitatearen eta prestigioaren inguruan: anonimotasunaren (*anonymity*) eta egiazkotasunaren (*authenticity*) arteko dikotomia, hain xuxen. Lehena, hizkuntza anonimoa

“guztiena da eta ez da inorena” (Ortega et *al.*, 2016), orduan, hizkuntza estandarraren pareko genuke, funtzio berak betetzen dituen ber. Bigarrena, egiazko hizkuntza, tokian tokiko herri hizkera litzateke. Egiazkotzat kontsideratzen da, preseski, leku eta komunitate jakin batekin identifikatzen baita (Woolard 2005 : 3). Euskararen kasuan, aipatu anonimotasunaren eta egiazkotasunaren arteko dikotomia hiru dimentsiotan islatzen da Echeverriaren arabera (2001 : 351) : i) hizkuntzen mailan: euskara hurbilekoa da; gaztelera (Hegoaldeko testuinguruan), berriz, prestigioduna eta urrunekoa, ii) aldaeren mailan: euskara estandarra artifiziale da; herrikoa, aldiz, egiazkoa eta bizia, iii) tratamenduen mailan: zuka formala eta anonimoa da; hika, berriz, informala eta egiazkoa. Ikus bedi Echeverriaren eskema:



Iturria: Echeverria (2001 : 351)

Dena den, Alberdi-Zumetak (2019 : 140) ohartarazten duen gisan, “prestigioaren eta solidaritatearen arteko marrak ez dira hain finkoak.” Zuka da erakundeetatik bultzatu den tratamendu hegemonikoa da eta, ondorioz, prestigiotsua. Baina gorago ikusi bezala, mutiko gazteen artean hitanoak ere badu bere gisako prestigioa. Hain justu, Trudgillek argudiatzen du gizonendako, manera ez-estandarrean mintzatzeak “prestigio ezkutua” (*covert prestige*) duela; eta emazteendako, aldiz, aldaera estandarra mintzatzeari erlazionatu “ageriko prestigioa” (*overt prestige*) garrantzitsuago dela. Ondorioz, emazteek prestigioaren alde egiteko joera nokaren galeraren bultzatzaile izan liteke.

Halarik ere, azken aldiko lanek iradokitzen dute hitanoaren inguruko paradigma sozioafektiboa aldatzen joanki dela. Berpiztu nahiz, gazteriak hitanorat buruzko urratsa egiten omen du “behar” bati erantzuten diolakoan. Ikusten dizkioten funtzio sozialek erakartzen

dituzte, hala nola; kohesio ahalmen handia, konplizite-zantzuak eta umore-kode berezkoak izateak (Ozaita 2014). Hitanoa euskararen “altxor” gisa eta erdaretara hainbeste jo beharrik ukan gabe lagunarteko hizkera informalerako baliabide paregabe gisa daukate ere zenbait gaztek (Alberdi-Zumeta 2019). Halaber, Legorburuk (2018) agerrarazi du hitanoa feminismotik emazteendako ahalduntzeko tresna baliotsua izan litekeela, gisa bateko boteretze bat eman liezaiekeela. Heldu baita, genero rolek hitanoan eragina dute, baina beste zentzuan ere, hitanoak inarros litzakeela genero rolak. Ber gisan, izan mugimendu euskaltzaletik ala feministatik, nokaren berpizteko gogo baten erakusgarri dira hitanoa ikasteko ikastaroak, gero eta gehiago nokara bideratuak<sup>17</sup>.

---

<sup>17</sup> Ondoko inizatibak konparazione: 2018ko EHUko Uda Ikastaroetan “Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?” ikastaroa, 2019an Oñatin abiatu “Ingo Xonau!” ekimena eta hortik atera “Appa Hi” aplikazioa, “Hikaldixa”, Hika egunak, 2023ko Euskal Herriko 1. Hika Topaketa, Gabiriako “Nokaldia”, eta abar.

# 3. PROTOKOLO METODOLOGIKOA ETA ESPERIMENTALA

## 3.1. HELBURUAK

Aitzineko lanek erakutsi digute beste testuinguru batzuetan nokako formak higitzeko bidean direla. Beraz, Ortzaizeko errealitate soziolinguistikoa eta herrian gelditzen diren nokari kopuru arras murrizta kontuan harturik, gure abiapuntua izan da bertako noka ere higitzen dela, edo bederen nokaren higitzearen zantzu batzuk agertuko zitzaizkigula. Horrez gain, Artolak (Irizar 1999) 90ko hamarkadan hiru lekukorengandik bildu zituen formetarik landa, nehor ez da ibili Ortzaizeko forma alokutiboen jasotzen<sup>18</sup>, orduan aldakortasuna atzemanen genuelako duda guti genuen.

Ondorioz, lan honen helburu nagusia Ortzaizeko nokaren higitzea aztertzea edo bederen hari hurbilpen bat egitea da. Baina ikerketak beste helburu espezifiko hauek ere ukanen ditu:

1. Ortzaizen galbidean den nokaren corpora osatzea;
2. Herriko bi adin tarteren nokako mintzoen arteko aldakortasuna ikertzea, hots, adina ardatz, nokaren higitzea ikuspegi morfologikotik aztertzea;
3. Forma bilketatik haratago joan eta nokaren higitzea ikuspegi soziolinguistikotik aztertzea, hain xuxen:
  - Ortzaizeko lekuko-sorta horren nokaren erabilera-zirkuluaren eboluzioa deskribatzea;
  - Nokari atxikitzen dituzten balio sozioafektiboen eboluzioa aztertzea.

Hain xuxen, nahi izan dugu forma bilketa “soiletik” haratago joan, nokaren higitze horrekin lotura ukan lezaketen lekukoen praktikak eta diskurtsoak jasoz; alegia, nahi izan dugu higitze horren gibelean izan litezkeen arrazoiei buruz hurbildu. Bizkitartean, horrek ez du erran nahi lan honekin Ortzaizeko nokaren gainbeheraren zergatia ezagutarazterat gatozenik. Izan ere, uste dugu azalpen bakarrari ihes egiten dion fenomeno konplexu eta multifaktoriala dela. Ez dugu agian esplikatzeke ezinezkoa litzatekeen gertakari baten azalpen bat botatzeko pretentziorik.

---

<sup>18</sup> Zuazok (2021 : 80-88) bildu dituen adizki alokutiboak Bankakoak baitira.

Horregatik, gaiari soziolinguistikatik heltzean, nokaren erabileraren higatzearen deskribapen bat ematea dugu helburu.

## 3.2. METODOLOGIA

### 3.2.1. Berriemaileak

Metodologia esperimentalari jarraiki, guhaurek alor-lanean ibiliz osatu dugu ikerketa honi mamia ematen dion corpora. Tokiko berriemaileengana jo dugu, eta orotarar 18 lekukoren kolaborazioari esker ondu dugu ikerketa hau. Nokaren erabileraren aldakortasuna aztertzea baikenuen xede, hiru adin tarte ezberdinetakoak dira 18 informatzaile horiek. Edozein aurkezpenetan sartu aitzin, on da berebiziko garrantzia duen xehetasun baten ematea: ez dugu 60 urtetik peko ortzaiztarretarik bihirik atzeman noka ari denik. Honenbestez, ikerketa hori alderdi morfologikotik<sup>19</sup> ontzeko, 60 urtetik goitiko 10 *nokari*ekin<sup>20</sup> aritu gara, bi adin tartetan banaturik: 5 nokari 60 urtetik goitikoetan, hauetarik lau emazte eta gizon bat, eta 5 nokari 75 urtetik goitikoetan, horietarik ere lau emazte eta gizon bat. Alderdi soziolinguistikoan, aldiz, aipatu nokari horiei bi emazte gehiturik, hirugarren adin tarte bat ere sartu dugu. Nahiz ez dugun atzeman noka ari den gazterik, nahi izan diegu horiei ere boza eman, erabileraren lekuko direnez gero, gaiari buruz uste eta balioak biltzeko. Gainera, beren pertzepzioak eta nokaren erabilpen eza bera nokaren erabileraren aldakortasunaren parte dira. Beraz, 24-35 urte arteko 6 gazterekin aritu gara, horietarik toka ari diren hiru mutiko eta ez toka ez noka ari ez diren 3 neskarekin.

---

<sup>19</sup> Gure lanean zehar, zenbait alderdi morfonologiaren esparrutik ere landu behar izan ditugu.

<sup>20</sup> *Nokari* terminoa hautatu dugu noka ari diren hiztunen izendatzeko, hiztun bati *zukari* terminoa aditu ondotik. Analogiaz menturatu gara beraz gurera ekartzerat, izendapena erraztuko duelakoan.



Hona gure 18 berriemaileen banaketaren taula bat:

3. ADIN TARTEA (24-35 URTE)	2. ADIN TARTEA (+60 URTE)	1. ADIN TARTEA (+75 URTE)
<p>auzoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● MARGA24</li> <li>● MAPE25</li> </ul>	<p>ahizpak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● TEIN61</li> <li>● ANIN67</li> </ul>	<p>ahizpak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● MAGA92</li> <li>● MAIR89</li> </ul>
<p>lagunak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● BIXI26</li> <li>● TXOXU24</li> </ul>	<p>ahizpak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● JAIB66</li> </ul>	<p>lagunak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● AMLA88</li> </ul>
<p>lagunak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● ELHE28</li> <li>● XANIN35</li> </ul>	<p>lagunak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● MAIB68</li> <li>● JEGA62</li> </ul>	<p>ahizpak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● AMLAH75</li> <li>● MALAH70</li> </ul>
		<p>auzoak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● BEBI75</li> <li>● MAETX83</li> </ul>

● Alderdi morfologikoan eta soziolinguistikoan parte hartu dutenak (10)

● Alderdi soziolinguistikoan parte hartu dutenak (8)

Gaineko taulan ikusten den gisan, gure informatzaileen anonimotasunaren errespetatzeko, kodeak baliatzeko deliberoa hartu dugu: izen ttipiko lehen silaba + etxearen izenaren lehen silaba + adina. Deiturak baino, pentsatu dugu horien izendatzeko ortzaiztarrendako hain inportanteak diren etxeen izenak baliatzea manera egokia litzatekeela herriko usadioen ohoratzeko.

Kode horien gibelean diren hiztunak presenta ditzagun berehala.

1. Lehen adin tartekoak (+75 urte):

- MAGA92: lekukorik adintsuena dugu, 92 urteko emaztea. Ortzaizen sortua, Ortzaizen hazia, eta 1950. hamarkadan garai hartan egiten ohi zen bezala bospasei urte kanpoan pasaturik salbu, Parisen eta Ameriketara, hain xuxen, Ortzaizen pasatu du bizi gehien-gehiena, laborari-etxe batean. Senarrarekin

(zuka ari ziren elkarri) hiru haur ukan ditu: alaba bat (noka ari zaio) eta bi seme (toka ari zaie). Senarra ere gisa berean ari zitzaizkien seme-alabei, eta horiek ere elkarren artean. Ahizpari ere noka ari zaio, baita lehen bigarren ahizpa zenari ere. Semetxiari toka mintzo zaio; alabatxiei, aldiz, zuka.

- MAIR89: MAGA92ren ahizpa dugu. Ibilbide berdintsua ukan du, urte batzuk Ameriketara pasaturik, Ortzaizen egin du bizi gehiena, sortetxean. Aise mintzo da noka jendeei, eta jendea aise hala mintzo zaio. Ortzaizeko salbuespenetarikoa da senarrari toka mintzo zaiona, hura emazteari zuka mintzaturik ere. Bi haur dituzte: alaba bat (zuka ari zaizkio) eta seme bat (toka ari zaizkio). Semetxi eta alabatxiei zuka ari zaizkie. Haren bihotz ona eta sarea laguntza baliosak izan dira guretako nokarien atzemateko.
- AMLA88: 88 urteko emaztea dugu, MAIR89-ren adin bertsukoa. Sortzetik Ortzaizen dago, sortetxean bizi. Haur bakarra, aita eta ama noka mintzo zitzaizkien. Herriko ostatu batean ari izana da bizi guzian, izebarekin. Bi seme ditu, eta erdi frantses erdi toka ari zaie. Familia zirkulutik kanpo, MAIR89ri baizik ez zaio mintzo noka gaur egun. Frantseserat aise lerraturik ere, hari ttipiko lengoian mintzo zaio, erran nahi baita, euskaraz, eta noka.
- AMLAH75: 75 urteko emaztea dugu. Hura ere, Ortzaizen sortu eta hazia da, laborari-etxe ttipi batean, ahizpa eta anaiarekin. Burasoak toka eta noka mintzo zitzaizkien, eta horiek beren artean ere bai. Ezkongabea da eta ez du haurrik. Gaur egun, noka mintzo da sortetxean ere bizi duen ahizpari eta auzoko zenbait emazteri.
- MALAH70: AMLAH75ren ahizpa gazteagoa da. 60 urtez goitikoan taldeetatik adinez arras hurbil izanki, hari ez dizkiogu adizkiak bildu. Haatik, harekin soziolinguistikari lotu alderdia landu dugu, noka ari baita etxe berean bizi duen ahizparekin. Senarrarekin zuka mintzo, biak hiru alaba-seei zuka mintzo zaizkie, eta haur ttipiei frantsesez, gehienak Euskal Herritik kanpo bizi baitira. Haatik, ahizpari eta auzoko zenbait emazteri mintzo zaie noka.
- BEBI75: 75 urteko gizon laboraria dugu, betidanik Ortzaizen bizi dena, sortetxean. Emaztea frantsesa izanki, frantsesez mintzo zaio. Salbuespena da, burasoak hari eta anaiari zuka mintzo baitzitzaizkieten. Parisen bizi dituen

samei erdi frantsesez erdi zuka mintzo zaie. Anaiarekin toka ari da, eta auzoko emazteekin noka.

- MAETX83: 83 urteko emaztea da, BEBI75ren lehen auzoa. Hau ere, sortzetik Ortzaizen bizi da, sortetxean. Hiru ahizpa ziren, eta aita alaba gehienari noka mintzo zitzaion, baina beste biei, gure berriemailea barne, zuka. Senarrarekin zuka ari dira elkarri. Semeari, aldiz, biak frantsesez ari zaizkio. Berak dio ttipian auzoko neskekin gehien bat frantsesez ari zirela, baina euskaraz ari zirelarik, naski noka. Gaur egun, nehorekin ez da ari noka. BEBI75 auzoari, aldiz, toka mintzo zaio.

## 2. Bigarren adin tartekoak (+60 urte):

- TEIN61: 61 urteko emaztea dugu. Ortzaizen etxalde batean sortu eta hazia, eta ikasketak Bordelen egin ondoan, Ortzaizera sartu zen eta han berean familia hazi. AMLA88ren iloba dugu. Euskal kulturgintzan ari da lanean, Ortzaizetik 20 bat kilometrotarat. Lau haurridetarik azkena, burasoak lauei to eta noka mintzatu izan zaizkie. Senarrari zuka mintzo zaio, baita beren semeari eta alabari ere. Senarra semeari artetan toka ari zaio, baina alabari zuka. TEIN61 bere bi anaiei toka mintzo zaie, eta ahizpari noka.
- ANIN67: TEIN61en ahizpa eta beraz AMLA88-ren iloba dugu, 67 urtekoa. Hura ere Ortzaizen sortu eta hazia, baina Irisarrirat ezkondu eta han egin du familia. Garazin irakaskuntzan ari izana, erretretan da gaur egun, beti Irisarrin bizi. Senarrarekin zuka mintzo da, eta bere bi seme eta alabari ere bai. Senarra aldiz toka mintzo zaie samei. Berak ere noka burasoengandik jasorik, ANIN67 hala ari da ahizparekin, baita Ortzaizeko adin bertsukoekin ere<sup>21</sup>.
- JAIB66: 66 urteko emaztea da, Ortzaizen sortu eta handitua, eta gaur egun oraino sortetxean plantatua. Erretretan da kirol elkarte batean idazkaritza lanetan arituz osagarri gisa. Herriko adin tarte honetako salbuespena da senarrarekin toka eta noka ari dena. Bizkitartean, biak zuka ari dira semeari. Lau ahizpetarik gazteena, noka ari da ahizpekin, herriko adin bertsuko emazteekin eta kanpoko lagun zenbaitekin ere.

---

<sup>21</sup> Nahiz eta aspaldian Irisarrin bizi, herri-kideak dituen irisartar oroekin zuka ari da, baina Irisarrin bizi diren ortzaiztarrekin, aldiz, toka eta noka.

- MAIB68: JAIB66en ahizpa dugu. Hura ere Ortzaizen sortu eta hazia, geroztik Bidarraiko auzo-herrian egin du bizia, eta bertan familia sortu. Luzaz Ortzaizeko ikastolan ari izan da lanean, eta gaur egun, erretretan izanik ere, artetan haien laguntzen segitzen du. Ahizparen gisan, hiru semeei zuka ari zaie, baita horien haurrei ere, izan mutiko ala neska. Noka mintzo zaie ahizpei, Ortzaizeko adinkideei, baita herriz kanpoko zenbait laguni ere.
- JEGA62: MAGA92ren seme gehiena dugu, etxalde berean sortu eta handitua, eta gaur egun han beti laboraria. Aitamen segida hartu eta etxaldea berak garatu du, emaztearekin batean. Harekin frantsesez ari da bearnesa baita. Bi haur dituzte: seme bat (toka ari zaio) eta alaba bat (zuka ari zaio). Anaiari toka ari zaio, eta noka arrebari, baita herriko adinkideei ere, gure taldeko partaide ditugun TEIN61, ANIN, JAIB66 eta MAIB68-ri, besteak beste. Ilobak neskak ditu, eta horiei, alabari bezala, zuka mintzo zaie.

### 3. Hirugarren adin tartekoak (24-35 urte):

- MARGA24: belaunaldien hariari jarraiki, JEGA62ren 24 urteko alaba eta MAGA92ren alabatxia dugu, etxalde berean hazia. Kolegiora arte Seaskan ibili eta lizeoan elebidunean egon ondotik, Toulousen burutu ditu ingeniari ikasketak. Diplomaturik, gaur egun laborantxa-munduan ari da lanean Baxenabarren, sortu etxaldean biziz, Ortzaizen. Herriko ekimen kulturaletan sutsuki parte hartzen du, izan antzerkian, dantzan edo beste.
- MAPE25: MARGA24ren lehen auzoa da, 25 urtekoa. Beren aiten gisan, bi neskak ttipitik elkarrekin ibiliak dira, horiek bizkitartean Ortzaizeko ikastolatik haste lizeo elebidunerat arte. Gaur egun, Lapurdin bizi da osasungintzan han egiten baitu lan, baina zango bat beti atxikia du sorterrian. Hura ere, herrian euskal kulturaren sustapenaz arduratzen den Urzaiz elkarteko kide da, eta ekitaldien antolakuntzaz gain ere antzerkian eta dantzan ibili da herriko hainbat proiektutan.
- BIXI26: TEIN61en 26 urteko semea dugu, ondorioz ANIN67ren iloba, baita AMLA88ren iloba ttipia ere. Ortzaizeko ikastolatik Etxepare lizeoraino, eskolako ibilbide guziaz Seaskan iragan du. Ondotik, hark ere ikasketak Tarbesen buruturik, ingeniari da energiaren arloan. Gaur egun Baigorri bizi da, baina

- iduri luke hark ere zango bat atxikia duela Ortzaizen, franko ibiltzen baita bertan herriko lagunekin, eta antolatzen diren ekitaldi kulturaletan parte hartzen baitu.
- TXOXU24: BIXI26ren ttipiko laguna da, adinez 24 urtekoa, pisukideak dira Baigorriin. Hura ere Ortzaizeko ikastolan has eta Seaskan ibili da, lizeoan adar profesionalean berezitu zen artio. Gaur egun Ortzaizen ari da lanean, artisautzan. Hark ere herriko ekimen kulturaletan parte hartu izan du.
  - ELHE28: 28 urteko urepeldar alaba dugu, baina Ortzaizen hazia, eta betidanik Ortzaizen bizi. Auzoak dituen MARGA24 eta MAPE25en eskolako ibilbide bera ukan du, Ortzaizeko ikastolatik Garaziko lizeo elebidunerat artio. Frantzian ikasketak burutu eta herrirat itzulirik, giza zientzietan tesi baten egiten ari da. Herrian ez du engaiamendu ttipia, Urzaiz elkarteko kide baita, eta baita herriko hautetsi ere.
  - XANIN35: 35 urteko gizon gaztea da, BIXI26ren lehen kusia, heldu baita, TEIN61 eta ANIN67ren iloba, eta AMLA88-ren iloba ttipia. Ortzaizen handitua, oraino han bizi da, bertan familia eginik. Lehen mailan Ortzaizeko ikastolan ibili zen, eta ondotik elebidunerat pasa zen, kolegioan pribatuan eta lizeoan publikoan. Baionan ikasi eta gaur egun euskara irakasle da eredu elebidunean. Laguna duen ELHE28 bezalaxe, Urzaizeko kide eta herriko hautetsi da.

Berriemaileen hautaketarako, funtsezko irizpide hauek ukan ditugu ardatz: egunerokoan euskaraz aritzea, noka mintzatzea, Ortzaizen sortua eta hazia izatea eta Ortzaizen edo gehienez inguru-herrietan bizi izatea. Alabaina, hiztunak hautatu aitzin atzeman behar baitira, Milroyk (1980) praktikan eman zuen *elur bola efektua* edo *lagunaren laguna* deitu teknika erabili dugu gure laguntzeko prest litezkeen nokarien atzemateko. Ezagunak genituen ortzaiztarretarik abiatu, eta hauen herriko sare sozialez baliatu gara lagunak edo ezagunak diren beste informatzaile batzuen atzemateko. Erran behar da lagunaren lagun izateak lagundu duela berriemaile potentzialak atzemate, horien laguntzeko baimena erdiestea, baita horiek testuinguru informalean elkarrizketatzea ere, eta hori, gure ikerketarako beharrezkoa genuen.

### 3.2.2. *Datu-bilketa*

Bi metodoren bidez osatu dugu gure corpora: bai elizitazio bidez, gure ikerketara bideratzeko, bai mintzo librearen bidez, espontaneoki ateratzen diren adizkiak eta gogoetak biltzeko. Bien konbinaketa ezinbestekoa iruditu zaigu bildu informazioa ahal bezain osoa eta fidagarria izan dadin. Alde batetik, elizitazioari datxikola, ikergaia bi alderditarik lantzeko parioa asumitu dugunez, erran nahi baita, hala hizkuntzaren azterketatik nola alderdi soziolinguistikotik, bi galdetegi mota sortu ditugu datu elizitatuen biltzeko.

#### 3.2.2.1. *Galdetegiak*

##### Morfologiari dagokion galdetegia

Alde batetik, nokako adizki alokutiboen paradigmak muntatzeko galde sorta bat sortu dugu, morfologiari emana. Orotarat, 308 forma biltzeko egina da. Indikatiboan, hauek biltzen ditu: i) forma analitikoetan, NOR (*izan*) orainaldian eta iraganaldian; NOR-NORI (*izan*) 3. pertsona absolutibo singularrarekin eta pluralarekin, orainaldian eta iraganaldian; NOR-NORK (*\*edun*) orainaldian eta iraganaldian; NOR-NORI-NORK (*\*eradun*) orainaldian eta iraganaldian. ii) Aditz sintetikoetarik IBILI, JOAN, EGON eta JAKIN, azken hori objektu singular eta pluralarekin. Ondotik, baldintza irrealean NOR (*\*edin*) eta NOR-NORK (*\*edun*) eta baldintza errealean NOR (*izan*). Horiez gain, ahalera orainekoan, hipotetikoan eta iraganekoan, NOR (*\*edin*), NOR-NORK objektu singularrarekin zein pluralarekin (*\*ezan*), hurrenez hurren. Aginteran, NOR (*\*edin*), NOR-NORK (*\*ezan*), eta NOR-NORI-NORK objektu singularrarekin eta pluralarekin. Azkenik, modalitate epistemikoan, NOR (*\*edin*) eta NOR-NORK (*\*edun*) bildu ditugu, objektu singularrarekin eta pluralarekin, hala orainaldian nola iraganaldian.

Argiago ikus bitez bildu paradigmak ondoko taula horien bidez:

INDIKATIBOA			
		Orainaldia	Iraganaldia
analfitikoak	<i>izan</i>	NOR	NOR
	<i>*edin</i>	NOR-NORI (3.p.abs.) o.sg. + o.pl.	NOR-NORI (3.p.abs.) o.sg. + o.pl.
	<i>*eradun</i>	NOR-NORI-NORK	NOR-NORI-NORK
sintetikoak	<i>ibili</i>	✓	✓
	<i>joan</i>	✓	✓
	<i>egon</i>	✓	✓
	<i>jakin</i>	o.sg. + o.pl.	o.sg. + o.pl.

BALDINTZA		
	Irrealia	Errealia
<i>*edin</i>	NOR	NOR
<i>*ezan</i>	NOR-NORK o.sg. + o.pl.	NOR-NORK o.sg. + o.pl.

AGINTERA	
<i>*edin</i>	NOR
<i>*ezan</i>	NOR-NORK o.sg. + o.pl.
<i>*eradun</i>	NOR-NORI-NORK

AHALERA			
	Orainaldia	Hipotetikoa	Iraganekoa
<i>*edin</i>	NOR	NOR	NOR
<i>*ezan</i>	NOR-NORK o.sg. + o.pl.	NOR-NORK o.sg. + o.pl.	NOR-NORK o.sg. + o.pl.

MODALITATE EPISTEMIKOA		
	Orainaldia	Iraganaldia
<i>*edin</i>	NOR	NOR
<i>*edun</i>	NOR-NORK o.sg. + o.pl.	NOR-NORK o.sg. + o.pl.

Hain xuxen, modu eta aspektu hauetarik bakoitzetik euskarazko hiru erranaldi neutroz osatua da galdetegia, ondotik hiztunak solaskideari noka errepikatzeko gisan (ik. [7.2. eranskina](#)). Halarik ere, nahiz eta, argumentu eta aldi bakoitz forma bat helburu izanez, galdetegia 308 forma biltzeko egina izan, ez ditugu hainbeste forma bildu. Konparazione, baldintza errearen adierazteko, gure berriemaileek indikatiboko iraganaldiko adizki laguntzaileak baliatzen dituzte, eman dezagun:

(8) *Aberatsa izan baldin banintz, Ameriketarat joanen nintzatekeen-en orde, Aberatsa izan baldin banintz, Ameriketarat joanen nintzan erraten dute.*

Eta noka berdin:

(9) *Ameriketarat joanen nindunan.*

Alabaina, forma hori jadanik bildua genuen indikatiboan. Gisa berean, ahalerako zenbait forma ez ditugu bildu ahal izan, hiztunek perifrasi baliokide bat baliatzen dutelakoan. Adibidez:

(10) *Ni ortzegunean jin nitake beharrez-en orde, Ni ortzegunean jiten ahal niz erraten dute.*

Eta noka berdin:

(11) *Ortzegunean jiten ahal nun.*

Holako kasuengatik, beraz, ditugu 308 forma baino gutiago bildu. Izan ere, aldaera fonetiko nahiz morfologikoak alde batera utzirik, 286 forma bildu ditugu 1. adin tartean, eta 284 2. adin tartean. Galde sortaren osatzeko, Elustondok eta Epeldek (2023) Oztibarreko nokako formen biltzeko baliatu galdetegian oinarritu gara, egin ahala Ortzaizeko mintzorat ekarriz eta gaiak eta erranaldiak pixka bat aldatuz, gure berriemaileengandik ahal bezain hurbil izateko. Oztibarrekoak baldintza erreala, baldintza irrealeko NOR-NORK eta modalitate epistemikoa barne ez dituenek, horiek biltzeko erranaldiak guhaurek sortuak dira.

#### Galdetegi glotobiografikoa<sup>22</sup>

Bestalde, hiztunei nokako adizkiak biltzeaz gain, beren hizkuntza-praktikei eta bereziki toka eta nokaren erabilpenari buruz dituzten jarrerak eta ideologiak ere bildu nahi izan ditugu, azterketa kualitatibo baten egiteko. Horretarako, galdetegi glotobiografiko bat sortu dugu, erran nahi baita, hizkuntza ardatz duten narrazio biografikoak biltzeko galdetegi bat, hiztunekilako elkarrizketak gidatzeko. Legorburuk (2018) bere MALerako sortu galdetegia inspirazio iturri gisa hartu dugu, ondotik gurerat ekartzeko. Hain xuxen, hark bezala, berriemaileak profil ezberdinekoak direla kontuan hartu dugu, gogoan hartuz hiru adin tarte ezberdin direla, gazteenean (24-35) batere nokaririk gabe, eta horien artean ere profil ezberdinak direla, mutikoak, neskak ez bezala, toka ari baitira. Ondorioz, hiru galde sorta sortu ditugu: lehena nokariei zuzendua, erran nahi baita 1. eta 2. adin tartekoei<sup>23</sup>, bigarrena 3. adin tarteko mutiko gazte tokariei, eta hirugarrena azken adin tarte horretako neskei zuzendua, zukari eksklusiboei. Izan ere, hiru galdetegiak batera dituzte galdera biografiko orokorrak, hau da, haur denborari,

---

<sup>22</sup> Kasares (2014)-tik hartu dugu termino hori. Izan ere, haren definizioa gure xedearekin ontsa ezkontzen dela iruditu zaigu. Halaxe dio: “Glotobiografiak izaera dinamiko-diakronikoa duten narrazio biografikoak direnez gero, hizkuntza ordezkapen eta berreskurapen egoerak aztertzeko bereziki baliagarriak suerta daitezke. [...] Glotobiografiek subjektuen bizitzen inguruabarrak eta bilakaerak bildu dituzte hizkuntzekin eratu dituzten harreman-loturetan ardazturik. Mintzairekiko atxikidura horiek ezagutzeak hiztunek beren umeen hizkuntza-sozializazioaren aitzinean izan dituzten jokaera, jarrera eta estrategietan arakatzeko bide eman dit” (Kasares 2014 : 116).

<sup>23</sup> Oraindik goiti, 1. adin tartekoak “adinetakoak” izendatuko ditugu, 2. adin tartekoak “helduak” eta 3.ekoak “gazteak”.



ikasketei edota etxeari buruzkoak, baita galdera metalinguistiko orokorrak ere. Horietan xede genuen noka eta zukaren arteko eta noka eta tokaren ezberdintasunaz ukan litzaketen pertzepzioen gainetik, beren iduriko hitanoak oro har eta nokak bereziki Ortzaizen duen lekuari buruz galdekatzea. Erran bezala, galderak hiztun profil ezberdinei nahi izan ditugunez moldarazi, araberako galdera espezifikoak ere baditu galde-sortak, hala nola, biografia linguistikoari loturikoak; izan ere, adinekoak eta helduak galdekatzen dira beren nokako praktiken hastapenei buruz, beren haur denboran toka eta nokak herrian zuten lekuari buruz, beren nokaren distribuzioa eta transmisioari buruz. Mutiko gazteak, aldiz, beren tokaren erabilerari buruz, ukan lezaketen hizkuntza-mudantzari buruz, eta neskak, beren tratamendu-erabilerei buruz. Azkenik, gazteen galdetegieta galdera metalinguistiko espezifikoak gehitu nahi izan ditugu, sendi lezaketen noka ikasteko gutziaren neurtzeko.

### 3.2.2.2. *Alor-lana*

#### Datu-bilketaren metodologia

Datu-bilketa hiztunen etxeetan gauzatu ahal izan dugu urtarril hondar eta martxo hastapen artean. Denbora-tarte horretan elkarrizketatzailea Ortzaizen berean bizi izan da, arrunt murgildurik, egun guziz laguntzeko prest ateak gozoki irekitzen zizkiguten lekukoengana etxez etxe aiseago ibiltzeko. Beren sukaldetan aritu gara, usu dute eta bixkotxen inguruan, erran nahi baita, testuinguru informalean. Baldintza horiek arras baliagarriak izan dira, konfiantzazko eta usaiako tokian izanki, naski eguneroko mintzo naturala baliarazten lagundu baititu. Caminok dioen gisan, “Informatzailearen etxea dialektoaren ingurunerik jatorrizkoena da” (2009 : 300). Berriemaileen baimenarekin, elkarrizketa oro grabatu dugu Tascam DR-05X grabagailuaren bidez. Orotarat, 45 oren eta 10 minuta grabatu ditugu.

Hain xuxen ere, informazioen biltzeko, hiztunak sistematikoki binaka plantatu ditugu<sup>24</sup>, eta elkartzeko bakoitz, bi galdetegiak konbinatu ditugu. Zenbaitetan morfologiari dagokion galde-sortarekin hasi gara eta galdera glotobiografikoekin bukatu, zenbaitetan alderantziz, eta mintzo librea beti artetik. Nahiago izan dugu egun batean batekin aritu eta ondokoan bestearekin aritzea baino, bi galdetegiak aldi berean pasatzea ikerketa bi planotan aitzinaraz genezan, eta oroz gainetik, hiztunei elizitazioak dakarren nekezia mentala pixka bat arin zekien. Bestetik,

---

<sup>24</sup> Berriemaileen banaketari doakion taulan kortxetez adierazirik ikus bitez bikoteak, eta kideak elkarri lotzen dituzten harreman motak. Ikusiko den gisan, adin tarte bakoitzetik lekuko bat bi bikote ezberdinetako kide izan da (MAIR89 lehenetik eta MAIB68 bigarrenetik), batean nokari gisa eta bestean noka-jasotzaile gisa.

binakako konfigurazio hori ezinbestekoa zitzaigun alderdi morfologikorako, bistakoa denez mintzo librean noka ariarazteko elkarrekin mintzarazi behar baitziren, eta elizitazioarako ere binaka ariaraztea egokia iruditu zaigu. Hara nola eraman dugun ariketa: galdegin diogu nokari bakoitzari parean zuen solaskideari, zeinari noka ari baitzaio, guk bota erranaldi bat errepika ziezaion, hari mintzo ohi zaion moldean, hots, noka. Ariketa ez da aparantziarik ere erraza hitzunarendako: gaitzeko gimnastika mentala galdegiten dio. Guri ez baitzitzazkigun noka ari, aise dorpeago izanen zen banaka arituz guri erranaldi bat nokarat itzultzea, ez bada ezinezko. Horregatik, parean duten solaskidearekilako tratamendua barneratua baitute, parez pareko konfigurazio hori ezinbestekoa izan zaigu. Galdetegian agertzen den gisan, erranaldiak molde neutrotik nokara ekarrarazi ditugu, hau da, euskaratik euskararat, baina aspektu konplexuko erranaldi batzuek hitzunak ezintasunean ezartzen zituztelarik, erranaldiak frantsesetik euskararat itzularazi ditugu, eta sokorri gisa lagungarri izan da.

Artetik erran dezagun elizitazio ariketa denboran blokeaturik gertatu izan direla parte-hartzaile guziak behin edo beste. Elkarrizketatzaile batek presioa ekartzen baitu, bere tresneriarekin gainera. Presio horren pean, elkarrizketatuak bloka litezke edo usaian balia ez litzakeen formak atera litzake. Labovek (1972 : 209) aipu duen *behatzailearen paradoxa* dastatu dugu beraz, Artzelusek (2021 : 181) euskaratua: “komunitatearen ikerkuntza linguistikoaren helburua jendea sistematikoki behatua ez delarik nola mintzo den jakitea da; eta hala ere, guk datuak behaketa sistematikoaren bitartez baino ez genitzake eskura”. Hortaz, horri loturik aipatzen duen Montoyaren (2003 : 18) adierazpenarekin bat egiten dugu: “ezin dugu ahaztu lanaren zehaztasuna utopia izan daitekeela, eta hasieratik onartu behar dugu azterketarako oinarriztat hartuko ditugun grabazioek eta inkestek ez dutela, askotan, bertako eguneroko hizkera naturala islatuko”. Muga hori asumiturik, entseatu gara elizitazioaren jukutria konpentsatzerat mintzo librearekin, formak naturaltasun osoz ateratzen baitzizuten. Biziki eleketariak ez ziren lekukoei argazki xaharrak aterarazi izan dizkiegu, elkarrekin mintzarazteko.

Halaber, elizitazioan blokatzeak gertatzen zirelarik hainbat teknika baliatu ditugu: aipatu bezala itzulpena, baina erranaldiak kontestualizatzea, artetan teatralizatzea ere, edo espero ez genuen forma arras berezi bat ateratzen zutelarik, erranaldia osorik errepikaraztea. Usu, akuilatzeiko beharrik ere ez dugu ukan, ateraldi susmagarri baten ondotik berak berehala ohartzen baitziren

arroztuak zirela atera berri formarekin. Dena den, elkarrizketatzaileak erroak Ortzaizen izateak eta beraz bertako mintzoa ontsa ezagutzeak anitz lagundu du: “inkesta egin behar den herri edo eskualdekoa izateak dakartzan onurak ugari dira: datuak aiseago eta fin ulertuko ditu lekukoaren hitz, ateraldi eta esaerak; erraza gertatuko zaie elkarren arteko komunikazioa” (Camino 2009 : 291). Orotarat, nokari guziekin elkarrizketak kontuan hartuz, 20 oren eta 50 minuta pasa ditugu elizitazioan. Mintzo librean, haatik, guti gorabehera 9 oren grabatu ditugu, kontuan hartu gabe elizitazioaren artetik nahiz galdera glotobiografikoen artetik lekukoaren artean eman eleketak, non ere naturaltasuna arras baliagarria izan baitzaigu.

Azterketa kualitatiborako, adizki bilketarako konfigurazio berbera baliatu dugu, hau da, hiztunak binaka atxikiz. Hain xuxen, *dyadic interviews* deitukoak eraman ditugu. Hainbat ikerketak estimatzen dute elkarrizketa diadikoen formatuak egokiak direla anitz parte-hartzaile direlarik, baita horien gogoeta sakonagoak behar direlarik ere datuen egokitasunerako (Morgan, 2016; Morgan et al., 2016). Metodo hori logistikoki arras ontsa jin zaigu, alde batetik, parte hartzaileen kopuruagatik, baita ahalbidetzen baitu adizkiak bildu dizkiegun bikote berekin lanean aritzea ere, eta beraz, beren hizkuntza-praktikez mintzatzean ere noka entzutea. Gainera, eduki gehiago eskaini digu, formatu horrek eztabaidarat gomitatzen duenez, trukatu ahala beren gogoetak garatzen baitzituzten lekukoek. Bide batez, elkarrizketa forma horretan, informatzaile baten erantzun batek punpa lasterrean bigarrenaren erreakzio bat edo ekarpen bat pizten du; orduan, halabeharrez, elkarrizketak erdi-gidatu eta libreak izan dira, galde-sorta glotobiografikoa beti euskarri ukanki. Orotarat, 15 oren eta erdi pasa ditugu hitano solas hemezortzi parte hartzaileekin. Halarik ere, gogoan har bedi elkarrizketak kontestu informalean egin direla eta gorago erran bezala, artetik eleketa aise sartu dela, batez ere mintzatzeko erraztasuna edo beharra duten adinetakoekin.

### Datu-prozesaketa

Datu-prozesaketa ezberdina baliatu dugu corpus batetik besterat; hau da, corpus mota ezberdina izateak beharturik, ez dugu metodologia bera segitu bildu adizkiak eta nokaren erabilerari buruzko lekukotasunak lantzeko.

Lehenari dagokionez, jaso forma alokutibo guziak, aldaerak barne, zegozkien aldi eta argumentuen araberrako tauletan bateratu eta agerrarazi ditugu, adin tartearen arabera bereizirik; 1. adin tartekoaren paradigmak alde batetik, eta 2. adin tartekoarenak bestetik. Antolaera bateratu

horri esker, aiseago aztertu ahal izan dugu belaunaldi batetik besterako aldakortasun morfologikoa. Aldi berean, Artolak (Irizar 1999) eta Zuazok (2021) osatu paradigmak begipean genituen erreferentzia gisa, indikatibozko adizkiendako segurik. Gainbegirada horri esker, adin tarte bateko paradigmata bestetarako aldaerak eta joera konbergenteak identifikatu ahal izan ditugu, ondotik horien interpretatzeko. Horrez gain, elizitazio denborako grabaketak eskura izan ditugu forma zenbaiti buruz ukan genitzakeen duden argitzeko.

Bigarren corpusaren lantzeko, galdetegi glotobiografikoen araberrako elkarrizketa erdigidatuak transkribatu ditugu, RS28H-USB pedalarren laguntzaz. Orotara, 14 oren grabaketa transkribatu dugu. Behin dena papereraturik, “eduki kualitatibo analisia”-ren metodologia erabili dugu datu kualitatiboen zentzua sistematikoki deskribatzeko, pasarteak elkarren segidan *coding frame* bateko kategoria ezberdinetara egokituz (Schreier 2014). Hain xuxen, urrats hauek segitu ditugu guti gorabehera analisirako (Schreier 2014 : 174):

1. Ikerketa-galdera baten hautaketa;
2. Materialaren hautaketa;
3. Kode-marckoaren (*coding frame*) eraikuntza;
4. Segmentazioa;
5. Behin-behineko kodetzea;
6. Kode-marckoaren ebaluatzea eta aldatzea;
7. Analisi nagusia;
8. Emaizen aurkezpena eta interpretazioa.

#### 3.2.2.3. Zailtasunak

Bistan denez, datu-bilketa ez da oztoporik gabeko aktibitate bare-barea izan. Izan ere, zailtasun nagusia nokariak atzematea izan da. Hastapenean, azterketa morfologikorako 12 hiztunekin aritzea genuen helburu, adin tarte bakoitzetik 6, eta ahalaz horietarik 3 emazte eta 3 gizon, baina maleruski, ez dugu lortu; 10 lekukotara heldu gara, adin tarte bakoitzetik 4 emazte eta gizon batekin. Espero genuena baino aise jende gutiago ari da noka gaur egun Ortzaizen. Horrek hastetik eman digu nokaren hingatze-mailaren ideia bat. Nokari gazteenak 60 urtekoak dira; horiek baino gazteagokoetan, bat ere ez dugu atzeman. Gainera, erran behar da lehen adin tarteko erabiltzaile gehienak mundu honetarik partitua direla. Aldi guziz bi pertsona atzeman beharra, nahi genuen adinekoa izatea, eta preseski adinarekin ariketaren egiteko trenpu onean

izan beharra hiztun-sortaren osatzea dorpetu duten irizpideak izan dira. Konparazione, gertatu izan zaigu bi kontakturekin elizitazio-ariketak ez funtzionatzea. Biak noizbait noka ari izanak ziren, bata oraino ere telefonoz urrun bizi den ahizparekin, orduan bihotz onez prest ziren gure laguntzeko aspaldiko ezagun eta herrikidea duten MAIR89ri guk bota erranaldiak noka errepikatzen entseatuz. Zenbait forma bota zituzten beren buruak bortxatuz, baina gehienak zuka atera zitzaizkien, nahiz harrigarriki bati MAIR89 noka mintzo zaion. Amore eman behar izan genuen. Horrekin ikusi dugu noka aritzen jakitea ez dela aski; solaskideari betidanik noka aritzeko usaia errotua izatea ezinbestekoa da, eta bistan denez, horrek ez du parte hartzaile taldea muntatzen lagundu.

Nokarien atzemateko zailtasuna eragin duen beste faktore gako bat hauxe izan da: Ortzaizeren erdalduntzea. Frantsesak gaina hartu du herrian, eta azpiko ataletan (ik. [4.2.1.2](#)) zehaztuko dugun gisan, bereziki emazteen ahoetan. Gogora dezagun batetik Ortzaizeko egoera soziolingusitikoak Irizarrek (1999 : 133) deskribatu zuenetik arras bestelakoa dela, 1970ean biztanleria osoa euskaraz ari baitzen, eta bestetik, Baxenabarreko eta Xiberoko %47,5ak baizik ez duela hizkuntza gaitasuna euskaraz. Orduan, dudarik gabe, erdalduntze horrek argiki oztopatu du nokako gaitasuna duten hiztunen atzematea. Izan ere, gure lekuko emazte adintsu batek joera azkarra du frantseserat lerratzeko, eta horrek eragin bistakoa du noka mintzatzeko duen aisetasunean. Ondorioz, harengandik ezin izan ditugu nahi bezainbat forma bildu, adin handia ere tarteko.

Bestalde, zailtasunak ukan ditugu lehen adin tartekoak mintzarazten eta gogoetarazten beren hizkuntza-praktikei buruz. Usu, zaila zitzaien erantzutea eta garatzea. Izan ere, ez dirateke sekulan gertatu eskolan debekatua izan zaien hizkuntza horri buruzko gogoeta metalinguistikoak egiten. Euskara gai bat ez den adin tarte batekoak dira gehienak<sup>25</sup>. Euskara eta noka lengoia eta ohitura dauzkate. Orduan, behar izan dugu beren arrapostu motzez ase.

---

<sup>25</sup> 4.2.1.2. azpiatalean sakonduko dugu gai hau.

## 4. DATUEN ANALISIA

Ikergaiaren koadro teorikoa eta metodologikoa zehazturik, heldu diren orrialdeetan, datu-bilketan jaso emaitzak aurkeztu eta aztertuko ditugu. Lehen azpiatala hizkuntzalaritzari doakiona da; alde batetik, bi adin tartetean formetarik osatu adizki-paradigma konparatiboak txertatu (eranskinetara joan-jinak saihesteko) eta deskribatuko ditugu, eta bestetik, identifikatu ditugun nokaren higatzeari lotuak litezkeen aldaerak aztertuko ditugu. Bigarren azpiatala, berriz, ikuspegi soziolinguistikoari doakiona da; bertan, lehenik bildu emaitzak aurkeztu eta ondotik atal teorikoarekin loturan eztabaidatuko ditugu.

### 4.1. DATU LINGUISTIKOAK

#### 4.1.1. *Corpusa: aurkezpena eta deskribapena*

##### 4.1.1.1. *Indikatiboa*

##### Adizki analitikoak

- Iragangaitzak

NOR (Orainaldia)		
	1. adin <i>tartea</i>	2. adin <i>tartea</i>
<b>Ni</b>	nun	nun
<b>Hi</b>	hiz	hiz
<b>Hura</b>	dun	dun
<b>Gu</b>	gitun	gitun
<b>Haiek</b>	tun	tun

NOR (Iraganaldia)		
	1. adin <i>tartea</i>	2. adin <i>tartea</i>
<b>Ni</b>	nindunan nunan	nindunan
<b>Hi</b>	hintzan	hintzan
<b>Hura</b>	zunan	zunan
<b>Gu</b>	gintunan	gintunan
<b>Haiek</b>	zitunan	zitunan

Lekukoen koloreak<sup>26</sup>: AMLAH75

<sup>26</sup> Aldaera guziak nahi izan ditugunez tauletan sartu, forma bakoitza doakion lekukoari lotzeko koloreak baliatzea hautatu dugu. Beltzez idatziak diren formak lekuko guziek edo guttienez hiruk ahoskatuak dira, eta kolorezkoak doazkien informatzaileek erranak. Kontuan har bedi lekuko bakoitzak forma bat baino gehiago balia ditzakeela.

NOR-NORI (Orainaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
Hura eni	zetan	zetan
Hura hiri	zaun	zaun
Hura hari	zaken zakon	zaken zakon
Hura guri	zaukun	zaukun
Hura haiei	zeen	zeen
Haiek eni	zeztan	zeztan zaztan
Haiek hiri	zauzkin	zauzkin
Haiek hari	zazken zazkon	zazken zazkon
Haiek guri	zauzkun	zauzkun
Haiek haiei	zezteen	zezteen

NOR-NORI (Iraganaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
Hura eni	zizetanan	zizetanan zizaidanan zizetanan zizatanan
Hura hiri	zizaunan	ziztaunan zizaunan
Hura hari	zizakonan zizakonan zizakonan	zizakonan zizakonan zizakonan
Hura guri	zizaukunan	zizaukunan zizaukunan
Hura haiei	zizeenan	zizeenan zizteenan
Haiek eni	zizzeztanan zizzeztanan	zizzeztanan zizzeztanan zizzeztanan zizzeztanan
Haiek hiri	zizauzkinan	zizauzkinan zizauzkinan zizauzkinan
Haiek hari	zizazkenan zizazkenan	zizazkenan zizazkenan
Haiek guri	zizauzkunan	zizauzkunan
Haiek haiei	zizezteenan	zizezteenan zizezteenan zizezteenan

Lekukoen koloreak : **MAGA92** ; **AMLA88** ; **BEBI75** ; **MAIB68** ;  
**ANIN67** ; **JAIB66** ; **JEGA62** ; **TEIN61**

Orainaldiko NOR sailari dagokionez, ikus dezakegu adin tarte batetik bestera forma berberak ibiltzen direla. Espero bezala, ekialde zabal gehiengoan aditzen den *izan*-en orainaldiko adizkietan *-i-* erroa agertzen da. Halarik ere, berezitasun ttipi baten zehaztea komeni da. Izan ere, NOR 2.p.sg. delarik (*hi*), eta aditz nagusiaren puntan sudurkari bat (gehienetan *-n*) edo albokari bat delarik, metatesi bat ekoizten da sistematikoki: joan + hiz > *joaintz* ; jiten + hiz > *jiteintz* ; abian + hiz > *abiaintz* ; ahal + hiz > *ahaintz*. Emankorra da *joanen*>*joaan* atzizki prospektiboaren kontrakzioarekin ere: joanen + hiz > *joaintz*. Gisa berean, NOR 3.p.pl. delarik (haiek), aferesia agertzen da: *tun*. Nahiz batzuek elizitazioan jatorrizko *ditun* forma ere atera duten, batek ere ez du baliatu azken hau mintzo librean. Hortaz, forma guziek bat egiten dute Artolak bildurikoekin, (Irizar 1999 : 136) eta hark ere aferesiarekilakoa bildu zuen. Iraganaldiko NOR sailean ere, batasun osoa agertzen da, bai bi adin tarteen artean, bai Artolarenaren aldean, salbuespen ttipi bat salbu: NOR 1.p.pl.ean, lekuko batek *nunan* forma atera digu, hala

elizitazioan nola mintzo askean. Ohartu gara hiztun hori arras fite mintzo dela, orduan kontrakzio hori haren hizketa-erritmoaren kontu ezarri dugu.

NOR-NORI sailari loturik, oroitaraz dezagun NOR argumentuak 3. pertsonetara mugatzea hautatu dugula, ohikoenak direlakoan eta paradigmak egitekotan, nahi baikenuen osoak izan zitezten. Orduan, Zuazok (2021) Bankan adizki alokutiboak biltzeko hartu bide bera hautatu dugu, 3. pertsonara mugatuz. Sail horretako paradigmegi so, ohar bedi Ortzaizeko berezitasun eskusiboa den 1. pertsona datiboko *-e-* bokalari. Morfema horren izaera ortzaiztarra lekukotu zuen Zuazok (2021 : 69) : “Ortzaize ibarrean datiboa ‘niri’ denean, *zeta* ‘zait’ eta *zezta* ‘zaizkit’ esaten da” eta “Ortzaize ibarrean datiboa ‘niri’ denean, *zitzetan* ‘zitzaidan’ eta *zitzeztan* ‘zitzaidan’ esaten da”. Baigorri aldiz, *zaut/zaat* adi daitezke, eta Aldude/Urepelen *zait* ere bai (Irizar 1999, Camino 2004, Zuazo 2021, Urreizti 2023). Nahiz Artolak orainaldian *-a-* morfemarekin alternantzia lekukotu zuen<sup>27</sup>, eta iraganean *-a-* bakarrik, ikus dezakegu gure adinetako lekukoek, Zuazok jaso gisa, *-e-* morfema ortzaiztarra eskusiboki baliatzen dutela hala orainaldian nola iraganaldian. 2. adin tartean, aldiz, nahiz gehienek *-e-* ahoskatzen duten, zenbaitek *-a-* ere baliatzen dute, bestearekin alternantzia. Neke da morfema horren aldakortasuna interpretatzea, gure datuek eta Artolarenek ez baitute bat egiten. Dena den, baieztatu dezagun Ortzaizeko hizkeran 3. pertsona datiboan *-e-* eta *-a-* morfemak alternantzia direla, joera nagusia *-e-* -ren alde izanik.

Datiboa 3.p.p. delarik, *-e(e)* da morfema : *zeen* (hura haiei, orainaldia) ; *zezteen* (haiek haiei, orainaldia) ; *zi(t)zeenan* (hura haiei, iraganaldia) ; *zi(t)zezteenan* (haiek haiei, iraganaldia). Bestalde, Artolak bildu bezalaxe, ikus daiteke datiboa 1.sg., 3.p.sg. eta 1.p.pl. delarik pluralgilea *-z-* dela<sup>28</sup>, 2.p.sg. delarik aldiz, *-zki-*, eta azkenik 3.p.pl. delarik, *-zt-*. Ikus dezakegu ere alternantzia bat *-e-* eta *-o-* bokalen artean, datiboa 3.p.sg. delarik : *zaken* vs *zakon*, konparazioan. Artolak *-e-* aldaera baizik ez zuen bildu. Gogoan harturik bi bokalak erdikoak direla eta beraz batetik besterako transferentzia aise egiten dela, hipotesizat har genezake

---

<sup>27</sup> Oharretan, Artolak kontatzen du hiztunek *zeta* forma finagotzat zeukatela, eta *zata* aldiz, “zakarrago”tzat. (Irizar 1999 : 143)

<sup>28</sup> Zuazok (2021 : 60) dio datiboa ‘hari’ denean *-zk-* dela pluralgilea. Gure iduriko, aldiz, *-z-* da, *-k-* datibozko morfemaren parte baita: *zaken* ‘hura hari, orainaldia’ ; *zizakenan* ‘hura hari, iraganaldia’. Hari beretik, objektu singularreko formak eta objektu pluralekoak konparatzean, ikus dezakegu *-z-* morfema baizik ez dela gehitzen: *zaken* ‘hura hari, orainaldia’ / *zazken* ‘haiek hari, orainaldia’ ; *zizakenan* ‘hura hari, iraganaldia’ / *zizazkenan* ‘haiek hari, iraganaldia’. Ondorioz, datiboa 1.p. eta 3.p.sg. delarik, pluralgilea *-z-* daukagu.



aldaera fonetiko bat dela, kontuan hartuz gainera *-e-* gehiago atera dela *-o-* baino. Ohar gaitzezke ere iraganaldiko formetan bigarren adin tarreak apikariak afrikatzeko joera handiagoa duela lehenak baino : *zizaunan* vs *zitzauan*, adibidez. Lehen ahoskera lotua izan liteke Euskal Herriko ekialdeko hainbat eremutan ezaguna den ahoskera frikariari (Camino 2016 ; Lacombe 1971-2 ; Zuazo 2021), ingurune fonetiko ezberdinean gertaturik ere, agian ahoskera orokorrago bat hunki baitezake. Afrikazioa euskara batuaren eragina izan liteke beharbada. Preseski, ikus daiteke hiztun batek euskara batuko forma bat atera digula : *zitzaidanan*. Edozein gisaz, ez du holakorik ekoiztu mintzo librean, orduan, gure ustez elizitazioaren presiopean bota du. Edozein gisaz, euskara batuarekin baduen harremanaren seinale da, segur aski lehen adin tarreak lukeena baino zuzenagoa.

o Iragakorrak

NOR-NORK (Orainaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hi</b>	hut	hiut hut
<b>Nik hura</b>	dinat	dinat
<b>Nik haiek</b>	tinat	tinat
<b>Hik ni</b>	nun	nun
<b>Hik hura</b>	dun	dun
<b>Hik gu</b>	gitun	gitun
<b>Hik haiek</b>	tun	tun
<b>Hark ni</b>	nin	nin
<b>Hark hi</b>	hu	hiu hu
<b>Hark hura</b>	din	din
<b>Hark gu</b>	gitin	gitin
<b>Hark haiek</b>	tin	tin
<b>Guk hi</b>	huu hiuu	hiuu huu hituu
<b>Guk hura</b>	dinaun	dinau dinaun
<b>Guk haiek</b>	tinaun	tinau tinaun
<b>Haiek ni</b>	nine	nine
<b>Haiek hi</b>	hute	hiute hute
<b>Haiek hura</b>	dine	dine
<b>Haiek gu</b>	gitine	gitine
<b>Haiek haiek</b>	tine	tine

Lekukoak: [MAGA92](#) ; [MAIR89](#) ; [AMLA88](#) ; [AMLAH75](#) ; [BEBI75](#) ; [MAIB68](#) ; [ANIN67](#) ; [JAIB66](#) ; [TEIN61](#) ; [JEGA62](#)

NOR-NORK (Iraganaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hi</b>	hindutan hinduan hiutan	hintudan hintuan hindutan
<b>Nik hura</b>	ninan	ninan
<b>Nik haiek</b>	nintinan	nintinan
<b>Hik ni</b>	nindunan	nindunan
<b>Hik hura</b>	hiin	hiin
<b>Hik gu</b>	gintunan	gintunan
<b>Hik haiek</b>	hintiin	hintiin
<b>Hark ni</b>	nindinan	nindinan
<b>Hark hi</b>	hindiin	hintiin hindiin hintinan
<b>Hark hura</b>	zinan	zinan
<b>Hark gu</b>	gintinan	gintinan
<b>Hark haiek</b>	zifinan	zifinan
<b>Guk hi</b>	hinduun	hintuun hintuunan
<b>Guk hura</b>	gininan	gininan
<b>Guk haiek</b>	gintinan	gintinan
<b>Haiek ni</b>	nindutenan ninditenan	nintenan ninditenan nindutenan
<b>Haiek hi</b>	hinduten	hinduten hintenan hindutenan
<b>Haiek hura</b>	zitenan zufenan	zitenan
<b>Haiek gu</b>	gintuztenan	gintenan gintiztenan gintuztenan
<b>Haiek haiek</b>	ziztenan zuztenan	ziztenan zuztenan

Lehenik, orainaldiko NOR-NORK sailean, Baxenabarren eta Lapurdi barnealdean espero bezala, *-au-* diptongoa *-u-* bilakatzen dela ikusten dugu: *hut* ‘haut’; *nun* ‘naun’; *hu* ‘hau’ ; *huu* ‘haugu’ etab. Salbuespena ergatiboko 3. pertsonaren kasua da, datiboa 2.p.sg. delarik salbu (*hu* ; *hute* ‘haute’), *-i-* morfema agertzen baita: *nin* ‘nain’ ; *din* ; *gitin* ‘gaitin’; *tin* ‘ditin’; *nine* ‘naiten’; *dine* ‘diten’. Bide batez, ikus dezakegu alokutiboan \**edun*-en gainean eraikia den *izan* aditzean ikusi dugun bezala, aferesia markatzen dela: *tin* ‘ditin’; *tine* ‘ditizten’; *tun* ‘ditun’. Horiez gain, ikus daiteke *-ne* dela 3. pertsona pluraleko egile atzizkia, eta iraganaldian, aldiz, *-te*. Iraganaldiko adizkietan beti, leitzean adi genezake Ortzaizeko adizkietan arauzkoa den *ue>ie>ii* asimilazioa (Zuazo 2021 : 24): *hiin* ‘huen’ ; *hindiin* ‘hinduen’; *hintiin* ‘hituen’. Gisa berean, *hinduun* ‘hindugun’ eta *huu* ‘haugu’ formetan ikus dezakegu bokal artean herskari ahoskabearen galera. Osagarri zuzena plurala eta egilea lehen pertsona singularra duten adizki zenbaitetan *n* pleonastikoa ahoskatzen dute hiztunek: *nintinan* ‘nitinan’; *hintiin* ‘hituen’. Ezaugarri guzi horietan dira batzen gure bi adin tartetako paradigmak eta Artolak jasoak.

Haatik, xehetasun batean ezberdintzen dira, gure hiztunengan Artolaren (Irizar 1999) paradigmetan agertzen ez den bitasun bat bildu baitugu 3.p.pl.ean, *-i-* eta *-u-* bokalen arteko lehia, hain xuxen: *ninditenan/nindutenan*; *zitenan/zutenan*; *gintiztenan/gintuztenan*; *ziztenan/zuztenan*. Orainaldian 3. pertsona ergatiboan, —datiboko 2.p.sg.ean salbu— morfema *-i-* dela ikusirik, pentsa liteke *-u-* jatorrizko *-i-* ren aldaera fonetikoa izan daitekeela, biak bokal hetsiak direlakoan. Dena den, ez dezakegu segur eta fida ihardets. Beheragoko tauletan ikusiko den gisan, iraganaldiko indikatiboko NOR-NORI-NORK sailean eta epistemikoko NOR-NORK (ik. 4.1.1.5) sailean errepikatzen den bitasuna da .

Diferentzia horretarik at, hurbilagotik behatuz, ohar gaitezke gure adinetakoen formek arras aldakortasun guti erakusten dutela, Artolak jasotakoen aldean. Helduek, izan ere, aldaera anitzez gehiago erakusten dituzte. Argiki nabarmentzen den batean geldi gaitezen. Izan ere, Irizarrek bildu paradigmetan batere dokumentatua ez den berrikuntza bat ekoizten dute helduek. Hain xuxen, kasik sistematikoki (JEGA62k eta noiztenka ANIN67k salbu) “i” bokala gehitzen dute 2.p. ergatiboari doakion *h-* morfemari: *hut* vs *hiut* ‘haut’ ; *hu* vs *hiu* ‘hau’ ; *huu* vs *hiuu* ‘haugu’ ; *hute* vs *hiute* ‘haute’. Beherago ikusiko den gisan, aldi eta modu guzietara hedatzen da berrikuntza fonetiko hori. Gure ustez, Iparraldean azken hatsak botatzen ari den hasperenaren galera progresiboari (Oñederra, Jauregi & Epelde 2013 ; Jauregi & Epelde 2014)

lotua izan liteke. Bada, bokalaren txertatzea hasperenaren ekoizteak galdegiten duen indar artikulatorio handiagoa saihesteko bide fonetiko izan liteke, bide batez, beharrez ohartu baikara helduek intentsitate apalagoarekin ahoskatzen dutela hasperena. Konparazione, gogoan har ditzagun maiztasun handiko *-tzen* eta *-tu* partizipioak: lehenean, bokal berri hori sudurkariak zailtzen duen hasperenaren ahoskatzearen saihesbide litzateke, eta bigarreanean, batez ere sail honetan, zeinetan \**edun*-en erroa partizipio burutuaren bokal bera baita, disimilazio funtzioa ere bete lezake. Adibidez, halako prozesua gerta liteke: *lagundu hu* > *lagundu u* (?) > *lagunduu* (?) > *lagundu hiu*. Heldu baita, bokalaren txertatzeak ahalbidetzen duke partizipioarekin nahastea baztertzea eta aditz laguntzailea ontsa bereiztea. Hots, 2.p.sg.-ri dagokion *h-* morfemari “i” bokala gehitzea orokortzen ari den hasperenaren galerari lotua izan liteke gure ustez, indar artikulatorioa ttipitzea ahalbide lezakeelakoan<sup>29</sup>.

---

<sup>29</sup> Bide batez, berrikuntza horrek bide egin duela ikusi dugu, alderdi morfonologikoan aztergai ez ditugun gazteak ere (TXOXU24 eta BIXI26) entzun baititugu hasperenik gabe *eraman iu* ‘eraman hau’ eta preseski *lagundu iu* ‘lagundu hau’ ahoskatzen.

NOR-NORI-NORK (Orainaldia, o.sg.)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hiri</b>	denat daunat	denat dinat*
<b>Nik hari</b>	dakenat	dakenat
<b>Nik haiei</b>	deenat dinat*	deenat
<b>Hik eni</b>	detan	detan detakenan
<b>Hik hari</b>	dakon	dakon
<b>Hik guri</b>	daukun	daukun
<b>Hik haiei</b>	dun* deen	deen dun*
<b>Hark eni</b>	detan	detan
<b>Hark hiri</b>	daun	daun
<b>Hark hari</b>	daken din*	daken dakon din*
<b>Hark guri</b>	daukun	daukun
<b>Hark haiei</b>	deen din*	deen
<b>Guk hiri</b>	dinaun* denaun daunaun	denau dinaun* dainau dinaun*
<b>Guk hari</b>	dakenaun	dakenau dinaun*
<b>Guk haiei</b>	deenaun dinaun*	deenaun dinaun* dineenaun
<b>Haiek eni</b>	detane	detane
<b>Haiek hiri</b>	dine* daune	daune dine* daunate daunete
<b>Haiek hari</b>	dakone dine*	dakone dine*
<b>Haiek guri</b>	daukune	daukune
<b>Haiek haiei</b>	dine* deene	deene dine*

NOR-NORI-NORK (Orainaldia, o.pl.)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hiri</b>	deztenat dauzkinat	dauzkinat deztenat
<b>Nik hari</b>	dazkenat	dazkenat
<b>Nik haiei</b>	dezteenat	dezteenat
<b>Hik eni</b>	deztan	deztan
<b>Hik hari</b>	dazkon	dazkon
<b>Hik guri</b>	dauzkun	dauzkun
<b>Hik haiei</b>	dezteen tun*	dezteen tun*
<b>Hark eni</b>	deztan	deztan tun* daztan
<b>Hark hiri</b>	dauzkin	dauzkin
<b>Hark hari</b>	dazken	dazken
<b>Hark guri</b>	dauzkun	dauzkun
<b>Hark haiei</b>	dezteen tin*	dezteen
<b>Guk hiri</b>	tinaun* deztenaun dauzkinaun	dauzkinau dauzkinaun deztenau
<b>Guk hari</b>	dazkenaun tinaun*	dazkenau dazkenaun
<b>Guk haiei</b>	dezteenaun tinaun*	dezteenaun dezteenaun
<b>Haiek eni</b>	deztane dazkiane	deztane
<b>Haiek hiri</b>	dauzkine	dauzkine dauztene dauzkinane
<b>Haiek hari</b>	dazkone dazkene	dazkene dazkone
<b>Haiek guri</b>	dauzkune tine*	dauzkune
<b>Haiek haiei</b>	dezteene tine*	dezteene

Lekukoak: [MAGA92](#) ; [MAIR89](#) ; [AMLA88](#) ; [AMLAH75](#) ; [BEBI75](#) ; [MAIB68](#) ; [ANIN67](#) ; [JAIB66](#) ; [TEIN61](#) ; [JEGA62](#)

\*datibo-komunztadurarik gabeko formak

NOR-NORI-NORK (Iraganaldia, o.sg.)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hiri</b>	nenan ninan*	nenan nau <sup>n</sup> nan ninan*
<b>Nik hari</b>	nakenan	nakenan nako <sup>n</sup> nan
<b>Nik haiei</b>	neenan ninan*	neenan
<b>Hik eni</b>	hetan hiin*	hineta <sup>n</sup> hinau <sup>t</sup> an hietan
<b>Hik hari</b>	hakon	hakon hia <sup>k</sup> on
<b>Hik guri</b>	hiin* hau <sup>k</sup> un	hau <sup>k</sup> un zinau <sup>k</sup> unan
<b>Hik haiei</b>	heen hiin*	hinea <sup>n</sup> heea <sup>n</sup> hiee <sup>n</sup> hiniin*
<b>Hark eni</b>	zetanan zina <sup>n</sup> *	zetanan zina <sup>n</sup> *
<b>Hark hiri</b>	zaunan	zaunan
<b>Hark hari</b>	zakenan zako <sup>n</sup> nan	zakenan zako <sup>n</sup> nan
<b>Hark guri</b>	zaukunan	zaukunan hiau <sup>k</sup> un
<b>Hark haiei</b>	zeenan	zeenan
<b>Guk hiri</b>	gininan* ginau <sup>n</sup> an	gininan* gihau <sup>k</sup> unan ginau <sup>n</sup> an ginau <sup>n</sup> an
<b>Guk hari</b>	ginakenan gina <sup>n</sup> an*	ginakenan gina <sup>n</sup> an*
<b>Guk haiei</b>	gineenan gininan*	gineenan gina <sup>n</sup> an*
<b>Haiek eni</b>	zetatenan zite <sup>n</sup> an*	zetatenan zete <sup>n</sup> an
<b>Haiek hiri</b>	zitenan* zute <sup>n</sup> an*	zautenan hau <sup>t</sup> enan hau <sup>i</sup> uten zite <sup>n</sup> an* zauna <sup>t</sup> en
<b>Haiek hari</b>	zakotenan zite <sup>n</sup> an*	zakotenan zako <sup>t</sup> enan
<b>Haiek guri</b>	zaukutenan	zaukutenan
<b>Haiek haiei</b>	zitenan* zeete <sup>n</sup> an	zeetenan

NOR-NORI-NORK (Iraganaldia, o.pl.)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hiri</b>	neztenan nintina <sup>n</sup> *	neztenan nauz <sup>k</sup> inan nauz <sup>k</sup> anan
<b>Nik hari</b>	nazkenan	nazkenan
<b>Nik haiei</b>	nezteenan nintina <sup>n</sup> *	nezteenan
<b>Hik eni</b>	hintiin* heztan heztana <sup>n</sup> hieztan	hinea <sup>t</sup> an heztana <sup>n</sup> heztan
<b>Hik hari</b>	hakon hintiin* hia <sup>k</sup> on	hinaz <sup>k</sup> on haz <sup>k</sup> on hia <sup>k</sup> on hintiin*
<b>Hik guri</b>	hintiin*	hinauz <sup>k</sup> un hintiin*
<b>Hik haiei</b>	hezteen hintiin*	hezteen hie <sup>t</sup> een hinea <sup>t</sup> een hintiin*
<b>Hark eni</b>	zeztanan	zeztanan
<b>Hark hiri</b>	zauzkinan	zauzkinan zauz <sup>k</sup> anan
<b>Hark hari</b>	zazkenan zite <sup>n</sup> an*	zazkenan zako <sup>n</sup> nan
<b>Hark guri</b>	zauzkunan	zauzkunan
<b>Hark haiei</b>	zezteenan zite <sup>n</sup> an*	zezteenan
<b>Guk hiri</b>	ginauz <sup>k</sup> inan ginea <sup>t</sup> enan gintina <sup>n</sup> *	ginauz <sup>k</sup> inan
<b>Guk hari</b>	ginazkenan gintina <sup>n</sup> *	ginazkenan gina <sup>t</sup> onnan
<b>Guk haiei</b>	ginea <sup>t</sup> eenan gintina <sup>n</sup> *	ginea <sup>t</sup> eenan gintina <sup>n</sup> *
<b>Haiek eni</b>	zeztatenan zize <sup>n</sup> an*	zeztatenan
<b>Haiek hiri</b>	zauzkitenan zize <sup>n</sup> an*	zauzkitenan zauz <sup>t</sup> enan
<b>Haiek hari</b>	zazkotenan zize <sup>n</sup> an*	zazkotenan zako <sup>t</sup> enan
<b>Haiek guri</b>	zauzkutenan zize <sup>n</sup> an* zuz <sup>t</sup> enan*	zazkutenan
<b>Haiek haiei</b>	zezteenan zize <sup>n</sup> an* zuz <sup>t</sup> enan*	zezteenan zezteenan

NOR-NORI-NORK sailari datxikola, \**eradun* erroko adizkiak baliatzen dituzte gure berriemaileek egitura ditransitiboetan. Halaber, Zuazok deskribatu bezala (2021 : 62), “hitanoko NOR-NORI-NORK sailean eta trinkoen orainaldian *d-* da NOR-i dagokion morfema; ez Euskal Herriko erdigunean erabiltzen den *z-*: *dakeat / dakenat* ‘zioat/zionat’.” Gure berriemaileek ere salbuespenik gabe *d-* morfema “zaharra” (Imaz 2022) baliatzen dute: *denat* ‘nik hiri hura’; *daukun* ‘hik guri hura’; *dezteen* ‘hik haiei haiek’. Kontrajartzen da Bidarra auzo-herrian Euskal Herriko erdigunean bezala baliatzen den *z-* berrikuntzarekin. (Zuazo 2021 : 62).

Orokortasun horiez haratago, behako bat aski da ohartzeko paradigma honetan polimorfismo handia badela; hainbeste non aldaera bakarra duten formak gutiengoan baitira. Izan ere, ohar gaitezke, Artolak bildu formetan bezala (Irizar 1999 : 138), 2.p.sg. datiboaren morfeman *-e-* eta *-au-* ren arteko alternantzia badela, naski ergatiboko pertsona-markaren arabera (orainaldian bederen): ergatiboa 1. pertsonakoa delarik (hala singular nola plural), *-e-* morfema baliatzen da, eta 3. pertsonakoa delarik, aldiz (singular zein plural), *-au-*. Ikus bitez adibidez: *denat* ‘nik hiri hura, orainaldia’; *nenan* ‘nik hiri hura, iraganaldia’; *denaun / denaun* ‘guk hiri hura’; *daun* ‘hark hiri hura’; *daune* ‘haiek hiri hura’. Halarik ere, adinetakoen artean elizitazioan MAIR89k *denat eta denaun*-ez gain *daunat* ‘nik hiri hura’ eta *daunaun* ‘guk hiri hura’ atera ditu, eta BEBI75ek *deztenaun*-ez gain *dauzkinaun* ‘guk hiri haiek’ ere erran du. Gisa berean, helduen artean, *dauzkinat* ‘nik hiri haiek’ eta *dauzkinau* ‘guk hiri haiek’ enplegatzen dituzte, *deztenat* eta *deztenau*-en parean. Bide batez, adin tarteko horretan hirugarren aldaera bat agertu da 2.p.sg. datiboaren morfemarendako: *-ai-*. Hain zuzen, ANIN67 eta TEIN61ek *dainau* ‘guk hiri hura’ erraten dute. Aldaera hau ez dateke Ortzaizekoa, Artolak ez baitu bildu gure herrian. Haatik, hedadura handia du Baxenabarren eta Lapurdin gaindi, Artolak ondoko herrietan bildu baitu (Irizar 1999)<sup>30</sup>: Baigorri, Alduden, Luzaiden, Luhuson, Uztaritzen, Zuraiden, Milafrangan, Beskoitzen eta Lehuntzen. Bonapartek ere, Baigorri eta Ezpeletan jaso zuen. Heldu baita, aldaera hau ez da hain harrizkera, berriemaile horiek bigarren adin tartekoak izanki, espero baita lehenekoek baino harreman gehiago ukaitea inguruetako herrietako jendeekin. Lehen adin tartetik ere, espero ez den *dazkiane* forma bota du MAIR89k elizitazioan,

---

<sup>30</sup> Baigorri (Irizar 1999 : 65), Alduden (*ibid* 1999 : 163), Uztaritzen (*ibid* 1999 : 254), Ezpeletan (*ibid* 1999 : 292), Zuraiden (*ibid* 1999 : 299), Milafrangan (*ibid* 1999 : 373), Luhuson (*ibid* 1999 : 443) ; Luzaiden (*ibid* 1999 : 277) ; Beskoitzen (*ibid* 1999 : 155) ; Lehuntzen (*ibid* 1999 : 162).

-a- -au- morfema laburtua izanik. Forma horrek badu Zuazok (2021 : 83) Bankan bilduriko *dauzkidiane* formari eite handia, eta agian eite are handiagoa Artolak berak Uharte Garazin bildu *diazkiane* formarekin (1999 : 231). *Dazkiane* forma bera Landibarren ere bildu zuen (1999 : 404). Ama garaztarra ukanki, beharrian baduke. Dena den, mintzo laxoan, *deztane* baliatu du. Iraganaldiko formei dagokienez, datibozko morfemaren -e- / -au- oposaketa ez dateke arras orainaldiko pertsona ergatibo berdinen arabera, ergatiboa 1.p.pl. delarik adinetako batek baizik ez baitu ekoiztu adizkia -e- datibozko morfemarekin: *gineztenan* ‘guk hiri haiek, iraganaldia’. Gainerako berriemaile guziek -au- morfemekin eraiki dute: *ginaunan* ‘guk hiri hura, iraganaldia’ ; *ginauzkinan* ‘guk hiri haiek, iraganaldia’. Iraganaldian, beraz, 2.p.sg.rendako datibozko morfemaren aldakortasunak nahasiagoa dirudi orainaldian baino, nahiz eta azken aldi honetan ere ez den dena zurrun. Dena den, pertsona datiboaren aldakortasunaren zergatia aztertzea neke da, eta agian ezin esplikatu ere izan daiteke. Artzelusek, adibidez, Luzaiden datiboaren pertsona “ausazko efektutzat” hartzen du (2021 : 168).

Horrez gain, aitzin ikusi NOR-NORI paradigmaren bezalaxe, ikus dezakegu datiboa 1.sg., 3.p.sg. eta 1.p.pl. delarik pluralgilea -z- dela<sup>31</sup>, 2.p.sg. delarik aldiz, -zki-, eta azkenik 3.p.pl. delarik, -zt-, hala orainaldian nola iraganaldian. Halarik ere, datiboko 2.p.sg.ean -zki- pluralgileaz gain, -zt- pluralgilea ere baliatzen da: *deztanat* vs *dauzkinat* (nik hiri haiek, orainaldia); *deztanaun* vs *dauzkinaun* (guk hiri haiek, orainaldia); *neztanan* vs *nauzkinan* (nik hiri haiek, iraganaldia); *gineztenan* vs *ginauzkinan* (guk hiri haiek, iraganaldia). Preseski, pluralgilea gorago aipatu datibozko morfemaren arabera da; hain xuxen, -zt- pluralgilea -e- datibozko morfemadun forman txertatzen da, eta -zki- pluralgilea, aldiz, -au- datibozko morfemarekilakoan. Gisa berean, NOR-NORI paradigmaren ikusi bezala, 1. pertsona datiboko -e- bokal ortzaiztarrarekin eraikiak dira adizkiak: *detan* ‘hik eni hura, orainaldia’; *detan* ‘hark eni hura, orainaldia’; *detane* ‘haiek eni hura, orainaldia’; *deztan* ‘hik eni haiek, orainaldia’; *hetan* ‘hik eni hura, iraganaldia’; *zetanan* ‘hark eni hura, iraganaldia’; *zetatenan* ‘haiek eni hura,

---

<sup>31</sup> NOR-NORI sailarendako egin bezala, Zuazok (2021 : 60) idatzitik urruntzerat menturatzen gara. Gisa berean, hark datiboa ‘hari’ denean pluralgilea -zk- dela idatzirik ere, argudiatzen dugu -z- dela. Objektu singularreko formak pluralekoekin alderatzean bistaratzen da. Ikus bitez adibidez: *dakenat* ‘nik hari hura, orainaldia’ / *dazkenat* ‘nik hari haiek, orainaldia’; *ginakenan* ‘guk hari hura, iraganaldia’ / *ginazkenan* ‘guk hari haiek, iraganaldia’.

iraganaldia’, eta abar. Ez dugu Artolak agerrarazi *-e- / -a-* bokal alternantziarik bildu (1999 : 138-142), agerraldi batean salbu, behin JEGA62k *daztan* ‘hik eni haiek, orainaldia’ baliatu baitu.

Ildo beretik, NOR-NORI sailean ikusi bezala, *-e- / -o-* alternantzia entzun dugu 3. pertsona datiboaren kasuan<sup>32</sup>, orainaldian zein iraganaldian. Orainaldian, aldakortasuna 3. pertsona ergatiboa pluralera mugatua da: *dakone / dakene* (haiek hari hura, orainaldia) ; *dazkone / dazkene* (haiek hari haiek, orainaldia) vs forma bakarra 3.p.sg.ean, *daken* (hark hari hura, orainaldia) eta *dazken* (hark hari haiek). Iraganaldian, aldiz, *-e- / -o-* txandakatzea orokorragoa da, ergatiboko 3. pertsona plural hala singularrean gertatzen baita ; i) 3.p.sg. ergatiboa delarik: *zakenan / zakonan* ‘hark hari hura, iraganaldia’ ; *zazkenan / zakonan* ‘hark hari haiek, iraganaldia’ eta ii) 3.p.pl. ergatiboa delarik: *zakotenan / zaketenan* ; *zazkotenan / zazketenan*. Dena den, iduri luke ergatiboko 3. pertsona singularra delarik *-e-* dela zabalduena, *zakonan* adin tarte bakoitzetik lekuko batek baizik ez baitu ahoskatu (MAIR89k eta JEGA92) eta *zazkongan* JEGA92k bakarrik. Gisa berean, iduri luke ergatiboko 3. pertsona plurala delarik *-o-* dela erregularrena, *-e-* baino gehiago agertu baita; hain xuxen, baliatu dutenak helduak baizik ez dira izan, *zaketenan* (TEIN61), eta *zazketenan* (TEIN61 eta ANIN67). Laburbilduz, 3. pertsona datiboaren kasuan entzun dugun *-e- / -o-* bokal alternantzia handiagoa da iraganaldian orainaldian baino, eta balirudike *-e-* gehienbat ergatiboko 3.p.sg.ri dagokiola eta *-o-* gehienbat 3.p.pl.ri. Artolaren paradigmek, alternantziarik gabe, banaketa argia erakusten dute gainera: *-e-* bokala 3.p.sg.rekin eta *-o-* 3.p.pl.rekin (Irizar 1999 : 138-142). Halako banaketa argiak ulertzerat uzten du Artolak bokala baino morfema ezberdintzat hartzen dituzkeela; horrenbestez, hari jarraikiko gatzaizkio.

Ohar gaitzke bestalde NOR-NORK sailean ikusi bezala, helduek 2.p.sg. ergatiboari dagokion *h-* morfemari “*i*” bokala gehitzearen berrikuntza NOR-NORI-NORK sailean ere aplikatzen dela, ikus bitez: *hetan* vs *hietan* ‘hidan’ ; *hakon* vs *hiakon* ‘hion’; *haukun* vs *hi aukun* ‘higun’ ; *heen* vs *hieen* ‘hien’ ; *hazkon* vs *hiazkon* ‘hizkion’ eta *hezteen* vs *hie zteen* ‘hizkien’. Hala ere, berrikuntza fonetiko hau ez da NOR-NORK sailean bezain sistematikoa, heldu gehienek bokal gabeko jatorrizko *hakon*, *haukun*, *heztan* eta *hezteen* formak ahoskatu baitituzte ere. Dena den, mintzo librea berrikuntzarekilako horiek aditu ditugu: *ezpehiakon* ‘ez baihion’

---

<sup>32</sup> Ergatiboa 2.p.sg. delarik salbu, kasu honetan 3. pertsona datiboaren bokala beti *-o-* baita: *dakon* ‘hik hari hura, orainaldia’; *dazkon* ‘hik hari haiek, orainaldia’; *hakon* ‘hik hari hura, iraganaldia’; *hazkon* ‘hik hari haiek’.



(JAIB5); eman *hiakon* ‘hion’ (TEIN61); *erran hietan, ba* ‘erran hidan bai’(MAIB68). Bizkitartean, ohar gaitezke adinetakoek ere *hi-* berrikuntza sartu dutela bi adizkitan, eta gainera adintsuenek: *hieztan* ‘hizkidan’ (MAGA92; MAIR89) eta *hiazkon* (AMLA88). Ondorioz, uler daiteke berrikuntza hori ez datekeela helduek asmatua, han-hemenka agerraldi guti batzuk egiten baitituzte; izan ere, gorago aipatu bezala, litekeena da hasperenaren galerak egonkortu eta orokortu duela berrikuntza hori belaunaldi gazteagoen mintzoan, hasperenak galdegiten duen indar artikulatorioa gainditzeko praktikoa delakoan.

Bestalde, azaltzea merezi duen ezaugarri deigarri bat agerrarazten dute NOR-NORI-NORK saileko paradigmek izartxoek bidez: datibo-komunztadura eza. Anitz forma bildu ditugu datibo-komunztadurarik gabe, beren baliokide datibodunarekin batean. Eman dezagun, *daken* ‘hark hari hura’-z gain *din* ‘hark hura’ bildu dugu, eta *deen* ‘hark haiei hura’-z gain, *din* ‘hark hura’. Zerrenda luzaz segitzen ahal genuke; lehen adin tartean, konparazione, NOR-NORI-NORK sail osotik, orainaldian nahiz iraganaldian, 80 formetarik 45 bildu ditugu datibo-komunztadurarik gabe beren baliokide datibodunaz gain, hau da, sailaren erdia baino gehiago. Gainera, bi formatan (‘hik guri haiek’ eta ‘haiek hiri hura, iraganaldia’) ez dugu batere datibo komunztadurarekin biltzea lortu: *hintiin* eta *zitenan* / *zutenan*. Gure berriemaileek, beraz, aise sartzten dituzte adizki bipertsonalak adizki hirupertsonalen ordeaz egitura ditransitiboetan.

Izan ere, gauza ezaguna da pertsona komunztadura datiboa hautazkoa izaten dela Iparraldeko ohiko euskalkietan, eta funtsean, gertakari hori ez da berria. XVI. mendeko testu zenbaitetan jadanik, egitura ditransitiboetako aditzek ez dute beti komunztadura markatzen datibozko sintagmarekin. Ondoko erranaldiak irakur zekizkien Etxepare, Zalgize eta Oihenarti hurrenez hurren: “*Sainduier ere egin ezak heure ezagutzia* (Etxp. I, 53) ; *Hi handi, ni handi, / Nork erranen du, gure astoari harri ?* (Zalg. 147) ; *Ogen egiten du onei, barkatzen duenak gaxtoei* (Oih. Prov. 654).” (Mounole 2015 : 484). Mounolek erakusten du gertakari horrek bere bidea egin zuela, XVIII. mendeko ekialdeko testuetan ere horren lekukotasunak baitira; goi-nafarreraz Elizalderen lumarekin eta zubereraz Maizterrenarekin (2015 : 486). Hain xuxen ere, Fernandezek (2009, 2009) azaltzen du eskualde horretan datibo komunztadura ez dela bortxaz zaintzen, eta iduriaren kontra, horrek ez duela ez-gramatikaltasunik sortzen. Fernandez, Ortiz de Urbina eta Landaren arabera (2009 : 367), datibodun iragankorretan, behe-datiboetan da maiztasun handiarekin gertatzen datibo komunztadura galera. Behe-datibo horietan *eman*,

*erakatsi, erakutsi, erran, eskaini, galdegin, iharduki* edo *egin* bezalako helburudun predikatuak ditugu. Funtsean, [7.2](#) eranskinean ikusiko den gisan, halako predikatuak baliatu ditugu galdetegian formen bilketarako. Halere, egile hauen arabera, komunztadura galera horrek ez dirudi baldintza sintaktiko berezien menpe: “idazletik idazlera eta aditzetik aditzera aldakortasuna dago”.

Bestalde, NORANTZ datu-baseari jarraiki, +70 urte dituztenen artean agertzen da maiztasun ttipienarekin komunztadura<sup>33</sup>. Heldu baita, gure lehen adin tarteko berri-emaileen belaunaldiaren mintzoan da gehien gertatzen datibo komunztadura galera hori. Hiztunak geroz eta gazteago, orduan eta gehiago zainduko du komunztadura. Egileek “euskalki konbergentziaren ondorio gisa” daukate datiboaren komunztaduraren indartze hau (Oyharçabal, Salaberria & Epelde 2011: 21). Preseski, guk bildu paradigmek bat egiten dute delako egitasmoko emaitzekin; izan ere, gure bigarren adin tarteko lekukoek aise gehiago zaintzen dute datibo-komunztadura lehenekoen baino. Gorago aipatu bezala adinetakoen 80 formetarik 45 atera badituzte komunztadurarik gabe; helduek, aldiz, 22 baizik ez dituzte bota, hau da, erdia. Gainera, lehen adin tartetik berri-emaile guziek ahoskatu dituzte forma horiek behin edo beste; bigarren adin tartetik, aldiz, batez ere batek (JEGA62k). Bide batez, joera hori hiztun horren mintzo kontserbatzailearen kontu ezartzen dugu, berantago ikusiko dugun gisan, bere beste hizkuntza-ezaugarri zenbaitek bat egiten baitute adinetakoen mintzoarekin, bere adin tartekoenetik ezberdinduz. Lekuko horrez gain ANIN67k ere zenbait ahoskatu ditu datibo-komunztadurarik gabe: *dinau* ‘guk hiri hura, orainaldia’; *dinau* ‘guk haiei hura, orainaldia’; *gininan* ‘guk hiri hura, iraganaldia’; *gininan* ‘guk hari hura, iraganaldia’; *gininan* ‘guk haiei hura, iraganaldia’; *zitenan* ‘haiek hiri hura, iraganaldia’. JAIB66ek ere bota ditu bizpalau adizki bipertsonal: *dinau* ‘guk hiri hura, orainaldia’; *dinau* ‘guk haiei hura, orainaldia’; *gininan* ‘guk hiri hura, iraganaldia’; *gintinan* ‘guk haiei haiek, iraganaldia’. Zernahi gisaz, agerraldi bakan horiez aparte, mintzo kontserbatzailea dukeen JEGA62k ditu gehienak ekoiztu, eta lehen adin tartean, berriz, denek ahoskatu dituzte.

---

<sup>33</sup> Hona adin taldeen araberako pertsona komunztadura datiboaren taula (Oyharçabal, Salaberria & Epelde 2011 : 21):

- +70 urtekoen taldean: 191/252 (%75)
- 40-60 urtekoen taldean: 151/182 (%83)
- -30 urtekoen taldean: 433/510 (%85)

Bada, gure ustez, gure berri emaileek erabili forma horiek erakusten duten pertsona komuntadura datiboaren galera ezin daiteke har ez ez-gramatikaltzat, ez menperatze eskastzat. Ekialde zabala estaltzen duen aspaldiko ezaugarri da –denboraren gustuz ttipituz doana–, eta halaberrez adizki alokutiboetan islatzen dena. Alabaina, euskalki horretan fenomeno hori gertatzea espero ukaitekoa bada, batere ez da agertzen Artolak (Irizar 1999) Ortzainen bildu formekin osatu paradigmetan, eta horiei loturiko oharretan ere batere aipamenik ez da egiten datibo pertsona komuntadura galera horri. Gisa berean, Zuazok (2021 : 65) aditz morfologiaren deskribapenean aipatzen du “aditzak ez du[ela] maiz datiboarekin komuntadura egiten”, baina Bankan bildu adizki alokutiboen taulan, forma guziek dute komuntadura. Halaber, Artzelusek (2021) ere halakorik ez du aipatzen Garaziko euskara aztertzean. Nolanahi ere, guk nahi izan dugu Ortzazeko inguruko errealitate linguistiko hori gure tauletan agerrarazi. Hara arte horretan bildu aditz iragankorrez eta paradigmek erakusten dituzten aldaerez egin dezakegun aurkezpena. Bada besterik, baina gorago jakinarazi bezala, gainerateko aldakortasuna nokaren higitzeari loturiko azpiatalean aztertuko dugu.

- *Aditz trinkoak*

IBILI				
	Orainaldia		Iraganaldia	
	1. adin tartea	2. adin tartea	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Ni</b>	nailan iilki nun*	nailan iilki nun*	nindailenan nindailanan iilki nindunan*	nindailanan
<b>Hi</b>	haila iilki hiz*	haila iilki hiz*	hindailan hinailan iilki hintzan*	hindailan hihailan
<b>Hura</b>	dailan	dailan iilki dun*	zailenan zailanan iilki zunan*	zailanan zailan
<b>Gu</b>	gailzan	gailzan	ginailzenan iilki gintunan*	ginailzanan iilki gintunan*
<b>Haiek</b>	dailzan	dailzan iilki tun*	zailzenan iilki zitunan*	zailzanan iilki zitunan

Lekukoen koloreak : **MAGA92** ; **MAIR89** ; **AMLA88** ; **BEBI75** ; **MAIB68** ; **ANIN67** ; **JAIB66** ; **TEIN61** ; **JEGA62**

\* perifrasiak.

EGON				
	Orainaldia		Iraganaldia	
	1. adin tartea	2. adin tartea	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Ni</b>	naun noon	naun	nindaunan nindoonan	nindaunan nindunan
<b>Hi</b>	hau hago	hago haun	hindaun hindoan hindaunan eonki nunan*	hindaunan eonki hintzan*
<b>Hura</b>	daun	daun	zaunan eonki zunan*	zaunan
<b>Gu</b>	gauden	gauden gitun	ginaudenan eoiten gintunan*	ginaudenan gintunan gaudenan
<b>Haiek</b>	dauden	dauden	zaudenan	zaudenan zitunan

JOAN				
	Orainaldia		Iraganaldia	
	1. adin tartea	2. adin tartea	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Ni</b>	(ba)nian	(ba)nian	(ba)ninduanan joanki nindunan*	(ba)nindianan joanki nindunan*
<b>Hi</b>	(ba)hua joaiteintz*, abiaintz	(ba)hua joaiteintz*, abiaintz	(ba)hinduan joanki hintzan*	(ba)hinduan joaiten hintzan*
<b>Hura</b>	(ba)dian joanki dun*	(ba)dian (ba)duan joaiten dun*	(ba)zuanan joanki zunan*	(ba)zianan joanki zunan*
<b>Gu</b>	bagatzin bagoazin joanki gitun*	(ba)gatzin joaiten gitun*	baginatzinan joanki gintunan*	bagoatzinan bagindoanan ginazan joaiten gintunan*
<b>Haiek</b>	badatzin badazin badoatzin joanki tun*	(ba)datzin (ba)datzan	bazuatzinan joanki zitunan*	(ba)zatzinan (ba)zoatzinan joaiten zitunan*

Lekukoak: **MAGA92** ; **MAIR89** ; **AML88** ; **AMLAH75** ; **BEBI75** ; **MAIB68** ; **ANIN67** ; **JAIB66** ; **TEIN61** ; **JEGA62**

\* perifrasiak.

JAKIN (o.sg.)				
	Orainaldia		Iraganaldia	
	1. adin tartea	2. adin tartea	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik</b>	(ba)dakinat	(ba)dakinat	(ba)nakinan	(ba)nakinan
<b>Hik</b>	(ba)dakin	(ba)dakin	(ba)hakiin (ba)hiakiin	(ba)hakiin (ba)hiakiin
<b>Hark</b>	(ba)dakin	(ba)dakin	(ba)zakinan	(ba)zakinan
<b>Guk</b>	(ba)dakinaun	(ba)dakinaun (ba)dakinaun	(ba)ginakinan	(ba)ginakinan
<b>Haiek</b>	(ba)dakine	(ba)dakine	(ba)zakitenan	(ba)zakitenan

JAKIN (o.pl.)				
	Orainaldia		Iraganaldia	
	1. adin tartea	2. adin tartea	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik</b>	(ba)dazkinat	(ba)dazkinat	(ba)nazkinan	(ba)nazkinan
<b>Hik</b>	(ba)dazkin	(ba)dazkin	(ba)hazkiin (ba)hiazkiin	(ba)hazkiin (ba)hiazkiin
<b>Hark</b>	(ba)dazkin	(ba)dazkin	(ba)zazkinan	(ba)zazkinan
<b>Guk</b>	(ba)dazkinaun	(ba)dazkinaun (ba)dazkinaun	(ba)ginazkinan	(ba)ginazkinan
<b>Haiek</b>	(ba)dazkine	(ba)dazkine	(ba)zazkitenan	(ba)zazkitenan

Adizki sintetikoetan, iragangaitzetarik IBILI, JOAN eta EGON-en paradigmatik bildu ditugu, eta iragankorretarik JAKIN-ena, objektu singularrarekin eta pluralarekin. Gehiago nahi izan bagenitu bildu, nekez erdietsiko genuen, ezagun baita trinkoen erabilera ttipitu dela euskararen eremu osoan, eta are zorrozkiago Iparraldeko mintzairetan.<sup>34</sup> Eztabadan guti baliatzen diren trinko urriak halabeharrez urriak izanen dira alokutiboan ere. Elustondo eta Epeldek (2023) berek nokako forma sintetikoak aise nekezago bildu dituzte gazteengandik adinetakoengandik baino. Horren lekuko dira gure tauletan bi adin tarteetan izartxoekin agertzen diren perifrasi ugariak. Izan ere, gure lekukoek kasik sistematikoki lehenik perifrasi ateratzen zuten, guk espero genuen trinkoa bota aitzin. Konparazione, *hindailan* ‘henbilen’ forma analitikoa lortu aitzin, denei aditu diegu *iilki*<sup>35</sup> *hintzan* perifrasi, eta gauza bera beste hainbat pertsona komuntadurarekin. Halarik ere, igurikatu bezala, adinetakoek aisetasun gehiago erakutsi dute forma trinkoen erabiltzeko helduek baino. Bide batez, lehen adin tartean berean ere asimetriak ikusi ditugu, adintsuenek dituzte erraztasun handienarekin baliatu. Helduek espero ez genituen hamar bat forma irregular ekoiztu dituzte; adinetakoek, aldiz, forma

<sup>34</sup> Aditz horiez gain, *daukenat* (EDUKI) ere bildu izan dugu adin tarte bakoitzetik: MARGA92 eta JEGA62 ama-  
semeez baliatu dute. Bizkitartean, ‘pentsatzen dut’ adierara mugatua da espresio gisa, eta, orduan, lehen  
pertsoneko komuntadurarat mugatua dateke.

<sup>35</sup> -ki atzizkiak aspektu puntukaria du perifrasi honetan.

bakarra. Nokaren higatzeari loturik, beherago xehekiago aipatuko ditugu (ik. [4.1.2](#)). Mintzo librea trinkoen erabilpenaren aisetasun horren erakusgarri da, helduei JAKIN-eko adizkiak baizik ez baitizkiegu aditu (bi salbuespen: ANIN67k *xerka nindailanan* ‘nenbilenan’ erran du eta JEGA62k *xerka nailan* ‘nabilen’). Bada, JAKIN da maiztasun handiena duen aditz sintetikoa iragankorretan. Hauek bildu ditugu mintzo librean: *eztakinat; baakina; badakin; baakine; eztakine; baginakinan; bazakinan*. Adinetakoei –batez ere adintsuenei–, aldiz, beste forma sintetiko hauek ere entzun dizkiegu: i) EGON: *Haurrak amaakin dauden* (MAIR89); *Hantxe zaunan* (MAIR89); *Hantxe daun* (AMLA88); *So nindaunan* (AMLA88); *Piarren potretari so naun* (MAIR89) ii) IBILI: *Xerka nindailenan* (MAIR89); *Otuan zailanan* (AMLA88); *Luneten giiletik nailan beti* (MAGA92); *Gauaz zailenan* (MAGA92). JAKIN-en forma hau ere aditu dugu, baldintzan: *balakiken* (MAGA92).

Jaso adizki sintetiko horien morfologiari dagokionez, azpimarra ditzagun pare bat ezaugarri. Lehenik eta behin, ohar gaitezke, NOR-NORI-NORK sailarendako zehaztu bezala, *d-* dela trinkoetan ere orainaldian 3. pertsona absolutiboari dagokion morfema, eta ez *z-*. Ikus bitez konparazione: *dailan* ‘dabilan’; *dailzan* ‘dabiltzan’; *dian* ‘doan’; *daun* ‘dagon’; *dauden*; *dakinat*; *dakin*; *dakinaun*, etab. Iraganaldian, ekialdeko hizkeren ezaugarri diren *nin-*, *hin-*, *gin-* morfemak baliatzen dira aditz iragangaitzetako 1. eta 2. pertsonetan: *nindailenan* ‘nenbilen’; *hindailan* ‘henbilen’; *ginailenan* ‘genbiltzan’; *ninduanan* ‘nindoanan’<sup>36</sup>; *hinduan* ‘hindoan’; *ginazinan* ‘gindoazanan’; *nindaunan* ‘nengonan’; *hindaun* ‘hengoen’; *ginaudenan* ‘geundenan’. Ikus daitekeen gisan, *-a-* da trinkoen iraganaldiko erroan. Pluralgile adierazgarriei dagokienez, *-(t)zi* da JOAN-en adizkietakoa (*baga(t)zin* ; *bagoa(t)zin* ; *bada(t)zin*). Salbuespen bat bildu dugu, lekuko batek (JEGA62k) Baigorri-Urepele artean (Zuazo 2021 : 60) baliatzen den *-(t)za* pluralgilearekin atera du forma bat: *badatzan*<sup>37</sup>. Adizki iragankorretan, aldiz (JAKIN), *-z-* da pluralgilea: *(ba)dazkinat* ; *(ba)nazkinan* ; *(ba)dakin* ; *(ba)hazkiin* ; *(ba)dazkin* ; *(ba)zazkinan*, etab. Azkenik, adizki sintetikoetan agertzen diren zenbait aldaketa fonetiko argitan ezartzea komeni da. Euskalki guzietan bezala, ohikoa den bezala bokal arteko herskari ahostunak galtzen dira, hala nola IBILI aditzeko forma guzietan, *nabilan* > *nailan* ; *habila* > *haila* ; *dabilan* > *dailan* ; *zabilenan* > *zailenan* etab., eta EGON-eko singularreko pertsonetan: *naun* < *nagon* ; *hau* < *hago* ; *daun* < *dagon* ; *nindaunan* < *nindagonan* ; *hindaun* < *hindagon*

<sup>36</sup> [nindwanan]

<sup>37</sup> Eztabadan ere *bagatza* aise erraten du, gustukoa duen Urepeleko mintzairari nahitarat mailegatuz.

etab. Monoptongazioak ere ohikoak dira. JOAN aditzean, konparazione, *oa>a* (AMLA89rendako salbu) sistematikoa da orainaldiko pluraleko pertsonetan: *bagoa(t)zin > бага(t)zin* ; *badoa(t)zin > bada(t)zin*. Gisa berean, MAGA92k eta MAIR89k EGON aditzean aipatu herskari ahostunaren galeraren gainean *au>oo* bilakaera egiten dute: *nagon > naun > noon* ; *nindagonan > nindaunan > nindoonan* ; *hindagon > hindaun > hindoon*.

Bizkitartean, gure bi adin tarteek partekatzen dituzten ezaugarri horiez gain bada aldaerarik. Hain xuxen ere, *e/a* bitasun bat IBILI aditzeko formetan: *nindailenan* vs *nindailanan* ‘nenbilenan’ ; *zailenan* vs *zailanan* ‘zebilenan’ ; *ginailzenan* vs *ginailzanan* ‘genbiltzanan’ ; *zailzenan* vs *zailzanan* ‘zebiltzanan’. Baliteke adina aldagaia izatea, helduek esklusiboki *-a-* ren alde egiten baitute, eta lehen adin tartetik, denek *-e-* ahoskatzen dute, gazteago den BEBI75ek salbu. Hemen ere, neke da gertakari fonetiko bat ala morfologiko bat den trenkatzea, bien aldeko argudioak baitira. Izan liteke estandarreko adizkiek erakusten duten gisan formak eztabadatik eraikiak izatea forma neutroari sinpleki marka alokutiboa gehituz (i) estandarrean: *nenbilenan* < *nenbilen* + *an* eta *genbiltzanan* < *genbiltzan* + *an* eta beraz ii) lekuko ortzaiztarren hizkeran: *nindailanan* < *nindailan* + *an* eta *ginailzanan* < *ginailzan* + *an*), horrek ez-gramatikaltasunik eta beraz nokaren higitzerik iradoki gabe, eta aldi berean harmonia bokalikoaren aldeko joera fonetiko bat ere izan liteke. Dena den, alokutiboaren egokitasun gramatikalarik kalterik egiten ez diokeen joeratzat har dezakegu. Azkenik, ohar gaitezke gorago aztertu *hi-* berrikuntza fonetiko trinkoetarat ere hedatzen dela, JAKIN aditzean, iraganaldian, hain xuxen: *bahjakiin* ‘bahekien’ (JAIB66; MAIB68; BEBI75) eta *bahjazkiin* ‘bahekizkien’ (JAIB66; MAIB68; BEBI75). Mintzo librean *ehiak*? ‘ez hekien?’ ere bildu dugu (MAIB68). Bi helduez gain adinetakoetarik gazteenak ere baliatzen du berrikuntza.

#### 4.1.1.2. Agintera

NOR	
1. adin tarte	2. adin tarte
hadi	hadi

NOR-NORK		
	1. adin tarte	2. adin tarte
<b>Ni</b>	nezan	nezan
<b>Hura</b>	zan	zan
<b>Gu</b>	gitzan	gitzan
<b>Haiek</b>	zkin	zkin

NOR-NORI-NORK (o.sg.)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Eni</b>	emetan erretan	emetan erretan <b>emazetan</b>
<b>Hari</b>	emakon errakon	emakon errakon
<b>Guri</b>	eman* <b>eman zan*</b> erran*	<b>emaukun</b> <b>erraukun</b> eman zan* karran
<b>Haiei</b>	emeen erreen	emeen erreen

Lekukoen koloreak : BEBI75 ; MAIB68 ; ANIN67 ; JAIB66 ; TEIN61 ; JEGA62

\*datibo-komunztadurarik gabe

NOR-NORI-NORK (o.pl.)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Eni</b>	emeztan emazkin* karreztan	emeztan emazkin* karreztan <b>emaztan</b> <b>emaazkin</b> <b>emaaztan</b> <b>emazeztan</b>
<b>Hari</b>	emazkon karrazkon	emazkon ekarrazkon
<b>Guri</b>	emazkin*	ekarzikin* emazkin*
<b>iei</b>	emezteen karrezteen	emezteen karrezteen

Aginteran, NOR, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailetakoko adizkiak bildu ditugu, subjektua eskusiboki ‘hi’ izanki, atal teorikoan azaldu bezala, jusiboan adizki alokutiborik ez baita sartzen. Izan ere, lehen bi sailetan batasun osoa erakutsi dute bi adin tarreetako mintzoek; NOR-NORI-NORK sailean, berriz, aldaera zenbait agertu zaizkigu. Baxenabarre osoan eta Lapurdi barnealdean ohikoa den bezala (Camino 2004 : 475), laburdura gertatzen da eta \*ezan- i dagokion -z- morfema txistukaria galtzen da: *emetan*; *emakon*; *emeen*, etab. Hala ere, bi salbuespen badira, JAIB66ek \*ezan markatzen baitu datiboa 1.p. delarik: *emazetan* ‘eman iezadan’; *emazeztan* ‘eman iezazkidan’; *eman zan* ‘eman ezan’, eta BEBI75ek ere behin hala egiten baitu ‘hik guri hura’ delarik: *eman zan*.

Bestalde, NOR-NORI-NORK sailean garen ber, datiboari dagokion funtsezko aldakortasuna agertzen da adin tarte batetik besterat. Hain xuxen, hautazko datibo-komunztadura berriz jokoan sartzen da; ikusi dugu bi adin tarreetan ‘hik eni haiek’ delarik datibo-komunztadurarik gabeko *emazkin* ‘eman itzan’ forma baliatzen dutela. Haatik, datiboa 1.p.pl. delarik, argiago ikusten da komunztadura horren zaintzearen gorakada adin tarte batetik besterat, adinetako batek ere ez baitu markatu datibo-komunztadura; hain xuxen, *eman*, *eman zan*, *erran* eta *emazkin* formak bildu ditugu. Bigarren adin tartetik, aldiz, TEIN61ek eta ANIN67k datibo-komunztadura zaintzen dute objektu singularrarekin: *emaukun* ‘eman iezagun’, *erraukun* ‘erran iezagun’. Bestalde, iduri luke datiboa 1.p.sg. datiboa eta objektu pluralaren konbinaketak nahasmena sortzen duela helduen mintzoan, aldakortasun handia baita. Izan ere, hauek guziak bildu ditugu: *emeztan*; *emazkin*; *emaztan* (JEGA62); *emaazkin* (MAIB68); *emaaztan* (MAIB68);



*emazetan* (JAIB66). Lehen hiru formak bi adin tartetakoek, hau da, denek baliatu baldin badituzte, azken lauak izendatu lekuko helduek atera dituzte. Hipotesi gisa, iduri luke lehena (*emaztan*) indikatiboko NOR-NORI-NORK sailaren atalean aipatu 1. pertsona datiboko Ortzazeko *e/a* bokalaren txandakatzearen ondorio dela. Azkena (*emazetan*), berriz, gorago aipatu bezala, \**ezan*-en txistukariaren marka dela dirudi. Arteko biak nokaren higatzeari buruzko atalean landuko ditugu beherago (ik. 4.1.2).

#### 4.1.1.3. Baldintza

NOR				
	Baldintza		Ondorioa	
	1. adin tartea	2. adin tartea	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Ni</b>	banintz	banintz	nintaken nindaken ninduken	nindaiken nintaken
<b>Hi</b>	bahintz	bahintz	hintake hindaik	hindaiken hintaiken hindaik hintake
<b>Hura</b>	balitz	balitz	litaken luken	litaken litaiken
<b>Gu</b>	bagine	bagine	gintazken	gintaizken gintazken gintuzken
<b>Haiek</b>	balire	balire	litazken luzken	litazken litaizken

NOR-NORK						
	Baldintza		Ondorioa			
	1. adin tartea	2. adin tartea	Hura		Haiek	
	1. adin tartea	2. adin tartea	1. adin tartea	2. adin tartea	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik</b>	ban(it)u	ban(it)u	niken	niken	nizken	nizken
<b>Hik</b>	bah(it)u	bah(it)u	huke	huke hiuke	huzke	huzke
<b>Hark</b>	bal(it)u	bal(it)u	lik	lik	lizken	lizken
<b>Guk</b>	bagin(t)u	bagin(t)u	giniken	giniken	ginizken	ginizken
<b>Haiek</b>	balu(z)te	balu(z)te	likene	likene	lizkene	lizkene

Lekukoak: AMLA88 ; BEBI75 ; MAIB68 ; ANIN67 ; JAIB66 ; TEIN61 ; JEGA62

*Ke*-dun formen aurkezpenetan sar gaitzen orain, baldintzarekin hasiz. Modu honetan, NOR sailean agertzen den polimorfismoaren oinarrian hiru aldaera nagusi bereizten ditugu. Alde batetik, bistaritzen zaigun aldaera nagusia erro aldaketa da. Izan ere, hala lehen adin tartean nola bigarreanean, \*EDIN eta \*EDUN-en arteko txandakatzea agertzen da. Erro aldaketa hori ez da harrizkoa, indikatiboko IZAN aditzarekin erro aldaketa euskalki guzietan gertatzen

baita, IZAN-en sailean NOR-NORK saileko adizkiak baliatzen dira: *da* → *dun* ; *nintzen* → *nindunan* (Oyharçabal 1994 : 973). Hemen, ikus dezakegu gure Ortzaizeko lekukoekin Ke-gabeko formetan ezagun dugun erro aldaketa bera gertatzen dela *Ke*-dun formetan, eta bi adin tartetean gainera. Pertsona guzietan bildu dugu, singularreko 2.ean salbu (hi). Beha bikote horiei: *nintaken* (\*edin) vs *ninduken* (\*edun); *hintake* ; *litaken* (\*edin) vs *luken* (\*edun); *gintazken* (\*edin) vs *gintuzken* (\*edun); *litazken* (\*edin) vs *luzken* (\*edun). Ez dirudi bitasun hori arau morfosintaktikoen menpe denik. Hala erraten zigun bederen Lafonek (1999 [1959] : 392-393):

Les formes allocutives d'un même temps et d'un même mode ne constituent pas nécessairement des séries régulières. Ainsi on a au présent-futur du potentiel du verbe "être":

Formes indifférentes	Formes allocutives
1 s <i>naiteke</i>	<i>naitekék, naiteken</i>
1 p <i>gaitezke</i>	<i>gaitezkek, gaitezken</i>
3 s <i>daiteke</i>	<i>zukek, zuken</i>
3 p <i>ditezke</i>	<i>zituzkek, zituzken</i>

Beraz, indikatibotik beste modu honetarat isurtzen ari den eta lekukoan ahoetan polimorfismoa eragiten duen erro aldaketa dukegu.

Bestalde, aipatu beste bi aldaerak fonetikoak dirateke. Batetik, \**edin*-en adizkietan *a>ai* diptongazioa egiteko joera bat ikusi dugu helduen mintzoan<sup>38</sup>: *nintaken*, *nindaken* vs *nintaiken*; *hintake* vs *hindaiken*, *hintaiken*, *hindaiké*; *litaken* vs *litaiken*; *gintazken* vs *gintaizken*; *litazken* vs *litaizken*. Lehen adin tartetik batek (BEBI75ek) *hindaiké* bota du elizitazioan, baina mintzo librean *hintake* aditu diogu. Kontuan har bedi ere lehen adin tartekoetarik gazteena dela, eta funtsean bigarrenetarik arras hurbil. Bestetik, *d/t* herskari ahostun/ahoskabe txandakatzeak bildu ditugu lehen bi pertsonetan, bi adin tartetean: *nintaken* vs *nindaken*, *nindaiken* eta *hintake*, *hintaiken* vs *hindaiké*, *hindaiken*. Ahoskabea izatea ez da harritzekoa sudurkariaren efektuagatik.

<sup>38</sup> NORANTZ datu-baseak ere berrikuntza hori lekukotzen du. Izan ere, B126 galderan, 3.p.sg. IZAN aditza biltzerakoan, +70 urtekoetako gehien-gehienek (zuberotarrak bazter utziz) *-ake* bukaerarekin atera dute adizkia, eta bakar batek *-taike* bukaerarekin. -30 urtekoetan, aldiz, *-aike* bukaeraren hainbat ateraldi agertzen dira, berrikuntzaren hedapenaren seinale. <<https://www.norantz.org/web/bilaketa/galdera/207>>

NOR-NORK sailean, aldakortasunik ez dugu bildu adin tarte batetik besterat, forma guziak berdin-berdin ahoskatu dituzte, forma batean salbu; JAIB66ek mintzo librean *hiuke* ahoskatu du delako berrikuntza fonetikoarekin; besteek, aldiz, *huke*. Ezberdintasun indibidual hori aparte, erabat bat egiten dute bi adin tarteek. Erran behar da, gehienbat *nahi* eta *behar* aditz modalekin baliatzen dituztenez, ardura enplegatzen dituztela.

#### 4.1.1.4. Ahalera

Ahaleraren modalitateari datxikola, aditzoinarekin eraikitzen diren NOR eta NOR-NORK sailtako formak bildu ditugu, hiru alditan: orainekoan, hipotetikoan eta iraganaldikoan.

NOR (Orainaldia)		
	1. adin tarte	2. adin tarte
<b>Ni</b>	nintaken ahal nun*	
<b>Hi</b>	hintake ahal nun*	
<b>Hura</b>	litaken ahal dun*	ditaken
<b>Gu</b>	ahal gitun*	
<b>Haiek</b>	litazken ahal tun*	ditazken

Lekukoan koloreak: MAIB68 ; ANIN67 ;  
JAIB66 ; TEIN61 ; JEGA62  
\*perifrasiak

NOR-NORK (Orainaldia)		
	1. adin tarte	2. adin tarte
<b>Nik hura</b>	dezakenat	dezakenat ahal dinat*
<b>Nik haiek</b>	dezazkenat	dezazkenat ahal tinat*
<b>Hik hura</b>	dezaken	dezaken ahal dun*
<b>Hik haiek</b>	dezazken	dezazken ahal tun*
<b>Hark hura</b>	dezaken	dezaken ahal din*
<b>Hark haiek</b>	dezazken	dezazken ahal tin*
<b>Guk hura</b>	ahal dinaun* dezakenaun	dezakenaun dezakenaun ahal dinaun*
<b>Guk haiek</b>	ahal tinaun* dezazkenaun	dezazkenaun dezazkenaun ahal tinaun*
<b>Haiek hura</b>	dezakene ahal dine*	dezakene dezaketene ahal dine*
<b>Haiek haiek</b>	dezakene ahal tine*	dezakene dezaketene dezaketene ahal tine*

Lehenik, orainaldikoan, dezagun aitor ez dugula kausitu NOR paradigmaren biltzen. Izan ere, trinkoetan bezala, [partizipio burutugabea + *ahal* + aditz laguntzailea] perifrasiak nagusitzen ari dira Iparraldeko mintzoetan, orduan gure hamar lekukoek salbuespenik gabe halako egiturak baliatu dituzte. Mintzo librean notatu dugun beste joera bat izan da, ahaleran mintzatzerakoan, orainaldian gerta litekeen gertakari batez mintzaturik ere, hipotetikoan mintzatzea eta beraz ondotik aipatuko ditugun *nintake* edota *hintake* bezalako forma

hipotetikoak baliatzea. Halarik ere, helduen paradigmán ikusten den gisan, mintzo librean ANIN67ri *ditaken* eta *ditazken* bildu dizkiogu 3. pertsonan. Hain xuxen, ‘posible da’ erranahia duen “*izan ditaken*” espresioaren baitan erabili du, espresio fosilizatu gisa. Ez da dudarik adinetakoek ere balia lezaketela, eta, funtsean, jakinez geroz galdetegian hastetik “*izan ditake*” sartu bagenu, forma erdietsiko genuela. Azkenean, eztabadan galtzen den forma izanki, alokutiboan ere galtzen dela erakutsi dute gure lekukoek, espresioetan fosilizatuz.

Gisa berean, orainaldiko NOR-NORK sailean, hastapenean forma bat ere ez genuen lortzen, lekukoek mintzo librean –batez ere eztabadan– ezeztapenetan baizik erabiltzen ez dutela aditu artio. Zernahi gisaz, nahiz ezeztapenaren bidez ahalerazko \**ezan*-ekilako formak erdietsi, lekuko guziek –partikularzki helduek– perifrasiak dute lehenetsia, tauletan izartxoek adierazten duten gisan. Preseski, ahalerazko orainaldiko aditz iragankor horren jabetza ezberdina ikusi dugu adin tarte batetik besterik, bostetarik hiru helduk baizik ez baitituzte atera. Halere, lehen adin tartetik zailtasunak ukan ditugu 1.p.pl.-ko formak lortzeko, pertsona horretan perifrasiak baliatzeko joera handiagoa duketelakoan.

Morfologiari buruz, zehatz genezake -z- dela ahalerako pluralgilea: *dezazkenat* ‘nik haiek’ ; *dezazken* ‘hik haiek’ ; *dezazken* ‘hark haiek’ ; *dezazkenau(n)* ‘guk haiek’ ; *dezazkene* ‘haiek haiek’. Indikatiboarekin ikusi ditugun gainerateko morfema berak berraurkezteko partez, nokaren higatzeari lotuak diren aldaerak aztertuko ditugu ondoko atalean.

NOR (Hipotetikoa)		
	1. adin tarte	2. adin tarte
<b>Ni</b>	nintaken nindaken ninduken	nindaiken nintaken
<b>Hi</b>	hintake hindake	hindaik hintake
<b>Hura</b>	litaken	litaiken luken litaiken
<b>Gu</b>	gintazken ginduzken	gintaizken gintuzken gintazken
<b>Haiek</b>	litazken	litaizken luzken litazken

Lekuko koloreak : MAIR89 ; AMLA88 ; MAIB68 ; ANIN67 ; JAIB66 ; TEIN61 ; JEGA62

\*perifrasiak

NOR-NORK (Hipotetikoa)		
	1. adin tarte	2. adin tarte
<b>Nik hura</b>	nezaken	nezaken
<b>Nik haiek</b>	nezazken	nezazken
<b>Hik hura</b>	hezake	hezake hezaken
<b>Hik haiek</b>	hezazke	hezazke hezazken
<b>Hark hura</b>	lezaken	lezaken
<b>Hark haiek</b>	lezazken	lezazken
<b>Guk hura</b>	ginezaken	ginezaken
<b>Guk haiek</b>	ginezazken	ginezazken
<b>Haiek hura</b>	lezakene	lezakene lezaketen
<b>Haiek haiek</b>	dezazkene ahal tine*	lezazkene lezazketene lezazketen

Ahalera hipotetikoan, NOR sailean, baldintzarekin ikusi erro aldaketa bera agertu zaigu bi adin tartetan, hau da, \*edin eta \*edun erroen artekoa. Berdin-berdin, 2.p.sg.-k salbu, pertsona bakoitzarendako bikotea agertu zaigu berriemaile guzien formak biltzean: *nintaken*, *nindaken*, *nindaiken* vs *ninduken*; *hintake*, *hindake*, *hindaike*; *litaken*, *litaiken* vs *luken*; *gintazken*, *gintaizken* vs *gintuzken*; *litazken*, *litaizken* vs *litazken*. Gainera, baldintzazko adizkietan bezalaxe, gaineko formetan ageri den *d/t* herskari ahostun/ahoskabeen arteko alternantzia bat entzun dugu bi adin tartetan, baita joera are garbiagoa helduen mintzoan *-ai-* diptongoaren alde, *-a-* ren parean. Modalitate honetan, diptongo horrek berrikuntza izateko itxura du, batere ez baitugu bildu adinetakoen solasetan, kasik sistematikoki berriz helduenetan. NOR-NORK sailean, orainaldiarekin zehaztu bezala, jadanik aurkeztu morfemez aparteko ezaugarriak ondoko atalean landuko ditugu (ik. [4.1.2](#)).

NOR (Iraganaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Ni</b>	nintakeenan ahal nindunan*	ahal nindunan* nindaikkeen nintaikkeen
<b>Hi</b>	hintakeen ahal hintzan*	ahal hintzan* hintaikkeen
<b>Hura</b>	zitakeenan ahal zunan*	ahal zunan* zindaikkeen
<b>Gu</b>	gintazkeenan ahal gintunan*	ahal gintunan* gintaizkeenan
<b>Haiek</b>	zitazkeenan ahal zitunan*	ahal zitunan* litaizkeenan

Lekukoak: [MAGA92](#) ; [MAIR89](#); [MAIB68](#) ; [ANIN67](#) ;  
[JAIB66](#) ; [TEIN61](#) ; [JEGA62](#)  
 \*perifrasia

NOR-NORK (Iraganaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hura</b>	nezakenan	nezakenan ahal ninan*
<b>Nik haiek</b>	nezazkenan	nezazkeenan ahal nintinan*
<b>Hik hura</b>	hezakeen	hezakeen ahal hiin*
<b>Hik haiek</b>	hezazkeenan	hezazkeenan zinezazkeenan hezazkeenan ahal hintiin*
<b>Hark hura</b>	zezakenan ahal zinan*	zezakenan
<b>Hark haiek</b>	zezazkenan	zezazkenan
<b>Guk hura</b>	ginezakenan ahal gininan*	ginezakenan ginezakeenan ahal gininan*
<b>Guk haiek</b>	ginezazkenan	ginezazkenan ahal gintinan*
<b>Haiek hura</b>	zezaketenan ahal zitenan*	zezaketenan zezaketen ahal zitenan*
<b>Haiek haiek</b>	zezazketenan	zezazketenan ahal zizitenan*

Iraganaldiko ahaleran, azkenik, gisa berean, perifrasiaren aldeko joera nagusia entzun dugu adin orotako hiztunengan. Izan ere, NOR saileko formak adinetakoengandik baizik ez ditugu lortu –funtsean, hiru lekukorengandik ([MAGA92](#), [MAIR89](#) eta [BEBI75](#))–, eta halaber,

ezezko perpausen bidez bakarrik. Hau da, hiztun zaharrenek baizik ez menperatzeak, perifrasiaren aldeko joera nagusiak eta ezezko perpausetara mugatua izateak eskuz esku iragartzen dute paradigma horren desagerpen hurbila. Artetik erran dezagun, nahiz formak tauletan “ee” bokal bikoitzarekin idatziak izan, bakarrarekin ahoskatzen zituzten informatzaileek, hala nola “*nintakenan*”; “*hintaken*”; “*zitakenan*” etab. Erran nahi baita, grafia morfologikoa lehenetsi dugu grafia fonetikoari iraganaldiaren marka azpimarratzeko eta beste formekin izan litezkeen anbiguotasun gehigarriak saihesteko. NOR-NORK sailaren bilketa emankorragoa izan da bigarren adin tartean, perifrasi ez gain \**ezan* aditzaren adizki zenbait bildu baititugu. Hala ere, bigarren azpiatalean ikusiko dugun gisan, ezberdintzen dira adinetakoenetarik.

#### 4.1.1.5. *Modalitate epistemikoa*

Azkenik, morfologian ontsalaz franko guti bildu den modalitatea bildu dugu: epistemikoa. Izan ere, modalen irakurketa epistemikoak posibilitatea edota probabilitatea adierazten ditu. Konparazione (Demidarche & Uribe-Etxebarria, 2007 : 461):

(12) *Norak lasterketa irabaz(i) zezakeen.*

Adibide horrek duen irakurketa modal epistemikoa beste erranaldi hauen bidez ere adieraz daiteke:

- (13) a. “Baliteke/posible da (atzo/lehen) lasterketa irabazi izana”.  
b. “Agian lasterketa irabazi du/zuen”.

Indikatiboko adizki analitikoetarat mugaturik, Irizarrek (1999) batere ez du bilarazi modalitate horretako adizkirik Ortzaizen, ezta Zuazok ere (2021). Alta, maiztasun handiarekin baliatua da ekialde zabaleko mintzairetan. Orduan, gure lekuko guziak adizki horiek hain deblauki baliatzen entzunik, bai eztabadan guri bai noka horien artean, nahi izan dugu forma horien aberastasuna ere jaso. Beraz, aitzineko modu eta modalitateetan egin bezalaxe, NOR eta NOR-NORK sailak bildu ditugu.

NOR (Orainaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Ni</b>	nintaken nindaken ninduken	ninduken nuken nindaiken nintaiken
<b>Hi</b>	hintake hitake hindake	hintaike hintaken hintake haike hitaikere
<b>Hura</b>	ditaken duken	ditaiken duken daiken
<b>Gu</b>	gintazken gituzken ginduzken	gintaizken gintuzken gitazken
<b>Haiek</b>	ditazken	ditaizken duzken

NOR (Iraganaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Ni</b>	nintakeenan nindukeenan	nindukeen nindukeenan nintaikeren
<b>Hi</b>	hintakeen hindakeen	hintakeen hinatekeen
<b>Hura</b>	zitateenan zukeenan	zukeenan zitaikeren zitateenan
<b>Gu</b>	gintazkeenan gintuzkeenan	gintaizkeenan gintuzkeenan
<b>Haiek</b>	zitateenan zitezkeenan	zitaizkeenan zitateenan zuzkeenan

NOR-NORK (Orainaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hura</b>	dikenat	dikenat dukenat
<b>Nik haiek</b>	dizkenat	dizkenat
<b>Hik hura</b>	duken	duken
<b>Hik haiek</b>	duzken	duzken
<b>Hark hura</b>	diken	diken
<b>Hark haiek</b>	dizken	dizken
<b>Guk hura</b>	dikenaun	dikenaun
<b>Guk haiek</b>	dizkenaun	dizkenaun
<b>Haiek hura</b>	dikene	dikene
<b>Haiek haiek</b>	dizkene	dizkene

NOR-NORK (Iraganaldia)		
	1. adin tartea	2. adin tartea
<b>Nik hura</b>	nikenan	nikenan
<b>Nik haiek</b>	nizkenan nuzkenan	nizkenan
<b>Hik hura</b>	hukeen	hukeen hiukeen hikeenan
<b>Hik haiek</b>	huzkeen	huzkeen hinuzkeen
<b>Hark hura</b>	zikenan	zikenan
<b>Hark haiek</b>	zizkenan	zizkenan
<b>Guk hura</b>	ginikenan	ginikenan
<b>Guk haiek</b>	ginizkenan ginuzkenan	ginizkenan ginuzkenan
<b>Haiek hura</b>	ziketenan zuketenan	ziketenan
<b>Haiek haiek</b>	zizketenan	zizketenan zuzketenan

Lekukoen koloreak: **MAGA92** ; **MAIR89** ; **AMLA88**  
; **AMLAH75** ; **BEBI75** ; **MAIB68** ; **ANIN67** ; **JAIB66** ;  
**TEIN61** ; **JEGA62**

Hain xuxen ere, oro har, zailtasunak edo dudak hauteman ditugu lekukoengan NOR sail epistemikoarekin, hala helduekin nola adinetakoekin. Ez da biziki argi agertu adizkien lehen silaban iraganaldiko eta alegiazko adizkiei dagozkion *-n-* morfema sartzan duten ala ez. Lehen

adin tartean, adibidez, 2.p.sg.ean *hintake*, *hindake* vs *hitake* ‘Hi, epistemikoa, orainaldia (noka)’, eta 1.p.pl.ean *gintazken*, *ginduzken* vs *gituzken* ‘Hi, epistemikoa, orainaldia (noka)’ banaketa bitarra bildu dugu; bigarren adin tartean, berdin, *hintaken*, *hintake*, *hintaike* vs *haike*, *hitaike* eta *gintuzken*, *gintaizken* vs *gitazken* bikoteak aditu ditugu. Konfusioa batez ere helduengan ikusi dugu, denek atera duten *hintaike* forma komunaz gain bakoitzak ezberdin bat atera baitu, eta zailtasunarekin. Bost aldaera izatea eta horietarik lau agerraldi bakarrekoak izatea zailtasunaren erakusgarri dateke. Nolanahi ere, elizitazioaren presiopean jasoak izan dira, eta maleruski, mintzo librean bildu ditugunak 3.p.koak baizik ez dira izan: *ditaken* ‘dateke (noka)’ (MAGA92; AMLAH75); *duken* ‘dateke (noka)’ (BEBI75); *duzken* ‘dirateke (noka)’ (ANIN67); *zitakanen* ‘zitekeen (noka)’ (MAIR89); *dikenat* ‘duket (noka)’ (MAGA92). Preseski, goragoko adibideekin klarki ikus dezakegu *\*edin* / *\*edun* erro aldaketa epistemikorat ere heltzen dela bi adin tartetan. Halaber, helduen formek frogatzen dute *\*edin* adizkietako *-a->-ai* diptongazioa joera orokortua dela horien mintzoan, horiek ere epistemikorat hedatzen baitira: *nintaken*, *nindaken* (1. adin tartea) vs *nindaiken*, *nintaiken* (2. adin tartea); *ditaken* (1. adin tartea) vs *daiken*, *ditaiken* (2. adin tartea); *gintazken* (1. adin tartea) vs *gintaizken* (2. adin tartea<sup>39</sup>); *nintakeenan* (1. adin tartea) vs *nintaikeen* (2. adin tartea), eta abar<sup>40</sup>.

NOR-NORK sailari dagokionez, gorago aurkeztu moduetako morfema berak agertzen dira epistemikoan ere, bai morfema ergatiboak, bai *-z-* pluralgilea. Jadanik ikusi *i/u* bokalen arteko bitasuna ere agertzen da adizkietan, hala adinetakoen mintzoan nola helduenean. Ikus bitez etsenplutako: *dikenat* vs *dukenat* (JEGA62) ‘duket (noka)’; *ginizkenan* vs *ginuzkenan* (MAIR89, JEGA62); *zikenan* vs *zuketenan* (MAIR89) ‘zuketan (noka)’ eta azkenik, *zizketenan* vs *zuzketenan* (MAIB68) ‘zituzketan (noka)’. Halere, ohar gaitezke *i* dela erregularren agertzen, orduan suposa liteke *u* haren aldaera dela. Neke da trenkatzea aldaera morfologikoa ala fonetikoa den, adinetakoen artean lekuko batek bakarrik (MAIR89) baizik ez baititu atera adizki *u*-dunak; orduan, antzekotasun bokalikoagatik kontu fonetikoa izan liteke, edo pareko litezkeen bi morfema genituzke. Bestalde, ohar gaitezke helduen mintzoan aurkitu dugun *hi-* aurrizki berria epistemikorat ere heltzen dela, nahiz gehienek *hukeen* atera duten, JEGA62k *hiukeen* erran baitu. Alta, ikusi dugu hark gainerako hitzun helduek ez bezala, *hu* ‘hau, hark hi, orainaldia’ erraten duela eta ez *hiu*. Heldu baita, berrikuntza asimilatzen ari da bera ere. Taulan

<sup>39</sup> Salbuespen bat agertu da, JAIB66-k diptongorik gabeko *gitazken* forma erran baitu.

<sup>40</sup> Bide batez, ANIN67ren *haike* eta *daike* formak besteetarik ezberdintzen dira, ez genituzke espero.



agertzen diren gainerateko aldaerak pe honetako azpiatalean aztertuko ditugu, nokaren higatzeari lotu ditugulakoan.

#### **4.1.2. Nokaren higatzea formetan**

Bildu formak presentaturik, beha dezagun orain horietan ikusi ditugun nokaren higatzearen aztarnak. Izan ere, adinetakoen adizkietarik helduenetararat aitzineko azpiatalean aurkeztu ditugun aldakortasun orokorrez gain, gure ustez nokaren degradazio prozesuari lotuak diratekeen hainbat aldaera bildu ditugu helduen ekoizpenetan. Lot gaitezen beraz horien azterketari.

##### **4.1.2.1. Hibridoak**

Bi gisatako forma hibrido guti batzuk altxatu ditugu: alde batetik, tokako eta nokako morfemak nahastekatuak dituzten formak, eta bestetik, zukako eta nokako morfemak gainjarriak dituztenak. Alde batetik, gogora dezagun Aiztondon eta Zaldibian zernahi *to/no* forma hibrido jaso dituztela Epelde eta Elustondok (2023 : 180), hau da, tokako formen gainean morfema femeninoak ezarririkoak. Gisa horretakoak, adibidez: *Aztu in xitxaiakenan* ‘ahaztu egin zitzaidanan (tokaren gainean noka)’ (2023 : 181). Hortaz, Elustondo eta Epeldek (2023) forma hibrido parrasta bat bildu bazuten ere, guk bakarra jaso dugu: *detakenan* ‘didan (tokaren gainean noka)’. JEGA62k bota du forma hori. Argiki ikusten dugu oinarrizko tokako *detak* adizkiari morfema femeninoa gehitu diola lekukoak, hau da, tokatik pentsatuz atera duela nokako forma. Halarik ere, hori behin baizik ez diogu aditu, eta gainera ariketa nekea izan daitekeen elizitazioan. Ezin dugu jakin mintzo librean hala erran lezakeen, MAIB68rekin eleketa ari zen grabaketa guzietan ez baitugu behin ere entzun espero litzatekeen *detan* ‘didan’ forma harengandik, hau da, ez da adizki hori ateraraziko ziokeen testuinguru komunikatiborik gertatu. Bizkitartean, ez genezakeen espero ‘hik niri hura’ argumentudun adizki ohiko horrek, orainaldikoa dena, gainera, durduza sortzea; oinarrizkoa da, egunerokoan aise ateratzekoa. Horregatik, nahiz elizitazio ariketak sor lezakeen presioak eragina izan balitz, eta lekukoak egunerokoan berdin balia ez baleza, halarik ere, nokaren gainbeheraren zantzu baten erakusle litzateke halako forma hibrido baten ateratzea gure ustez, argitan ematen baitu toka dela lekuko horren gramatikan nagusi eta beraz nokako formak tokatik eraikitzen dituela. Aitzina, ez da harritzekoa, gogoan ibiliz lekuko hori gizona dela.

Bestaldetik, beste gisako bi forma hibrido bildu ditugu, hauek zukaren eta nokaren arteko nahasketaren gainean eraikiak. Izan ere, 2.p.sg. argumentu den adizkiak dira, eta *zu* izenordainari dagokion *-z-* forma gardenaz gain, nokako *-n-* morfemaz osatuak dira. Ikus bitez: *zautenan* ‘haiek hiri hura, iraganaldia’; *zaunaten* ‘haiek hiri hura, iraganaldia’ eta *zinezazkenan* ‘hik haiek, iraganaldiko ahalera’. Lehen forma hiru lekukok atera dute, bigarrena JAIB66ek bakarrik, eta azkena TEIN61ek. Dударik ez da gramatikalki eta pragmatikoki ez direla koherenteak, bi tratamendu ezin baitaitezke nahas. Alta, iduri luke joera hori ez dela agerraldi isolatu eta indibidual bat, batere elkarrekin galdekatuak izan ez diren lekuko ezberdinek atera baitituzte, eta gainera pertsona komunztadura ezberdinekin. Halaber, forma horiek nokaren higatze agerraldiak lirarteke, zukaren nagusitasuna erakusten duten heinean.

#### 4.1.2.2. Eztabadaren gainean eraikiak

Ildo beretik, igurikatzen ez genituen andana bat adizki bildu dugu, eztabadaren gainean eraikiak. Ez ditugu forma hibridoaren multzoan sartu *zu* izenordainari dagokion *-z-* markarik ez duten neurrian, baina lotuak dira. Argi eta garbi ikusterat uzten dute eztabadatik pentsatuak direla, forma neutroetako morfemak barnebiltzen baitituzte. Konparazione, JEGA62k, *huu* ‘haugu’ formaz gain, *hituu* ‘haugu’ ere erran du. Azken honetan aise da ikustea *-it-* pluralgilea *zu* izenordainari dagokiola, eta *zituu* ‘zaitugu’ formatik analogiaz ekoiztua dela. Ber gisan, ekialde zabaleko hizkeretan arauzkoa den *-in-* (*-en-* euskara batuan) lehenaldiko morfema, eta hain xuxen *zu* eta *gu* pertsoneri dagokiena entzun dugu txertaturik hainbat adizkitan. Adibidez, hiru heldu baino gehiagok *hinetan* ‘hidan’ erran dute, adinetako guziek *hetan* erraten zutelarik. Hor ikusten dugu zukako *zinetan* ‘zenidan’ adizkitik analogiaz sortzen dutela, *zu* izenordainari dagokion *-in-* lehenaldiko morfema sartuz. JEGA62k aldaera antzekoa bota du gainera, hala nola, *hinautan* ‘hidan’ (<*zinautan?*>), eta TEIN61ek ere objektu pluralarekin: *hineztan* ‘hizkidan’ (<*zineztan?*>). Hiru adizki horiez gain, gisa bereko andana bat bildu ditugu, beha ditzagun:

- *hineen* ‘hien’ (<*zineen?* ‘zenien’) (JEGA62 + MAIB68) vs *heen* (adinetakoek<sup>41</sup>)
- *hiniin* ‘huen’ (<*ziniin?* ‘zenuen’) (JEGA62) vs *hiin* (adinetakoek)

<sup>41</sup> Adinetakoetan guhaurren adinetako lekukoak aipu ditugu, eta indikatiboko adizki analitikoaren kasuan Artolarenak (Irizar 1999) ere bai.

- *hinazkon* ‘hizkion’ (<*zinazkon?* ‘zenizkion’) (3 heldu baino gehiagok) vs *hazkon* (adinetakoek)
- *hinauzkun* ‘haugun’ (<*zinauzkun?* ‘zenizkigun’) (3 heldu baino gehiagok) vs *hauzkun* (adinetakoek)
- *hinezteen* ‘hizkien’ (<*zinezteen?* ‘zenizkien’) (ANIN67) vs *hezteen* (adinetakoek)
- *henezazkeen* ‘hitzakeen’ (<*zenezazkeen?* ‘zenitzakeen’) (MAIB68) vs *hezazkeen* (adinetakoek)
- *hinatekeen* ‘hintekeen’ (<*zinatekeen?*) (JEGA62) vs *hintakeen* (adinetakoek)
- *hinuzkeen* ‘hituzkeen’ (<*zinuzkeen?*) (MAIB68) vs *huzkeen* (adinetakoek)

Kontura gaitezke azken aitzineko bi formek, *henezazkeen* eta *hinatekeen* formek, hain xuxen, euskara batuaren eragina islatzen dutela, ohartuz leheneko *-en-* eta bigarreneko *-a-* morfema estandarrei. Funtsean, bigarrena zuzenean euskara batuko formatik analogiaz atera izan dateke, *zinatekeen* formatik, eta ez euskalkian litzatekeen *zintakeen* formatik. Duda handiak ditugu bi horien erabilpen naturalari buruz, hots, ez dugu hainbeste uste lekukoek mintzo librea, elizitaziotik kanpo balia litzaketan naturalki, baina dena den, nokako formaren ateratzeko zailtasunaren eta batez ere euskara batuarekin duten kontaktuaren seinale dira. Euskara batuaren eragina, hain zuzen, bi adin tarreak ezberdintzen dituen ezaugarri adierazkor bat da; adinetakoek, estandarren existentziaz aditzea baldin badute ere, beharrian ez dute, hau da, etxeko euskalkia baizik ez dute.

Ildo beretik, eztabadatik eraiki andana bat adizki bildu dugu helduengandik, zehazkiago, ergatiboa 3.p.pl. delarik eztabadako *-te* morfemarekin eraikiak direnak, [4.1.1.1. azpiatalean](#) aurkeztu bezala Baxenabarreko nokari dagokion *-ne* morfemarekin<sup>42</sup> izateko partez. Modu eta aldi ezberdinetan entzun dugu gertakari hori, izan indikatiboan, orainaldiko ahaleran edo ahalera hipotetikoan. Etsenplutako, MAIB68k *daunate* ‘dinate’ adizkia erraten du eta JAIB66ek *daunete* ‘dinate’; gure adinetako lekukoek eta Artolarenek (Irizar 1999) *daune* ‘dinate’<sup>43</sup>. Heldu baita, adizkia ekoizterakoan, nokari dagokion *-ne* 3.p.pl. ergatiboaren atzizkia baliatu ordez,

<sup>42</sup>Salbuespena iraganaldia izanki, aldi honetan *-te* baita 3.p.pl. ergatiboaren marka Ortzaizen. Adibidez: *zitanan* edo *zetatenan* ‘zidatenan’.

<sup>43</sup>Zehazkiago, Artolak (Irizar 1999 : 138) *daune* eta *deane* aldaerak bildu zituen.

eztabadako *-te* enplegatzen dute. Funtsean, iduri luke JAIB66ek forma horretan biak elkarren segidan ezartzen dituela. Hain xuxen ere, gertakari bereko adizki hauek bildu ditugu ere ahaleran:

- *dezaketen* ‘zezaketen’ (MAIB68 + JEGA62) vs *dezakene* (adinetakoek)
- *dezaketene* ‘zitzaketen’ (JEGA62) vs *dezazkene* (adinetakoek)
- *dezazketen* ‘zitzaketen’ (MAIB68) vs *dezazkene* (adinetakoek)
- *lezaketen*<sup>44</sup> (JAIB68 + JEGA62) vs *lezakene* (adinetakoek)
- *lezazketene* ‘litzaketen’ (MAIB68) vs *lezazkene* (adinetakoek)
- *lezazketen* ‘litzaketen’ (JAIB66) vs *lezazkene* (adinetakoek)

Gorago aipatu *daunete* forma bezala, ikus dezakegu nokako *-ne* eta eztabadako *-te* bi atzizkiak metatzen dituzten forma hibridoak ere baliatzen dituztela zenbaitek: *dezazketene* eta *lezazketene*, hain zuzen. Azpimarra dezagun bestalde mintzo librean bietan aditu ditugula eztabadako *-te* -dun forma horiek: *Gauza bera erran lezaketen!* (JEGA62) eta *Bah erran, ze erten daunate usaian ?* (MAIB68).

Azken aldaera bat aditu dugu zeinek erakusten baitu formak zukatik eraikiak diratekeela; hain xuxen, *-nd-* vs *-nt-* oposaketa NOR-NORK sailean, iraganaldian. Hain xuxen ere, ‘hark-hi’ delarik, bederen hiru lekuko helduk *hintudan* ‘hindudan’ ahoskatu dute, eta JEGA62k antzekoa, herskari ahostuna isilaraziz, *hintuan*. Adinetako gehienek, berriz, *hindutan*, MAIR89k *hinduan* (herskari ahoskabea isilarazirik) eta AMLAH75ek *hiutan* (segur aski hark ere sudurkaria eta herskari ahostuna erorarazirik). Hau da, helduek *-nt-* kontsonante taldea ahoskatzen dute; adinetakoek, aldiz, *-nd-*. Zentzu beretik doaz bildu ditugun beste forma hauek: *hintiin* ‘hinduen’ (bederen hiru helduk ahoskatua) eta *hintinan* ‘hinduen’ (JAIB66) vs *hindiin* ‘hinduen’(adinetakoek), eta *hintuun* ‘hindugun’ (bederen hiru helduk ahoskatua) eta *hintuunan* ‘hindugun’ (JEGA62) vs *hinduun* ‘hindugun’(adinetakoek). Izan ere, Artolak, ohar batean, lehena zukako adizkiei dagokiela dio: “Ikusgarria, iraganaldiko aditzetan, zukako adizkiak barneko *-nt-* duten bitartean hikakoek *-nd-* izatea (Beste zenbait lekutan ere horrela gertatzen da).” (Irizar 1999 : 149). Gure helduen formetarat itzuliz, aise ikusten da *hintudan* eta *zintuan*

---

<sup>44</sup> Nahiz *lezaketen* euskara batua den, ez dugu uste horrek eragina denik, ikusiz objektu pluralarekin *-z-* pluralgile dialektala gehitzen diotela (*lezazketen*) eta ez euskara batuko *-it-* pluralgilea. Uste dugu beren euskalkiko eztabadatik pentsatzen dutela.

formak Ortzaizen eztabadan erraten diren *zintudan* eta *zintuan* formen analogikoak direla. Hala nola beraz, *-nd-* vs *-nt-* oposaketa horrek nokaren higitzearen aztarna bat aditzerat uzten duen, bigarrena zukatik hartua den neurrian.

#### 4.1.2.3. *Nokako atzizki pleonastikoak*

Bestalde, aldaera arras emankor bat bildu dugu adin tarte batetik besterat: nokari dagozkion bi morfema metatzea. Izan ere, joera bat nabarmentzen da helduen mintzoan, zeina baita 2.p.sg.ren marka jadanik baduten adizkiei bukaeran debaldeko nokako marka gehitzea. Atzizki pleonastikoak deituko ditugu. Konparazione, goraxeago aipatu dugun *hintinan* ‘hinduen’ formak, JAIB66ek ekoiztuak, atzizki pleonastikoa du, preseski. Bazter utziz espero gabeko zukako *-nt-* kontsonante taldea, ikusten dugu 2.p.sg.ri dagozkion *h-* pertsona markaz gain nokako *-an* atzizki alokutiboa gehitu dela: *hintin* + *an*. Alta, marka alokutiboak ez luke hor izaterik, 2.p. argumentala baita. Hain xuxen ere, atzizki pleonastiko hori aldaera emankorra dela adierazi dugu helduetarik guziek ekoiztu baitute, eta aginterarat salbu, aldi eta modu guzietarat hedatzen baita. Ortzaizen berria izateko itxura du, Artolak ez baitu batere halakorik lekukotzen (Irizar 1999). Halarik ere, zehatz dezagun gure lehen adin tartetik bi lekukok, BEBI75ek eta AMLA88k, hain xuxen, bota dutela atzizki pleonastikoarekin adizki sintetiko bat: *hindaunan* ‘hengoen’. Beste adinetakoek erraten duten *hindaun* formaren aldean, argi ikusten dugu *-an* nokako atzizki pleonastikoa. Bigarren lekukoaren adin aitzinatua ikusiz, uler daiteke aldaera hori ez dutela helduek asmatu, lehenagotik baziratekeela gisa horretako agerraldi batzuk, baina hedatu dela ondoko adin tartean. Ez dezagun ahantz BEBI75 hurbil dela helduen adinetik, eta AMLA88 adinagatik usu ikusten ez duen MAIR89rekin baizik ez dela ari noka, hots, guti. Dena den, iduri luke lehen adin tartean salbuespenezko aldaera dena bigarren adin tartean joera orokortuago bat dela, beste hainbat forma bildu baititugu. Beha ditzagun:

- *hintuunan* ‘hindugun’ (JEGA62) vs *hinduun* (adinetakoek)
- *hindutenan* ‘hinduten’ (JEGA62 + JAIB66) vs *hinduten* (adinetakoek)
- *hutenan* ‘hinduten’ (TEIN61) vs *hinduten* (adinetakoek). Forma hori espero gabekoa da, iraganaldiari dagozkion *-in-* marka falta baitaio; ageri da orainaldiko forma gordinaren gainean batere iraganaldira egokitu gabe eraiki dela.

- *hintenan* ‘hinduten’ (TEIN61) vs *hinduten* (adinetakoek). Forma hori ere ez genuen espero, baina *hindutenan*-en kontrakzioa izan liteke.
- *ginaun* ‘geninan’ (JEGA62) vs *ginaunan* (adinetakoek). Hau berezia da, beste formetan bezala marka alokutiboa gehitzeko partez, 2.p.sg.ri dagozkion *-e-* eta *-au-* datibozko morfemak metatzen baitira.
- *dineenaun* ‘zienagu’ (JEGA62) vs *deenaun* (adinetakoek). Hau ere berezia dugu, adinetakoenak bi nokako indize baititu eta helduenak hiru. Beherago aipatuko dugu zehazkiago, baina momentuz kontuan har dezagun marka alokutibo bat gehitzen duela.
- *heztanan* ‘hizkidan’ (ANIN67) vs *heztan* (adinetakoek)
- *haun* ‘hago’ (TEIN61+ANIN67) vs *hau* (adinetakoek)
- *hindaiken* ‘hintzateke’ (TEIN61+ANIN67) vs *hintake* (adinetakoek)
- *hintaiken* ‘hintzateke’ (JAIB66) vs *hintake* (adinetakoek)
- *hezaken* ‘hezake’ (JEGA62+MAIB68) vs *hezake* (adinetakoek)
- *hezazken* ‘hitzake’ (bederen hiru helduk) vs *hezazke* (adinetakoek)
- *hintaken* ‘Hi, epistemikoa, orainaldia’ (TEIN61) vs *hintake*, *hitake* (adinetakoek)
- *(ba)hikeenan* ‘Hik hura, epistemikoa, iraganaldia’ (JEGA62) vs *hukeen* (adinetakoek).

Atzizki pleonastiko horiez gain, artizki pleonastikoekilako forma zenbait ere bildu ditugu, hala nola: *hihailan* ‘henbilen’ (JEGA62) vs *hindailan* (adinetakoek); *dauzkinane* ‘dizkinate’ (JAIB66+MAIB68) vs *dauzkine* (adinetakoek) eta *gihaukunan* ‘geninan’ (TEIN61) vs *ginaunan* (adinetakoek). Funtsean, hondar forma honetako artizki pleonastikoa huts batetarik heldu da, 2.p.sg. datiboa izanki, ergatibo ala absolutibo izan daitekeen *h-* markak ez bailuke hor izan behar, ezta 1.p.pl.ri dagokion *-ku-* marka datiboak ere. Huts beretik abiatzen den aurrizki pleonastikodun bat ere bildu dugu: *hautenan* ‘zintaten’ (JEGA62) vs *zeatenan* (Artola)<sup>45</sup>. Halaber, 2.p.sg. datiboa izanki, ergatibo ala absolutibo izan daitekeen *h-* morfemak ez luke hor izaterik.

---

<sup>45</sup> Guk iraganaldian bildu dugun ‘Haiek-hiri-hura’ argumentudun adizkiek ez baitute datibo-komunztadurarrik: *zitanan* ; *zutenan*.

Zernahi gisaz, adizki bukaeran, erdian ala hastapenean izan, osagai pleonastiko horiek joera beraren barnean sartzen ditugu, guziek bikoizten baitute solaskideari doakion morfema, izan dadin argumental ala alokutibo.

Bada, on da argi dezagun bi adin tarteen adizkien aldakortasuna aztertuz bistaratu zaigun auzi bat. Izan ere, adinetakoen eta helduen adizkiak sistematikoki ezberdintzen dira ergatiboa 1.p.pl. delarik; konparazione, *dinaun* (adinetakoek) vs *dinau* ‘dinagu’ (helduek<sup>46</sup>). Preseski, adinetakoek solaskideari doakion *-n-* morfema alokutiboa bikoizten dute. Gainera, bikoizketa hori sistematikoa da, salbuespenik gabe adinetako guziek ekoizten baitute, eta aitzina aldi eta modu guzietan, hala aditz analitikoetan nola sintetikoetan: *tinaun* (adinetakoek) vs *tinau* ‘ditinagu’ (helduek); *denaun*, *daunaun* vs *denau*, *dainau* ‘dinagu’; *deztenaun*, *dauzkinauun* vs *dauzkinau*, *deztenau* ‘dizkinagu’; *dakenaun* vs *dakenau* ‘zionagu’; *dazkenaun* vs *dazkenau* ‘zizkionagu’; *deenaun* vs *deenau* ‘zienagu’; *dezteenauun* vs *dezteenau* ‘zizkienagu’; *badakinaun* vs *badakinau* ‘bazakinagu’; *badazkinaun* vs *badazkinau* ‘bazazkinagu’; *dezakenaun* vs *dezakenau* ‘zezakenagu’; *dezazkenaun* vs *dezazkenau* ‘zitzakenagu’. Artolak bildu adizki orok ere *-n-* morfema bikoizketa erakusten du ergatiboa 1.p.pl. delarik (Irizar 1999). Horiek hola, haxe da bururatu zaigun auzia: gauza beraz mintzo ote gara? Helduen forma horietako *-n-* morfema bikoizketak gorago aipatu atzizki pleonastikoak ote dira? Nokaren higitzearen aztarnak ote dira?

Gure ustez, ez litzateke afera bera. Esplika dezagun berehala zergatik. Hain xuxen ere, gure iduriko, helduen *-n-* morfema bikoizketa hori ezaugarri makrodialektal kontserbatzailea baizik ez dateke. Izan ere, Bonapartek (1869 : 21-22) jadanik, beste morfema batzuk ere ukitzen zituen “lettres et syllabes pléonastiques” deitu dialektoen araberako fenomeno zabal baten barne lekukotu zuen, bizkaierazko *zeustan/zeustazun* edo lapurterazko *zinautan/zinautazun* bikoteen pareko. Baina Lafonek oroitarazten du 2. pertsona-marka bikoizketa hori fenomeno berria dela:

Nos plus anciens textes basques, ceux du XVIIe siècle, ne contiennent aucune forme à double indice de deuxième personne du singulier. Ces formes, qui dérogent au

---

<sup>46</sup> JEGA62 salbuespena da, helduetarik bakarria baita morfema bikoizketa markatzen duena, *h-* aurrizkiaren ondotik *-i-* bat sartzen ez duen bakarretarik den bezala. Horregatik, mintzo kontserbatzaile baten kontu ezartzen ditugu bi ezaugarri horiek.

ystème des affixes personnels, sont probablement récentes. (Lafon 1999 [1947] : 270).

Bestalde, 90eko hamarkada hondarrean, Artolak (Irizar 1999) Ortzaizen morfema bikoizketarekilakoak baizik ez zituen bildu 1.p.pl. ergatiboarekiko formetan<sup>47</sup>, eta gainera ez bakarrik Ortzaizen, Lapurdin ere: Ezpeletan *dainau* ‘dinagu’ (1999 : 292), Urketan *dainau* ‘dinagu’ eta *dauzkinaun* ‘dizkinagu’ (1999 : 305, 311), eta Mugerren *deinaun* ‘dinagu’, *zakonaun* ‘zionagu’ (1999 : 229), *dauzkenaun* ‘dizkinagu’ eta *zazkonaun* ‘zizkionagu’ (1999 : 271). Gainera, konparazione, gogoan ibiliz Baigorri *dinau* (Irizar 1999 : 64) erraten dela eta Bidarrain *diun* (Irizar 1999 : 211), ez litzateke hain harritzekoa geografiaz bien artean den Ortzaize historikoan<sup>48</sup> bien arteko nahasketa izatea<sup>49</sup>, nahiz artekotasun hori ez den komunztadura guzietan betetzen. Helduengandik bildu formak, haatik, ez ditugu nehon lekukoturik atzeman Baxenabarren. Bizkitartean, Bonapartek antzekoak lekukotu zituen beste euskalkietan:

En gipuscoan, en bisciaïen, quelques fois en labourdin, plus rarement dans les autres dialectes (voyez la note 2. de la page XVii.)<sup>50</sup>, les terminatifs masculins ou féminins qui commencent par un *h*, ou qui commenceraient indubitablement par cette lettre pronomiale de seconde personne si elle existait dans le dialecte, prennent un *k* ou un *n* additionnel; de sorte que le sujet ou le régime direct se trouve répété. Il faut remarquer que c’est seulement dans ce cas de pléonasmе que le régime direct peut-être représenté par *k* ou par *n*, selon le genre. Exemples : *atzayok*, *atzayon*, *guip.* ; *eustaan*, *eustanan bisc.*, *hautakan*, *hautanan lab.* (Bonaparte 1869 : 22)

Heldu baita, gure lekuko helduek atera atzizki pleonastikoak, zeinetan *h*- morfemaz gain *-n* gehitzen baita, ezagun dira, baina ez Ortzaizeko euskaran, baizik eta batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian. Altunak (Irizar 1991) gipuzkeran lekukotu zituen eta, konparazione, Azpeitian ikusi zuten gazteek bikoizketa sartzeko joera handiagoa zutela zaharrek baino. Hedapen hori berresten

---

<sup>47</sup> Gisa bereko formak bildu zituen tokako adizkietan: *diak* ‘diagu’, *tiauk* ‘ditiagu’, *deak* ‘diagu’, *dakeak* ‘zioagu’, *deiauk* ‘zieagu’, etab.

<sup>48</sup> Ortzaize eta Baigorri artean 1923 arte Ortzaizeko auzo zen Arrosa herria baita gaur egun.

<sup>50</sup> Ohar horretan zuberera (erronkariara barne) eta hegoaldeko goi-nafarrera ditu aipu, ez behe-nafarrera.



dute Elustondo & Epeldek (2023 : 199-200)<sup>51</sup>. Horrez gain, gure lekukoengana itzuliz, ez dezagun ahantz bikoizketak lehen adin tartean erregularitasun absolutua duela, testuinguru argumental jakin batean sistematikoa dela; hau da, 1.p.pl. ergatiboarekin eksklusiboki. Bigarren adin tartean, aldiz, pertsona-komuntadura ezberdinetan gertatzen da, ausaz, erregularitasunik gabe. Bide batez, ohar gaitezke helduek atzizki pleonastikoak sartzen dituzten adizki gehien-gehienak, *dineenaun* eta *dauzkinane* salbu, iraganaldikoak direla. Nolanahi ere, Lafonek laguntzen gaitu trenkatzen: “Le préfixe *h-* (ou zéro) peut servir régulièrement à exprimer soit le sujet, ou le patient, soit l’agent. Mais l’emploi des suffixes *-k* et *-n* pour exprimer le sujet ou le patient est irrégulier”. (1999 [1947] : 269). Hau da, helduei aditu dizkiegun *hintinan*, *hintuunan*, *hindutenan* etab. irregularrak dira.

Beraz, arrazoi horiengatik, gure iduriko, ezberdintzen ditugu *dinaun* bezalako zaharren *-n-* morfema bikoizketak eta *heztanan* bezalako atzizki pleonastikodunak. Bonapartek (1869) deitzen dituen gisan, lehen taldekoak ere izatez pleonastikoak dira, baina nahiago dugu bi motak gure ustez izaeraz diren ber izenez ere ezberdintzea: irregularrak diren helduen hizki pleonastiko horiek lotura ukan lezakete nokaren higitzearekin. Hegoaldetik datorkigun berrikuntza izan litezke, edo, izan liteke ere nokarekin arrotzen ari direlakoan lekukoek artifizialki indartu nahi izana adizkien balio femeninoa. Beste gisa batez erranik, atzizki pleonastiko horien gehitzearen gibelean gorde liteke naturaltasun ezaren arrasto bat. Izan ere, nahiz ez diren euskaraz eskolatuak izan, gure lekuko helduek badute lotura euskal munduarekin, euskaltzaleak dira, euskarari atxikiak eta ondoko atalean (ik. [4.2.1.2.](#)) ikusiko dugun bezala, nokari ere atxikiak dira. Heldu baita, kontzientzia metalinguistikoa garatua dute, orduan agian, paradoxalki, kontzientzia horretarik entsea litezke inkontzienteki azpimarratzen noka mintzo direla, koherentzia gramatikalaren kaltetan. *Dinaun* bezalako *-n-* morfema bikoizketaren erabateko galerari dagokionez, ikusten dugu lokalismo galera “baizik” ez dela, hau da, ez nokaren higitzeari lotua, baizik eta ezaugarri dialektalaren higitze bat.

#### 4.1.2.4. *Neutroa saihesbide*

Bestalde, irregularitasunak aditu ditugu helduen forma alokutiboen erabilpenaren sistematikotasunean. Elkarri noka edo toka eta noka ari diren bikoteen solasetan, alokutiboak

---

<sup>51</sup> Adibidez, Altunak (Irizar 1991) bildu zituen adizkiez gain beste batzuk jaso dituzte bikoizketarekin Azpeitian, hala nola: *ziyonabenan* (Urrestillan zonabenan) ‘zioten (noka)’, *gitxonabenan* ‘genien (noka)’. (Elustondo & Epelde 2023 : 199-200).

izan behar zuketena forma batzuen ordean forma neutroak baliatzeko joera erakutsi dute zenbait lekukok. Bi solaskideen arteko elkarrizketa noka eraman eta erdian eztabadako forma batzuk sartzen zituzten, alokutiboen ordean. Irregularitasun horiek forma alokutiboen baliatzeko sarreran aipatu muga sintaktikoez kanpo ahoskatuak izan dira, hau da, bai elizitazioan, bai mintzo librea, adierazpen perpausetan. Izan ere, MAIB68 aditu dugu JAIB66i honakoa erraten: *Guk beti maitatu tinau eta hek ere gu maite gintuzten!*. Adierazgarria da elkarrekikotasuna baden erranaldi horretan, lehen partean adizkia alokutiboa da, baina berdina izan behar lukeen bigarrenetan, forma neutroa da. ‘Hek-gu’ zailago zaieke ‘guk-hek’ baino, 3.p.ko objektua anitzez maiztasun handiagokoa baita, eta gainera singularra ohikoagoa plurala baino. Gisa berean, bi ahizpen arteko hitanoari buruzko eztabaida bizi batean, JAIB66i hori entzun diogu: *Hori erten baldin bada, zu errespetu gehio badela, erran nahi din to ta nok eztutela errespetu hori, eta ezta xuxen hori erraitia!*. Iduri luke perpaus erlatiboen neutraltasunak hondarreko adizkia kutsatu duela. Halaber, JAIB66ek MAIB68ri *Hekin<sup>52</sup>ta iili hiz ?* galdegin diolarik, honek *eztut uste* arrapostua eman dio, eta MAIB68k momentu batez *Bon beh eztakinat hori, zenta aspaldian enun mintzatu* erran duelarik, ahizpak berehala erantzun dio *Eztu inportik!*. Beste hainbat agerraldi neutro bildu ditugu bi ahizpen artean: *nik eztut zautu; eztu biziki irauin; dazkot; hori eztakit zer den; eztakit!; ni ar nintake gostian horiikin!; uai ehun ta hooi urte seurik baluzkete, bana horiek elgarrekin beti noka ai zitunan mazte horiik!*... Beste lekukoekin ez dugu halako irregularitasunik ikusi.

Haatik, elizitazioan, heldu guziek atera izan dituzte behin edo beste forma neutroak alokutiboen partez. Konparazioan, bai JEGA62k bai MAIB68k *hantxe zailan* ‘zebilen’ erran dute, adinetakoek atera bezala espero genuen *hantxe zailanan*-en partez. Nahiz errepikarazi diegun, baieztatzen ziguten hori noka zela. Baldintza beretan horiek ere bildu ditugu: *ginazan* ‘gindoazen’ (JEGA62) vs *ginatzinan* ‘gindoazanan’ (adinetakoek) ; *ginezakeen* ‘genezakeen’ (ANIN67) vs *ginezakenan* ‘genezakenan’ (adinetakoek) ; *zezaketen* (TEIN61) vs *zezaketenan* (adinetakoek); *nezazkeen* ‘nitzakeen’ (bederen 3 lekukok) vs *nezazkenan* (adinetakoek); *nindukeen* (bederen 3 lekukok) vs *nindukenan* (adinetakoek); *nintaikeen* (MAIB68) vs *nintaikenan* (adinetakoek). Fite ohar daiteke forma guzi horiek iraganaldikoak direla eta konplexuak direla; trinkoak, ahalera eta epistemikoa ez dira aparantziarik ere sail errazenak.

---

<sup>52</sup> Erakuslea gurea da. Berez, etxe baten izena aipu zuten, baina nahi izan dugu anonimo atxiki.

Preseski, gure ustez, konfusio bat gerta liteke *-n-* nokako morfema alokutiboaren eta *-n-* iraganaldiko morfemaren artean. Kontuan hartu batik bat *e* bokal bikoitza bakarrarekin ahoskatzen dutela, *ginezaken*, *nezazken*, *ninduken* eta *nintaiken* ahoskatzen dituztela, beraz ez dukete *e* bikoitzak dakarren iraganaldiaren eta eztabadaren informazioa beharrian. Alegia, iraganaldiari dagokion *-n-* nokako morfema gisa interpreta lezakete, eta horrek esplika lezake forma neutroen baliatzea nokakoen orde; konfusio hori nokaren higatzearen aztarna gisa daukagu. Bide batez, gure lekukoen argiki adierazi digute hutsuneak sendi dituztela noka mintzatzean, noiztenka trabatuak direla, aditz xuxenak falta zaizkiela eta orduan saihebidetatzuk xerkatzen dituztela. Bi lekukok aitortu digute trabatuak baldin badira frantseserat lerra daitezkeela errazki. Muga horiez kontziente dira, konparazione *zitzaunan* ‘zitzainan’ forma ateratzerakoan, TEIN67k ahizpari ohartarazi zion zailtasuna ekar lezaketen holako formak ez dituztela hainbeste baliatzen: *eztinu usu ibiltzen hori eh*. Orobat aitortu zigun MAIB68k, bere hitzekin: *beste gisan demerdatzen baigira horiek ez conjugatzeko* ‘beste gisan moldatzen baikara horiek ez jokatzeko’. Ber gisan, JAIB66ek erran zigun “trixatzen” zutela noiztenka. Erran nahi baita, izan dadin frantseserat edo eztabadarat, nokarekiko ezintasunari buru egiteko saihebidetatzuk atzematen dituzte gure lekukoen, eta badirudi kontziente direla.

#### 4.1.2.5. Tokatik abiatu beharra

Azkenik, nokaren higatzearen isla argia den mekanismo interesgarri bat hauteman dugu bi lekukoren baitan: tokatik nokarako transferentzia. Elizitazioan, JEGA62k eta BEBI75ek, tokarekin erosoago direla adierazteaz gain, erakutsi digute artetan tokatik pasa behar dutela nokako adizkiak ateratzeko. Heldu baita, noka tokatik pentsatzen dute, nahigabe. Bi lekuko horiek ez dira nornahi, ez dira adin tarte berekoak, baina biak gizonak dira. Ontsa dakiguna da hau, sarreran aipatu ikerketen arabera (ik. [2.3.1](#)), gizonak ohitura handiagoa dute toka aritzeko noka baino eta emazteek baino. Hobeki ulertzeko, ekar ditzagun honat adibide zehatz batzuk. Alde batetik, JEGA62k blokatu gertatzen zelarik, forma bat ez zitzaizlarik heldu, errepikatu behar zuen erranaldiñoaren testuinguru komunikatiboa teatralizatuz ere, erraten genion “Pentsa zazu anaia duzula parean, nola erran zinezake?”. Hori galdegiten genion batez ere 2.p.sg. NOR argumentua zen adizkiendako, hau da, hala toka nola noka berdina diren adizkiendako. Orduan, tupustean aise ateratzen zitzaizkion adizkiak. Teknika adierazgarri honen bidez kausitu ditugu *hintuan* ‘hindudan’, *hindiin* ‘hinduen’ eta *(ba)hua* ‘(ba)hoa’. Bestaldetik, BEBI75ekin elizitazio ariketan, ‘hi habil’ aterarazi nahi geniolarik, blokatu gertatu zen, eta solaskide zuen

MAETX83k, lagundu nahiz, *haila* arrapostua eman zion; baina BEBI75ek erantzun zion ezetz, hori toka zela. Horrez gain, forma konplexuagoak ateratzeko momentuan, ondoko hiru formak deblauki atera zituen toka lehenik, ondotik nokarat itzultzeko: *dezakeie* ‘zezaketek’, *litazkek* ‘litezkek’ eta *zezazketeian* ‘zitzaketean’. Hartara, nahiz ez diratekeen sekula emazte solaskideei toka zuzenduko eta tokarako tendentzia hori elizitazioak dukeen sortu, pentsatzen dugu adierazgarri dela, islatzen baitu hitanoan berean ere noka dela galtzaile.

Horiek hola, ikusi ahal izan dugu aldakortasun morfonologiko<sup>53</sup> aski handia badela adinetakoen adizkien paradigmatic helduenerat. Alde batetik, bi adin tarteeak amankomunean duten polimorfismoaz gain, gogoan hartuz, konparazione, 1.p.sg. datiboko *-e/-a-* morfema bikotea (*zetan/zatan* ‘zaidan’), edota 3.p.sg. datiboko *-e/-o-* bikotea (*dakene/dakone* ‘zioten’), belaunaldi batetik bestera, berrikuntzak diruditen aldaerak agertzen dira: hala nola 2.p.sg. objektu delarik “*i*” bokalaren gehitzea (*hiu* vs *hu* ‘hau’), 1.p.pl. ergatiboko formetako *-n-* morfema alokutibo bikoizketaren soiltzea (*dinau* vs *dinaun*), edota egitura ditransitiboetan datibo-komunztadura gehiago zaintzea<sup>54</sup>. Baina bestetik, nokaren degradazio prozesuaren zantzuak liratekeen aldaerak agertu ditu gure lekuko helduen mintzoak, hala nola; forma hibridoak, toka edota zukarekin nahasiak, eztabadaren gainean eraikiak eta nokako atzizki pleonastikodunak. Halaber, alokutiboen erabilpenean entzun ditugun zenbait irregulartasunak eta elizitazioan tokatik abiatzeko joera ere ikusi ditugu nokaren ahitze gisa. Laburbilduz,

---

<sup>53</sup> Ikuspegi morfonologikoaz haratago, 2. adin tarteko helduen mintzoak landu ez dugun alor batetik aztertzekeo parada erakutsi digu. Izan ere, galdera perpausetan alokutiboen erabilpenari dagokion arau sintaktikoa urratzeko joera ikusi dugu helduen solas librean; batere ez berriz adinetakoenean. Heldu baita, nokaren hingatzea ikuspegi sintaktikotik ere aztertzekeo mamia bada. Ikus bitez, konparazione, mintzo librean entzun ditugun agerraldi hauek: *Etzunan ama heldu? Amatxi heldu zunan?* (TEIN61)

*Pettan bere jenerazioneko guziekin toka ai dun?* (TEIN61)

*Beraun hori?* (ANIN67)

*Mais zendako usatu nun zuka?* (JEGA62)

*Horrat heldu zunan?* (JEGA62)

*Beñatek batin anai-arrebak?* (JEGA62).

*Ttipitan senditu dinau hori?* (MAIB68)

*Hua bera bizi zunan?* (JEGA62)

*Gaazin biziun?* (JEGA62)

*Nola izenain?* (JEGA62)

*Bah horiik zer zitunan?* (JEGA62)

*Zendako fenomeno hori eztun guzia bakarrik, denenaun?* (JEGA62).

<sup>54</sup> Azterturikoez gain, joerretarik kanpo izanki sailkatzeko neke izan diren aldaera hauek ere jaso ditugu 2. adin tarteatik: *nintenan*, *gintenan* ‘gintiztenan’ (TEIN61); *zauzkinan* ‘zitzaizkinan’ (JEGA62); *hauituen* ‘zintaten’ (ANIN67); *zauzkanan* ‘zizkinaten’ (ANIN67); *gaudenan* ‘geundenan’ (MAIB68).

hizkuntzaren barnean higitzea gerta litekeela egiaztaturik, aztertu dugu formetan nola agertzen den zehazki. Hau dela eta, ondoko atalean, higitze horren bultzatzaile datekeen testuinguru soziolinguistikoari hurbilduko gara, 18 parte-hartzaileen nokari buruzko praktiken eta diskurtsoen lekukotasunak jasoz.

## 4.2. DATU SOZIOLINGUISTIKOAK

Ikergaiari eskaini atal soziolinguistiko honetan, lehenik eta behin, informatzaileekin ukaniko elkarrizketetarik jaso emaitzak aurkeztuko ditugu. Helburuetan (3.1.) aurkeztu ditugun bi ikerlerroei jarraikiz mahaigaineratuko ditugu emaitzak; alde batetik, lekukoaren praktikei loturik, nokaren erabileraren eboluzioari buruzkoak, eta bestetik, informatzaileek nokarekiko dituzten ideologiaren eboluzioari lotuak. Bigarren azpitalean, berriz, jaso emaitzak atal teorikoan aipatu ekarpenekin konparatuz eztabaidatuko ditugu.

### 4.2.1. *Emaitzak*

#### 4.2.1.1. *Nokaren erabileraren higatzea: zirkuluaren eta aldagaien aldatzea*

Hasteko, nokaren higatzearen aztertzeke, Ortzaizeko nokariaren erabileran fokua emanen dugu, eta zehazkiago, erabilera horren eboluzioan. Alegia, nork egiten dio nori? Zein aldagairen arabera? Nola aldatu da bi adin tartetan zehar? Gogoan atxiki bedi bi adin tartetaren praktikak baizik ezin izan ditugula kontuan hartu, 60 urtez petiko nokaririk ez baitugu atzeman Ortzaizen. Izan ere, nokaren erabilera helduen belaunaldian gelditzen da, hartarik landa transmisio-eten erradikal bat gertatu baita: gure lekuko gazteetarik nehoi ez zaizkio ari noka edo toka aita-amak. BIXI26 salbuespena da, aita toka mintzatzen hasi baitzitzaion nerabezaroan, baina noka, nehoi ez. Halarik ere, artetan gazteek helduen eta adinetakoen praktikez dituzten pertzepzioak agerraraziko ditugu, baita alderantziz ere. Ortzaizeko nokari horien erabileratik patroio orokorrak ateratzeari lot gaitezen, beraz, adibide esanguratsu zenbaitekin ilustratuz.

#### Familia nokaren esparru natural

Lehenik eta behin, nokari guziendako, hala adinetakoendako nola helduendako, familia da nokaren lehen erabilera esparrua. Noka etxeko mintzaira dute, ttipi-ttipitik mintzatua, haurtzarotik atxikiak dituzten oroitzapen goiztiarretarik. Izan ere, MAETX83 eta BEBI75ri salbu<sup>55</sup>, lekuko guzien burasoak toka eta noka mintzatu izan zaizkie, eta diotenaren arabera, betidanik. Horiek adin tarte horretarik entzun ditugun salbuespen bakarrak dira; bestenaz, denek toka eta noka jaso dute beren burasoengandik. Horrenbestez, familian entzunik, toka eta noka haurrideen artean arauzko tratamendua dute bi adin tartetako lekukoek<sup>56</sup>. Elkarrizketetan beren

---

<sup>55</sup> Bi lekuko hauek salbuespenak dira, MAETX83ren ahizpa gehienari burasoak noka mintzo baitziren eta zuka hari eta bigarren ahizpari, eta BEBI75i eta anaiari ere zuka mintzo baitzitzaizkien beren burasoak.

<sup>56</sup> MAETX83ek salbu, zuka ari baitzen ahizpekin. BEBI75, aldiz, toka ari da anaiarekin.

erabilerari buruz galdekatzean, beti haurrideak aipatu dituzte denek lehen-lehenik, eta gainerako herritarren hizkuntza-praktikei buruz ere berdin-berdina adierazi digute, noka haurrideen artean mintzo zela eta dela: “Etxeko lenguaia zen hori” (AMLA88); “etxeuari beti noka ai gira” (AMLAH75). Halaber, ezin pentsatua zaio JEGA62ri arrebari zuka mintzatzea: “Ni ai nun noka, arrebaakin, alta arreba zaharro da, bana eztu potretik e ni zuka artzea [arreba]<sup>57</sup>ri! Itxuraik e eztu!”. Heldu baita, etxeko intimotasunean eta egunerokotasunean nokak lekua berea duela dirudi. Adinetakoek gehien bat familia hurbil-hurbilari mugatua dute nokaren erabilera; batzuk zenbait kusiri ere hala aritzen dira, adinez hurbil eta auzo berekoak diren baldintzapean. Helduen artean, TEIN61 eta ANIN67 anaiei toka aritzeaz gain, emazteei, hau da, beren koinatei ere noka ari zaizkie. Helduek eta adinetakoek jakinarazi digute gazteak ez dituztela sekulan hala aditu, ez duketela menderatzen. Areago, helduak ohartuak dira beretarik landa nehor ez dela ari.

#### “Klasa dinat!”: adina erabakigarri

Espero bezala, adinak ere baldintzatzen du gure lekukoen nokaren erabilera. Oro har, aztergai ditugun bi adin tarteetako nokari guziek adierazi digute noka ari direla adin bertsuekin, eta zaharragoekin, zuka. Adin gehiago duen bati errespetua zor zaion eta beraz zuka aritu behar zaion ideia errotua da, bi adin tarteak zeharkatzen ditu. Helduetarik bik, konparazione, deseroso edo trabatuak sentitzen direla adierazi digute “nornahiri”, zaharragoei ere aise noka mintzo den pertsona batez mintzatzean. Adinari lotu arau inplizitu horrek lekukoen tratamenduen onargarritasuna ere baldintzatzen du, alegia, arras barneratua dute. Bistan da, ez da arau zurruna, adinaz gain beherago aztertuko ditugun beste aldagai batzuek lausotzen baitute baldintza hau. Adin bera izatearen irizpidearekin halaber, lekukoek jakinarazi digute noka ari direla adin bertsukoekin; ez ordea adin bertsukoekin noka ari direla. Hau da, adin bera izatea nokaren praktika akuilatzen duen aldagai *bat* da, gure lekukoak ez dira aparantziarik ere herriko adin bertsuko guziekin noka ari.

Hain xuxen ere, adin bera izatea baino zehazkiago, nokaren erabilera izugarri baldintzatzen duen irizpidea haurtzaroa da: haur-denbora edo bederen parte bat elkarrekin iragan izana. Gure lekuko guziek, erran digute, salbuespenik gabe, noka ari direla ttipitik

---

<sup>57</sup> Lekukoak errealki ahoskatu duen arrebaren izena isildu dugu.

elkarrekin noka aritzeko usaia dutenekin, eta batez ere, elkarrekin eskolan ibili direnekin. Badirudi hala adinetakoak nola helduak markatu dituen garai bat dela eskola, eta klase berean egon diren haurrak bizi osorako elkarri lotuak direla. Espresio berezi bat darabilte ere: norbait “klasa” izan. Ez dateke Ortzaizeko berezitasuna, Iparraldeko beste hainbat herritan entzun baitaiteke; dena den, “klasa dut” edo “klasa gira” erraitan, adierazten da haur denboran, eskolan, delako pertsona norberaren klasean zela, adin bera direla. “Klase” horrek bizi osoan segitzen ditu ortzaiztarrak; izan ere, bai adinetakoek bai helduek kontatu digute, herritik joan diren ortzaiztarrak azken berrogei urteetan kasik batere gurutzaturik gabe ere, elkar ikustean, ttipian bezala berdin-berdina noka ariko direla, klase direlakoan. Eskolak ortzaiztar gazte-gazteak ziren horiek oraindik elkarri lotzen ditu iduriz, bizi osorako hizkuntza-tratamendua baldintzatzen duen neurrian.

Heldu baita, haurtzaroa aro erabakigarria da nokaren praktikarako. Formula sinplea eta absolutua agerrarazi digute gure lekukoek: noka aritzeko, behar da haurdanik usatua izan. Identifikatzeko neke den adin batetik goiti ezagutu jendeekin, batere ez dira ari. Hortaz, JAIB66 eta MAIB68 pixka bat ezberdintzen dira, aro erabakigarri hori luzeagoa baitukete. Izan ere, gaztaroan, hemezortzi urte inguru ezagutu lagun zenbaitekin noka ari dira. Bizkitartean, MAIB68k kontatu digu lanean noka bultzatzerat entseatu ziren lankideekin ez dela heltzen noka mintzatzerat, horiekin harreman hurbila ukanik eta noka hasteko gogoia ukanik ere. Izan ere, lankide horiek “berantegi” ezagutuak dituzke, diferentzia argia agertzen da haurtzaroko (edo gaztaroko kasu honetan) eta geroztikako ezagutzen artean. Bide batez, helduen artean, haurtzaro edo gaztaro amankomuna izatearen irizpidea nokaren berezitasuna litzateke, toka ez da horren menpe; hain xuxen, biziaren gostuz berantago ezagutu mutiko gazteagoekin aise mintzitzen direla jakinarazi digute JEGA62, TEIN61 eta JAIB66ek. Erran nahi baita, helduaroan ezagutu pertsonekin zukatik tokarako mudantza posible da; nokarakoa, aldiz, ez.

Bestalde, helduek zehaztu dizkiguten praktiken arabera, ikusi dugu helduek erraztasun gehiago dutela noka aritzeko adin tarte handiagoko herritarrekin, hau da, adin bera izatea zentzu zabalagoan ulertzen dute adinetakoek baino. Konparazione, parte-hartzaile ditugun JEGA62 eta MAIB68ren bikotearen adibidea adierazgarria da: bata besteari noka ari zaio, sei urtez zaharrago izanik ere, eta familia edo auzo berekoak izan gabe. Baldintza horietan noka aritzeko gehiegizko adin tarteak litzateke adinetakoendako. Alegia, helduak noka ari dira adin berekin,



hots, gehiago belaunaldi berekoekin; adinetakoak, aldiz, lotuago dira “klasa” izateari, hau da, adinez hertsiki hurbilekoekin ari dira noka.

Adin erlatiboki berekoekin noka ari badira, gazteekin, aldiz, nekez. Izan ere, 1. adin tarteko gehienak toka eta noka ari dira beren seme-alabei (2. adin tartekoei), baina batere ez arra-hurrei (3. adin tartekoei). MAGA92 salbuespena da, semetxiari toka ari baitzaio; alabatxiei, aldiz, zuka. Dena den, adinetako nehor ez da ari noka gazteei. Ulertu nahian, MAGA92k suposatu du lotua izan litekeela inguruan preseski zuka anitz entzuteari eta beraz mimetismoz errepikatzeari: “doaikai<sup>58</sup> hola aitzaikin ingurian?”. Bizkitartean, adinetakoak gazteagoi (2. adin tartekoei) toka eta noka mintzo badira, helduak, aldiz, ez (3. adin tartekoei). Horiek ere ez dira batere mintzo toka eta noka gazteei, semeari toka mintzo zaion JEGA62 salbu. Gazteek berek berretsi digute helduak zuka ari zaizkiela, eta toka eta noka helduen artean entzuten dutela.

Preseski, 3. adin tarteari dagokionez, debaldekoa litzateke zehaztea ez dutela adin aldagairik, zaharragoi, adin berekoei eta gazteagoi, denei zuka ari diren neurrian. Haatik, adina izanki aipagai, komeni da aipatzea gure lekuko mutikoendako (BIXI26, TXOXU24 eta XANIN35) nerabearoa adin erabakigarria izan dela beren hizkuntza-tratamendu mailan. Izan ere, adin horretan, diotenaren arabera lizeo garaian, hizkuntza-mudantza gertatu eta lagun zenbaitekin toka mintzatzen hasi ziren. BIXI26 eta TXOXU24k aipatu dute besta giroan toka etxean entzun zuten gazteekin ikasi dutela. Trantsizio biziki naturala deskribatu digute, baizik eta “jin” zaien zerbait izan dela: “Ene ustez errexxi sartu zeta... eztakit nola. Hara, ene ustez entzun nien hola lagun artean, berdin batzu mintzatzen ziela hola, ta bai, polita atxeman edo, eztakit nola... eztakit.” (TXOXU24). Trantsizio horren oroitzapen argiak ditu konparazione BIXI26k, oroit da nor hasi zen inguruan. Neskak ere (MARGA24, MAPE25 eta ELHE28) mudantza horri ohartuak dira: “*Voilà*, berdin desberdintasuna gure belaunaldian da... man dezaun mutiko horier konparatuz, euh... nun berdin gure aiten belaunaldia izan den ttipidanik toka, gure belaunaldiko mutikoak ez dira ttipidanik toka aizan, izan da berdin kontzientzia hartze bat noizbait.” (MAPE25). Neskek aldaketa horrek “gizontasunarekin” edota “birilitatearekin” zerikusia ukan lezakeelako hipotesia egin dute, eta gazte guzien diskurtsoak

---

<sup>58</sup> *Doaikai* (<dudarik gabe) ‘hain segur’

batu dira defendatzeko lotura bat izan litekeela hizkuntza-mudantza horren eta helduaroan sartzearen artean, “adinak bete” behar balira bezala.

XANIN35: Gero lotzen ahal da maturitateari beharba lizeoan hasten baita ta hala, helduen mundura pasatzen gira, helduak dira mintzo beti gure beharrietan toka beaz are guri da hastea? Beharba, inkontzienteki, hori bada? Ta hortako gira hasten?

ELHE28: *Mais* zendako, emazteek eztugu? Ez gira heldu bilakatzen gu?

Hain xuxen ere, ELHE28k azpimarratu duen gisan, “adinak betetze” mutiko gazteei eta tokari dagokie; neskek ez dute hizkuntza-mudantzarik. Gure lekuko mutikoak toka ari dira egunerokoan ikusten dituzten lagun hurbilei, ez badaezpada haurtzarokoei, aspalditik ikusi ez dituztenei. Zaharragoko zenbaiti ere toka ari dira TXOXU24 eta BIXI26, bata lankide bati, eta biak bestatik ezagutzen dituzten berrogeita hamar bat urteko bi laguni. Halarik ere, komeni da zehaztea hiru tokari horiek gaitasun partziala dutela toka, eta horretaz kontziente dira. Berek erraten dute “han-hemenka” botatzen dituztela tokako aditz batzuk, beren arabera oinarrizkoak diren “duk” bezalakoak. Trabatua direlarik, zuka dute saihebidetuta. Guhaurek entzun ditugu TXOXU24 eta BIXI26 konparazioan, elkarrekin elkarriketatuak baitziren, elkarren artean gehien bat zuka mintzatzen, “zu” izenordaina ere erabiliz.

*Fin* idaztean adibidez, justu aditz batzu... naturalki heldu dira, *mais* eztakit... E hori da, ta batzuk ez! Eztugu, da toka... *à l'arrache quoi* eh! Hori da! / *Mais* gauza sinpleak *genre* “duk” eta hori ez, bakizu... [...] Gero egia, pixkat... aditz konplikatuagoak... Ah *mais* nik eztitut erraiten! Nik zuka erraiten ditut! *Ouais ouais*. Hori da, bada bietako nahasketa bat.” (BIXI26 eta TXOXU24).

MARGA24 eta MAPE25ek ere adierazi digute tokako eta nokako oinarrizko aditzak beharrian dituztela, baina horietarik at ezintasuna sentitzen dute, eta, mutikoek ez bezala, dakizkiten horiek ez dituzte batere baliatzen:

Toka baliatzia, etzeta, ezta natural, eztut beste jendeik... Gehio pentsatu behar dut, nik pertsonalki. Ni ene ustez ene gaitasunak biziki... Mugatuak dira? Mugatuak dira. Eztitut anitz esaldi erten ahal toka noka baliatuz, pff. Noka, ono gutio.... Erten baitzinin ostion orainean biziki sinple, ta gero, hortatik urruntzean... bilakatzen da pixkat.. abstraktua. Bai, eni iten datazu ‘Nor-Nork’ taula bat, eniz seur... [irria]... arribatzen nintzala denen betetzen.

Ortzaiztarren nokaren erabilera baldintzatzen duen aldagai garrantzitsuenetariko bat herritarra izatea da. Izan ere, helduetarik nehor ez da ari noka herriz kanpokoekin. Salbuespenak lirateke MAIB68 eta JAIB66en gaztaroko lagunekin eta TEIN61 eta ANIN67 beren koinatarekin, adinaren eta familiaren aldagaiak eraginik. Beste gisan, nehor ez da ari noka ortzaiztarra ez den batekin. Konparazione, baduke berrogei urte ANIN67 Ortzaizeko auzo-herrian bizi dela han familia eginik, eta horko herritarretarik neherekin ez da noka ari; haatik, bera bezala auzo-herri horretan bizi diren ortzaiztarrekin bai. Herriaren aldagaiak haiendako duen indarra azaldu digute TEIN61 eta ANIN67k. Herri berekoekin noka aritzeko elkar usu gurutzatu izanaz haratago, herriaren dimentsio bat sendi dute. Herri berekoak ekartzen duen hurbiltasunari lotua da noka aritzea horien iduriko:

Ta bada herriaren dimentsione hori berdin! Herritarrak! *Oui, une affinité*. Horri lotia, herriari lotia, ber herrikoak. Bai. Adibidez adin berak, *oui mais* hori erten dinat, adin berekoak, bainan guttio ezautu ditutanak, ttipian eta hola, uai herritar dituztanak eta adin berekoak, ortzaiztarrak ez direnak, ordion zuka aiko niz. Guttio ezagutu ditut ere eta... *moins d'affinité, enfin*, bada hor herriak kartzen du halare hurbiltasun bat emaiten du herri berekoak izaiteak. Maia<sup>59</sup> ere, zuka ai niz beti, *bon* gero haren piona izana niz, *mais...* ni gazte da, alta biziki lagunak gira ta, bena beti zuka! Hua re enekin zuka. Ezta ortzaiztarra.

ELK<sup>60</sup>: Haurtzaroarekin lotzeuzie beraz noka? Edo zinez herriari lotia da?

Ez bakarrik, usteut nik herriari, nik Joana ezinat zautu eskolan, *enfin* nik bano adin gehixau du, herritarraun, bana kanpo herrian bizi zirelaik, herritarrak elgarren artian, hara, bada nunbait herriari lotua den hurbiltasun bat.” (TEIN61 eta ANIN67).

Orduan, horien arabera, ortzaiztarrak ez diren lagun hurbilenekin ere ez dira noka ari, preseski ortzaiztarrak ez direlako. Areago, herritar izateari irizpide bat gehitzen dute helduek: ez dira herriko edonorekin ari, “herriko adin bertsuko euskaldunekin”, hots, euskaraz ari direnekin. Zehazkiago, harremana hastapenetik euskaraz eraikia izan behar dute noka aritzeko; konparazione TEIN61 eta JEGA62k azaldu digute gaztean frantsesez aritzeko usaia zuten emazte

---

<sup>59</sup> Lekukoek aipatzen dituzten jendeen izenak fikziozkoak dira; aldatu ditugu anonimo atxikitzeko. .

<sup>60</sup> Elkarrizketatzailea.

zenbaitekin handitzean (edo zahartzean), kontzientzia linguistikoa medio, euskarari jarri direla, baina zuka. Alabaina, erabilera herritarrei mugatzea nokaren berezitasuna da, toka aise aritzen baitira berriz herriz kanpokoei.

Bestalde, adinetakoei dagokienez ere herritarra izatea funtsezko baldintza da noka aritzeko. Hain xuxen, aldagaia are lokalagoa eta xorrotxagoa dute: auzo edo kartier berekoa izatea. Sortzez auzokoak ez direnei, azken sei hamarkadetan auzo izanik ere, zuka ari zaizkie belaunaldi horretan. Auzorat ezkondu diren hainbat emazteren adibide entzun ditugu, zeinei zuka mintzo baitzaizkie, preseski auzokoak ez direlakoan. JAIB66 eta MAIB68ren ama, konparazione, irulegitarra izanki, bizi gehien-gehiena Ortzaizen pasaturik ere, nehorekin eta nehori ez zen noka ari, alabei salbu. Gisa berean, AMLAH75 eta MALAH70 sortzez beste kartier batekoak diren lehen auzoekin zuka ari dira: “Ta hementxe Peio eta Maddi re, bah *ils sont...* Ez tun hemengoak eh. Geoztik jinak dira, kartierreat. Horiir zu, beti. Zu, beti zu.” Auzo berekoa izateak adinaren aldagaia hauts dezakeela erakutsi digute zenbait kasuk. BEBI75 eta MAETX83 bikotea ezin adierazgarriago litzateke, ez bailitzateke espero zortzi urtez zaharrago den emazte bati gizon bat noka aritzea. Kasu batean ikusi dugu auzoaren irizpidea ahaidetasunarena baino azkarrago ere dela; AMLA88, adibidez, adin bertsua duen lehen kusiari zuka mintzo zaio, beste auzo batekoa delakoan. Hala ere, auzoa ez da salbuespenik gabeko irizpide zurruna; adibidez, AMLAH75 auzokoa ez den neska batekin noka ari zen, eskolan eta elizan elkarrekin ibiltzen baitziren. Hortaz, herriz kanpoko batekin noka aritzea ezin pentsatua dute: “ono gutio! Kanpokokin iten du *impoli!* No ta to. Kanpokoati eztuzu sekulan no erraan! Kanpokoak e, uai Gaazin ta gertatzen gira merkatian, kanpoko... ta zautzen e untsa, banan denek zu”. (BEBI75). Haatik, auzoaren irizpidea ez da 2. adin tarterat heltzen, kartierrez kanpokoekin ere noka ari baitira. JAIB66 eta MAIB68k ez dute arazorik “karrikakoekin”<sup>61</sup> ere noka aritzeko, auzo berekoak ez izanik ere.

#### “Ça fait grossier mazte bati”: generoa hala bultzatzaile nola oztopatzaile

Era berean, informatzaileekin elkarriketek bistarazi digute generoak funtsezko rola jokatzen duela nokaren erabileran, bai lekukoan praktikan, bai horien ingurumenean. Izan ere,

---

<sup>61</sup> Lekuko hauek mendira buruzko kartier batekoak izanki, beheko herri zentrokoak “karrikakoak” deitzen dituzte.

lekukoek tratamendu asimetrikoak baliatzen edota jasotzen dituzte generoaren arabera. 1. adin tartetik, konparazione, MAIR89 semeari toka ari zaio, baina alabari zuka, eta ilobak dituen MAGA92k tratamendu bera segitzen du, gizonezko ilobari toka, eta emazte ilobari noka. Gainera, MAIR89k diferentzia berdin egiten du bere ilobekin, hau da, MAGA92ren seme-alabekin. Gisa berean, AMLA88 eta MAIR89ren auzoak diren bi gizonek ezberdin egiten diete; bata no, besteak zu, nahiz eta MAIR89 azken honi toka mintzo zaion. Halaber, 2. adin tartetik, gure emazte lekuko gehienak zuka mintzatuak dira. Pentsaketan arituz ohartu dira nahiz eta horiek gizonei toka aritu, horietariko guziak –printzipioz bi salbu, JEGA62 barne– zuka ari zaizkiela: “eztun biziki mutiko noka guri!” (JAIB66). Areago, emazte heldu horiek ere mekanismo hori errepikatzen dute beren aldi; etsenplutako, TEIN61 eta ANIN67ren senarrak semei toka ari dira, baina alabei zuka. Haatik, gure bi lekukoak zuka ari dira denei. Hain xuxen ere, nokari guziek, hala helduek nola adinetakoek aho batez baieztatzen dute aiseago dela gizon bati toka aritzea emazte bati noka aritzea baino. “Aisio da guetako toka artzia mutikotekin! Baut aise jende gehio nik toka ai bainiz mutikokin, ezin ez ta noka maztekin, nik hasteko! Aise tun kondatiak noka ai nizan jendiak. Ta herriz kanpo, nehor guti!” (JEGA62). Emazteek ere konfirmatzen dute horiei ere aise errazkiago aterako zaiela toka, noka baino. “Bon, soizan, nik bakinat aitamak jiten dielaik ene aitziniat haur baten inskritzeko, emazte bat eskuaraz mintzatzen balin bada, eztakenat no erranen, izanik e ni bano gaztio! Bana gizon bat jiten bada ba! To!’ (JAIB66).

Adinetakoek argudiatzen dute hori emazteari zor zaion errespetuari lotua dela. Ikus bedi adibide gisa BEBI75 eta MAET83ren ikuspegia:

Mutikoa ezazolo baita beharba? Neska bano? [...] Mutikoa ezazola delakuan!  
Errespetia gehio, errespetia emaztiari! Ba, errespetia gehio... Pollito da! Ba, polllito  
ba... Ttipian ta, ttipiak dielaik ta, *zu* pollito da *no* bano. Ba ba ba. Ttipi bati ‘No,  
erran no!’ eta ‘to’? E, beste gisaat da! Ba. Mutikoari aisio da! Aisio da ba. Ba ba,  
normaloo da. Neska delikatuxo edo zazi! Ba. Holako zeit. (BEBI75 eta MAETX83).

AMLA88k ere erran digu oiesa edo zarpaila dela emazte bati hala mintzatzea: “*ça fait grossier* mazte bati”. MAIR89 eta MAGA92k diote ez zaiela irakatsi, emazte bati buruzko errespetua automatikoki jiten dela. Hortaz, helduek ere hortik doan zerbait gertatzen dela diote, gizonak ez diratekeela menturatzen emazteari noka mintzatzen errespetu ideia baten indarpean,

emazteei ez zaizkiela “nolanahika” ari: “Bah, eh beh baine beren gisako errespetia maztendako! Baine zeit, hor *qui les embête*, eztakinat zendako banan...” (JAIB66).

Gainera, 1. adin tartekoek, herriko hizkuntza-praktiken berri ematean, hitanoaren erabilera “zatitu” bat deskribatu digute, non genero bereizketa bat baita; erran nahi baita, gizonak toka ari zitezkeela elkarren artean, eta emazteak noka elkarren artean. Hau da, noka gehien bat emazteen artean baliatzen zela eta toka gehienbat gizonen artean. Helduek ere banaketa horren oroitzapena dute 1. adin tartekoen eta zaharragokoen praktikez: “Usteut gizonak beti toka ari zirela, ba horik ba, eta gizonak eztitut biziki aitu nik noka emazter. Ta maztiak ere ez eh toka gizoner, eztut uste. Banan emaztiak beren artian! Zenta maztiak elgarren artian, ouais, ai tuk noka bana gero...” (MAIB65). Halaber, TEIN61ek hauxe erran digu: “*Entre sexes*, etzen! Emazteak... gizonak emazter zuka, bana mazteak gizoner ere etziren toka ari eh!”. Haatik, 2. adin tartean, tokari eta nokari arteko genero banaketa ahulago da, zentzu bakarrean atxikitzen dela iduri baitu; erabilera isolatua nokarena baizik ez da, emazteen artean. Belaunaldi horretan, emazteak gizonen toka aritzerat ausartzen dira, baina gizonak, aldiz, ez, zuka mintzo zaizkie: “*nous on se permet la familiarité*” (TEIN61).

Horiek hola, hiru adin tarteetako lekuko guziak ohartuak dira hika gehien ari direnak gizonak direla, hau da, tokak nokarekiko duen nagusitasunaz kontziente dira. Desoreka hori ez dateke berria, adinetakoek hurrean jadanik hala zelako oroitzapenak baitituzte: “*To* anitz iten zen banan *no* ez iziari eh. Ez no, ez iziari ez, *to* ba gizonek. Etzen eta... biziki *noik*.” (BEBI75 eta MAETX83). “Gizonak mentuaz gehixo maztiak bano!” (AMLA88). Helduek beren belaunaldiko praktikez egiaztapen bera egiten dute: “Ez, gizonek gehio, gizonek gehio! Gure adin, gure klasian, toka artze hori. Elgarren artian. Ezin ez ta maztek elgarren artian. Enetako eh, gehio bada gizon ai denik.” (JEGA62). Halaber, gazteek halaxe ikusten dute gurasoak dituzten 2. adin tartekoen mintzoan: “Gizonen gehio ez ? Bai. Bada emazte talde bat erabiltzen dina, identifikatzen duguna, *mais* orokorrean... Toka entzuten dugu bai. *Mais* hor berdin da, *même*, hartzen badugu gure aitamen belaunaldia Ortzaizen, gizonak hartzen tuzu, denek badakite eskuara ta denak ari dira ari badira, toka.” (ELHE28). Eta gazte horien belaunaldiaz gauza bera ikusten dute adinetako zenbaitek, hika entzutekotan, mutikoen ahotik izan litekeela: “Gaztiak etzeta iduitzen to ta noka mintzo dien. Non gaztiak ez. Beharba mutiko horiik!” (AMLAH75 eta MALAH70). Nola ez, gazteak berak kontziente dira beren belaunaldian

besteetan baino ezin hobeki azaleratzen den desoreka horretaz, horien artean batere nokaririk ez izanki, eta tokariak bai, berriz. Beren nokaren ezjakintasuna eredu eskas batetik heldu datekeela aipatu dute batzuek; toka —gizonen artean oroz gain— aditzeari ohituak dira, nokari, aldiz, gutiago. Hortaz, ELHE28k hitanoa gizonen arteko zerbaiti identifikatzen du: “Beh... ff edo zaharragokoena, edo gaur egun, enetzat, gizonen gauza da”. Gehienak genero mailako desberdintasunaz kontziente dira; MAPE25ek batez ere helduen arteko generoaren araberako tratamendu asimetriaz irakurketa feminista garatua du:

Boh ta ene ustez nokarena, bazen gauza bat nun, neskak behar ziren... pixkat nesken kondizionatzea bakizu, behar zen euh... polita izan, garbiki mintzatu... ordian zuka, *tu sais*, nokak berdin baduen...[...] Fff bai, ene iduriko, politago da neska batentzat zuka artzea jendartearentzat.

Hari beretik, emazteei mintzatzeko begirune handiagoko tratamendua (zuka) enplegatzea mendragarri ikusten du emaztearen mistifikazio bat adierazten duelakoan. Hots, laburbilduz, gure Ortzaizeko lekuko guziak hiru belaunaldietako tokaren gailentzeari ohartuak dira.

#### Jitea bultzatzaile

Bestalde, denek iradoki dute hala nokariaren nola hartzailearen jiteak edo izaerak baldintzatzen dukeela tratamenduaren hautua. Adinetako orok lotu du noka ausardiarekin; noka aritzeko ausarta izan behar dela, “menturatu” behar dela. Horien iduriko badira toka eta noka aise ari diren profil batzuk: “geo gure... ausart zielatik aisio erten duzu *no*. Ausarta zielatik jendeaakin.” (MALAH70). Ausardia hori solaskidea ontsa ezagutzeari lotua dela uler daiteke, baina izaerari ere bai. Konparazione, MAIR89 eta AMLAH75ek diote aise ari direla toka eta noka, eta beren ahizpek argudiatu dute ausartak direlakoan dutela erraztasun hori. MAETX83 eta BEBI75ek argiki jite berezi bati lotzen dute toka eta noka aritzea: “Ba, karakteran e badu! Alegera? Alegerak eiten du! Ba, aise mintzo ta nik dakita!”. MAETX83k kontatzean aita ahizpa gehienari baizik ez zela noka ari, argudiatu du naski “ezazola” zelakoan zela, hau da, ezaxola edo baldarra. Arreta piztu digun kasu adierazgarri baten berri eman digute lau lekukok. Izan ere, AMLA88 eta MAIR89ren adin bertuko bi gizonak, elkarren lehen auzoak, tratamendu ezberdina dute. Lehenari denak toka ari zaizkio eta bera denei toka eta noka, eta bigarrenari, berriz, denak zuka ari zaizkio (MAIR89 salbu) eta hura ere zuka denei. Alta, lekuko guziek

segurtatu digute ez direla batekin bestearekin baino hurbilago. Begira bitez tratamendu asimetriko horren aitzinean MAIR89 eta AMLA88k intuitiboki bota hipotesiak:

AMLA88: [Lehena]ikin ausart gitun, *alors...*

ELK: Haakin ausart zizte?

AMLA88: Ba ba, haakilan ausart.

ELK: Zendako ?

MAIR89: Gisa hartako buria! [irria]. Usu kusten ta, gisa hartako gizona baita! [irria]

ELK: Erran nahi baita ? Nola da ?

AMLA88: Eta... bestia ferioso ? Beste gisaat! *Réservé* eskuaraz, nola errain da? Eh? [Bigarrena] ezta nolanhika mintzatuko, *tandis que* [lehena] aisio mintzo da gure gisa! Ba ba, beste gisaatez, *c'est un autre caractère*. Ba. Bestia... *plus réservé*.

Izan ere, BEBI75 eta MAETX83ren arteko elkarrizketatik argudiaketa bera atera da:

Beharba kaakterak iten du! Ezazolo, aisio da ba [lehena]ri! Ezazola, ba berdin horrek iten du eh, kaakterak! Ezazola baita [lehena]! Denekin eleketa da denekin... Eh? [Lehena] denekin eleketa! Ba ba ba! Maite du! Aisio da... Aisio da [lehena]ri... [Bigarrena], *plus réservé*... *Réservé* da! Hara. Beharba kaaterak iten du eh.

Halaber, 2. adin tartekok lekukoek izaera berezi bati lotzen dute noka. Horiek ere noka aise ari diren hiztunak badirela iradoki, eta zehazkiago, koska eta sinplea izateko jitea duen pertsonari asimilatzen dute. JAIB66 eta MAIB68k, izan ere, noka ari direnak izendatzeko “trasteak”, “tartalak”, “ez herabeak”, “ez preziosak” bezalako izaerari loturiko ezaugarriak baliatu dituzte, eta funtsean, beren burua hala definitzen dute. Beren iduriko, berek partikularki noka aritzeko aisetasuna dute gisa hartako jitea dutelako. Gisa berean, nokaren erabilera hartzailearen profilak ere baldintzatzen duela argudiatu dute. Lekukoen arabera, solaskideak ere gorago agerrarazi ezaugarri psikologikoak ukaiteak noka aritzea bultzatzen du. Jendekina eta “hurbil errexa”ri aiseago mintzatuko zaio noka.

Bakizu jende batzuk emaiten dautzute noka artzeko gogoa! Nik haur batzuir eztiat erten ahal to edo no, bana beste batzuir biziki errecki! Pixkat tartalak dielaik eta!



Bakizu... Hurbil errexak. [...] Adibidez [etxearen izena]ko tipi horri, beh eztiat ene buria kusten zu erraiten. [...] Tartalak *c'est*... mintza errexak! Hara, ez... *Pas serrés du cul! Voilà!* Mintza errexak eta ba ba ba... *Pas... pas cul serré. Voilà, c'est ça.* Ez puttintak.” (MAIB68 eta JEGA62).

Terminologia oso bat atera da nokari jendekin horiendako: “tartala”, “ez punttintta<sup>62</sup>”, “gozoa”, “patsaka<sup>63</sup>”, “ez preziosa”, “zanpantzarra”, “xantxana”, “trapu aire”koa.

Are gehiago, profil psikologikoaz gain, fisikoak ere baldintzatzen du tratamendua MAIB68 eta JAIB66en ustez, beren praktikan bederen. Aditu diegun ondoko konfidentziak irizpide hori ezin hobeki azaltzen du:

Bitxi da hori, ni haurrer ikastolan ta mintzo niz noka errexki, mais depende ze izaiteko haurra den. Ah *mais tu vois!* Bakizu neska xantxan bat hola, bakizu, beh bai, xantxan bakizu... Eh beh *voilà*, delako trapu aireat zeit! Bah, holako, pixkat pottoloa baldin bada, ta... [irriak]. Aldiz... *une précieuse*... aldiz [XX]ren alabari ez! *Qu'est-ce que'elle est jolie c'te fille!* Pollita da ta gero isila da ta, bakizu, diskreta ta. Eztinat sekulan holako neska pollitik ikusi. Ah *bon*. Eh *je sais pas pourquoi. Ah bon*. Biziki, ezta bate hala eh... Bah hala da ba, pollita da, *mais* ez... *Mais non mais* biiizki biziki pollita atxemaiten dinat. Ze beitate extia diina! Eh *oui*, ta halakoati euh... noka mintzatzea bitxi... Eztakozu pusalakoat emaiten ahal, “are, mui hadi”, “mui hadi”, arrunt, zinez preziosa da eh! *Tu vois c'est dégueulasse eh quand même!* Hartako dira guri denak noka! [irria].

ELK: Zer da *dégueulasse* ?

Eh beh holako... difeentzia eitea. *Discrimination!*”

Alegia, nekeago litzateke itxuraz fin eta zainduak diren batzuei noka aritzea: “hari enezaken sekulan, *on dirait une poupée Barbie*, enezake sekulan no erran eh!” (JAIB66). Haatik, gozotasuna inspiratzen duten buru “sinpatiko” batzuei errazkiago ari liteke.

Hortaz, 3. adin tartetik batek ere aitortu du noka aritzea nonbait nortasun azkarra duen eta elkarrizketetan espazioa hartzen duen emazteari asimilatzen duela.

---

<sup>62</sup> “*Puttintta*”: lekukoen definizioaren arabera, fite gaitzitzen dena, nolana hika mintzatzen ahal ez zaiona.

<sup>63</sup> “*Patsaka*”: delikatua ez dena.

Azaltzen du berak izaera hori ez ukanki, ez duela lortzen bere buruaren identifikatzen nokarekin:

Nik usteut lotzen dutala uste gabean aho haundi izaiteari. Zenta, ni hasten baniz noka, erran nahi du behar nukela hasi, eztakit, lotzen dut... arrailerari, ausartzeari... Eta, eztena bate ene jitea pertsonalki, ordian euh... eniz ikusten noka baliatzen, zenta horri lot... da, noka baliatzen banu, liteke behar dutala erran txiste bat edo... [...] Bai, emazte bat noka ari dena, *c'est con* eh, ez da ahapeka ari enetzat, da emazte bat euh... hor da *quoi!* Mintzo da! [...] Hor da, elgarrizketa batean, *c'est pas la timide derrière quoi*, mintzo da, *elle s'affirme*... ari da noka! Behar da afirmatu bai noka artzeko... ene imaginarioan. (MARGA24).

#### “Buhamiak eta jende xumiak”: klase soziala aipagai

Azkenik, segurtasun ttipiagorekin, klase sozialak ere nokaren erabilerarekin zerikusia ukan lezakeela iradoki dute zenbait lekukok. Denboran herrian toka eta noka nor ari zen galdetzean, ironia sarkastiko batekin dudarik gabe, hauxe erantzun zigun punpa lasterrean MAIB68k: “Buhamiak ta jende xumiak!”. Izan ere, JAIB66 eta MAIB68ren arabera, aiseago noka aritzen da “*aux trastous*”, “*aux petites gens*”, erran nahi baita, klase apalagoko jendeari. Kontatu dutenaren arabera, etxalde xume batekoak izateak ere hein handi batean azaltzen du noka aritzeko duten erraztasuna, baita jendeek horiei noka aritzekoa ere. Kasu horretan, klase soziala eta profil psikologikoa elkarri lotuak lirateke, lehenak bigarrena eraiki bide duen neurrian. Ildo beretik, JEGA62k eta MAIB68k buhameak<sup>64</sup> aipatu dituzte ; oroitzapena dute jendea franko fite lerra zitekeela horiei toka eta noka mintzatzeari, horiek hurbiltasun gehiagokorik ukan gabe, eta zaharragoak izan gabe:

Nik erran nahi dutana da, eni iduitzen edo ztakit ene izipiitia den, jende heldiak, horiikin, zonbeit hasteko, frango fite lerratzen euh to ta norat, euh hurbiltasun haundiik izan gabe! Horiut erran nahi. Ausartzen behala. [...] Ezta hurbiltasuna ez hor, hor da klase diferentzia edo... *Voilà. Autant* goroogor eniz aiko to ta noka hasteko, goroogor *classe sociale, mais* apaloogor, fitexau ene iduriko eh! Eni iduitzen eh!

---

<sup>64</sup> “Buhamiak” V. mendean Indiatik abiatu populu tzigano ibiltariko kideak ziren, European agertuak lau mende berantago. Horiatarik anitz Euskal Herrian —besteak beste— sedentarizatu ziren, herrietako bazter-zokoetan (Lougarot 2009).

Horrenbestez, aldagai hauek nagusitu dira gure informatzaileen nokaren erabileran. Halere, ez bedi pentsa elkarrengandik isolatuak direnik; usu gurutzatzen dira. Horregatik, nekez egin liteke sailkapen bat garrantzitsuenetik hutsalenerat. Horiek erranik, interesgarri deritzogu nokaren gaineko iritziak biltzeari, neurri batean diskurtso horiek ondorio izan litezkeelako. Hurrengo azpiatalean, beraz, horri begiratu nahi diogu.

#### 4.2.1.2. *Indiferentziatik arrangura eta dolurat belaunez belaun: nokari atxikitako balio soziofektiboen eboluzioa*

Horiek hola, gure bigarren ikerketa-galderari loturik bildu ditugun emaitzak aurkez ditzagun: zein eboluzio dute gure parte-hartzaile ortzaiztarrek nokari atxiki balio sozioafektiboek? Aitzineko atalarekin alderatuz, honetan gazteen diskurtsoak leku gehiago okupatu du, erabilera behartzen ez duen heinean.

Edozer aitzin, komeni da zehaztea adinetakoekin beren hizkuntza-praktikei buruz gogoeta metalinguistikoak eramatea ez dela gauza erraza izan. Ariketari ohituak ez izateaz gain, ezintasuna beren nokaren erabileraren naturaltasun oso eta inkontzienteari lotua da. Hain xuxen, ohituraren pisua hainbatekoa da non lekuko guziek anitzetan beren praktika ezberdinak ezin baitzituzten esplikatu. Usaiak dituenek beren tratamenduak agintzen, zaila izan zaie zenbaitetan balioak esleitzea, “lengoaia”, komunikazio tresna hutsa dutelakoan. “Eh, hori *complicqué* da zuri esplikazionian emeiteko. Eh! Eztakiu, guk usaiak hala hartia izan da, *puis*, esplikazioneik eztuu. Guhauk duu gio senditzen.” (MAIR88 eta MAGA92). “Ze usteun, burian paasten ginila re? Batez! Hala usaiak, plegiak hala hartia *et puis c’est tout!*” (MAIR88). Ohiturak hain barneratuak dituzte non neke baita beren praktikak esplikatzea, ekar lezaketen paradoxetaz kontziente izanik ere. Horren adibide adierazgarria da bere burua ezin ulertuz ari den JEGA62ren bakarrizketa hau:

Nik eztut konpreitzen zendako aizan nizan noka ene jeneazioneko hurbileko batzuekin ta beste batzuekin ez, adin bertxea tuztalaik. Gio handik at haatik, handik at, erran nahi baita gazteagookin, noka... bate. Ta zendako, hori... Zendako eniz aizan noka alabaakin e ez? Zendako? Ta arrebaakin ba? Zendako? Ze pastu da burian hor? Pff. Eztinat arrapostuik. Bultaka iten din euh... Ez, ez errespetu eskasa, sobera arrunt denez izaitia... Bana zendako arrunt behar du izan, arrunt izan ene adinekokin ta gazteagokin ba? Euh ez ene adinekokin sendi arruntasun hori ta gazteagokin ba?

Zendako? Edo gutio aitzen niilakotz ene ingurian? Bestek e noka gutio ari ta eztapate ni re berdin? Hain seur ba mementoatez etzen anitz entzuten eh... Ba ba hausturat hor! Zeit nunbait hausturat hor!

Horrez gain, 1. adin tartekoek nokari esleitzen dizkioten balio sozioafektiboak aipatzekotan, ezinbestekoa zaigu lehenik euskararekin duten ze harreman ikusi dugun aipatzea, nahitaez elkarri lotuak direla uste baitugu. Izan ere, atal metodologikoan aurkeztu bezala, 1. adin tartekoak euskara debekatu zaien belaunaldikoak dira. Denek beren baitarik eskolan euskaraz mintzatzean “anti-basque” makilarekin zigortuak zireneko sistema kontatu digute, zenbaitek irakasleen zorrotasun gogorraren oroitzapenarekin gainera.

Bizkitartean, espero litzatekeen bezala debeku hori ukanarekiko pena edo samindura zerbait agertzeko partez, eskerduntasuna erakutsi dute, eskolari *esker*, gisa horretan, frantsesa ikasi ahal izan baitute. Frantsesez akatsak egiten zituzten idazlanen oroitzapenak irri ahalketu batekin kontatu dizkigute konparazione MAIR88 eta MAGA92k. Ezjakintasun ahalkegarri horren zuzentzeko manera zilegi daukate euskara debekatu izana. “Obliatiak ginen frantsesez arzea. Eskuaraz artzen baginen mmhh... bazen seorat! *On avait pas droit de parler en basque*. Uii ama! Ta behar e! Zertat juaiten zen eskolat? Etzen eskuaraan kasteko! Frantsesa kasteko juaiten ginen!” (AMLAH75 eta MAIR88). “Eskolat heldu ginelaik, eskualdunak baiginen gu! [irria]. Ez ginakin frantsesik, ta ordian ez ginin eskuaraz aizan behar, frantsesa kasteko! Normal zen eh!” (MAETX83 eta BEBI75). Horrenbestez, ez da zaila izan ulertzea belaunaldi horretan prestigioa duena frantsesa dela.

Preseski, guk batere xerkatu gabe, fenomeno soziolinguistiko esanguratsu baten berri eman digute adinetako lekuko guziek: emazteak frantseserat aiseago lerratzen direla. Emazte lekukoek berek asumitzen dute elkarren artean gehiago frantsesez ari direla gizonak eta gizonei baino. Lan honetan denak aipatzeko sobera diren hainbat adibide ukan ditugu horren lekuko, baina konparazione adierazgarria izan da nokariak atzimateko fasean, herriko “seniorren” aktibitate-clubetik nor ari litekeen xerkatzean, MAGA92 eta MAIR88k nehor ez zutela atzeman, kide guziak emazteak eta frantsesez mintzo direlakoan. BEBI75ek ere besteak beste bere baitarik joera hau berretsi digu: “Ba maztiak hasteko gehio, gizonak bano. Eskolan e nexkak elgarren artian beti frantsesez, ta mutikuak beti eskuaraz!”.

Hortaz, erdararanzko emazteengandiko joera 2. adin tartean ere islatzen dela ikusi dugu. Gisa berean, haurtzaroan edo gaztaroan neskek frantseserat pasatu zirela jakinarazi digute helduek, eta ez berriz mutikoak. Hala deskribatu digute batez ere JEGA62 eta MAIB68k: “Zernahi gisaz gu hasteko frantseseat pastiak gituk, gu eh, neskek eh, mementoatez... Ah ba ba ba, aise, ah ba ba aise, gu bano lehen! Bai. Ah *oui oui oui*, eskolan ba, *cour élémentaire* neskek frantsesez beti elgarren artian eh, ta gu ez!”. Fenomeno hau azaltzeko neskek prestigioa, modernitatea edota “fantasia” (MAIB68k erabili hitza) hautatu zutela diote: “Jendeen ta herritarren izpiitian neskek aantzian<sup>65</sup> tzien! Aantzian? Ba, aantzian. Hizkuntza nagusia ina zuten, berenganatia. Berenganatu lehenago ta... hara”. Funtsean, errealitate hori guhaurek parean ukan dugu, emazte lekukoek kode txandakatze handia eta frantsesezko hitz anitz baliatzen dituztela entzunik<sup>66</sup>; beste emazteekin ukaniko elkarrizketak sistematikoki diren bezala ekartzen entzun ditugu ere, erran nahi baita, frantsesez. Bide batez, 3. adin tartetik ELHE28k ere emazteek bereziki frantseseranzko jaidura luketela iradoki du.

Tratamendu eskalarat itzuliz, ikusi dugu adinetakoen artean prestigioa ez dela nehondik ere nokaren alde, alderantziz: atxikitzen dizkioten balio sozioafektiboek estigma sozial bat agerian uzten dute. Ikerketarako kolaboratzaileak atzemateko ortzaiztarrengana jotzean eta ikerketa-gaia aurkeztean, jadanik, salbuespenik gabe, denek deblauki ukan duten lehen erreakzioa arbuioarena izan da. “Noka” entzun orduko maite ez dutela jakinarazi dute denek sistematikoki. Elkarrizketetan agertu balio sozioafektiboak zentzu horretan doaz. Izan ere, noka “hotz”, “bortitz” eta “idor”-tzat daukate 1. adin tartekoek. Batek salbu, denek adierazi digute zuka nahiago dutela. Konparazione, MAGA92k aitortu digu, ahal balu, noka erauz lezakeela bere mintzotik eskusiboki zuka mintzatzeko: “uai berriz haste balitz, iduitzen zeta has nintaken zu-n erten.” Frantsesean *tu* izenordainak dakarren hurbiltasuna apreziatzen du; nokarena, berriz ez. Zuka amultsuago, “*plus affectueux*” atzematen dute AMLA88 eta MALAH70ek, eta errespetuaren seinale denek. Noka, aldiz, zakartzat dute (“*vulgaire*”, “*grossier*”), oroz gainetik emazte baten ahoan. Konparazione, AMLA88k kontatu digu neska bat mutiko batekin toka aritzen entzuteak harekin oheratu nahi zuela erran nahi zuela garai batez: “mutikokin ta artzia toka *c’était un peu vulgaire!* Ba... Uai e ertia aitamer.... Uai eztun problemaik, lehen eta

---

<sup>65</sup> *Aantzian* ‘abantzuan’.

<sup>66</sup> Dena den, 1. eta 2. adin tarte bakoitzetik lau emazte eta gizon bakarra ukanik, neke da horien ekoizpenetarik bakarrik horren baieztatzea. Gizon gehiagorekin lagina handitu beharko litzateke.

mutikoatekin ikusten balin bahin neskak eta toka ari *c'était... qu'elle avait couché avec quoi!*". BEBI75ren iduriko, "itsusia" da noka aritzea: "Itsusio da mazte bati no erte. Gizon bati to bano? Ba. Itsusio, eni hasteko itsusio zeta aise, no, to bano. No ezteta... etzeta pollita. Etzeta... Alta bon, eskuara da eh!". AMLAH75 noka gutiesten ez duen eta dakarren hurbiltasuna preziatzen duen salbuespen bakarra da. Bestenaz, gainerako adinetakoek nokari esleitu dioten eta negatiboa ez den balio sozioafektibo bakarra faktuala izan da: hurbiltasunaren eta familiartasunaren marka dela. Gainerako oro nokaren kontrakoak izan dira.

Balio negatibo horiek 2. adin tartekoei heltzen zaizkie; intuitiboki sentitzen dute nokak "arrunt aire" bat dukeela ingurukoendako, eta horiek ere halako sentimendu zerbait partekatzen dutela erakutsi dute. JEGA62 eta MAIB68k nokari nonbait menderatze edo mespretxu gehiago hautematen diote. Zukak, berriz, errespetu eta noblezia gehiago lekarke heldu guzieren arabera, eta "modernotasuna" ere baten iduriko. Hor ere, generoaren aldagaiak badu eragina beren pertzepzioetan. Alegia, helduen ikuspegitik, balio horiek bereziki ezkorrak dira emazteei zuzentzeko tratamendua izanki; nokak ez du tokaren efektu sinboliko bera sortzen. TEIN61en iduriko, konparazione, gizonak toka aditzea normalizat joko da, gizontasunari lotuko da; emazteak entzuteak noka, aldiz, "arrunt" aire inpresio bat sortuko du. JEGA62k ere sentsazioa du hitanoa emazte bati ez zaiola gizon bati bezala joanki, gizon bati toka hasiko baita fite, baina emazte bati ez. Gaiaz mintzatu ahala, inkontzienteki atxikitzen dituzten balio sozioafektibo horien negatibotasunaz harriturik bezala agertu zaizkigu helduak, nonbaitetik barneratuak dituztela oharturik, jakin gabe zergatik.

Halarik ere, atxikimendua ere adierazi dute nokarekiko. Izan ere, sortzen dituen hurbiltasuna eta intimotasuna gogoko dituzte. ANIN67ren iduriko, hurbiltasun hori ez da badaezpada afektiboa edo intelektuala; noka aritzeak solaskideen arteko "pundu amankomun" bat adierazten du, hau da, elkarri noka ari diren bi pertsonak "elkar ezagutzen dugu" adieraz liezaiokete elkarri, jatorri edo hein bereko izatearen aitortza gisa. MAIB68k, berriz, puntu amankomun hori afektiboa du, noka mintzo zaio bere biziaren parte bat partekatu duenari; hots, iragan komun baten seinale afektiboa litzateke noka aritzea. Gisa berean, berdintasunaren eta goxotasunaren ideiak asimilatzen dituzte nokari, estimatzen dute solaskideak hein berean eta gostuan ezartzeko lukeen boterea. JAIB66 eta MAIB68k, bereziki, afekzio handia diote tratamendu horri, eta paira lezakeen estigmaren kontra posizionatzen dira: "Errespetu aireat

badu halaike zu horrek. *Mais...* nik eztakit errespetia den, *ça m'emmerde* pentsatzia bestiak eztiila errespetuik. Ez! Hori da! *Mais* penaun! Ba. Hori erten balin bada zu errespetu gehio badela, erran nahi din to ta nok eztutela errespetu hori, eta ezta xuxen hori erraitia!". Biek garbiki adierazi dute izugarri maite dutela toka eta noka mintzatzea, lotu laguntasuna eta goxotasuna bihotzeko dituzte.

3. adin tartekoek nagusiki balio sozioafektibo baikorrak eta definituak esleitzen dizkiote nokari. Gisa berean, denek laket dute dakarren hurbiltasuna, eta are gehiago, "etxekotasun" eta intimotasuna. MARGA24 eta MAPE25ek toka baino are intimoago irudikatzen dute noka, ezberdintasun horren iturria deseraikiz hala ere: "edo guk dugu biziki intimoa bilakarazi ezpaitugu baliatzen?" (MAPE25). Dena den, hurbiltasun horretarik maitasunari lotzen ere dute: "Maitasun zerbait bada. Ene ustez eh! [...] Beharba nokarekin gehiago, eztira normahi emazte horiek, dira bere klasako neskak, badute zernahi orroitzapen Ortzaizen elgarrekin... eztira normahi!" (MARGA24). Zentzu berean, noka harreman pribilegiatuak markatzeko dohain gisa ikusten dute batzuek; erabilera zirkulua hertsia dela jakitun, noka ari zaiona berezia dela adierazten da horien arabera. Zukak ahalbidetzen ez dien funtzio afektiboa ikusten diote, hots. ELHE28k noka mintzatzea solaskidea "kontsideratzea"-rekin lotzen du, alegia, "mundu berekoak" direlako "gutartekotasun" erlatibo baten marka litzateke.

Horrez gain, ikuspegi euskaltzaletik ere aipatu dute euskara mailan mintzaira horri dagokion aditzen aberastasuna "ederra" dela, adiztegi zabal horrek galdegiten duen "gimnastika" mentala miresten du konparazione BIXI26k. Tokiko "berezitasuna" litzatekeelako atxikimendua diote, eta funtsean, gauza bera tokarekin. Etsenplutako, BIXI26k kontatu digu zaletasun eta lotura eskasez euskaraz arras guti ari den herriko lagun bati toka ari zaiola, gisa horretan euskarari lotuko litzatekeelakoan, hau da, toka baliatzen du euskararat erakartzeko. Ikuspegi feminista batetik, bestaldetik, MAPE25i nokak "ahizpatasuna" gogoratzen dio, eta are gehiago, MARGA24ren iduriko ere noka mintzatzen hastea emazte gisa "plaza hartzea", "afirmatzea" litzateke:

*Mais* enetako, noka bada plazatzearena emazte gisa talde batean, momentu batean... hara. Agertarazten zira [...] Enetako da zinez identifikatzea... afirmatzea... emazte gisa. [...] Zta ene ustez, mutikoak ari dira berriz toka hori hartzen horien gain, edo eztakit nola erran, *mais*, neskak, gu, ez gira ez toka ez noka ari. Da, ez bagina

ausartzen bezala, euh... Arrunt hori da enetako eh! Plazartzea ? *Ouais ouais!*  
Pentsaazten deta horri. Bai bai. *En second plan*. Mmmh. Eta hortako lotzen dut noka  
ari den emazte bat plaza hartzen din mazte bati. (MAPE25 eta MARGA24).

Alegia, noka aritzea botere hartze bat litzateke emazte gisa. Bestalde, tokatik nokarat gazteek proiektatzen dituzten balio sozioafektiboak ez dira aldatzen, hau da, generoaren aldagairik ez da, biak hein berean dauzkate. Batak nahiz besteak konfiantza maila bera adieraz lezake. Ezinbestean, nokak tokak baino efektu gehiago ere sor liezaieke bere arrarotasunagatik. Bestalde, XANIN35en noiztenkako hizkuntza-praktikek nokarekiko duen atxikimendua islatzen dute. Izan ere, alabei artetan kontzienteki zenbait hitz noka botatzen dizkie, atxikia baita tokiko euskararen ezaugarri horren berri ukan dezaten. Gisa berean, gertatzen zaio, hurbileko zenbait laguni, ELHE28ri batez ere, zenbait mezu noka idaztea, baina “irri egiteko”. Umorearen funtzio pragmatikoa hartzen du beraz. Ez dugu lekuko hori erabilerari doakion azpiatalean sartu ez eta nokarizat jo, berak erraten duenez ahoz ez baitzaio natural, bultaka hitz solte batzuk enplegatzea baizik ez baitu egiten. Bide batez, nokaren kontrako estigmaren arrasto bat ere agerrarazi du alabekin dituen hizkuntza-tratamenduak aipatzean: “politagoa atxemaiten dut, alta... erraitea ‘txauri’ ezin ez ta ‘haugi’. Alta... polita da ‘haugi’ atxikitzea, bainan... sarta baitzauku...”.

Bestalde, nokaren galera zelarik solas, lekukoen jarreran aldakortasuna ikusi dugu fenomenoaren aitzinean. Adinetakoek ez dute batere axolarik erakutsi, garbiki berdin zitzaiela jakinarazi dute. Noka galtzen balitz ze efektu egingen litzaikeen galdegitean, hona konparazione AMLA88 eta MAIR89ren erantzunak: “Ezteta efetuik iten bate. *Ni chaud ni froid. Tout à fait! Oui*.”. AMLAH75 eta MALAH70ek ere ez dute erreazio berezirik agerrarazi, denak zuka aditzea bitxi egingen liezaiekeela salbu. BEBI75k, haatik, indiferentziarekin onartzen du zukaren nagusitzea : “Pff eni etzeta inportaik, nik *zu* berdin pollitaut”. MAGA92 eta MAETX83k azpimarratu dute beren iduriko “eskuara”, “hemengo lenguaia” atxikitzea dela garrantzitsuena: “Bah ze nauzu itia? Boh... eskuara atxiitzen bada! Hua da printzipalena, eskuara! Eskuarak ezto galdu behar! To ta no bon...” (MAETX83).

Helduen artean, elkarrizketa garaian egoeraz kontzientzia hartze bat ikusi dugu, gaia mahaigaineratu aitzin sekula ez omen baitziren ohartuak hitanoaren eta bereziki nokaren higatzeari: “Uai ohartzen gira! Pentsaketak eginez, galtzen ai dela! Uai niz ohartzen galdu dela



eh arrunt, ta guk eztuula transmititu. Ez gira uai artio galdezkatu batere batere, deusek ez dauku hori, eztugu artikulu bat leitu hortaz, eztugu pff... galdu da nehork deuse erran gabe, isisila.” (ANIN67). Zehazkiago, gaiaz mintzatu ahala beren transmisio ezaz eta horrek nokaren galeran ukan dukeen rolaz kontzientzia hartze bat erakutsi dute, hots, jabetu dira transmisioa gakoa datekeela: “bana gu aizan gira beharba ama guri ai zelakoan. Ta guk eztugu hori gure haurrer... zuka, gure alaber. Ta hartako ere gure alabek beren... eztute kasi, noka.” (ANIN67). Hain xuxen, horrekiko hobenduntasan bat agerrarazi dute batez ere ANIN67, JAIB66 eta MAIB68k. Ikus bitez konparazione azken biek partekatu sentipenak:

Ta... bitxi dena, da, haurrer ez. Ze zozokeria in duuna, pfff. Ba, hutsin dinau hor!  
Arrunt! [...] Baztertu... eztugu biziara ez. Gure artian bakarrik, beti lehengo...  
[...] *Ouais*. Ta guhaurek eztugu erakutsi eh gure giilekor. Hori da. *On est cons* eh.  
Gu gitun hor euh... bainau gure ardura afera hortan!

Horien transmisio etenaren gibelean gorde litezkeen arrazoiak gogoetatzean, haurrak ikastolan eman izana eta ingurumena zuka izana bota dituzte zenbaitek hipotesi gisa. Azpimarratu dute ez dutela nahitarat uko egin, baizik eta naski ingurumenean galdu izanki mimetismoz eta inkontzienteki mugimendua segitu duketela, horri gehiturik haurrek ikastolan toka eta noka ez ikasteak ez duela lagundu: “Toh ingurian e arroteintz, ingurian nahi edo ez, ez baun aitzen, hi re gutio artzeintz!” (JEGA62). Izan ere, denek pena erakutsi dute nokaren higatzearekiko, “altxor” bat, erraiteko manera aberats eta berezi bat gal litekeelakoan. Hala ere, JEGA62 eta TEIN61ek ohartarazi dute urruntasun pixka batekin “halabeharra” dela, hizkuntzaren aldaketa saihetsezina dela, ezin direla denak salbatu. Gerora begira, TEIN61 baikor agertu da, berpiztuko delako esperantza badu; JEGA62 eta MAIB68k, aldiz, gero ilunagoa aurreikusten diote nokari, “hiltorian” ikusten dute. ANIN67, JAIB66 eta MAIB68 berpiztearen alde ekiteko nahia erakutsi dute: “Behar da modan ezarri! *Putain* behin berriz lantatu hori!” (JAIB66).

Azkenik, gazteek bazuten zer kontu nokaren higatzeari buruz, gogoeta interesgarririk atera baita horiekin ukaniko solasetarik. Izan ere, ELHE28k eta XANIN35ek diote ordura arte sekula ez zutela aipatu gaia gazteen artean, preseski, ez dela gai bat, jadanik aintzat hartua balitz bezala galtzen ari dela. Zenbaitek dolua erakutsi dute noka eta halaber toka ez jakinik. Izan ere, badute sentazioa “haustura bat” gertatu dela beren burasoen belaunaldian, erran nahi baita gure 2. adin tartekoen artean, kontziente baitira helduek ez dietela hitanoa transmititu, nahiz berek

beren artean mintzatu. Transmisio-eten hori beren ezjakintasunaren iturri bistakotzat dute, horiek jaso errepikatzen duten heinean, hau da, zuka. BIXI26 eta TXOXU24k ere ikastolak eta euskara batuaren hedatzeak toka eta nokaren galeran ukan lezaketen rola aipatu dute. Bada, hitanoaren galera hizkuntzaren aberastasunaren “galtze potolo” gisa ikusten dute gehienek, eta nahiz eta “min egiten” duen, egoera jadanik hartaratua dela onartu behar dela adierazi du batek. Bada, nokaren desagertze hurbilari ohartuak badira, horiek gazte gisa duten arduraz ere kontziente dira, gisa batez “azken katebegia” liratekeelako: “Enetako noka ari izan balitz noit, liteke gu! Eta ez gira ari! Ta gu ez bagira ari noka, nor da ari ? [...] Erran nahi dut gure adineko ikastolako haur neskak, ez bagira noka ari, nor da ari Ortzainen noka?” (MARGA24). Alegia, noka mintzatzen jakiteko baldintza “idealak” edo errazena betetzen dituzten gazteak ez badira noka ari, tratamendua desagertuko dela defendatu du lekukoak. Gazteen belaunaldian tokak eskusiboki mutikoen artean duen arnagune ttipiari dagokionez, MARGA24 eta MAPE25ek neska gisa horiei noka ez mintzatzearekin hein batean “jokoz kanpo” senti daitezkeela eta beraz tratamendu ezberdintasun horrek gazterian neska/mutiko banaketa bat marka dezakeela adituzeratik eman dute:

Ezta drama bat *mais*... hein batean ere, ezta hori hori bauzu mutiko talde bat aldeat elgarren artean toka ai dira, ta gero guri buruz *fin* gure aldera buruz itzultzen dira ta zuka, *bon* harremana urruntzen du! *Oui* urruntzen du, erran nahi du ezteirela... Mozketa iten du. Ez gira ber taldean *quoi* (MAPE25 eta MARGA24).

Hortaz, gazte gehienek noka berpizteko eta ikasteko nahikeria erakutsi digute, galdu aitzin ikasteko edo bederen zerbait egiteko premia delakoan. “Gogoeta kolektibo” bat eta elkar epaitu gabeko talde seguru bat muntatzen balitz, hasteko gutizia ukan lezaketela adierazi digute zenbaitek, norbaitek transmitituko eta irakatsiko liezaiekeen baldintzarekin. ELHE28 salbuespena litzateke; ez du badaezpada berpizteko edo ikasteko nahikeriarik sentitzen, nokarekin harreman afektibo eta pertsonal berezirik ez baitu, hots, arrotua baita: “Nik egia erraiteko erran dutana hastapenetik eniz bate zilegi sendi aritzeko, ezta, ezta zerbait ukan dutana ta transmititua izan dena beraz... eniz ikusten erraten ‘alarmagarria da behar dugu hasi toka noka mintzatzen’” (ELHE28). Are gehiago, kontatu digunaren arabera, haren iduriko, nokaren galera bera baino kezkarria dena higitze horrek azaleratzen duen arazo estrukturala da; izan ere, hitanotik urruntzeak euskal kulturatik oraindik gehiago urruntzen garela erakuts lezake, frantses kulturaren asimilazioaren seinale litzateke. Ildo beretik, XANIN35ek

lehentasuna euskarari berari ematen dio, jadanik hizkuntzaren salbatzearekin, normalizazioarekin eta “hiztun onak” osatzearekin aski borroka baita.

Dena den, lekuko guziek aho batez jakinarazi digute beren ustez gazteriak oro har, Ortzaize ingurukoak edo barnealdekoak segurik, hitanoarekiko sentsibilitatea duela eta berpizteko nahikeria bat ukan lezakeela. Gazte euskaldunen artean hitanoa baloratua delako sentsazioa dute. Horri buruz, adibide konkretu batekin ilustratu dute solasa bi bikotek, elkarrekin batere hitzartu gabe gainera: antzerkiarekin. Izan ere, azken urteetan ihauteri garaian azkarki indarrean eta diotenaren arabera “modan” diren libertimendu guzietan hitanoa anitz entzuten dela sentitzen dute; hain xuxen, antzerki-genero horri doazkion “zirtzilkeri”-ekin ezin hobeki ezkontzen denez, gazteria lotua litzaiokeela. Halaber, 2022an Ortzaizen preseski eman zen kabalkadan nokako parte anitz idatziak ziren. Hortaz, MAPE25ek dio antzerkian hitanoaren integratze hori gazteriak hitanoarekiko duen atxikimenduaren marka dela, baina ondoko gogoeta interesgarri hau gaineratu dio MARGA24k: “Eta *même* antzerkietan noka ari dena da etxeko amatxi xaharra, mintzo delaik euh... [...] Nik badut irudi hori... amatxi bat mintzo xuiketetaz<sup>67</sup> edo eztakit... *mais* zinez etxeko aferetaz. Mmh bai. Antzerkietan. Amatxi hori da ari noka.” Hau da, antzerkian noka ari diren pertsonaiak ez dira edozein. Iduri luke alde batetik nokari lotu balio sozioafektiboak antzerkian taularitzen liratekeela, kasu honetan etxekotasuna eta iragan garai bati lotzea bezala, baina aldi berean noka mintzo den pertsonaiaren hautua xede errealista batetik ere jiten dela. Hari beretik, MARGA24k hausnarketa urrunago ere eraman du ondorioztatuz azkenean atxikimenduak bultzatzeaz haratago, bizi errealean baliatzen ez den tratamendu bat antzerkian sartzeari “museo batean ezartzea bezala”, museifikatzea dela. Horrenbestez, gazteriak antzerkian noka sartzeko duen zainketa harekiko duen atxikimenduaz gain, haren higitzearen beste marka bat litzateke. Zernahi gisaz, entzunikoari jarraiki, oro har, 3. adin tarteko gazte guziek noka gogoko dute, eta gehienak galeraren kontra eta beraz berpiztearen alde lirateke.

#### 4.2.2. *Eztabaida*

---

<sup>67</sup> Xuriketa ‘gobada, lixiba’

Erranak erran, gure ikerketaren emaitzak eta teorian aipaturiko elementu esanguratsu zenbait alderatzea datorkigu. Izan ere, Alberdik aurkeztu “harremana nola hasi, hala segi” (1993 : 437) printzipioari hertsiki jarraiki zaizkio gure nokari ortzaiztarren praktikak. Harremanaren hastapeneko tratamenduak erabat baldintzatzen du bizi osorakoa; gainera, ohituraren pisutik askatzeko ezintasun hori nokaren berezitasuna dela ikusi dugu, helduak mutikoekin aise tokarat pasa daitezkeen ber. Alberdiren arabera (1993), euskaraz tratamenduak “ohiturazko izaera” du, eta agian saihetsetako erdaretan baino areago. Izaera horrek ere azal lezake, beraz, gure nokariak beren praktikak kontatzerakoan eta gogoetatzerakoan agertu duten urruneko ikuspegi baten hartzeko nekezia.

Bizkitartean, gure lekukoen praktikek hein batean talka egiten dute Alberdik ondorioztatu hitanoaren erabilera-zirkuluarekin. Hauxe ikusi zuen, hain xuxen: “kontutan hartzeko moduko gutxiengo batek (%11-17,6) bere herrira mugatzen du hitanoaren erabilera” (1994 : 989). Orduan, gure ikergaia nokarat mugatua izanik ere, gure Ortzaizeko nokariak gutxiengo horren parte lirateke, nehork — bi salbuespen berezik salbu<sup>68</sup>— ez baitu ibiltzen herriz kanpoko bati mintzatzeko. Alegia, Alberdiren emaitza kuantitatibo orokorrei jarraiki, Ortzaizeko nokaren erabilera-zirkulua biziki mugatua da. Halarik ere, ez dirudi guk jaso emaitzen arabera hark mendebaldeko behe-nafarrerako nokaz iragarri bezain mendratua denik. Atal teorikoan azaldu dugu Alberdiren arabera eremu geolinguistiko honetan nokak “batez ere familia barruan eta familiarik kanpoko emakumeen artean soilik irauten du[ela] bizirik; hortaz, gizonak ez dir[el]a aritzen noka emakume adiskideekin, ezta adiskide minak izanda ere” (1996 : 366). Izan ere, gure parte-hartzaile adinetakoen erabilera-irizpideak ez lirateke arras bat etorriko Alberdik ikusirikoarekin; ikusi dugu konparazione BEBI75 MAETX83ri noka ari zaiola (emazte zaharragoa izanik gainera), edota izaeratik ezberdintzen ziren bi adinetako gizon auzoetarik bat noka ari dela MAIR89 eta AMLA88ri. Hain xuxen, jaso ditugun emaitzei esker ikusi ahal izan dugun arrazoi ahaltzu batek ñabardura gehitzen duela: auzoaren aldagaiak.

Bada Alberdiren eta gure lekukoen diskurtsoen artean aipamena egitea merezi lukeen beste desberdintasun bat. Izan ere, Alberdik argudiatu du hitanoaren erabileran maila edo estatusa garrantzitsua izanik ere, ezin dela gauza bera erran klase sozialaz edo klase

---

<sup>68</sup> Salbuespen bereziak dira familia eta adinaren kontrapisuak baitituzte: lehen kasuan koinata da (TEIN62 eta ANIN67), eta bigarrena, gaztaroan ezagutu lagun hurbilak (JAIB66 eta MAIB68).

sozioekonomikoaz, “historikorikoki euskal gizartea ez [bait]da izan hierarkizalea eta egun, agian, are inoiz baino gutxiago” (1994 : 989). Alta, gure lagin murrizteko lekuko zenbaitek hierarkizaleago zitekeen garai batez klase sozialak hitanoaren erabilera eragina zukeelako sentazioa dute. Azkuek (1923) orduan jadanik lekukotu zuen hitanoak leku zenbaitetan ez zuela fama ona, baserriko edo “buhame” mintzaira gisa kontsideratua zela. Balio sozioafektibo hori buhameen erabilera errealean oinarritua denetz ezin jakin; dena den, solaskidea klase sozial apalagokoa izateak hitanoaren erabilera bultza lezakeelakoan, gure lekukoek berek ere buhameak izan dituzte aipu. Hala ere, bien arteko korrelazioa aski lauso gelditzen da, erabileraren pertzepzioa eta balio sozioafektiboa nahas litezkeelako, hau da, hitanoan klase sozialaren aldagaiak balio sozioafektiboa baldintza lezake, eta berdin alderantziz.

Bestalde, atal teorikoan aipatu Lafitteren (1977) ekarpenak itzal handia du gure emaitzetan. Gogora dezagun, altxatu zuen Heletako familia batean haurren jitea, “koska” ala “entterka” izatea, tratamendu bereizgoaren oinarrian zitekeela. Preseski, aldagai hori berrestera datoz gure lekukoek diskurtsoak; hiru adin tartetako lekukoek marrazten duten nokariaren —baita noka mintzo zaionaren—erretatua “koska”-rena da, hots, pertsona kanporakoi eta jendekinarena. Funtsean, Alberdik (1993 : 437) ere laburki aipatu zuen “jende serio samarrari hobeto doakio[la] zukako tratamendua, jende txistoso, xelebre eta barregarriari baino”.

Haatik, izaera psikologikoari Lafittek aipatzen ez duen aldagai bat gehitzen zaio gure lekuko helduen adin tartean: itxura fisikoarena. Alberdik (1993 : 438) bereizten beti erraza ez diruditen tasun horiei aipamena egin zien: “badirudi mutiko mozolo, azkar eta okerrari hobeto doakio hitanoa, mutil erkin eta ahulari baino, esan liteke azken honek ez duela ‘hitanoa soportatzeko adinako sendotasunik’”. Gisa berean, “solaskidearen tipologia, itxura” eta “janzkera” aipu ditu Alberdi-Zumetak Azpeitiako gazteen erabileraren baldintzak aztertzean (2019 : 138). Bizkitartean, gure helduek deskribatu digutenaz, nokaren erabilera baldintzatzen duen itxura fisikoa ez da edozein. Lekukoek enplegatu dituzten terminoak gogoan har bitez: “trapu aireat” duen eta “pixkat pottoloa” den neska bati errazkiago eginen litzaioke noka, “preziosa” eta “biziki pollita” den eta “beitarte extia” duen bati baino. Izan ere, ohar gaitezke nokaren erabilera bultzatzen duten ezaugarri fisiko horiek jendarteak espero lezakeen feminitatearekin talka egiten dutenak direla.

Hori dela eta, jitearen aldagaiak, psikologikoa ala fisikoa izan, hausnartzerat uzten du jatorrizko baldintza den ala higatzeak eragina den. Beste hitzetan, galdera hau sortzen da: izaeraren aldagai hori nokaren higatzearen faktore ala emaitza da? Bietarik izan liteke: adin tarte batetik besterik aldagaia zehazten eta zorrozten den ber, pentsa liteke hatsarrean nokaren higatzearen emaitza dela eta ondotik bere aldi noka higatzen duela, “gurpil zoro” baten gisan.

Halaber, aitzinetik adituek jasotakoak ikusirik eta gure emaitzak eskutan, aldagai baten indarra berresten da: generoarena. Beste lekuetan aitzin egin ikerketek frogatu bezalaxe, generoak erabat baldintzatzen ditu gure lekuko ortzaiztarren hizkuntza-praktikak, baita nokari atxikitzen dizkioten balio sozioafektiboak ere. Alberdik (1993) azpimarratu zuen adinarekin batean oinarritzko aldagaia dela generoa, eta zehazkiago, “sexu-berdintasuna” hitanoaren bultzatzaile zela, eta horrenbestez “sexu-desberdintasuna” oztopatzaile. Hau da, beti errazago gertatuko litzateke tratamendu simetria genero berekoen artean, genero desberdinekoen artean baino, eta gainera, genero berekoak izanik, gehiago egiten da hika gizonen artean, emazteen artean baino. Hortaz, ikusi dugu gure 1. adin tarteak betetzen duela banaketa hori; oro har, adinetakoen artean, toka gizonen artean ibiltzen da, eta noka emazteen artean. Haatik, hurrengo belaunaldian aldaketa gertatzen da; hain xuxen, emazteek bereizgo hori hausten dute, gizonari toka ari baitzaizkie. Beste zentzuan, bizkitartean, muga mantentzen da, gizonak zuka itzultzen baitiete. Helduek Alberdiren iragarpen hau berresten dute beraz: “Asimetria gertatuz gero, aiseago gertatzen da emakumearen alde (hots, emakumeak hika gizonari eta beronek zuka itzuli emakumeari)” (1993 : 436).

Hari berari jarraikiz, ikusi dugu Legorburuk (2018) Antzuolako mutiko gazteen artean hauteman zuen *hizkuntza-mudantza* gure Ortzaizeko mutiko gazteen mintzoan ere gertatzen dela, eta bereziki, Legorbururen arabera (2018) hango nesken artean halakorik gertatzen ez den bezala, ez bederen mutikoen kasuko manera hain sistematiko eta naturalean, Ortzaizeko neskek berek batere nokaranzko mudantzarik bizitzen ez dutela. Bi herriak errealitate soziolinguistiko arras ezberdinekoak izanik ere, halako batasun bat izateak baieztatzerat uzten du faktore paralinguistikoak, hots, sozialak direla mudantza komun horren iturrian. Legorbururen (2018 : 122) hipotesia beharbada baliagarri gerta lekiguke beraz Ortzaizeko mutiko gazteen tokarako mudantzaren ulertzeko: gizontasuneranzko bidean tokak beren genero-eraikuntzan parte hartzen lagun litzake. Xehetasun horiek ozen agerrarazi nahi dutena hau litzateke: ez datekeela

holakorik gertatzen neska gazteen artean. Hots, nokaren higatzea hainbatekoa da non ez bailuke tokak mutiko artean “anaitasuna” marka lezakeen gisan “ahizpatasun”-ik zigilatzeke aukerarik.

Bestalde, hurbilpen teorikoan aipatu dugu Hegoaldeko herrietan egin ikerketa kualitatiboek erakutsi dutela hitanoak fama txarra duela eta nokarekin oraindik onargaitzago diren balio sozioafektibo ezkorrak eransten zaizkiola (Alberdi 1993, Echeverria 2003, Beitia 2017, Legorburu 2018, Alberdi-Zumeta 2019, eta abar.). Hortaz, garbiki ikusi ahal izan dugu balio negatibo berak islatzen direla ortzaiztarren diskurtsoetan, hala nola “errespetu eskasa”, zarpailtasuna edota zakartasuna adieraz lezaketela. Alabaina, aitzin eginiko ikerketen aldean, gure lekukoek ez diete noka eta tokari badaezpada baserriartasunari lotu baliorik erantsi.

Atal teorikoan aipatu mugaz gaindiko zenbait ikerketaren arabera (Trudgillen 1972, Gal 1979, MacDonald 1989), emazteek gizonen baino errazago islatzen dituzte jendarrean diren balioak, hots, prestigioa duten aldaerak. Preseski, horren alde egiten du 1. eta 2. adin tartetan agertu zaigun fenomenoak: emazteek frantseseranzko joera handiagoa dutela gizonen baino. Halarik ere, komeni da Eckert-i (1996) jarraiki Altuna eta Hernandezek (2018) egiten duten gisan “prestigioaren” teoria hortaz haratago joatea emazteen estandareranzko joera honen ulertzeko. Izan ere, jarrera horren arrazoiaren muina, prestigioa baino, botere eza litzateke:

When social scientists say that women are more status conscious than men, and when sociolinguists pick up in explaining sex differences in speech, they are stumbling on the fact that, deprived of power, women must satisfy themselves with status. It would be more appropriate to say that women are more status bound than men (Eckert 1996: 126).

Izan ere, prestigioaren teoriak baino gehiago, boterearen banaketa desorekatuak, eta hain xuxen, emazteen botere ezak du azaltzen beren prestigioaren baitako kokapena. Kontuan hartuz gainera prestigioa “zerbait moldakorra, aldakorra eta dinamikoa” dela, “Euskal Herriko gune batetik bestera eta une historiko batetik bestera aldatu daitekeena” (Altuna & Hernandez 2018 : 130). Hortaz, Trudgillek aurreikusi gisan (1972), emazteek beren egoera soziala hobetu nahiz hizkuntzan eragin zuzena duten praktika batzuk gara ditzakete. Lakoffek ere botere eza defendatu zuen “emazteen hizkera”-ren erantzulezat: “the decisive factor is less purely gender than power in the real world” (2004 [1975] : 81). Beraz, gure Ortzaizeko emazte lekukoek

prestigioaren alde egiteko joeraren gibelean, izan dadin erdararen alde edo hizkuntzaren baitan berean nokaren kontra, prestigioerendako zaletasun anekdotiko bat baino gehiago, sakoneko arrazoa beren botere eza litzateke emazte gisa.

Azkenik, Legorburuk proposaturikoaren ildotik, gure lagin murriztean ere “paradigma berri” (2018 : 130) baten zantzuak ikus litezke, gazteek ez baitituzte belaunaldi zaharragoetako balio berak eransten nokari. Gogoan har dezagun, hurbilpen teorikoan, hitanoaren balioespenari dagokionez, gazteen artean diskurtso berri batzuek indarra hartu dutela deskribatzen duten ikerketa zenbaiten berri eman dugu, zeinen arabera hitanoa harrotasunezko bereizgarri (Beitia 2017, Ozaita 2014), “altxor” edota hizkera informalerako baliabide paregabe (Alberdi-Zumeta 2019) bailitzateke. Funtsean, nahiz ez naski gradu berean, Ortzazeko errealitate soziolinguistikoa arras bestelakoa izanik, antzeko joera berresten dute oro har gure 3. adin tarteko lekukoek. Izan ere, gehienek estimatzen eta arras ontsa baloratzen dute noka. Haatik, ez gintezke joan gorago aipatu ikerketek deskribatu bezala “prestigioa” aitortzen diotela errateraino, ez noka ez toka ez baitira aski mintzatuak halako balioespenik proiektatzeko, hau da, horien higatzea aitzinatuegia baita. Dena den, Ortzazeko, gazteak nokari balio ezkorrik esleitzen ez dion eta kasik eksklusiboki baloratzen duen lehen belaunaldia dira. Ildo beretik, Legorburuk (2018) deskribatu mugimendu feministaren nokaren bereganatzearen zantzu bat ikusi dugu batez ere MAPE25en diskurtsoan, nokaren berreskurapena neska gisa ahalduentzeko tresna gisa ikusten duela iradoki duen ber.

Laburbilduz, azterketa kualitatibo honetatik ondoriozta dezakegu, Ortzazeko nokaren erabilerak, ñabardurak ñabardura, oihartzun egiten duela Hego Euskal Herrian soziolinguistikoki aztertu herrietako nokaren kasuarekin. Higatze-maila ez dateke maila berean, baina erran daiteke erabilera baldintzatzen duten aldagai eta balio sozioafektibo anitzetan elkartzen direla; eta hein batean, Alberdik (1994) ohartarazten duen gisan, harrigarria da halako batasuna izatea, beste hainbat kasutan diglosiak dituen ondorio latzak ikusirik tratamenduen arlo honetan: “*euskal* usuarioak dira, hots, frantsesaren edo gaztelaniaren ikuspuntutik nekez esplikatu daitezkeenak” (1994 : 983).



## 5. ONDORIOAK

Gure lanaren helburu nagusia Ortzaizeko nokaren higatzea deskribatzea eta aztertzea izan da, 18 lekuko ortzaiztarrek osaturiko lagin bat abiapuntu izanik. Horretarako, alde batetik, bi adin tartetako hamar nokariren nokako adizki alokutiboak bildu, deskribatu, eta aldakortasuna ardatz, higatzearen aztarnatzat jo genitzakeen aldaerak aztertu ditugu. Bestetik, informatzaile guzien nokarekiko praktika eta diskurtsoen lekukotasunak bildu eta analizatu ditugu, betiere aldakortasunaren angelutik. Lortu ditugun emaitzen oparotasunak ondorio zenbait ateratzeko bide eman digu.

Igurikatu bezala, jaso nokako formetan aldakortasuna atzeman dugu adin tarte batetik besterat. Berriak izateko itxura duten joerak agertu zaizkigu 2. adin tartekoen mintzoan. Alokutiboari doazkion aipagarrienak oroitzekotan, gogoan ibil dezagun, batik bat, i) 2.p. ergatiboari dagokion *h-* morfemari *-i-* bokala eransteko berrikuntza fonetikoa, izan litekeena hasperenaren galerak egonkortua (*hiut* vs *hut* ‘haut’; *hietan* vs *hetan* ‘hidan’, eta abar); ii) ergatiboa 1.p.pl. delarik *-n* morfema alokutiboaren soiltzea (*dinau* vs *dinaun* ‘dinagu’; *badakinau* vs *badakinaun* ‘bazekinagu’, eta abar). Horrez gain, gure lekukoei esker osatu ditugun paradigmetan Artolaren (Irizar 1999) edota Zuazoren lanetan (2021) agertzen ez den fenomeno linguistikoa nahi izan dugu erakutsi, gaur egungo hizkeran produktiboa baita: adinetakoen hautazko datibo-komunztadura. Adibidez: *Kattini sagar bat eman dinat* (eta ez *Kattini sagar bat eman dakenat* ‘Joni sagar bat eman zionat’). Helduek, aldiz, komunztadura gehiago zaintzen dutela erakutsi dute.

Aldaera horiek nokaren higatzearekin zerikusirik ez duketenak dira, hau da, hizkuntzak berezkoa duten aldakortasunaren parte dira; ekintza baita hizkuntza, ez emaitza bukatua (Camino 2009 : 32). Bizkitartean, nokaren degradazio prozesu bezala identifikatu ditugun lekukotasunak ere ikusi ditugu gure lagin murritzean. Hain xuxen, azpiko zerrenda honetan ikus bitez nokaren higatzearen aztarna gisa identifikatu ditugun gertakariak:

### 1. Forma hibridoak

Alde batetik, zukaren eta nokaren arteko nahasketaren ondorioz eraikitako formak, *zu* izenordainari dagozkion *-zau-* eta *-z-* morfema gardenekilakoak, hala nola *zautenan* eta *zaunaten* ‘zinatean’ (zuka Ortzaizeko euskarari: *zauzuten*), eta *zinezazkenan* ‘hitzakean’.

Bestetik, Elustondo & Epeldek (2023) Gipuzkoan jasotako adizkien antzeko forma hibrido bat, tokako adizkiaren gainean eraikia: *detakenan* ‘didan (tokaren gainean noka)’.

## 2. Eztabadaren gainean eraiki adizkiak

Eztabadaren gainean eraikitako adizki andana bat bildu dugu; konparazione, *hituu* ‘haugu’ (<*zituu* ‘zaitugu’?) forma, non *zu* izenordainari dagokion *-it-* pluralgilea ikusiz zukako formatik analogiaz sortua bailitzateke, edo *hinetan* ‘hidan’ (<*zinetan* ‘zenidan’?), non ekialde zabaleko hizkeretako eztabadako *zu* eta *gu* pertsoneri dagokien *-in-* lehenaldiko morfema ikusiz, gisa berean, zukako formatik eratorria litzatekeen.

## 3. Nokako atzizki pleonastikoak

Helduen mintzoan arras emankor ikusi dugun joera da, hain xuxen, 2.p.sg.ren marka jadanik baduten adizkiei bukaeran nokako marka gehitzea, besteak beste bildu ondoko adizkiek erakusten duten gisan: *hintinan* ‘hinduen’, *hintuunan* ‘hindugun’, *hindutenan* ‘hinduten’, *heznanan* ‘hizkidan’, *haun* ‘hago’, *hezaken* ‘hezake’. Ondorioz, higitzearen aztarna gisa interpretatzen dugu: marka alokutiborik ez litzateke gehitu behar, 2.p. argumentala baita.

## 4. Alokutiboen saihesteko neutrorako joera

Adizki alokutiboen ordeztu eztabadakoak sartzeko joera adierazpen perpausetan, hots, debeku sintaktikorik ez den testuinguruan. Adibidez: *guk beti maitatu tinau eta hek ere gu maite gintuzten!*

## 5. Tokatik abiatu beharra

Elizitazio denboran bi adin tarteetako lekuko gizonengan ikusi dugun mekanismoa da, hain xuxen; nokakoen ordeztu tokako formak naturalki ateratzeko joera, edo kontzienteki ere, nokakoen ateratzeko tokako formetarik abiatzeko joera.

Izan liteke zenbait bilakabide, lehen biak batez ere (forma hibridoak eta eztabadaren gainean eraiki adizkiak), elizitazioaren ariketak dakarren presiopean ekoiztuak izana; ezin izan dugu segurtatu mintzo librean halako forma hibridoak atera litzaketenik, ez baita enplegaraziko zituzketen testuinguru komunikatiborik gertatu. Dena den, elizitazioan batere elkarrekin ez ziren lekuko ezberdinek erakutsi dituzten joera konbergenteak dira, eta gainera adierazgarriak, tokaren, eztabadaren eta zukaren nagusitasunaren aztarna esplizituak diren ber.

Era berean, hizkuntzaren barneko higatze horren jatorrian datekeen nokaren erabilera berean ere higadura atzeman dugu. Izan ere, egiaztatzeko maneran gaude Ortzaizeko nokari-sorta honen erabilera zirkulua izugarri hertsia dela. Hain xuxen, datuen arabera, haurtzaroa lekuko guzien noka mintzatzea errotik baldintzatzen duen aldagai erabakigarria da; beren praktikek “nola hasi, hala segi” printzipioari obeditzen dute, baldin eta hasiera hori denboran zehazki mugatzeko neke den haurtzaroan kokatua bada. Hots, haurtzaroak, iragan komun batek elkarri lotzen ditu Ortzaizeko nokariak. Adin batetik goiti ezagaturikoekin batere xantzarik ez da noka ari daitezen. Beste hitzetan, Ortzaizeko noka haurtzaroari arras mendeko agertu zaigu. Horregatik da hala adinetakoen nola helduen nokaren erabilera ortzaiztarrei mugatua, eta, era berean, hortik isurtzen da zenbait lekukok sendi duten herriaren dimentsioa. Gainera, hori nokaren ezaugarri eksklusiboa genuke, helduak herriz kanpokoei aise ari baitira toka.

Adin tarte batetik besterako erabilera zirkuluaren eboluzioari datxikola, mugimendu bikoitz eta paradoxal bat hauteman dugu. Alde batetik, ikusi dugu nokaren erabilera arautzen duten aldagaien pisua aldatzen dela adin tarte batetik besterat. i) 1. adin tartean, nagusietarikoa litzatekeen adinaren aldagaiari gainjartzen litzaioke auzo berekoa izatea; gure lekukoaren ingurumenaren arabera, ohikoa eta zilegia da emazte zaharrago bati noka mintzatzea, auzo berekoa deno. Halaber, familiaren aldagai handiari ere nagusi dakioke, zenbait auzo berekoak ez diren lehen kusiei zuka mintzo zaizkien ber. ii) 2. adin tartean, aldiz, auzoaren aldagaia ez da hainbeste indarrean; horren ordeztu adina eta hizkuntza-ideologia ikusi ditugu irizpide nagusi gisa. Hau da, helduen erranei jarraiki, herriko adin bereko “euskaldunekin” ari dira noka, hots, euskaraz ari direnekin, eta zehazkiago, euskararekiko atxikimendua dutenekin, halakorik ez dutenak frantsesez ari omen baitira. Heldu baita, horraino, 1. adin tartetik 2. adin tarterat erabilera auzotik herrirat pasatzen dela ikusiz, uler liteke, paradoxalki, erabilera zirkulua hertsitzeko partez, zabaltzen dela. Hortaz, hipotesizat har genezake hori herriaren erdalduntzeari lotua izan litekeela; frantsesak gaina hartzearekin, euskaraz ari direnak ez baitira gehiago baitezpada etxetik atera berehala elekatzen. Halako egoera diglosikoan espero da euskaldunak barreiatuak izatea; orduan, helduak noka aritzea eragiten duena hurbiltasun geografikoa eta egunerokoa ez baldin bada, identitateari edo euskaltzaletasunari lotu hurbiltasun kultural gisako bat izan liteke, gogoan hartuz gainera ideologia hori nekez garatua datekeela 1. adin tartean.

Bestaldetik, espero bezala, adin tarte batetik besterat erabilera zirkulua hertsitzen ere dela ezin uka, batetik jaso datuek erakusten baitute izaerari lotu irizpidea xorrosten dela. Adinetakoek noka aritzeko koska edo kanporakoia izatea irizpide bultzatzailea izan litekeela iradoki dute; helduek aldiz, argi eta garbi noka ari diren eta ari zaizkien pertsonen tipologia zehatz bat marraztu digute, itxura fisikoaren irizpidea gehituz, gainera. Baina, oroz gainetik, erabilera zirkuluaren hertsitzearen adierazle bistakoa da 2. adin tarteak markatzen duen erabateko transmisio-etena. Honi buruz, ikusi dugunaren arabera, hipotesizat har genezake eten horrek aldaketa sozialarekin lotura bat ukan lezakeela, atal teorikoan aipatu faktoreez gain (ik. [2.1.3](#)). Izan ere, nokaren erabilera, herria edo auzoari mugatua, garai bateko bizimolde landatar tradizional eta kolektibo bati lotua izan liteke: jendea toka eta noka ari zen auzoan, egitura sozial tradizional honen baitan. Orduan, gaur egungo aldaketa sozioekonomikoek itxuraldatuak jendartea arrunt bestelakoa dela jakinik, izan liteke bizimolde honen higatzearekin batean noka higatu izana. Alegia, helduek 3. adin tartekoei noka –eta agian toka– ez transmititzearen gibelean egon litekeen arrazoi bat, alaba- semeak gazteagoak direla (adinaren aldagaia) izatea baino, agian, mundu berekoak ez izatea izan liteke.

Bestalde, baieztatu dezakegu generoak funtsezko rola jokatzen duela lekuko hauen praktikan, eta zehazkiago, tokak beti arte baten abantzia duela nokarekiko. Denbora eta belaunaldiak joan ahala, toka eta nokaren arteko arroila sakonduz doala eta horrek nokaren higatzea bultzatzen duela ikusi dugu. Halaber, uste dugu ikusi dugun emazteen frantseseranzko joera nokaren higatzearen faktore potentzial bat izan daitekeela: lekukoek berek ulertarazi digutenez, erdaraz ari diren emazteei ez zaizkie noka ariko, baizik eta erdaraz.

Nokari atxiki balio sozioafektiboei dagokienez, paradigma aldaketa bat ikusi dugu hiru adin tarteetan zehar: nolabaiteko arbuiotik atxikimenduranzkoa. Zaharrenen diskurtsoek nokaren kontrako estigma sozial garbi bat agerrarazi dute. Izan ere, hitanoari esleituak zaizkien konnotazio txarrak are onargaitzagoak zaizkie emazte bati zuzendurik, zakartasuna egoki joanik bailitzateke maskulinitate hegemonikoarekin; ez, berriz, feminitate hegemonikoarekin. Helduen posizioa tartekoa litzateke; alde batetik, hizkuntza-sozializazioaren bidez, ondare hori elerik gabe heltzen zaiela erakutsi dute, beren ideologiek generoaren araberrako estigma horren aztarnak baitituzte, baina bestetik, gutiespen inkontziente horrez gain atxikimendua eta higatzearekiko dolua ere erakutsi dute. Gazteek, aldiz, nahiz noka ez mintzatu, adinetakoen

kontrako jarrera erakutsi dute, batere ez dute adierazi nokarekiko balio sozioafektibo ezkorrik; alderantziz, aitzineko belaunaldien generoaren arabera bereizgo hori deseraiki eta euskararen aberastasun gisa, neskak ahalduzko tresna gisa edota maitasuna adierazteko baliabide preziatu gisa dakusate. Hain xuxen, gehienek solasek erakutsi dutenaz, noka ikasteko eta berpizteko gogo zerbait egon liteke, nahiz eta horri tratamenduarekiko nolabaiteko arrotasun bat nahasia izan, eredu eskasagatik. Funtsean, noka ikuspegi soziolinguistikotik lantzeak bistarazi digu hizkuntza –eta kasu honetan tratamendua– jendartean indarrean diren botere-harremanen eszenatoki eta eragile dela.

Erranak erranik, ikerlan honen bidez egiazta dezakegu, lagin murriz honetatik segurik, Ortzaizen noka higitzen ari dela, hala hizkuntzaren barnetik nola kanpotik. Bilakabide horri kualitatiboki hurbilduz, azalpen bakar baten bidez ezin azal daitekeen fenomeno multifaktorial konplexua dela ulertu dugu. Bidenabar, emaitzek bestelako ikerketa osagarri batzuen mentura luzatzen dute. Izan ere, hizkuntzalaritzari doakion atalean (ik. [4.1.2](#)) ikusi dugu Ortzaizeko nokarien mintzoak gaiari ikuspegi sintaktikotik heltzeko mamia eskaintzen duela, galdera perpausetan forma alokutiboak sartzen entzun ditugun ber. Horrez gain, soziolinguistikari lotu atalean (ik. [4.2.1.2](#)), lekukoek mahaigaineratu antzerkiaren gaiak ere ikerketa osagarri baten bidea luza lezake; hitanoak gaur egungo herri-antzerkian zer leku eta funtzio betetzen duen aztertzea interesgarri litzateke, konparazioarekin. Dena den, ororen buru, higitzearen maila aitzinatua ikusirik, ikusi dugu nokaren erabilera aztertzea urgentziatzko zeregina zela, ezin baitaiteke aparantziarik ere berma hamarkada bat edo biren buruan hainbeste datu biltzen ahalko genituzkeenik.

## 6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alberdi, X. 1986. «Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II Markina aldeko kasua». *Anuario del Seminario del Filología Julio Urkixo*, 20, 419-486.
- \_\_\_ 1993. «Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak». *Fontes Linguae Vasconum*, 64, 425–442.
- \_\_\_ 1994. «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen». *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 39(3), 983-993.
- \_\_\_ 1996. *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- \_\_\_ 2018. «Forms of address in Basque». *Pragmatics*, 283, 303-332.
- Alberdi-Zumeta, L. 2019. «Eta hik ze uste dun/k? Azpeitiko gazteak hitanoaren inguruan hizketan: usteak, balioak eta diskurtsoak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 113(4), 129-154.
- Altuna, J. & Hernández, J-M. 2018. «%2,7a Euskara, generoaz mintzo? » *BAT. Soziolinguistika Aldizkaria* 103, 11–34.
- Artzelus, A. 2021. *Garaziko euskararen hizkuntza-aldakortasuna*, doktorego-tesia, UPV/EHU, Gasteiz.
- Aurrekoetxea, G. 1994. «Hitanoa ahozko hizkuntzan (Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera)». *Euskera ikerketa aldizkaria: Revista de Investigación de la Real Academia de la Lengua Vasca*, 39(3), 995–1007.
- Azkue, R-M. 1923–1925. *Morfología vasca [Gramática básica dialectal del Euskera]*. [1969, Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.]
- Azkue, X. 2000. *Hitanoa Zumaian*. Zumaia: Zumaiaiko Udala.
- Aztiker, 2021. «Amasa-Villabonan Hitanoaren Egoeraren Azterketa». Villabonako Udala, Villabona.
- Barquín, A. 2008. *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: EMAKUNDE.
- Basterretxea, G. 2021. «La comparación entre los pronombres de segunda persona del singular en el español peninsular y en el euskera: ¿Una misión imposible?». *Lingüística y Literatura*, 79, 216–236.
- Beitia, I. 2017. «Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balio eta jarrerak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 103, 139–166.

- Bereziartua, G. & Muguruza, B. 2021. «Basque informal talk increasingly restricted to men: The role of gender in the form of address *hika*». *Journal of Language and Linguistic Studies*.
- \_\_\_ 2024. «‘Are you man enough?’. Gender as an increasingly decisive factor in the choice of Basque personal pronouns». *Language and Communication*, 94. 28–40.
- Bonaparte, L-L. 1863. *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*, Londres. [Map].  
<[https://www.bilketa.eus/ark:/27020/B641026201\\_MC397?posInSet=8&queryId=e548b839-987d-430e-bde3-ba76be340090](https://www.bilketa.eus/ark:/27020/B641026201_MC397?posInSet=8&queryId=e548b839-987d-430e-bde3-ba76be340090)>
- \_\_\_ 1869. *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'Euskara...*, London. Online version: [https://www.ehu.es/seg/\\_media/egile/bonaparte/obra/n0885192\\_pdf\\_1\\_-1dm.pdf](https://www.ehu.es/seg/_media/egile/bonaparte/obra/n0885192_pdf_1_-1dm.pdf)
- Bottineau, D. & Roulland, D. 2007. «La grammaticalisation de l'adresse en basque : tutoiement et allocutivité». Louis Begioni; Claude Muller. *Problèmes de sémantique et de syntaxe. Hommage à André Rousseau*, Université Charles-de-Gaulle-Lille 3, 351–372, (Collection UL 3), 2-84467-094-6.
- Brown, R. & Gilman, A. 1960. «The Pronouns of Power and Solidarity». *Style in Language*, ed. by Thomas A. Sebeok, 253–276. Cambridge: MIT Press.
- Camino, I. 2004. «Nafarroa Behereko euskara». *Fontes Linguae Vasconum*, 97, 445–486.
- \_\_\_ 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- \_\_\_ 2016. *Amiküze eskualdeko heskuara*. Bilbo: Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua.
- Coyos, J-B. 2006. «Pronoms, indices verbaux de personne et prise en compte de l'allocutaire en basque». *La linguistique*, /1 (Vol. 42), 73-96. DOI : 10.3917/ling.421.0073.  
<https://www.cairn.info/revue-la-linguistique-2006-1-page-73.htm>
- de Rijk, R. P. G. 1991. «Familiarity or solidarity: The pronoun *hi* in Basque». *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 36(2), 373–378.
- Demirdache, H. & Uribe-Etxebarria, M. 2011. «Aditz laguntzaile modalak eta irakurketa epistemikoak euskaraz». J. Lakarra, J. Gorrotxategi, B. Urgell. *2nd Conference of the Luis Michelena Chair = Koldo Mitxelena Katedraren II biltzarra = II congreso de la Cátedra Luis Michelena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 453–483.

- Echeverria, B. 2001. «Privileging masculinity in the social construction of Basque identity». *Nations and Nationalism*, 7(3), 339–363.
- \_\_\_\_\_. 2003. «Language ideologies and practices in (en)gendering the Basque nation». *Language in Society*, 32, 383–413.
- \_\_\_\_\_. 2016. «Harlots and whores but not lovers. Dressing down the pronoun for a female addressee in a Basque Old Testament». In Julie Abbou eta Fabienne H. Baider (Arg.), *Gender, Language and the Periphery* (350–380). John Benjamins Publishing Company. doi: 10.1075/pbns.264.13ech
- Eckert, P. 1996. «The Whole Woman: Sex and Gender Differences in Variation» in d. Brenneis eta R. Macaulay, R. (arg.) *The Matrix of Language*. Colorado: Westview Press; 117–118.
- Elustondo, U. 2021. «Ordiziako Ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasleen hitano gaitasunaren azterketa; Zaldibiako nerabeen hiketa ikergai». Irakaskuntza Masterra: Hizkuntza eta literatura (IMHLM). UEU Goimailako Online Institutua.
- \_\_\_\_\_. & Epelde, I. 2023. *Xuka eta noka, Ipar eta Hego : emakumeekin solasean*. Eusko Jaurlaritza.
- Etxabe, K. & Garmendia, L. 2003. Zaldibiako euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizioak. Lasarte-Oria: Zaldibiako Udala.
- Etxebarria, M. 2000. *Principios y fundamentos de sociolingüística*. UPV/EHU. ISBN : 84-7585-838-4.
- Euskaltzaindia. 1997. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II* <[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_argitalpenak&Itemid=1217&view=katalogoa&lang=en&edukia=fitxa&argitalpena\\_id=529](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_argitalpenak&Itemid=1217&view=katalogoa&lang=en&edukia=fitxa&argitalpena_id=529)>
- Euskararen erakunde publikoa / Eusko Jaurlaritza / Nafarroako gobernua. 2021. « VII. Inkesta soziolinguistikoaren emaitzak Ipar Euskal Herrirako » . Sarean: <https://www.mintzaira.fr/eu/tresnak/berriak/actualite-en-basque/article/vii-inkesta-soziolinguistikoaren-emaitzak-ipar-euskal-herrirako.html>
- Fernandez, B., Ortiz de Urbina J. & Landa J. 2009. «Komunztadurarik gabeko datiboen gakoez». In Etxepare, Ricardo Gomez, and Joseba A. Lakarra (eds.), *Beñat Oyharçabali gorazarre. Supplements of the International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)*, XLII : 1-2. University of the Basque Country (UPV/EHU). 357–380.
- \_\_\_\_\_. 2009. «Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen



- ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat : Corsintax». *Lapurdum*, 13. 159–181.
- Gal, Susan 1979: *Language Shift: Social Determinants of Linguistic Change in Bilingual Austria*. New York: Academic Press.
- Irizar, P. 1991. *Morfología del verbo gipuzcoano*. Donostia: Euskaltzaindia.
- \_\_\_ 1999. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*, EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jauregi, O. eta Epelde, I. 2013. «Hasperenaren galera Iparraldeko euskaran». In R. Gomez, J.Gorrochategui, J. A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra* (245-262 or.). Gasteiz: UPV/EHU.
- Kasares, P. 2012. «Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik». *BAT Soziolinguista aldizkaria*, 1(82), 15–52.
- \_\_\_ 2014. *Euskaldun hazi Nafarroan : Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia. <[https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/77496.pdf](https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/77496.pdf)>
- Labov, W. 1972. *Sociolinguistic patterns*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- Lacombe, G. 1971-1972. «Notes sur le basque des Aldudes, noms de maisons, mots et récits populaires». [Jose Migel Barandiaran (arg.)] *Anuario de Eusko-Folklore*, 24, 25–44.
- Lafitte, P. 1977. «Koska eta entterka Heletan». *Euskera*, 22, 138–139.
Guk kantuak gogoz badazkgu.(o.pl.)

Guk eskuaraz baginakin. (o.sg.)  
Guk gauza guti ginakin. (o.sg.)  
Guk gauza anitz ginazkin. (o.pl.)  
Guk kantuak gogoz baginazkin. (o.pl.)

Hek eskuaraz badakite. (o.sg.)  
Hek gauza guti dakite. (o.sg.)  
Hek gauza anitz badazkite. (o.pl.)  
Hek kantuak gogoz badazkite.(o.pl.)

Hek eskuaraz bazakiten. (o.sg.)  
Hek gauza guti bazakiten. (o.sg.)  
Hek gauza anitz zazkiten. (o.pl.)  
Hek kantuak gogoz bazazkiten. (o.pl.)



## AGINTERA

### NOR

Zu geldirik egon zite.  
Zu isilik egon zite.  
Zu jar zite.

### NOR-NORK

Zuk ni etxerat ereman nezazu.  
Zuk ni ekar nezazu.  
Zuk ni lagun nezazu.

Zuk hura etxerat ereman zazu.  
Zuk hura ixkiria zazu.  
Zuk hura marka zazu.

Zuk gu etxerat ereman gitzazu.  
Zuk gu ekar gitzazu.  
Zuk gu lagun gitzazu.

Zuk hek etxerat ereman zkizu.  
Zuk hek ixkiria zkizu.  
Zuk hek marka zkizu.

### NOR-NORI-NORK (hura)

Zuk eni emetazu ogia.  
Zuk eni erretazu egia.  
Zuk eni karretazu gasna.

Zuk hari emakozu ogia.  
Zuk hari egia errakozu.  
Zuk hari karrakozu gasna.

Zuk guri ogia emaguzu.  
Zuk guri egia erraguzu.  
Zuk guri karraguzu gasna.

Zuk haier ogia emeezu (edo eman zeezu).  
Zuk haier erreezu (edo erran zeezu).  
Zuk haier karreezu gansa (edo gasna ekar zeezu).

### NOR-NORI-NORK (haiek)

Zuk eni emetzazu gakoak.  
Zuk eni karretazu arrultzeak.  
Zuk eni atorrak lisatzazu/lisazkidazu.

Zuk hari emazkozu gakoak.  
Zuk hari ekarrazkozu arrultzeak.  
Zuk hari atorrak lisazkozu.

Zuk guri emazkuzu gakoak.  
Zuk guri ekarrazkuzu arrultzeak.  
Zuk guri atorrak lisazkuzu.

Zuk haier emezteezu gakoak.  
Zuk haier ekarreeteezu arrultzeak.  
Zuk haier atorrak lisezteezu.

## BALDINTZA

### NOR (Irrealia)

Ni aberatsa (baldin) banintz, Ameriketarat joanen nintake.  
Ni gose (baldin) banintz, jaten hasiko nintake.  
Ni haundia (baldin) banintz, manekin izanen nintake.

Zu aberatsa (baldin) bazine, Ameriketarat joanen zintazke.  
Zu gose (baldin) bazine, jaten hasiko zintazke.  
Zu haundia (baldin) bazine, manekin izanen zintazke.

Peio aberatsa (baldin) balitz, Ameriketarat joanen litake.  
Peio gose (baldin) balitz, jaten hasiko litake.  
Peio haundia (baldin) balitz, manekin izanen litake.

Gu aberatsak (baldin) bagine, Ameriketarat joanen gintazke.  
Gu gose (baldin) bagine, jaten hasiko gintazke.  
Gu haundiak (baldin) bagine, manekin izanen gintazke.

Hek aberatsak (baldin) balire, Ameriketarat joanen litazke.  
Hek gose (baldin) balire, jaten hasiko litazke.  
Hek haundiak (baldin) balire, manekin izanen litazke.

## NOR (Errealia)

**Ni** aberatsa izan (baldin) banintz, Ameriketarat joanen nintzatekeen / nintzan.  
**Ni** gose izan (baldin) banintz, jaten hasiko nintzatekeen / nintzan.  
**Ni** haundia izan (baldin) banintz, manekin izanen nintzatekeen / nintzan.

**Zu** aberatsa izan (baldin) bazine, Ameriketarat joanen zinatekeen / zinen.  
**Zu** gose izan (baldin) bazine, jaten hasiko zinatekeen / zinen.  
**Zu** haundia izan (baldin) bazine, manekin zinatekeen / zinen.

**Peio** aberatsa izan (baldin) balitz, Ameriketarat joanen zitekeen / zen.  
**Peio** gose izan (baldin) balitz, jaten hasiko zitekeen / zen.  
**Peio** haundia izan (baldin) balitz, manekin izanen zitekeen / zen.

**Gu** aberatsak izan (baldin) bagine, Ameriketarat joanen ginatekeen / ginen.  
**Gu** gose izan (baldin) bagine, jaten hasiko ginatekeen / ginen.  
**Gu** haundiak izan (baldin) bagine, manekin izanen ginatekeen / ginen.

**Hek** aberatsak izan (baldin) balire, Ameriketarat joanen zitezkeen / ziren.  
**Hek** gose izan (baldin) balire, jaten hasiko zitezkeen / ziren.  
**Hek** haundiak izan (baldin) balire, manekin izanen zitezkeen / ziren.

## NOR-NORK (\*EZAN) hura

**Nik** posible banu, nahiko nuke ama lagundu.  
**Nik** denbora banu, beharko nuke etxea garbitu.  
**Nik** ahal banu, nahiago nuke ez jin.

**Zuk** posible bazinu, nahiko zinuke ama lagundu.  
**Zuk** denbora bazinu, beharko zinuke etxea garbitu.  
**Zuk** ahal bazinu, nahiago zinuke ez jin.

**Ximunek** posible balu, nahiko luke ama lagundu.  
**Ximunek** denbora balu, beharko luke etxea garbitu.  
**Ximunek** ahal balu, nahiago luke ez jin.

**Guk** posible baginu, nahiko ginuke ama lagundu.  
**Guk** denbora baginu, beharko ginuke etxea garbitu.  
**Guk** ahal baginu, nahiago ginuke ez jin.

**Hek** posible balute, nahiko lukete ama lagundu.  
**Hek** denbora balute, beharko lukete etxea garbitu.  
**Hek** ahal balute, nahiago luke ez jin.

## NOR-NORK (\*EZAN) haiek

**Nik** ondoan banitu, beharko nuzke lagundu.  
**Nik** tresnak banitu, beharko nuzke patatak xuritu.  
**Nik** soinean banitu, nahiago nuzke kendu.

**Zuk** ondoan bazintu, beharko zinuzke lagundu.  
**Zuk** tresnak bazintu, beharko zinuzke patatak xuritu.  
**Zuk** soinean banitu, nahiago zinuzke ez kendu.

**Ximunek** ondoan balitu, beharko luzke lagundu.  
**Ximunek** tresnak balitu, beharko luzke patatak xuritu.  
**Ximunek** soinean balitu, nahiago luzke kendu.

**Guk** ondoan bagintu, beharko ginuzke lagundu.  
**Guk** tresnak bagintu, beharko ginuzke patatak xuritu.  
**Guk** soinean bagintu, nahiago ginuzke kendu.

**Hek** ondoan baluzte, beharko luzkete ama lagundu.  
**Hek** tresnak baluzte, beharko luzkete patatak xuritu.  
**Hek** soinean baluzte, nahiago luzkete kendu.

## AHALERA (ORAINALDIA)

### NOR (\*EDIN)

**Ni** ostegunean jin nintake, beharrez.  
**Ni** ministro bilaka nintake.  
**Ni** espainolez mintza nintake.

**Zu** berehala jin zintazke ?  
**Zu** ministro bilaka zintazke.  
**Zu** espainolez mintza zintazke.

**Peio** berehala jin ditake.  
**Peio** ministro bilaka ditake.  
**Peio** espainolez mintza ditake.

**Gu** berehala jin gintazke.  
**Gu** ministro bilaka gintazke.  
**Gu** espainolez mintza gintazke.

**Hek** berehala jin ditazke.  
**Hek** ministro bilaka ditazke.  
**Hek** espainolez mintza ditazke.

## NOR-NORK (\*EZAN) hura

**Nik** hori baizik ez dezaket ein.  
**Nik** kozinatu baizik ez dezaket ein.  
**Nik** ogia baizik ez dezaket ekar.

**Zuk** hori baizik ez dezakezu ein.  
**Zuk** kozinatu baizik ez dezakezu ein.  
**Zuk** ogia baizik ez dezakezu ekar.

**Ximunek** hori baizik ez dezake ein.  
**Ximunek** kozinatu baizik ez dezake ein.  
**Ximunek** ogia baizik ez dezake ekar.

**Guk** hori baizik ez dezakegu ein.  
**Guk** kozinatu baizik ez dezakegu ein.  
**Guk** ogia baizik ez dezakegu ekar.

**Hek** hori baizik ez dezakete ein.  
**Hek** kozinatu baizik ez dezakegu ein.  
**Hek** ogia baizik ez dezakegu ekar.

## NOR-NORK (\*EZAN) haiek

**Nik** arrultzeak baizik ez dezaket ekar.  
**Nik** horiek baizik ez dezaket ein.  
**Nik** bi lerro baizik ez dezaket ixkiria.

**Zuk** arrultzeak baizik ez dezazkezu ekar.  
**Zuk** horiek baizik ez dezazkezu ein.  
**Zuk** bi lerro baizik ez dezazkezu ixkiria.

**Ximunek** arrultzeak baizik ez dezazke ekar.  
**Ximunek** horiek baizik ez dezazke ein.  
**Ximunek** bi lerro baizik ez dezazke ixkiria.

**Guk** arrultzeak baizik ez dezazkegu ekar.  
**Guk** horiek baizik ez dezazkegu ein.  
**Guk** bi lerro baizik ez dezazkegu ixkiria.

**Hek** arrultzeak baizik ez dezazkete ekar.  
**Hek** horiek baizik ez dezazkete ein.  
**Hek** bi lerro baizik ez dezazkete ixkiria.

## AHALERA (HIPOTETIKOA)

### NOR (\*EDIN)

**Ni** ortziraletan jin nintake, beharrez.  
**Ni** ministro bilaka nintake.  
**Ni** jin nintake ziin xerka.

**Zu** ortziraletan jin zintazke ?  
**Zu** ministro bilaka zintazke.  
**Zu** joan zintazke haurren xerka.

**Peio** ortziraletan jin litake.  
**Peio** ministro bilaka litake.  
**Peio** jin litake ziin xerka.

**Gu** ortziraletan jin gintazke.  
**Gu** ministro bilaka gintazke.  
**Gu** jin gintazke ziin xerka.

**Hek** ortziraletan jin litazke.  
**Hek** ministro bilaka litazke.  
**Hek** jin litazke ziin xerka.

### NOR-NORK (\*EZAN) hura

**Nik** bixkotx bat ein nezake.  
**Nik** suia pitz nezake.  
**Nik** kozina nezake.

**Zuk** bixkotx bat ein zinezake.  
**Zuk** nola ein zinezake ?  
**Zuk** kozina zinezake.

**Ximunek** bixkotx bat ein lezake.  
**Ximunek** nola ein lezake ?  
**Ximunek** kozina lezake.

**Guk** bixkotx bat ein ginezake.  
**Guk** nola ein ginezake ?  
**Guk** kozina ginezake.

**Hek** bixkotx bat ein lezakete.  
**Hek** nola ein lezakete ?  
**Hek** kozina lezakete.

## NOR-NORK (\*EZAN) haiek

**Nik** arrultzeak ekar nezazke.

**Nik** haurrak ereman nezazke.

**Nik** auzoak dei nezazke.

**Zuk** arrultzeak ekar zinezazke.

**Zuk** haurrak ereman zinezazke.

**Zuk** auzoak dei zinezazke.

**Peiok** arrultzeak ekar lezazke.

**Peiok** haurrak ereman lezazke.

**Peiok** auzoak dei lezazke.

**Guk** arrultzeak ekar ginezazke.

**Guk** haurrak ereman ginezazke.

**Guk** auzoak dei ginezazke.

**Hek** arrultzeak ekar lezazkete.

**Hek** haurrak ereman lezazkete.

**Hek** auzoak dei lezazkete.

## NOR-NORK (\*EZAN) hura

**Nik** noiznahi jan nezakeen / -ten ahal niin.

**Nik** suia pitz nezakeen / -ten ahal niin.

**Nik** kozina nezakeen / -tzen ahal niin.

**Zuk** noiznahi jan zinezakeen / -ten ahal ziniin.

**Zuk** suia pitz zinezakeen / -ten ahal ziniin.

**Zuk** kozina zinezakeen / -tzen ahal ziniin.

**Peiok** noiznahi jan zezakeen / -ten ahal ziin.

**Peiok** suia pitz zezakeen / -ten ahal ziin.

**Peiok** kozina zezakeen / -tzen ahal ziin.

**Guk** noiznahi jan ginezakeen / -ten ahal giniin.

**Guk** suia pitz ginezakeen / -ten ahal giniin.

**Guk** kozina ginezakeen / -tzen ahal giniin.

**Hek** noiznahi jan zezaketen / -ten ahal zuten.

**Hek** suia pitz zezaketen / -ten ahal zuten.

**Hek** kozina zezaketen / -tzen ahal zuten.

## AHALERA (IRAGANALDIA)

### NOR (\*EDIN)

**Ni** ortziraletan jin nintakeen / -ten ahal nintzan.

**Ni** ministro bilaka nintakeen / -tzen ahal nintzan.

**Ni** jin nintake ziin ikusterat / -ten ahal nintzan

**Zu** ortziraletan jin zintazkeen / -ten ahal zinen.

**Zu** ministro bilaka zintazkeen / -tzen ahal zinen.

**Zu** joan zintazke haurren ikusterat / -ten ahal zinen.

**Peio** ortziraletan jin zitakeen / -ten ahal zen.

**Peio** ministro bilaka litake / -tzen ahal zen.

**Peio** jin litake ziin ikusterat / -ten ahal zen.

**Gu** ortziraletan jin gintazkeen / -ten ahal ginen.

**Gu** ministro bilaka gintazkeen / -tzen ahal ginen.

**Gu** jin gintazkeen ziin ikusterat / -ten ahal ginen.

**Hek** ortziraletan jin zitazkeen / -ten ahal ziren.

**Hek** ministro bilaka zitazkeen / -tzen ahal ziren.

**Hek** jin zitazkeen ziin ikusterat / -ten ahal ziren.

### NOR-NORK (\*EZAN) haiek

**Nik** sagarrak noiznahi jan nezakeen / -ten ahal nintiin.

**Nik** haurrak noranahi ereman nezakeen / -ten ahal nintiin.

**Nik** auzoak noiznahi dei nezakeen / -tzen ahal nintiin.

**Zuk** sagarrak noiznahi jan zinezakeen / -ten ahal zintiin.

**Zuk** haurrak noranahi ereman zinezakeen / -ten ahal zintiin.

**Zuk** auzoak noiznahi dei zinezakeen / -tzen ahal zintiin.

**Peiok** sagarrak noiznahi jan zezakeen / -ten ahal zitiin.

**Peiok** haurrak noranahi ereman zezakeen / -ten ahal zitiin.

**Peiok** auzoak noiznahi dei zezakeen / -tzen ahal zitiin.

**Guk** sagarrak noiznahi jan ginezakeen / -ten ahal gintiin.

**Guk** haurrak noranahi ereman ginezakeen / -ten ahal gintiin.

**Guk** auzoak noiznahi dei ginezakeen / -tzen ahal gintiin.

**Hek** sagarrak noiznahi jan zezaketen / -ten ahal zituzten.

**Hek** haurrak noranahi ereman zezaketen / -ten ahal zituzten.

**Hek** auzoak noiznahi dei zezaketen / -ten ahal zituzten.

## MODALITATE ESPISTEMIKOA (ORAINALDIA)

### NOR (\*EDIN)

**Ni** tronpatu ni(n)take.  
**Ni** berantegi arribatu ni(n)take.  
**Ni** gazteegi ni(n)take sartzeko.

**Zu** tronpatu zi(n)tazke.  
**Zu** berantegi arribatu zi(n)tazke.  
**Zu** gazteegi zi(n)tazke sartzeko.

**Joana** tronpatu ditake.  
**Joana** berantegi arribatu ditake.  
**Joana** gazteegi ditake sartzeko.

**Gu** tronpatu gi(n)tazke.  
**Gu** berantegi arribatu gi(n)tazke.  
**Gu** gazteegi gi(n)tazke sartzeko.

**Hek** tronpatu ditazke.  
**Hek** berantegi arribatu ditazke.  
**Hek** gazteegi ditazke sartzeko.

### NOR-NORK (\*EZAN) hura

**Nik** zerbait makur egin duket.  
**Nik** gaizki esplikatu duket.  
**Nik** moltsa etxen ahantzi duket.

**Zuk** zerbait makur egin dukezu.  
**Zuk** gaizki esplikatu dukezu.  
**Zuk** moltsa etxen ahantzi dukezu.

**Joanak** zerbait makur egin duke.  
**Joanak** gaizki esplikatu duke.  
**Joanak** moltsa etxen ahantzi duke.

**Guk** zerbait makur egin dukegu.  
**Guk** gaizki esplikatu dukegu.  
**Guk** moltsa etxen ahantzi dukegu.

**Hek** zerbait makur egin dukete.  
**Hek** gaizki esplikatu dukete.  
**Hek** moltsa etxen ahantzi dukete.

### NOR-NORK (\*EZAN) haiek

**Nik** gauzak makur egin duzket.  
**Nik** gauzak gaizki esplikatu duzket.  
**Nik** lunetak etxen ahantzi duzket.

**Zuk** gauzak makur egin duzkezu.  
**Zuk** gauzak gaizki esplikatu duzkezu.  
**Zuk** lunetak etxen ahantzi duzkezu.

**Joanak** gauzak makur egin duzke.  
**Joanak** gauzak gaizki esplikatu duzke.  
**Joanak** lunetak etxen ahantzi duzke.

**Guk** gauzak makur egin duzkegu.  
**Guk** gauzak gaizki esplikatu duzkegu.  
**Guk** lunetak etxen ahantzi duzkegu.

**Hek** gauzak makur egin duzkete.  
**Hek** gauzak gaizki esplikatu duzkete.  
**Hek** lunetak etxen ahantzi duzkete.

## MODALITATE EPISTEMIKOA (IRAGANALDIA)

### NOR (\*EDIN)

Ni tronpatu nintakeen.  
Ni berantegi arribatu nintakeen.  
Ni gazteegi nintakeen sartzeko.

Zu tronpatu zintazkeen.  
Zu berantegi arribatu zintazkeen.  
Zu gazteegi zintazkeen sartzeko.

Joana tronpatu zitakeen.  
Joana berantegi arribatu zitakeen.  
Joana gazteegi zitakeen sartzeko.

Gu tronpatu gintazkeen.  
Gu berantegi arribatu gintazkeen.  
Gu gazteegi gintazkeen sartzeko.

Hek tronpatu zitazkeen.  
Hek berantegi arribatu zitazkeen.  
Hek gazteegi zitazkeen sartzeko.

### NOR-NORK (\*EZAN) hura

Nik zerbait makur egin nukeen.  
Nik gaizki esplikatu nukeen.  
Nik ordian haurra ttipia nukeen.

Zuk zerbait makur egin zinukeen.  
Zuk gaizki esplikatu zinukeen.  
Zuk ordian haurra ttipia zinukeen.

Joanak zerbait makur egin zukeen.  
Joanak gaizki esplikatu zukeen.  
Joanak ordian haurra ttipia zukeen.

Guk zerbait makur egin ginukeen.  
Guk gaizki esplikatu ginukeen.  
Guk ordian haurra ttipia ginukeen.

Hek zerbait makur egin zuketzen.  
Hek gaizki esplikatu zuketzen.  
Hek moltsa etxen ahantzi zuketzen.

### NOR-NORK (\*EZAN) haiek

Nik gauzak makur egin nuzkeen.  
Nik gauzak gaizki esplikatu nuzkeen.  
Nik ordian hogoi urte banuzkeen.

Zuk gauzak makur egin zinuzkeen.  
Zuk gauzak gaizki esplikatu zinuzkeen.  
Zuk ordian hogoi urte bazinuzkeen.

Joanak gauzak makur egin zuzkeen.  
Joanak gauzak gaizki esplikatu zuzkeen.  
Joanak ordian hogoi urte bazuzkeen.

Guk gauzak makur egin ginuzkeen.  
Guk gauzak gaizki esplikatu ginuzkeen.  
Guk ordian hogoi urte baginuzkeen.

Hek gauzak makur egin zuzketen.  
Hek gauzak gaizki esplikatu zuzketen.  
Hek ordian hogoi urte bazuzketen.

### 7.3. Galdetegi glotobiografikoak

1. BERTSIOA : 1. ETA 2. ADIN TARTEETAKO NOKARIEI ZUZENDUA

#### GALDERA BIOGRAFIKO OROKORRAK

1. Laburzki esplikatu zenezake nolakoa izan zen zure haur denbora?

- Noiz eta non sortu zinen? Ze etxetan?
- Zenbat haurride zineten?
- Orduko ze oroitzapen duzu?

2. Ikasketa ibilbidea:

- Non ibili zinen eskolan?
- Zenbat denbora?
- Zein hizkuntza mintzo zenuten eskolan?
  - Irakasleekin
  - Ikaskideekin
- Eskolan hika mintzo zineten? Norekin?

3. Etxean euskaraz ari zineten?

4. Eta Ortzaizen oro har?

5. Hika etxean:

- Zure aitamak beren artean hika mintzo dira/ziren?
- Aita hika mintzo zaizu/zitzaizun? Eta Ama?
- Eta zure haurrideei nola?
- Eta zu aitamei eta haurrideei nola?

#### BIOGRAFIA LINGUISTIKOARI LOTURIKO GALDERA ESPEZIFIKOAK

6. Hastapenak noka:

- Non ikasi zenuen toka/noka mintzatzen? Norekin?
- Noiz hasi zinen toka/noka mintzatzen?
- Zu norekin ari zinen toka/noka etxean?

7. Toka/noka Ortzaizen haur denboran:

- Zure haur denboran Ortzaizen jendea gaur egun baino gehiago mintzo zen toka/noka?
- Nor ari zen toka/noka herrian?
- Noiz eta non baliatzen zen? Testuingurua.
- Emazteak gizonak bezainbat ari ziren toka/noka?
- Nola ikusia zen toka/noka aritzea?

8. Nokaren erabilpena gaur egun:

- Zu gaur egun norekin ari zira noka?
- Zeren arabera ari zira noka edo zuka? Ze egoera/situazionetan?
- Noka toka bezainbat baliatzen duzu? Zergatik?
- Seme-alabei transmititu diezu noka? Eta toka?
- Seme-alabak nola ari zaizkizu beren artean?

9. Hizkuntza-mudantza:

- Gertatu izan zaizu zure inguruan norbaitekin harremana zuka hastea eta momentu baten buruan toka/nokara pasatzea? Hala bada, zergatik?
- 16. Eta alderantziz, gazte denboran norbaitekin toka/noka ari zinen norbaitekin handitzean zukara pasatzea?

10. Erran zenezake momentu batean noka baztertu duzula?

### **GALDERA METALINGUISTIKO OROKORRAK**

11. Noka vs zuka:

- Ze ezberdintasun sentitzen duzu noka eta eztabada/zukaren artean?
- Zer ematen dizu nokak, zukak ematen ez dizuna?

12. Noka vs toka:

- Zeri lotzen duzu toka? Eta noka?
- Berdin ikusten duzu gizonak toka mintzatzea eta emazteak noka?
- Eta gizonei toka mintzatzea eta emazteei noka?

13. Hika Ortzainen gaur egun:

- Uste duzu hikak presentzia handia duela Ortzainen?
- Nor ari da hika oro har? (adina, sexua, euskaldun/erdaldun...)
- Gizon eta emazteek berdin-berdin baliatzen dute zure ustez?
- Zure ustez jendeak ze iritzi du nokaz? eta tokaz?

14. Nokaren egoera Ortzainen gaur egun:

- Gaur egun nor uste duzu mintzo dela noka Ortzainen? Norekin?
- Noka osagarri onean dela erran zenezake?
- Ze pentsatzen duzu hortaz?
- Zure ustez zergatik gaur egun gehien bat mutikoei toka mintzo zaie baina neskei zuka?
- Zer suposatuko luke zuretako noka galtzeak? eta toka galtzeak?

15. Beste oharririk?



## 2. BERTSIOA : 3. ADIN TARTEKO NESKEI ZUZENDUA

### GALDERA BIOGRAFIKO OROKORRAK

1. Laburzki esplikatu zenezake nolakoa izan zen zure haur denbora?

- Noiz eta non sortu zinen? Ze etxetako zira?
- Zenbat haurride zineten?
- Orduko ze oroitzen duzu?

2. Ikasketa ibilbidea:

- Non ibili zinen eskolan/ikastolan?
- Ze ikasketa egin duzu?
- Zenbat denbora?
- Zein hizkuntza mintzo zenuten eskolan/ikastolan?
  - Irakasleekin
  - Ikaskideekin
- Eskolan/ikastolan hika mintzo zineten? Norekin?

3. Etxean euskaraz ari zineten?

4. Eta Ortzaizen oro har?

5. Hika etxean:

- Zure aitamak beren artean hika mintzo dira?
- Aita noka mintzo zaizu? eta Ama?
- Eta zure haurrideei nola?
- Eta zu zure haurrideei nola?

### BIOGRAFIA LINGUISTIKOARI LOTURIKO GALDERA ESPEZIFIKOAK

6. Tratamendu-erabilerak gaur egun:

- Nola ari zira gehien? Toka, noka ala zuka?
- Norekin ari zira zuka?
- Jadanik aritu izan zira noka? Badakizu aritzen?
- Noka jadanik aritu izan bazira, norekin eta ze kontestutan aritu zira?
- Nor entzuten duzu zure inguruan noka?
- Eta toka?

### GALDERA METALINGUISTIKO OROKORRAK

9. Toka/noka vs zuka:

- Ze ezberdintasun sentitzen duzu toka/noka eta eztabada/zukaren artean?

- Zer eman lezake nokak, zukak ematen ez duena?

10. Noka vs toka:

- Zeri lotzen duzu noka? Eta toka?
- Berdin ikusten duzu gizonak toka mintzatzea eta emazteak noka?
- Eta gizonen toka mintzatzea eta emazteen noka?

11. Hika Ortzaizen gaur egun:

- Uste duzu hikak presentzia handia duela Ortzaizen?
- Nor ari da hika oro har? (adina, sexua, euskaldun/erdaldun...)
- Gizon eta emazteek berdin-berdin baliatzen dute zure ustez?
- Zure ustez jendeak ze iritzi du nokaz? eta tokaz?

12. Nokaren egoera Ortzaizen gaur egun:

- Gaur egun nor uste duzu mintzo dela noka Ortzaizen? Norekin?
- Noka osagarri onean dela erran zenezake?
- Ze pentsatzen duzu hortaz?
- Zure ustez zergatik gaur egun gehien bat mutikoei toka mintzo zaie baina neskei zuka?
- Zer suposatuko luke zuretako noka galtzeak? eta toka galtzeak?

## **GALDERA METALINGUISTIKO ESPEZIFIKOAK**

13. Zer sentiarazten dizu zure inguruko mutikoak beren artean toka aritzea eta zuri zuka?

14. Jakin nahiko zenuke noka aritzen? Zergatik? Zer ekarriko lizuke?

15. Aritzekotan, norekin arituko zinateke?

16. Beste oharririk?

### 3. BERTSIOA : 3. ADIN TARTEKO MUTIKOEI ZUZENDUA

#### GALDERA BIOGRAFIKO OROKORRAK

1. Laburzki esplikatu zenezake nolakoa izan zen zure haur denbora?

- Noiz eta non sortu zinen? Ze etxetako zira?
- Zenbat haurride zineten?
- Orduko ze oroitzen duzu?

2. Ikasketa ibilbidea:

- Non ibili zinen eskolan/ikastolan?
- Ze ikasketa egin duzu?
- Zenbat denbora?
- Zein hizkuntza mintzo zenuen eskolan/ikastolan?
  - Irakasleekin
  - Ikaskideekin
- Eskolan/ikastolan hika mintzo zineten? Norekin?

3. Etxean euskaraz ari zineten?

4. Eta Ortzaizen oro har?

5. Hika etxean:

- Zure aitamak beren artean hika mintzo dira?
- Aita toka mintzo zaizu? eta Ama?
- Eta zure haurrideei nola?
- Eta zu aitamei eta haurrideei nola?

#### BIOGRAFIA LINGUISTIKOARI BURUZKO GALDERA ESPEZIFIKOAK

6. Hastapenak toka:

- Non ikasi zenuen toka mintzatzen? Norekin?
- Noiz hasi zinen toka mintzatzen?
- Zu norbaitekin ari zinen toka/noka etxean?

7. Hizkuntza-mudantza:

- Gertatu izan zaizu zure inguruan norbaitekin harremana zuka hastea eta momentu baten buruan tokara pasatzea? Hala bada, zergatik?
- Trantsizioa gogoan duzu? Zergatik tokara pasa zineten zure ustez? Pixka bat kontatu, hastapeneko sentipenak, zailtasunak... (hizkuntza mudantza bat gertatu bada)

8. Tokaren gaur egungo erabilpena:

- Nola ari zira gehien oro har? Toka, noka ala zuka?
- Norekin ari zira zuka? Ze egoeratan?

- Norekin toka? Ze egoeratan?
- Zeren arabera ari zira toka edo zuka?
- Lagunekin nola ari zira gehien, toka ala zuka?
- Zein lagunekin ari zira toka? Zeinekin zuka?
- Jadanik aritu izan zira noka? Badakizu aritzen?

## **GALDERA METALINGUISTIKO OROKORRAK**

9. Toka/noka vs zuka:

- Ze ezberdintasun sentitzen duzu toka/noka eta eztabada/zukaren artean?
- Zer ematen dizu tokak, zukak ematen ez dizuna?

10. Noka vs toka:

- Zeri lotzen duzu toka? Eta noka?
- Berdin ikusten duzu gizonak toka mintzatzea eta emazteak noka?
- Eta gizonen toka mintzatzea eta emazteei noka?

11. Hika Ortzaizen gaur egun:

- Uste duzu hikak presentzia handia duela Ortzaizen?
- Nor ari da hika oro har? (adina, sexua, euskaldun/erdaldun...)
- Gizon eta emazteek berdin-berdin baliatzen dute zure ustez?
- Zure ustez jendeak ze iritzi du nokaz? eta tokaz?

12. Nokaren egoera Ortzaizen gaur egun:

- Gaur egun nor uste duzu mintzo dela noka Ortzaizen? Norekin?
- Noka osagarri onean dela erran zenezake?
- Ze pentsatzen duzu hortaz?
- Zure ustez zergatik gaur egun gehien bat mutikoei toka mintzo zaie baina neskei zuka?
- Zer suposatuko luke zuretako noka galtzeak? eta toka galtzeak?

## **GALDERA METALINGUISTIKO ESPEZIFIKOAK**

13. Jakin nahiko zenuke noka ikasi eta aritu? Bai bada, zergatik? Zer ekarriko lizuke?

14. Aritzekotan, norekin arituko zinateke?

15. Beste oharririk?

#### 7.4. Elkarrizketa glotobiografiko baten transkribapen bat

Data: 2024/02/28

Lekukoak: JAIB66 eta MAIB68

MAIB68: Mutikoak...

JAIB66: Mutikoak beti pilotan ai zien, eta artzen zien, eskuaraz artzen ahal ziren, hiri ta... paret eta karranbol eta!

MAIB68: “Karranbol”...

JAIB66: Hori frantsesez zunan, *mais*...

MAIB68: JEGA62k erten din mutikoen artian beti eskuaraz mintza mais posible da eh!

JAIB66: Zer, beti eskuaraz mintzo ziela?

MAIB68: Ba. Beti

JAIB66: Ffff... *Il idéalise non là un peu?* Beharba...

MAIB68: Beharba eh!

JAIB66: Gu hasteko ez!

MAIB68: Ah beh ez *mais*..

JAIB66: Ta hanbat gaixto artzen baginen!

ELK<sup>69</sup>: Beaz nesker gehio debekatzen zen mutikor bano?

JAIB66: Eztakit! Ni eniz orroit mutikoak frantsesez, euh eskuaraz entzunik, gure...

MAIB68: Belaunaldikoak?

JAIB66: Ba. Pilotan beharba, *mais* ez ginen, *on n’était pas dans la même cour!*

ELK: Ta gero kanpoan ta ai zinezten to ta noka gero gaztiak, haurrak?

JAIB66: Frantsesez ai ginen. Frantsesez, ta orduko neskak, fin gure, klasa bereko neskak, uai ikusten tuulaik, eskuaraz mintzo bagira, noka aiko gira.

MAIB68: Nor adibidez?

---

<sup>69</sup> Elkarrizketatzailea

JAIB66: Mailuxa, Amaia<sup>70</sup>, ni noka aiko niz, aiko nun horiikin! Eskuara eskualdun, eskualtzal, eskuaradunekin, noka aiko nun! Maiana, Maitexa... Ene eskolako neskek.

MAIB68: Ni re! Luxi ta horiikin, alta!

JAIB66: Ba ba ni re beti!

MAIB68: Alta, lehen frantsesez ai gintunan horiikin!

JAIB66: Ba ba.

MAIB68: Eskolan, bana geoztik, hara.

JAIB66: Ba.

ELK: Etzinezten bate ari eskuaraz heekin ttipian ? Boh bai, pixkat naski?

JAIB66: Bah, bakizu euh, kukuka aizan behar zelaik, alukeria erraiten, ordian. Ni hasteko eh.

MAIB68: Ze gordezka?

JAIB66: Bai. Besteek ez konpreintzeko edo hola.

MAIB68: Edo erakaslek ez konpreitzeko?

JAIB66: Ba.

ELK: Ta mutikor e frantsesez mintzo zinezten?

JAIB66: Ba. Mais eskuaraz ere, *mais*...

MAIB68: Nik usteinat eskolatik giilatekoan Peiorekin adibidez eskuaraz ai nintzala.

JAIB66: Eskuaraz bistan dun, beti horiikin! Ahaize Mendikokin?

MAIB68: Ahaize Mendikokin ta. Ahaize Mendiko mutiko horiikin, horiek zanpa-zanpa jiten zien, lau kilometra egun guziz.

JAIB66: Ba.

MAIB68: Goiz ats.

JAIB66: Horiikin pipatzen hasi gintunan!

MAIB68: Ni hasteko ba.

JAIB66: Ah ni re!

---

<sup>70</sup> Transkribapen honetan lekukoek aipatu dituzten jendeen izenak fikziozkoak dira egiazkoen anonimotasuna atxikitzeko.

MAIB68: *Putain...*

JAIB66: *Tu t'imagines ? J'avais dix ans! Eh MAIB65, oui toi, à cause de toi!* [irriak].

MAIB68: Ene falta!

JAIB66: Ba araz!

MAIB68: Nik hamabost nintinan!

JAIB66: Ez!

MAIB68: Ze Peiorekin?

JAIB66: *Quand tu es rentrée en sixième!* Gero eztun kusi? Peio ta bestiak, [etxearen izena]kokin ta iili hiz?

MAIB68: Eztut uste, Peiookin, ni. Kolegiotik giilatekoan. Hor bada zikin untzi usina, idekia da? Aah.

JAIB66: Nik, Ahaize Mendiko horiik, *avant de rentrer en sixième.*

MAIB68: Ah ouais *mais* ni ez eh, ni enindunan, ni Peiookin hasia nun, hirugarrenian edo.

JAIB66: Fffff, hik erran hietan hasteko behin, "izan"<sup>71</sup>, ah ba, "izan euh tia zan", *je tire* ta geo "i zan hola" hhhh. [irriak]. Oh *putain*, ke guzia barneat, ze ezulak in nintina...

MAIB68: *Non mais* hor paperrezkoa zunan eh, etzunan ziarreta barnian eh. Gu artzen ginen gero supazterrean guhaur, paperrekin hola eiten ziarretak...

JAIB66: *Quelle horreur.* Zernahi pipaazi deta! Muztatzak, hartu muztatzak eta iten gintien. Jakizan baietz!

MAIB68: *Non mais* hau ametsetan aizana da noizpait, isil hadi.

JAIB66: Ta geo lapar jaten usinaan kentzeko! Ehiz ooit?

MAIB68: Bate.

JAIB66: Mingotxak.

MAIB68: Mingotxak, bah hori maite baiginin, mingotxa.

JAIB66: Ba, banan pipa usina kentzeko!

MAIB68: *Ah bon.*

JAIB66: Intoxikatia nun ni hamar urtetako [irriak] ta uai ezin geldituz [irriak]...

---

<sup>71</sup> I zan 'egin zan'

MAIB68: Ezin desintoxikatuz.

ELK: Ta beaz auzokoekin ta kartierrekoekin eskuaraz, banan beherekoekin ez?

JAIB66: Guttio. *Mais* Battitta hik klasa hin bana beti frantsesez ai gintunan.

MAIB68: Ezpeitzakin hak! Etzakinan!

JAIB66: Ba. Haatik Ahaize Mendiko mutiko horiik eta...

MAIB68: [Etxearen izena]koak eta horiik guziak...

JAIB66: Laborari seme batzu etzakitena biziki untsa frantsesa eh, ezta sekretuik eh! Behereko [etxearen izena] horiik eta gehio frantsesez ai zien banan... Gaineko triste horiik... gure gisa... *Mais* ba, hala zen!

ELK: Ta beraz kartierrekoen artian to ta noka ai zinezten ?

JAIB66: Bai.

MAIB68: Bai, *mais* guk ez gininan kartierrekoik hor gure adinekoik, [etxearen izena]ko neskak ?

JAIB66: Bah ez tin inportik, bestekin...

MAIB68: Hara, Ahaize Mendikoekin bai.

JAIB66: Eta kartierrekoekin, BEBI75 ta horiikin e aiko noka edo toka.

MAIB68: *Mais* betidanik hala aizan girea edo ez?

JAIB66: Ni ba hasteko. Hori seur!

MAIB68: *Ouais mais* hau ezta sekulan atera hortik! *Enfin* ezta atera, beti hor bizi izana da. Nik eztakinat.

JAIB66: Ni edo ixilik eta barnian kukutuik, edo toka ta noka. [irriak]. *Non mais* egia da!

ELK: Pollita da hori.

JAIB66: *Mais* ez, ezta pollit ez.

MAIB68: Hau eskapa erran dauzu undarrealdian, eskapatzen zela auzoko norbait jiten zelaik gure etxe aitzineat edo hola, beldur baitzen ez untsa mintzatzia eskuaraz beh... eskapatzen zen!

ELK: Ah bai eh?

JAIB66: Enakin eh. Enakin untsa eskuara.

MAIB68: Ehiakin?



JAIB66: Ez. Eta hek etzakiten frantsesa! Ez, etzakitenan! Piarres ta horiik, ui uuui ama. Kusten niilaik arribatzen...

MAIB68: Untsa xirea, ta hau fffit.

ELK: Ta [etxearen izena]koer ta nola ai zizte, zuka ala noka ?

JAIB66: Ba ba, biak.

MAIB68: Hein? AMLAH75i!

JAIB66: Beh, noka!

MAIB68: Ah, biak erten dun!

JAIB66: Eh beh gizoner toka!

MAIB68: Ah! Bai, biak, ez zuka!

ELK: Ta MALAH70ri ere noka ?

MAIB68: Bai.

JAIB66: Ba araz!

ELK: Eta Ahaize Mendikoer?

JAIB66: Uai?

ELK: Bai.

JAIB66: Toka!

MAIB68: Mutikoer eta ?

JAIB66: Bai toka !

MAIB68: Bai beti toka!

ELK: Zaharro izanik e?

JAIB66: Ba.

ELK: Eta hango nesker ?

JAIB66: Noka!

MAIB68: Nor dira Ahaize Mendiko neskak? [etxearen izena]koak...

JAIB66: [etxearen izena]koak, eta Joana ikusten baun..

MAIB68: Ah bai.

JAIB66: Noka!

MAIB68: Bai, hain seur.

JAIB66: Eni hasteko etzetan bururat jin e zu erraite..

MAIB68: Boh beh eztakinat hori, zenta aspaldian enun mintzatu...

JAIB66: Eztu inportik! Ah *non* ni hasteko, no erraan dakenat!

MAIB68: Eta Maitenari ta? No?

JAIB66: Nik ba. Joan behinatu kusteia.

MAIB68: Toh?

JAIB66: Zendako ez?

MAIB68: Berdin.

ELK: Ta herriko azpiko gazteekin ta ?

MAIB68: Karrikakoak!

ELK: Karrikakoekin?

MAIB68: Hala erten ginin, karrikakoak.

JAIB66: Nor den depende!

ELK: *Ah bon*, ta beaz norrekin ?

JAIB66: Aaah gure jeneazionekokin ni hasteko, denekin no ta to eh! Eskuaraz mintzatu behar balin baut, bah, uai, uai, to ta no, dener!

ELK: Ta lehenore?

JAIB66: Ba!

ELK: Frantsesez ai zinela erran duzu!

JAIB66: Beh hori da! Mais eskuaraz ai balin baniz... Banakin eh ene jeneazioneko horiin doia, frantses, edo eskuara. Gero gizon zaharrekin mintzatzeko ta, hek hasten balin bazien hau ta hua kondatzen edo... ordion nintzan beldur! Sobera luzatzen balin bazen edo teknikoa bilakatzen balin bazen edo... Oono re eh!

ELK: Ah bai eh?

JAIB66: Ba. Eztut pitsik konpreintzen!

MAIB68: Hi kokatia hiz nunbait eh!

JAIB66: Ba!

MAIB68: Behar huke deskokatu! Askatu!

JAIB66: Eztinat ene buria hala senditzen eh, *mais bon*.

MAIB68: Ze, kokatia ?

JAIB66: Ba. *Mais je m'en fous* MAIB68!

MAIB68: Hori ertia bera, erran nahi din ehizala hain gostian! Erten dun *tu t'en fous*, *mais...* dun... Nik usteinat *tu t'en fous pas*!

JAIB66: Bainan eztun... *Moi je m'en fous, toi tu t'en fous pas que je dise "zakamena", et moi je m'en fous ! "Anavana", je m'en fous !*

ELK: "Zakamena" zer da?

MAIB68: *Le sac à main*!

JAIB66: Eztu soportatzen ahal! *Mais moi je m'en fiche*, baakinat denek konpreintia dutela!

MAIB68: *Mais*, hauxilik! Mais nik atxemaiten dinat hor, eztunala errespetatzen eskuara! Baun zeit hor! Futitzia hortaz, eztinat xuxen atxemaiten, *mais bon*. Goazen aitzina.

JAIB66: *My god*.

MAIB68: Are.

ELK: Beraz nor zen ari to ta noka herrian?

JAIB66: Lehen aspaldi?

MAIB68: Buhamiak eta jende xumiak!

JAIB66: *Non*, denak, MAIB68, *arrête de dire ça*. Denak toka ta noka ai zitunan.

MAIB68: Nor, zoin denboraz garaietaz mintzo hiz?

JAIB66: *Bon* soizan, Anita ta Mailuxa ta, horiik, klasako neska horiik eta, eni biziki bitxi in detan horiik elgarren artian noka aitzea!

MAIB68: Bana noka ai zitunan.

ELK: Nor ziren horiik ?

MAIB68: TEIN61 ta horiin ama, eta gure [etxearen izena]ko horiek, beaz euh lehen auzo horiek, Mailuxa eta Peio. Horiek eskolako launak, euh MAETX83 ta horiek denak noka! Ba. Zendako biziki bitxi in zaunan?

JAIB66: Ah nik beh zahar batzuk hola noka, *ça m'avait fait drôle*. Zenta guk horik, zuka ai baiginen horier.

MAIB68: *Mais* bai! Gure amaan adina zitenan horiik!

JAIB66: Ta gure amak etzinan erraan no nehorri guri salbu!

MAIB68: *Mais* ezpeitzen hor sortia ama!

JAIB66: Eh beh ba, hara! Baakinat.

MAIB68: Gure ama Iruleitik jin zen, beraz, horiekin zuka mintzo zunan!

JAIB66: Ba! Etzunan nehorekin gurekin bezik ari noka gure ama.

ELK: Laun hurbila zin bestia beraz?

JAIB66: Beh beste bi lagunak, beh eztakit, usaia gu bezala, Ortzainen, toka ta noka! artzia...

MAIB68: Lagun hurbila nok?

ELK: Zien amak, beste mazte...

JAIB66: Gure amak ez eh. Ah *mais* zuka ai zen gure ama.

MAIB68: Gure ama beti zuka ari zen deneri.

ELK: Dener?

JAIB66: Dener! Hor beste bi mazte tut nik elgarri...

ELK: Aaaah ados. Ziin ama zuka deneri zieri salbu. Ta gero no?

JAIB66: Guri no.

MAIB68: No ba ba, no. *Mais* gure ama ezpeitzen horgoa aldiz mazte horiek elgarrekin egonak ziren eskolan, beraz euh...

ELK: Beraz zendako bitxi iten dautzu?

JAIB66: Eztakit! Zaharrak baitziren, eta bitxi in zetan biziki!

MAIB68: Zaharrak baitzien eta...

JAIB66: Elgarri hola kustia.

MAIB68: Hik uste hin no hori haurrer zela bakarrik.

JAIB66: Doakai! Eztakit. Orroit niz bitxi in zatala.

MAIB68: Aña, biziki azkar da, Aña!

JAIB66: Ze musika pitiliak tuzten [ahapeka].

ELK: Ados. Eta erran baituzu leheno jendea aise gehio ai zela to ta noka.

JAIB66: Bai. Gizonak hasteko ba!

MAIB68: Gure aita beti denekin!

JAIB66: Ba.

MAIB68: Ta gure aitak erten zina no Anitari?

JAIB66: Ba.

MAIB68: *Ah bon?* Enun orroit hortaz. Ba?

JAIB66: Buria galdua hasteko ba!

MAIB68: Ba *mais* leheno!

JAIB66: Eztakinat, beharba ez.

MAIB68: Maddiri ta?

JAIB66: Ez!

MAIB68: Ah.

JAIB66: Ez!

MAIB68: MAETX83ri?

JAIB66: Ez. *Il me semble pas qu'il parlait...*

MAIB68: Aaah.

JAIB66: ! Zuka beharba mazter, *oui oui*. "Heldu ba".

MAIB68: "Iilki? Eonki? Ba hi re heldu!" Ez.

JAIB66: Hori *c'est le contraire, c'est lui qui lui avait dit* "eonki". Parce qu'il était en train de [?]. *Et elle elle lui avait répondu* "bai, zu re heldu". Zu re heldu, zuka, zure heldu, *ouais*.

MAIB68: Beaz noka guttio baliatia da to bano.

JAIB66: Ba.

ELK: Ta deia ordian zien aitamen belaunaldian guttio zen?

JAIB66: Ene usteko ba. Ba ba.

MAIB68: Zenta mutikoek etzuten...

JAIB66: Guri [etxearen izena]koak eta noka mintzo zitunan beti!

MAIB68: Ba guri ba.

JAIB66: Gu doakai buhamotaik behala gintunan! Aiseo erten da no eh *aux trastou* eh!

MAIB68: *Aux petites gens?*

JAIB66: Oui. Beharba horrek iten du eh!

ELK: Zek ?

MAIB68: Eh beh gu... *la racaille* baiginen!

ELK: *La racaille ?*

JAIB66: Bah, fin eztakit nola erran! *Les petites gens.*

MAIB68: Familia enfin bon gure aitamak pobriak enfin pobriak, bai!

JAIB66: Ba araz!

MAIB68: Pobriak ziren! Etxalde ttipia zen gure etxia!

ELK: Ta besteak abeatso ziren?

JAIB66: Aise!

MAIB68: Gu bano, denak gu bano! [Etxearen izena]koak salbu.

JAIB66: Oh [etxearen izena]koak...

MAIB68: [Etxearen izena]koak eta gure etxaldia berdintsu, hein berekoa.

JAIB66: Ba. [Etxearen izena]koak e, beharba... Haundixo, *mais*, ez sobera.

MAIB68: Han e bazitenan aski lan, denen hazten, puuf...

ELK: Beraz berdin horri lotia zien ustez ?

MAIB68: Ah, baditake eh hortaik!

JAIB66: Ba, ta gero gu dena, denak neskak, denak euh... aski aise mintzo...

MAIB68: Eta ?

JAIB66: *Mais non mais, on était pas des précieuses!*

MAIB68: Ah.

JAIB66: Eztakit nola erran *mais*...

MAIB68: Ez herabeak? *Pas timides*...

JAIB66: *Moi un peu oui mais... bon.*

MAIB68: Bah hik Piarres ikusten hiilaik!

JAIB66: *No nonon pas par timidité, mais...*

MAIB68: *Le stress.*

JAIB66: *Oui*, ztrezaangatik.

MAIB68: Hori aipatzen dute uai eskuarari buruzko ztreza hori.

JAIB66: Ze ez jakitia?

MAIB68: Beh ze sortzen din jenden baitan hola...

JAIB66: Ez jakitia?

MAIB68: Ez jakitiak edo, hala, beldur bat hola euh... Mirenek seur nun badiila hori.

JAIB66: Familia bain, badakin aski.

MAIB68: *Ouais mais* ez tin kontzientzia badakiila aski, beraz beti pixkat euh... Zenta gaztian mementoatez bilduin hor euh... *voilà*. Bilduin *voilà*, holako... jende batzuinganik, eta gero... Behar da kasu man eh.

ELK: Ta beaz noka mintzo zirenak, nor ziren funtsean?

JAIB66: Gure gazte euh nik eztakit besteak sobera nola mintzo ziren! Familietan hasteko, haurriden artian, ba. Denetan hori.

MAIB68: Noka.

JAIB66: Bai.

MAIB68: [Etxearen izena]ko mutikoak nesker, no. Bai.

JAIB66: Ba. *Mais* euh zaharretan, hara, *Gaxuxa avec la vieille* [etxearen izena], hehhh uai ehun ta hooi urte seurik baluzkete, bana horiek elgarrekin beti noka ai zitunan mazte horiik! Alta *elles étaient précieuses, mais c'étaient deux soeurs!* Familietan toka ta noka mintzo zunan jendia. Ni seur nun hortaz. Mailuxa bere ahizpekin ta noka ai dun eh. Ai zunan. Izanik e serora edo apeza...

ELK: Beaz gehio etxe barnetan etxe kanpotan bano?

JAIB66: Nik usteut baietz. Gero, kanpoan, gizonak ba, toka. Anitz. Anitz anitz. *Oui oui oui*  
MAIB68.

MAIB68: Bai bana neskak ere elgarrekin!

JAIB66: Ba, jenerazione berian.

MAIB68: Hortakoak, bai.

JAIB66: Ba. *Mais* gu partikularzki, gu, aise mintzo gitun noka. Aise beste batzuk bano gehio.

MAIB68: Mmmh.

ELK: Zendako hori?

JAIB66: Eztakit, trastiak baigira, doaikai. Beti gauza bera.

ELK: Zeuzu “trastia” ?

MAIB68: *Racaille!* Ez, eztakit, sentsu hortan da.

JAIB66: *Ouais* eztakit *comment c’est* “traste”, “ze neska trast ze trastia”! Nola erten da frantsesez?

ELK: Edo eskuaraz, beste hitz batez?

MAIB68: Pixkat arruntak ?

JAIB66: *Ouais voilà, on va dire ça.*

MAIB68: *C’est dégueulasse.*

JAIB66: *C’est dégueulasse eh!*

ELK: Gogorak zizte zien buriakin...

JAIB66: *Non mais* etzitela kexa, baakiu xuxen zer gien eh.

ELK: Eztut dudaik. [irriak]

JAIB66: Izanik e arruntak! Ezta problemaik. *Peut-être trop à l’aise? Trop... Oui.*

ELK: *Trop?*

JAIB66: *Trop facilement!* Nik eztut euh nik eztakit nori erran nezaken zu Orzaizen, ni bano giilokor...

MAIB68: Giilo, gazteagor?

JAIB66: Gazteagor. Bati re ez.

ELK: Ze, no?

JAIB66: Enezake erran ez, ba, no erran nezake dener!

ELK: Gazteer ere?

JAIB66: Ba. *Mais bon* eniz hala mintzo, banan euh...



MAIB68: Eskuaraz mintzo banintz...

JAIB66: Ez, MAPE25i ta zuka ai nun.

MAIB68: Ah *merde*.

JAIB66: *Mais* enintaken bate jenatia no erteko! Eta hamar urte lehenokor ere ez!

MAIB68: *Mais* ehiz jenatia, *mais* eztun iten! Zendako ? Frantsesez mintzo beihiz?

JAIB66: Uai kanbiatia baita. Uai ezpeitu nehok iten gehio, to ta no!

MAIB68: *Mais*... behinau berriz hasi!

JAIB66: *Ça va leur faire drôle eh!*

MAIB68: Bitxi da hori, ni haurrer ikastolan ta mintzo niz noka errexki, *mais* depende ze izaiteko haurra den.

JAIB66: Ah *mais tu vois!*

MAIB68: Bakizu neska xantxan bat hola, bakizu, beh bai, xantxan bakizu...

JAIB66: Eh beh *voilà*, delako trapu aireat, zeit!

MAIB68: Bah, holako, pixkat pottoloa baldin bada, ta... [irriak]. Aldiz...

JAIB66: *une précieuse*...

MAIB68: aldiz Jonen alabari ez!

JAIB66: *Qu'est-ce qu'elle est jolie c'te fille!*

MAIB68: Pollita da ta gero isila da ta, bakizu, diskreta ta.

JAIB66: Eztinat sekulan holako neska pollitik kusi.

MAIB68: Ah *bon?*

JAIB66: Eh *je sais pas pourquoi*.

MAIB68: Ah *bon*.

JAIB66: Biziki, ezta bate hala eh...

MAIB68: Bah hala da ba, pollita da, *mais* ez..

JAIB66: *Mais non mais* biiiziki biziki pollita atxemaiten dinat. Ze beitate extia diina!

MAIB68: Eh *oui*, ta halakoati euh... noka mintzatzea bitxi...

JAIB66: Eztakozu pusalakoa emaiten ahal, "are, mui hadi", arrunt, zinez preziosa da eh!

ELK: Beraz etzira neska guziekin ari noka ikastolan ?

MAIB68: Ez.

ELK: Ta mutiko guziekin toka?

MAIB68: Ez.

ELK: Eztare?

MAIB65: Eztare.

JAIB66: *Tu vois, c'est dégueulasse eh quand même!* Hartako dira guri denak noka! [irriak]

ELK: Zer da *dégueulasse*?

MAIB68: Eh beh holako...

JAIB66: Difeentzia eitea.

MAIB68: *Discrimination.*

JAIB66: Bai.

MAIB68: Boh, *tant pis*, hola da, ezta... *Dégueulasse* mais...

JAIB66: Mais *tu vois* gu Elena, Mariana ta horiikin beti noka ai gitun!

MAIB68: Ba.

JAIB66: Ta eni hasteko etzetan burian emanen e beste gisan mintzatzia! Maria ta... No, bistan dena.

MAIB68: Gure eskolako launekin azkenian!

JAIB66: Ouais. Ta [etxearen izena], bestia ri re ba toka, lehengo jaun merari. Nik uaiakoari re to erten dakenat!

MAIB68: Erran behar e!

ELK: Nola ikusia zen denboran toka ta noka artzea? Aipu zen? *C'était un sujet* edo?

JAIB66: Enetako naturala zen. Uai bano gehio. *Mais, c'était normal*, MAIB68, de parler noka et toka! *Personne ne nous a jamais dit quoique ce soit...*

MAIB68: *Mais* ez!

JAIB66: Uai da pixkat euh... "olala *quel manque de respect*" edo, uai dira aitzen holako gauzak!

ELK: Lehenoz etziren aitzen holakoak?

JAIB66: Jia! Nik hasteko eztut behin e aitu.

MAIB68: Mais ez bainan naturalki zaharragoer beti eskuaraz bah beti zuka ari gintunan!

JAIB66: Ba.

MAIB68: Beraz deia iten gininan diferentzia guhaurek jakin gabe zendako!

JAIB66: Ba.

MAIB68: Hola zunan.

JAIB66: Naturalki!

MAIB68: Naturalki.

JAIB66: Mais naturala zen, ez dener eh zaharrogor e! Xan ta horiik batine antsu hooi, boh ez hooi *mais*...

MAIB68: Boh *mais* horiekin haunditiak gitun! Horiik ondoan izanez!

JAIB66: Pettan eta nik atzo re kusiainat ta...

[kalaka]

ELK: Ta beaz hor norrekin ai zizte noka gaur egun? Bon zu, badakit gutti gora behera...

JAIB66: Eh beh ni horiikin, auzo horiikin! Lehengo gure...

MAIB68: Eskolako launekin.

JAIB66: Ba, eskolako edo...

MAIB68: Gaztetasun, gazte denborako launekin?

JAIB66: Eta ezpala badira launak ere! Beh soizan Maddi eta holako batzu, eztitun gure lagunak! *Mais* eskuaraz mintzo balin bagira, mintzatuko ni hasteko no aituikoin.

MAIB68: Pfff.

JAIB66: Quoi ?

MAIB68: Eztakinat, nik eztakinat gehio...

ELK: Adin bera zizte Maddi horrekin?

JAIB66: Bate!

MAIB68: Ez, gu bano zaharroo da.

ELK: Ah. Ah bai ?

JAIB66: Mais, Luixa [etxearen izena] ikusten balin baun.

MAIB68: Luixa [etxearen izena]?

JAIB66: Nik no erraan dakenat, *mais* bistan dun MAIB68!

MAIB68: *Ouais mais* horiek hor zitunan hala ere eskolan, *centre ménager* hortan, gu tipio ginelaik eta!

ELK: Eta kartier berekoak dira.

JAIB66: Bate!

ELK: *Ah bon?* Ah [etxearen izena] badira bi ?

JAIB66: Ba.

MAIB68: Ahaizen [etxearen izena] ta Uharzan [etxearen izena]. E... nik horir pentsatzen dutalaik, eskola libroari pentsatzen dinat.

JAIB66: *Bon d'accord*, beaz hartukoinau noit eskola publikoa.. Bah, behereko eskolan.

MAIB68: Publikoko noit?

JAIB66: Ba. Nor zen han?

MAIB68: Zoin neska?

JAIB66: Eztakit, nor zien neskak

MAIB68: Bah, behereko eskolan hastapen batian nesken eskola zen eh, ta mutikoak gainian zien gainekoan han. Ta gero... eztakit noiz.

JAIB66: Oh ni eztakit nookin ai nizan zuka! Uaiko gaztekin...

ELK: Ta zure adin berekokin etzira nehorekin ari zuka?

JAIB66: *Jia, dis donc, ça va pas?* Edo frantsesez, edo noka.

ELK: Ta zu?

JAIB66: MAIB68 berdin.

MAIB68: Noka, bai bai.

ELK: Etzira nehorekin ari zuka?

JAIB66: Bere adinekokin?

ELK: Bai, apepres.

MAIB68: Eztinat uste. Luixa ta horiikin eztakinat!

ELK: Kattalin?

MAIB68: Ah no erran nezake Kattalini!

JAIB66: Kattalin [etxearen izena]? Elle est plus jeune que nous! Pffff.

ELK: Ah bai.

MAIB68: Ah ba? Ze adin du Kattalineak ? JEGA62 da zaharrena ?

ELK: Ez, Kattalin da zaharrena. 59.

MAIB68: Ah oui, hik bano bi guttio.

JAIB66: Ni 57.

MAIB68: Ta ni 55.

ELK: Ah, bi, hurbil zizte!

JAIB66: Oui, bah, gu bano gaztio da!

MAIB68: *Non mais* ados, *mais* Kattalini oai no erran nezake, bai bai.

JAIB66: Baaki eskuara Kattalineak?

ELK: Ba.

MAIB68: Nun bizi da, beti han ?